

2015

2015ko abendua

[EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EAE- N]

Amaierako txostena: 2014ko eta 2015eko
lehen sei hileko datuak

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EAE-N

2015eko abendua



EDE Fundazioko Ikerketa Sozialeko Zerbitzuak egin du txosten hau, Emakunderentzat.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
ESPARRUA	7
Emakumeen aurkako indarkeria: kontzeptuak	7
Emakumeen aurkako indarkeria modu askotarikoak	11
Metodologiari buruzko ohar laburrak.....	14
Arau mugarriak.....	16
Informazio-iturriei buruzko ohar batzuk.....	25
DATUAK I.: arazoaren tamaina eta lotutako faktoreak.....	28
Emakumeen aurkako indarkeriaren eragina: zenbat pertsonari eragiten die indarkeria mota bakoitzak?	28
Erregistro ofizialetako datu orokor batzuk	28
Indarkeria ezkutua, inkestetako datu orokor batzuk.....	38
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria.....	44
Familia barneko beste indarkeria mota batzuk.....	50
Indarkeria sexuala familiatik kanpo	52
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen eta erasotzaileen ezaugarriak: Zer emakumek pairatzen dute? Zer gizonak erabiltzen dute?	57
Emakumeen aurkako indarkeria eta adina	57
Jatorria eta emakumeen aurkako indarkeria	64
Ikasketa-maila eta emakumeen aurkako indarkeria.....	68
Diru-sarrerak edo lan-egoera eta emakumeen aurkako indarkeria	69
Bizilekua eta emakumeen aurkako indarkeria	70
Dibertsitate funtzionala eta emakumeen aurkako indarkeria	71
Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak: zer adierazpen zehatz ditu indarkeria horrek? Zer ondorio dakartza?	73
Aurrerapausoak eta oztopoak: zer aurrerapauso ematen ari dira emakumeak? Zer zailtasun dituzte?.....	77
Emakumeen aurrerapausoak	77
Oztopoak:	81
Herritarrek emakumeen aurkako indarkeriaren gainean duten pertzepzioa: zer sentsibilizazio-maila dute herritarrek? Gezurrezko zer mito daude?	84
Gezurrezko mitoak	86
Larritasuna.....	89
DATUAK II: erantzun instituzionala	92

Informazioa eta orientazioa:	95
Gizarte-laguntza osoa:	97
Orientazio eta laguntza juridikoa:	105
Laguntza ekonomikoak:	109
Babes-neurriak:	116
Enpleguaren alorreko laguntzak	123
Etxebizitzaren alorreko laguntzak	127
Hezkuntzaren alorreko laguntzak	129
Laguntzak emakume atzerritarrei	130
Beste prebentzio-ekimen batzuk	131
HAUSNARKETAK: arazoaren nolakoa eta erantzun egokiak eman beharraren erronka.....	135
Arazoaren aitortzaren gainekoak... ..	135
Informazioa jasotzeko sistemen gaineko hausnarketak... ..	137
Prebentzioaren gainekoak.....	139
Legediaren gainekoak.....	142
Laguntzaren gainekoak... ..	144
DOKUMENTU-ERREFERENTZIEN DOSSIERRA	¡Error! Marcador no definido.
Txostenak eta ikerlanak	¡Error! Marcador no definido.
Araubidea	¡Error! Marcador no definido.
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	¡Error! Marcador no definido.
Emakumeen aurkako indarkeria	¡Error! Marcador no definido.
Datuak lortzeko iturriak	¡Error! Marcador no definido.
Lehen mailako iturriak.....	¡Error! Marcador no definido.
Bigarren mailako iturriak.....	¡Error! Marcador no definido.
Erreferentziazko instituzioak eta erakundeak emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean	¡Error! Marcador no definido.

SARRERA

Hamasei urte igaro dira Nazio Batuen Erakundeak azaroaren 25a “Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna” izendatu zuenetik eta, gaur egun, premiazkoa da oraindik indarkeria mota hori salatzea eta borrokatzea; izan ere, bizitzako eremu askotan (eskolan, lanean, gizartean, politikan, familian eta beste hainbat eremutan) erabiltzen da indarkeria emakumeen aurka, modu askotan: indarkeria fisikoa erabilita, hitzez, keinuen eta bitarteko elektronikoak bidez, etab. Indarkeria erabiltzean, gizartean errotutako balio matxistek bultzatuta jarduten dute gizonezkoek, eta min psikologikoa, sexuala, fisikoa eta/edo morala eragin nahi izaten diete emakumeei.

Erakundeek bildu dituzten datuek adierazitako ehunekoek agerian uzten dute arazoaren tamaina eta larritasuna. Europako Kontseiluaren parlamentu-biltzarrak *Familia europarren etxeko indarkeriari buruzko txostena* argitaratu zuen 2002an, eta hau adierazten du txosten horrek: “senarrak, mutil-lagunak, senargaiak edo aitak erabilitako indarkeria da 16 eta 44 urte bitarteko emakumeei heriotza eta baliaezintasun iraunkorra dakarkien lehen kausa. Adin tarte horretan, minbiziak, trafiko-istripuek edo gerrek baino emakume gehiago hiltzen ditu indarkeria-mota horrek”¹.

Beijing hirian 1995. urtean egin zen *Emakumeen IV. Mundu Konferentzian* aitortu zen emakumeen aurkako indarkeria oztopo zaiola herrien berdintasunari, garapenari eta bakeari, eragotzi egiten baitu emakumeek beraien oinarritzko eskubideak eta askatasunak erabil ditzaten. Indarkeria hori, gainera, "historian emakumeen eta gizonen artean izan diren botere-harreman desorekatuen adierazpena da, eta ondorio izan ditu gizonezkoen dominazioa, diskriminazioa eta emakumeek garapen osorik ezin iristea". Auzia, beraz, kulturala da, eta ez biologikoa edo etxe-eremukoa.

Emakumeen aurkako indarkeriak genero-osagai bat du, ezinbestekoa datu horiek azaltzeko. Emakumeen erakundeek eta mugimenduek mundu osoan egindako lan handiaren bultzadaz, nazioarteko erakundeek aitortu dute gure gizartean indarrean dirauen sexu-genero sistemaren diskriminazioen eta desberdintasunen ondorio dela indarkeria hori; horrenbestez, arazoak utzi egin dio eremu pribatuko arazo izateari, eta estatuen erantzukizuna da gaur egun.

Hori horrela, *Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren 2011ko hitzarmena* da nazioartean eratu den arau-tresna osoenetako bat, European indarkeria modu horren aurka egiteko mekanismo juridiko erkideak eratu baititu. *Istanbuleko Hitzarmena* izenez da ezaguna tresna hori, eta hau aitortzen du hitzaurrean: “emakumeen eta gizonen arteko berdintasun juridikoa eta izatezkoa lortzea elementu giltzarria da emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko”; “emakumeen eta gizonen arteko egoera desorekatu historikoaren adierazpena da emakumeen aurkako indarkeria, eta horren ondorio dira gizonezkoek emakumezkoak diskriminatzea eta emakumeei burujabetza osoa ukatzea” eta “generoan oinarritzen da emakumeen aurkako indarkeriaren

¹ EUROPAKO KONTSEILUA. *Europako Kontseilua eta genero-indarkeria. Emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko kanpaina europarraren barnean (2006-2008) egindako agiriak*. Madril: Berdintasun Ministerioa. Lankidetzeta eta Harreman Instituzionalen Zuzendariordetza Nagusia, 2009. Bilduma: Contra la Violencia de Género. 4. agiria.

egiturazko izaera, eta emakumeen aurkako indarkeria da emakumeak gizonezkoekiko mendetasun-egoeran izatea dakarren gizarte-mekanismo erabakigarrietako bat”.²

Gogoan izan behar da emakumeen aurkako indarkeriak mundu osoan eragiten dituela heriotzak eta sufrimendua, hainbat eta hainbat emakume minez eta beldurrez bizitzea dakarrela, eta ondorio horiek, gainera, eragina dutela emakumeen familiengan, adiskideengan eta, oro har, gizarte osoarengan. Pertsona guztiona da emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa, ezin baitira isilpean gorde giza eskubideen urrapen larriak dakartzaten jokabideak; izan ere, urratu egiten dira, besteak beste, bizitzarako eskubidea, osotasun fisiko eta psikorako eskubidea, torturarik eta tratu apalesgarri edo ankerrik ez jasotzeko eskubidea eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea.

Emakumeen eta gizonen arteko egiturazko harreman desorekatuekin lotzen den neurrian, posible da emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea. Indarkeria hori desagerrarazteko, diskriminazioak desagerrarazi behar dira, emakumeen ahalduntzea eta berdintasuna sustatu behar dira, eta emakumeek giza eskubide guztiak bete-betean erabiltzen dituztela zaindu behar da. Helburu hori lortuko bada, ezinbestekoa da emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko xedea lehentasunezkoa izatea tokian-toki, estatuan eta nazioartean, eta, konpromiso politikoaren harian, egoera ikusaraztea eta behar diren baliabideak jartzea.

Zergatik egin honelako txosten bat?

Hainbat erakundek biltzen ditu, gaur egun, EAEen emakumeen aurka erabiltzen den indarkeriaren gaineko datuak, baina datu-bilketaren sistematizazioa eta homogeneousazioa ez dira beti maila berekoak. Horrez gainera, ez dago maila bat baino gehiagoko datu horiek bildu eta harremanetan jartzen dituen txostenik, eta ez da informazio horren irakurketa orokorrik egiten, ondorioak ateratzeko.

Lan honek aukera ematen du emakumeen aurkako indarkeriari buruzko jakintza handitzeko eta indartzeko, eta alor horretako politikak ikuspegi orokor batetik zuzentzeko, gaur egun han eta hemen zabalduta dagoen jakintza aintzat hartuta. Erronkak eta baliabide-sarea hobetzeko eremuak zehaztu nahi ditugu, ziur baikaude arazoaren diagnostiko zehatzago bat egitea lagungarria izango dela hari aurka egiteko behar diren baliabideak identifikatzeko.

EAEko hainbat datu kuantitatibo eta kualitatibo aztertu ditu txosten honek, erregistro ofizialekoak, baliabideak eta programak kudeatzen dituzten erakundeetakoak, ikerlanetakoak, txosten eta balantzeetakoak eta beste iturri askotakoak, bai eta beste lurralde-eremu batzuetako testuinguru-informazio adierazgarria ere, analisia aberasteko.

Hasiera batean, indarkeriari buruzko zifrak antolatu eta xehetasunez azaldu ditugu. Horren bidez, arazoak zer-nolako tamaina duen ikus dezakegu, eta agerian uzten du ezin ditugula gertakari isolatu moduan hartu senargaiek, senarrek, bikotekide ohiek edo beste gizon batzuek erasotutako edo eraildako emakumeen kasuak. Eta horren ondoren, zenbait gogoeta edo hausnarketa egin ditugu, adierazteko aurrerako urratsak eman behar direla prebentzioaren eta errekonozimenduaren alorrean, eta egokitu egin behar direla indarkeria mota horri ematen zaizkion erantzunak.

² EUROPAKO KONTSEILUA. *Europako Kontseiluaren hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzekoa eta borrokatzekoa. Istanbulko hitzarmena. 2011*

Zer dakar txosten honek?

Bigarren kapituluaren, sarreraren ostean, erreferentzia-esparru labur bat azaltzen dugu, aztertutako arazoa mugatzeko eta haren kontzeptuak zehazteko, eta zenbait metodologia-ardatzak berri emateko.

Bildu diren datu gehienak azaldu ditugu haren ondorengo bi kapituluetan; berariaz, arazoaren tamainari eta arazoari lotutako faktoreei buruzko datuak ematen ditu hirugarren kapituluak, eta laugarren kapituluak, berriz, erantzun instituzionalaren gaineko datuak azaltzen ditu.

Arazoaren gaineko zenbait hausnarketa kualitatibo eta eman beharreko erantzunen egokitasunaren gaineko gogoetak azaldu ditugu bosgarren kapituluaren. Multzokatu egin ditugu hausnarketa horiek, hobekuntzak identifikatzeko eremuz eremu: informazioa biltzeko eta zabaltzeko sistemetan egin behar diren hobekuntzak, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan egin behar diren hobekuntzak, hainbat esparrutan indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeei ematen zaien arretan egin behar diren hobekuntzak, etab.

Amaieran, erreferentzia dokumentalak eman ditugu, eta horien artean jaso ditugu, besteak beste, webguneetarako sarbideak eta estekak, lege-testuak eta Interneten eskura dauden agiriak.

ESPARRUA

Emakumeen aurkako indarkeria: kontzeptuak

Emakumeek emakume izate hutsagatik pairatzen duten indarkeriari esaten zaio emakumeen aurkako indarkeria, gizonezkoen hegemonian oinarritzen den gizartean eragiten da indarkeria hori, eta botere-harreman **desorekatuak** sorrarazten ditu emakumeen eta gizonen artean. Indarkeria mota ugari daude, sexu-genero sistemaren eraginpekoak guztiak, baina gizonezkoek erabilitako indarkeria aztertuko dugu hemen, emakumeen gaineko kontrolari eta haiekiko nagusitasunari eusteko helburu duen indarkeria, hain zuzen.

Beijingen egindako *Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentziak* (1995) adostutako Ekintzarako Plataformak adierazitakoa bere eginez, honela definitzen du emakumeen aurkako indarkeria *otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoak*: “emakumea izateagatik pairatutako edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte **fisikoa, sexual edo psikologikoa** ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”³.

Egiturazko indarkeria da emakumeen aurkako indarkeria hori, hau da, gizarte-egituraren baitan antolatu eta ezarria da, eta, horrenbestez, gizartearen baitan ulertu behar da, nahiz eta indarkeriazko jokabideak pertsona konkretuek egiten dituzten harreman pribatuetan.

Indarkeria mota hori ez da kultura, eskualde edo herrialde jakinetan eragiten, ezta gizarteetako emakume talde jakinen aurka ere. Egoera orokor horren baitan, bada alderik emakumetik emakumera (Afrikako emakumeak, Asiakoak, Hegoamerikakoak, Europakoak, neskatoak, gazteak, emakume helduak, adinekoak, lan egiten duenak, lanik gabeak...), baina guztiek bizi dute mendetasun-egoera bat gizonekiko, nahiz eta egoera horrek adierazpen anitz izan.

Mendetasun horren sorburu da, teoria feministek adierazitakoaren ildotik, lanaren sexu-banaketak ezarri duen hierarkia historiko eta unibertsala, produkzio moduek denboran iraunarazi dutena⁴. Gizarteak antolamendu sexista du, emakumeei atxikitzen zaielako ugaltze-rola eta haien esku uzten delako etxeko lanak egiteko ardura (hala, bigarren mailako garrantzia ematen zaio biziraupen-sistemari, haren balioa gutxietsiz). Bestalde, gizonak izan ohi dira produkzioko edo ekoizpeneko lanen arduradun, eta lan horiek “kontrola” dakarte maila guztietan. Sexu-genero sistemak ezaugarri, balio, funtzio eta rol jakinekin lotzen ditu sexuak, eta, horrez gain, desberdintasun bihurtzen ditu aldeak edo diferentziak. Hau da, sistema hori ez da generoak bereiztera mugatzen, generoen eta generoen barne-osagaien arteko hierarkiak ezartzen baititu; hori horrela, azpiratu egiten dira emakumeak eta emakumeei lotutako rolak, funtzioak eta ezaugarriak, eta neurriz gain balioesten dira gizonezkoei lotutakoak.

³ NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *Beijingo deklarazioa. Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia*. Beijing: Nazio Batuek, 1995.

⁴ Falcón, L. (1994). *La razón feminista*. Vindicación Feminista, Madril. Hala dio Lidia Falcón autoreak bere liburuan: “talde handi bat da emakumea, gizarte-klaseen artean ugariena, eta egiteko jakin bat betetzen du historian lanaren sexuaren arabera banaketaren ondorioz”.

Teoria feministak adierazten du patriarkatua dela⁵ (gizonezkoen menderakuntzako kultura-ereduetan oinarritutako harremanen inguruan eratutako gizarte-egitura) emakumeak, emakume izate hutsagatik, gutxiegitasun-egoeran (opresio eta esplotazioko egoeran) jartzen eta gizonen kolektiboarekiko pobrearazten dituen.

Emakumeen aurkako indarkeriaren erroak dira, batetik, historian emakumeen eta gizonen artean izan diren botere-harreman desorekatuak, eta bestetik, emakumeen aurkako diskriminazio edo bereizkeria orokortua, bai sektore publikoan, bai sektore pribatuan. Botere-desorekek, arau kultural baztertzailak eta desberdintasun ekonomikoek iraunarazi egiten dute indarkeria eta urratu egiten dituzte emakumeen giza eskubideak. Era berean, kontuan izan behar da emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa ez dela erasoetara mugatzen; aitzitik, harreman modu bat da indarkeria, pribilegioak sortu eta erasoak erabiltzen dituen, harremanen asimetria horri eutsi eta emakumeak menderatzeko.

Indarkeria hori egiturazkoa da, eta horrela **aitortzen** dute gaur egun nazioarteko erakunde ugariak. Gure autonomia-erkidegoan, nabarmentzekoa da *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmena*, alor askotako hainbat erakundek (osasun-arlokoek, polizialek, judizialek, abokatuen elkarteek, gizarte-zerbitzuek eta hezkuntzakoek) izenpetua 2009. urtean. Hitzarmen horren xedea da erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaz bermatzea, eta horren harian, behar bezala zaintzea laguntza osoa eta pertsonalizatua emango dela, inolako diskriminaziorik egin gabe; prebentzio-lana egitea, indarkeria-egoera gehiagorik izan ez dadin; biktimen autonomia eta ahalduztzea indartzea; eta efikazia eta azkartasuna bultzatzea, erantzunak berehala emateko eta ahal den neurrian saihesteko biktimizazio sekundarioa. Hauxe dio hitzarmen horren zio-azalpenak: “emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko desberdintasun-egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri, gizartearen eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek, emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu”⁶.

Gizarteak, mendez mende, sexuaren arabera esleitu izan ditu rolak eta balioak (famiariaren bidez, eskolan, legez bidez edo ohituraz eman zaio instituzio-izaera jokamolde horri), eta jokabide naturaltzat hartu izan da banaketa hori. Egoera horrek **normalizazio** erabatekoa iritsi izan du, eta orain gutxi arte, ez da auzitan jarri eremu sozial eta publikoan. Alde horretatik, hau nabarmendu behar da: “pentsamoldeak ez dira aldaketa politikoen erritmo berean aldatzen, eta kode patriarkalaren ideiek eta sinesmenek indarrean diraute herritar askorengan, nahiz eta bi generoen arteko eskubide-berdintasuna aitortzen duen gizarte demokratikoetan bizi; hori horrela, gizonen eta emakumeen arteko harremanak ulertzeko modu tradizional eta desorekatuetan sozializatu dira ikuskera horiek”⁷.

Soziologo askoren iritzia da hori dela emakume askori tratu txarrak salatzea zaila gertatzearen arrazoiak; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria normalizatzen eta indarkeria hori hautematea zailtzen duten eredu kulturalen eraginpean hazi dira emakume horiek eta beraien inguruko pertsonak. Horrez gain, sarri askotan, indarkeria hori hautematen baldin bada ere, ingurukoak isildu egiten dira edo normaltasunez hartzen dute, eta babesik gabe uzten dituzte

⁵ Teoria feministak ikerketa zorrotzak egin zituen 70eko hamarkadan “gizarte patriarkala” izendatu zuen gizarte-antolamendua aztertzeke; hala, patriarkatu zeritzon botere-nagusikerian eta gizonen emakumeekiko gailentasunean oinarritutako gizarte-antolamenduari.

⁶ EMAKUNDE. *EAE n etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. hitzarmena*, Gasteiz: Emakunde, 2009.

⁷ ALBERDI, I.; MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: “La Caixa” fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

emakumeak indarkeria salatzeke erabakia hartu behar duten unean, kontsensu tazituak urratzea eta boteretsuari aurre egitea baitakar emakume ahulduari babesteak.

Horregatik guztiagatik, emakumeen antolamendu-maila handitzen denean, handitu egiten da beren negoziatio-indarra, auzitan jartzen dute gizonezkoen autoritatea eta ahuldu egiten da patriarkatua. Hala eta guztiz ere, indarkeria mota asko pairatzen jarraitzen dute emakumeek, aurrez ezarritako botere-estatusa auzitan jarri ondoren: “lege-diskriminazioa zertxobait apaldu baldin bada ere (...), orokortu egin dira pertsonen arteko indarkeria eta tratatu txar psikologikoak, gizonak, banaka eta talde moduan, suminduta ageri baitira, izan duten botere-galerarengatik”⁸.

Horrez gainera, zenbait autorek ohartarazi dute adi begiratu behar zaiela, era berean, indarkeriaren adierazpen arinei, gizartean ikusgarritasun handirik izan ez arren, “**mikromatxismo**”⁹ moduan izenda daitezkeenei. Indarkeria horren adierazpen dira kontrol eta menderakuntzako portaera arinak, “intentsitate apalekoak” irizten direnak. Portaera naturalizatuak eta legitimatuak izaten dira, ezkutuan ageri direnak, baina emakumeenganako abusuzko jokabideak dira, emakume izate hutsagatik egiten direnak.

Gure gizartean gero eta arbuio sozial handiagoa jasotzen du emakumeen aurkako indarkeriak, baina mikromatxismoak dira, gaur egun, gizonek gehien erabiltzen dituzten tranpak, emakumeekiko “autoritatea” betearazteko, gizartearen irudiko hain “larriak” ez diren jokabideak baliatuz.

Jokabide sexistak dira horiek, gizon gehienek emakumeekiko beren gain hartzen duten “autoritate” zaharrean oinarritzen direnak, uste horrek ez baitu oraindik erabat galdu garai batean zuen legitimazioa. Manipulazio-jokabideak dira, eta beren helburua da, nahiz eta hitzez ez den halakorik adierazten, emakumeak genero-rol tradizionalak betetzen jarraitzea eta gizonen mendekotasunezko posizio gailenari eustea, gizontzat gero eta abantaila, erosotasun eta eskubide gehiago eskuratzen saiatzeko (askatasun gehiago izateko, denboraren eta espazioen erabilera handiagoa egiteko, zainduak izateko, edo etxeko lanetatik askatzeko). Hala, jokabide horien bidez, bigarren maila batean jarrarazi nahi dira emakumeak.

Gizonezkoek behin eta berriro izaten duten portaera sotil eta gogaikarri horren alderdirik arriskutsuena da oso zaila dela portaera horiek ikusaraztea eta gizartean deslegitimatzea, nahiz eta, eguneroko bizitzan, oztopoak eta zailtasunak dakartzaten, emakumeek berdintasuna iristeko bidean.

Azkenik, berariaz azpimarratu behar da emakumeen aurkako indarkeria horren kontzeptualizazioa diziplinarteko azterlan askotan **oinarrituta** dagoela, hala nola Gender Studies azterlanetan eta ikuspegi feministako azterlanetan. Berariaz azpimarratu behar da oinarri hori erabili dela, eragozpen teorikoak eta politikoak jartzen baitira azterlan horien aurkikuntzak hainbat lanetan barneratzeko (ez da ahaztu behar egiaztapen unibertsala lortutako azterlanak direla, jakintza-arlo bakoitzari dagozkion metodo eta teknika zientifikoak erabili dituztenak); hala, hainbat lan argitaratzen dira oraindik “genero-ikerketek desegokitzen jo dituzten ikuspegiak baliatuta”.

Adibide zehatzak emateko, adierazi behar da ikerketa psikologiko asko, gaur egun ere, “itsu zaizkiola (generoari), teoriak (patriarkalak) eraginda”¹⁰. Esate baterako, alor psikologikoko

⁸ CASTELLS, M. *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura*, 1998. 2. lib. El poder de la Identidad.

⁹ BONINO, L. *Los micromachismos. La Cibeles*, 2004, 2. zk., 1-4 or.

¹⁰ DELGADO C. *Por qué la violencia de género es algo diferente: reenfocando el concepto*. In POZO, M. (zuz.) *¿Podemos erradicar la violencia de género?* Granada: Comares argitaletxea, 2015

zenbait azterlanek (Dating Violence izaerakoek edo bikote gazteen indarkeriari buruzkoek, adibidez) adierazten dute emakumeek eta gizonek berdin erabiltzen dutela indarkeria, biek egiten dituztelako erasoak maiztasun beraz, baina hori adieraztean, bi oker egiten dira: batetik, erasoetara mugatzen dute indarkeria, eta hori kontzeptuzko akats handia da, eta bestetik, oker egiten da, trataera bera ematen zaielako bai eraso instrumental edo proaktiboari (helburu bat lortzeko egiten diren erasoak dira, hala nola baliabideak lortzeko, norbait menderatzeko edo estatus sozial lortzeko), bai eraso erreaktibo edo defentsiboari (kasu horietan, egiazko edo hautemandako ofentsa bati erantzuteko erabiltzen da erasoak).

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa behar bezala fokuratzeko, aztertu behar da, batetik, zer antolamendu darabilen gizarte-sistemak, sexu bat bestea menderatzearen egoera legitimatzeko, eta bestetik, ikertu behar da nola erabiltzen diren erasoak, sexu batek bestearekiko dituen pribilegioei eusteko (modu instrumentalean), eta berariaz, jokabideari berari erreparatzeaz gain, aintzat hartu behar dira jokabidearen esanahia eta ondorioak. Hau da, nahitaezkoa da desoreka edo desberdintasuneko baldintzei begiratzea, eragin zuzena duten aldetik erasoan asmoan edo intentzioan.


Generoko azterlanek eta ikuspegi feministako azterlanek denbora daramate tradizio zientifikoaren zati handi baten androzentrismoa salatzen; izan ere, askok ez dute ulertzen gizonek eta emakumeek osatzen dutela gizartea, etengabe adierazten dituzte gizartean nagusi diren aurreiritziak eta balioak, eta, finean, itsu dira genero-diferentziekiko.

Emakumeen aurkako indarkeria modu askotarikoak

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptuak adiera zabala du, eta ez da mugatzen bikotekideen edo bikotekide ohien arteko tratatu txarretara eta sexu-erasoetara. Emakumearen aurkako indarkeria modu asko daude (indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa, etab.), eta eremu askotan erabiltzen da indarkeria emakumeen aurka: familian, komunitatean, Estatuaren aldetik, gatazka armatuetan, etab. Neskatoen eta emakumeen aurkako indarkeriak adierazpen ugari ditu, baina indarkeria modu batzuk ohikoagoak dira gunee, herrialde eta eskualde jakinetan.

Edonola ere, emakumeen aurkako indarkeria modu guztiek badute elkarren arteko loturarik: “emakumeak mespretxatzen eta beheratzen dituen ideologia patriarkala dago sexu-erasoen, laneko sexu-jazarpenaren, etxeko erasoen eta bortxaketen atzean”¹¹.

Irizpide bat baino gehiago erabil daiteke indarkeria moduak sailkatzeko. Txostenek honetarako, bi sailkapen planteatzea erabaki da: eragindako indarkeriaren elementuei erreparatzeko die lehen sailkapen moduak (ekonomikoa, sexuala, ekonomikoa, etab.), eta bigarrenak, berriz, indarkeriaren eremuari eta indarkeria erabiltzen duenaren eta biktimaren arteko harremanari begiratzen die (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa, etxekoa, soziala, lanekoa, etab.).



Dituen elementuei begiratuta, indarkeria mota hauek daude: indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa, indarkeria sexuala, indarkeria ekonomikoa, indarkeria soziala eta indarkeria sinbolikoa.

- **Indarkeria fisikoa:** emakumearen biziaren edo osotasun fisikoaren aurka egiten duen indarkeria edo xede hori duena da. Min fisikoa eragiten duen edo eragin dezakeen ekintza ez akzidentalak dira. Horietako batzuk dira bultzakadak eta kolpeak ematea, gauzak jaurtitzea eta antzekoak, baldin eta emakume bati heriotza, lesio larriak, tratamendu medikua edo kirurgikoa behar duten lesioak edo klinikako zaintza behar ez duten lesioak eragiteko modukoak baldin badira. Tratatu txar fisikoekin parekatzen dira erasoen ondoriozko gaixotasunak eta lesioak zaintzeko laguntzarik ez ematea. Tratatu txarren modu hori da bikotearen edo bikote ohiaren aurka erabiltzen den indarkeriaren adierazpen ezagunena, indarkeria horren eragina emakumeen gorputzean nabarmentzen baita maiz.

¹¹ ALBERDI, I.; MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: “La Caixa” fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

- **Indarkeria psikologikoa:** min edo sufrimendu psikologikoa edo emozionala sortzen edo sorrarazi nahi duen indarkeria da, bai eta emakumearen duintasuna ukatzea, hari segurtasun eza eragitea, emakumeak bere buruari errespetua ez izatea, mendekotasun emozionala sortzea, gizartetik isolatzea eta askatasunaz gabetzeko bestelako moduak baliatzea ere, baldin eta, horretarako, mehatxuak, laidoak eta umiliatze-saioak baliatzen badira. Indarkeria psikologikoaren beste adierazle bat da baldintzarik gabeko mendetasuna edo etengabeko zaintza ezarraraztea. Indarkeria psikologikoa dakarten portaerak dira behartzea xede duten hitzeko jokabideak (esaterako, irainak) edo hitz gabeko jokabide behartzaileak, nahiz eta haien xedea bikotekidearen gorputza ez izan (esaterako, ateak kolpatzea edo objektuak suntsitzea). Min psikologikoa, norbere buruarenganako konfiantzaren galera edo sufrimendua dakarten nahitako jokabideak dira tratatu txar psikologikoak: irainak, laidoak, oihuak, isiluneak, mehatxuak, salaketak, bestearen ideien kritikak... Jokabide horiek jendearen aurrean nahiz pribatuan egin daitezke; beraz, oso zaila da horiek hautematea, erasoaren hartzailearekin bakarrik dagoenean soilik izaten badu erasotzaileak portaera hori.
- **Sexu-indarkeria:** emakumeen gorputza beren borondatearen aurka erabiltzea dakarren indarkeria da. Eraso fisikoa izateaz gain, laido psikologikoa da, pertsonaren askatasun sexualaren aurkakoa. Sexu-indarkeriazko jokabideak dira sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpenak, exhibizionismoa, sexu-probokazioak, adingabeak galbideratzea, behartutako prostituzioa, eta adingabeen pornografia. Sexu-indarkeriazko jokabidetzat hartzen dira, era berean, behartutako prostituzioa, pertsonak salerostea sexu-xedeetarako, genitalen mutilazioa (infabulazioa), eta birjintasuna, haurdun ez izatea eta/edo fideltasuna 'egiaztatze' egiten diren azterketa behartuak. Indarkeria mota hori ez da, sarri askotan, indarkeria moduan ikusten bikotekideen artean, emakume askok ez baitu uste sexualitate behartua bortxaketa denik. Arrazoi horregatik da indarkeria mota hori da, munduan, emakumeen aurka gehien erabiltzen denetakoa eta, era berean, gutxien salatzen denetakoa. Patriarkatuak emandako abantaila-baldintzetan bermatzen da gizonezkoek eragindako sexu-indarkeria, eta emakumeak mendean hartzea du helburua, emakumeen gorputza erabiliz.

Hauek dira, xehetasunez azalduta, modalitate batzuen arteko diferentziak:

- **Sexu-erasoa:** *onespenik gabeko sexu-harremana, indarkeria erabiliz edo emakumea beldurraraziz egiten dena. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak. Emakumeak bortxatuak direnean, biktimizazio bikoitza gertatzen da askotan, emakumea egiten baldin badute jasan duen erasoaren erantzule.*
- **Sexu-abusua:** *sexu-izaerako jokabideak egitean datza, baina indarkeria erabili gabe edo emakumea beldurrarazi gabe. Zigor-kodeak bereizi egiten ditu onespenerik gabeko gehiegikeriak eta engainuz edo nagusitasun-egoera bat baliatuz egindako gehiegikeriak.*
- **Sexu-jazarpena:** *lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste pertsona batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak egiteko eskatzea da; horren ondorioz, biktima larderia larriko egoera iraingarri edo umilgarrian aurkitzen da. Horren eraginez, aldatu egin daiteke biktimak lan-esparruan duen jokabidea, jazarlearekin bakarrik ez suertatzeko ahaleginak egin baititzaite, janzkera jakin bat eraman, etab. Horrez gain, gerta daiteke, lan-esparruan, biktima lanetik kaleratzea, mailaz ez igotzea edo mehatxatua izatea ekintza horien bidez.*

- **Indarkeria ekonomikoa edo finantzarioa eta/edo ondarezkoa:** emakume baten eta, halakorik bada, emakumearen seme-alaben edo ekonomikoki haren mende dauden pertsonen ongizate fisikoa edo psikologikoa borondatez eta arrazoirik gabe urratzeko ekintzek osatzen dute indarkeria ekonomikoa. Horren barnean sartzen da, halaber, norberaren baliabide ekonomikoak, familiakoak edo bikotekideenak xedatzeko aukerak mugatzea. Tratu txar ekonomikoak lotura handiagoa du baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Lan ordaindua duten emakumeei zein lan ordaindurik gabeko emakumeei ezartzen zaie kontrol hori.
- **Indarkeria soziala:** emakumea isolatzea eragiten du indarkeria sozialak; hau da, bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazten du emakumea, jendaurrean mespretxatzen edo baztertzen denean. Min psikologikoa egiten duten jokabideak dira.
- **Indarkeria sinbolikoa:** barneratuta dagoen indarkeria da indarkeria sinbolikoa edo zeharkakoa, eta biktimek beraiek ere barneratuta izan dezakete; izan ere, zenbait pentsaera eta rol sozialek gizonezkoen menderakuntza adierazten dute, aurreko atalean azaldu diren indarkeria motak justifikatzen dituzte, edo haiei garrantzia kentzen saiatzen dira. Ikuspegi jakineko mezuak, balioak, irudiak eta zeinuak dira, eta mendetasunezko portaerak, desorekatuak eta diskriminatzaileak adierazten eta transmititzen dituzte gizarte-harremanetan.



Indarkeria-eremuei erreparatuta, indarkeria hauek bereizten dira: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremukoak, familia barneko indarkeria, laneko edo hezkuntza-eremuko indarkeria, komunitate-indarkeria eta indarkeria instituzionala.

Bestalde, honako eremu hauetan ematen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistaren jokabide askotarikoak¹²:

- **Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan:** besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen du emakumearen aurka haren bikotekideak, haren bikotekide izan denak edo emakumearekin antzeko lotura afektiboa duen edo izan duen gizonezkoak.

¹² Gatazka armatuak zerrenda horretan sartzen dira (eta, horien baitan, besteak beste, emakumeen giza eskubideen urraketa, eta bereziki, haiek gatibu hartzea, bizilekuz aldatzera behartzea, modu sistematikoan bortxatzea, sexu-esklabutza, behartutako haurdunaldiak eta emakumeen salerosketa sexu-esplotazioarako eta ustiapen ekonomikorako), baina azterlanaren mugetatik kanpo geratzen dira kasu honetan.

- **Familia barnean** (bikotekideena eta bikotekide ohiena kanpo utzirik)¹³: besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen du emakumearen aurka bizikidetzaren unitateko edo familiako kideren batek, aurreko puntuan adierazitakoren bat ez dena, aintzat hartu gabe emakumearekin bizi diren ala ez eta indarkeria-adierazpena zer eremutan gertatzen den.
- **Lanean edo hezkuntza-eremuan**: besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen da emakumearen kontra lanean edo irakaskuntza-eremuan, sexu-jazarpenaren bidez edo sexu-arrazoien ondorioz. Indarkeria, eremu horietan, lan-orduetan eta eskola-orduetan edo ordu horietatik kanpo eragin daiteke, lantokian edo ikastegian nahiz eremu horietatik kanpo.
- **Komunitatean**: eremu horretan gertatzen dira, besteak beste, indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoko jokabideak emakumeen aurka, gizarte-harremanen esparruan. Botere edo nagusitasunezko posizioak baliatzen dira indarkeria-ekintza horiek egiteko, hala nola sexu-erasoak eta -gehiegikeriak, sexu-jazarpenak eta sexu-arrazoiagatiko jazarpenak, emakume eta neskatuen salerosketak eta ezkontza behartuak; eta emakumeen osasunaren aurkako eta haien ugaltze-eskubide eta eskubide sexualen aurkako indarkeria, hala nola fetu femeninoen abortu selektiboak, esterilizatze behartuak eta emakumeen genitalen mutilazioa.
- **Eremu instituzionalean**: erakunde, organo edo instituzio publikoetako agintari, funtzionario, profesional, langile eta agenteek egindako ekintzak edo ez-egiteak dira, baldin eta horien helburua baldin bada oztopoak eta eragozpenak jartzea emakumeek politika publikorako sarbidea izan dezaten eta legeek, indarkeriarik gabe bizitzeko, aitortzen dizkieten eskubideak erabil ditzaten.

Adierazi den moduan, botere-harreman desorekatuak daude emakumeen aurkako indarkeriaren atzean, eta botere horien azken xedea ez da emakumeak zauritzea, menderakuntza eta harremaneko botereari eta autoritateari eustea baizik. Indarkeria motak modu ziklikoan eman ohi dira, eta ziklo horiek, sarri askotan, hautemanezinak edo isilean egindakoak izaten dira. Illo horretatik, "indarkeria-kate bateko beste kate-begi bat"¹⁴ bezala ikusi behar da eraso bakoitza.

Gizartean aldaketa demografikoak, ekonomikoak eta eraldaketa sozialak eta kulturalak gertatzen direnean, gero eta gehiago erabiltzen dira indarkeria modu batzuk, eta gero eta gutxiago beste batzuk. Esaterako, teknologia berriek indarkeria modu berriak dakartzate, hala nola, Internet bidezko edo telefono mugikorren bidezko jazarpena.

¹³ Adierazi behar da azterlan batzuek batera aztertzen dituztela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremua eta familia barruko genero-indarkeria, eta eremu horri familia-eremua edo etxeko eremua esaten diotela.

¹⁴ ALBERDI, I.; MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: "La Caixa" fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

Metodologiari buruzko ohar laburrak

Bigarren mailako iturriak kontsultatzeko metodologia erabili da txosten hau egiteko. Zehazki, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoarekin lotutako estatistikak eta agiriak, gure ustez adierazgarrienak direnak, identifikatu eta bildu dira, eta hainbat informazio-iturri erabili dira lan hori egiteko: lege-esparruak, txostenak, planak, gidak, ebaluazioak, ikerlanak, estatistika-eragiketak, erregistro ofizialak, literatura grisa, etab.

Kontsultatu den informazio gehiena **Euskal Autonomia Erkidegoaren** esparrukoa da, baina aintzat hartu dira beste lurralde-eremu batzuetako datuak (batik bat, estatukoak eta europarrak), konklusio osagarriak ateratzeko eta EAEn egindako analisia testuinguruan jartzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren kontzeptuzko azalpena eman dugunean, definizio zabal bat eman da eta hainbat egoera edo testuingurutan ematen den indarkeriaren berri eman dugu; hala ere, txosten honek jasotzen dituen datu gehienak *Etxean tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko Erakundeen Arteko II. Hitzarmenean* jasotako hiru **eremuei** buruzkoak dira, hau da, bikotekideak (edo bikotekide ohiak) erabilitako indarkeriari buruzkoak, etxeko indarkeriari buruzkoak eta sexu-indarkeriari buruzkoak. Eremu horietara bideratzen dira instituzioen laguntza eta lan gehienak, eta ondorioz, horietan sortzen da aztertze moduko informazio eta datuen bolumenik handiena.

Arau mugarriak

Emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion erantzuna hobetzeko ahalegina egin da zenbait arauen bidez. Azken urteetan bultzatu den lege-esparruak zenbait neurri arautu ditu indarkeria mota hori prebenitzeko eta desagerrarazteko, biktimak babesteko eta indarkeria erabiltzen dutenak arbuiatu eta zigortzeko.

Hauek dira arau mugarrietako batzuk:

Nazioartean:

Genero-indarkeriaren arazoa NBE-n planteatu zen lehen aldiz, emakumeen eskubideen aldeko aktibismoak bultzatuta. Gaiak berebiziko bultzada izan zuen Nazio Batuen Erakundearen Emakumeentzako Hamarkadan (1975-1985); izan ere, garai horretan, nabarmen handitu zen NBEren ekintza-programari atxiki zitzaizkion erakunde feministen kopurua eta indar handia eman zitzaien emakumeei buruzko nazioarteko eta eskualdeko konferentziei. Mexiko Hirian deitu zen, 1975ean, Emakumearen Nazioarteko Urtean, **Emakumeei buruzko lehen Mundu Konferentzia**, eta konferentzia horretan ekin zitzaion genero-indarkeriaren gaineko nazioarteko elkarriketari. Konferentzia horretan, asmo handiko hiru helburu ezarri ziren: berdintasuna, garapena eta bakea. Konferentzia hori mugarria izan zen genero-berdintasuna munduko agendan barneratzeko.

<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/fwcwn.html>

Tresna arautzaile bat izan zen mugimendu feministaren nazioarteko lanaren emaitzarik nabarmenetako bat, emakumeen eskubideak giza eskubide gisa hartu zituen: **Emakumeen aurkako Diskriminazio modu guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmena (CEDAW)**. Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Nagusiak 1979ko abenduaren 18ko 34/180 ebazpenaren bidez eman eta zabaldu zuen hitzarmen hori berrespenerako edo atxikipenerako, eta emakumeen eskubideen nazioarteko erreferentzia bilakatu zen.

http://www.unicef.org/argentina/spanish/ar_insumos_cedaw.pdf

Gerora, 1992an, CEDAW batzordeak zenbait oharpen egin zituen Hitzarmenaren xedapenen betetzearen harian, eta 19. gomendio orokorrak lotu egin zituen estereotipo sexistak eta emakumeen aurkako indarkeria; horrez gainera, nabarmendu zen korrelazio bat dagoela desberdintasun-egoeren eta emakumeei gizatasuna kentzen dieten jardueren artean, hala nola emakumeen gorputza sexu-xedeetarako erabiltzea eta genero-indarkeria. **Emakumeen aurkako indarkeria: 92/01/29 CEDAW. 19. gomendio orokorra.**

http://132.247.1.49/mujeres3/CEDAW2/docs/Recom_grales/19.pdf

1993. urtean, **Giza Eskubideen Mundu Konferentzia** egin zen Vienan (Austria), eta haren amaieran hauek eman ziren: **Vienako Deklarazioa eta Ekintza Programa**. Foro horrek lehen aldiz aitortu zuen, berariaz, emakumeen eskubideak giza eskubide unibertsalen barneko elementu besterenezinak, osagaiak eta zatiezinak direla. Konferentziak adierazi zuen nazioartearen lehentasunezko egitekoa dela sexu femeninoaren diskriminazioaren aurka borrokatzea, eta neurri berri eta historikoak hartu zituen emakumeen, neskatiko eta mutikoen eta herri indigenen eskubideak sustatu eta babesteko.

Nabarmendu behar da, emakumeen aurkako indarkeriaren erabilera debekatzear gain, deklarazio horrek indarkeria hori jazarri eta desagerrarazteko betebeharra ezartzen diela estatuei. Mugarri handia da betebehara hori ezartzea; izan ere, nazioarteko auzitegiek, gai-alor

horretan espezializatuta badaude, gizateriaren aurkako krimenen moduan jazar dezakete genero-indarkeria nazioz gaindiko eremuetan, eta nazioen barruan, indarkeria mota hori ofizioz jazartzeko betebeharra ezartzen die estatu kide sinatzaileei.¹⁵

<http://www.ohchr.org/EN/ABOUTUS/Pages/ViennaWC.aspx>

<http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/CONF.157/23>

<http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/ViolenceAgainstWomen.aspx>

1995. urtean, **Emakumeari buruzko laugarren Mundu Konferentzia** egin zen, eta foro horrek “genero-indarkeria” terminoaren erabilera onetsi zuen. Horrez gainera, **Beijingo Deklarazioa eta Ekintza Plataforma (BEP)** eman ziren. Emakumea ahalduzaren aldeko programa bat da, XXI. mendeko aurrerapena proiektatzekoa, eta eman zen garaian, genero-berdintasunaren aldeko borrokaren beste aldi bati ekin zion. Konferentzia horretan, Nazio Batuen Erakundeak adierazi zuen emakumeen aurkako indarkeriak eragotzi egiten duela berdintasunaren, garapenaren eta bakearen helburuak erdiestea, eta giza eskubideak eta funtsezko askatasunak urratzeaz gain, haiek erabiltzea eragozten diela emakumeei.

<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/platform/index.html>

Ordur geroztik, 5 urtean behin, nazioarteko komunitateari, erakundeei eta ekintzaileei deitzen zaie, New Yorken aztertzeke nola betetzen eta aplikatzen den BEPa. Honela izendatzen dira bilera horiek: Beijing+5 (2000), Beijing +10 (2005), Beijing +15 (2010) eta Beijing+20 (2015).

Europar:

Europar Batasunaren helburuetako bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta hala jasotzen da Erromako Tratatuaren (1957). Bestalde, orain gutxi, lehentasuneko gai bihurtu da emakumeen aurkako indarkeria. Berdintasun-politikak hamarkada batzuk daramatzate indarrean Europar Batasunean, eta tratatuen, ebazpenen, zuzentarauen eta Batasuneko ekintza-programen bidez gauzatu dira programa horiek. Horrez gainera, gai-alor horretan eragiteko irizpide, neurri, akordio eta gomendio ugari adostu eta eman dira.

1997. urtean, **Kontseilu Europarraren Bigarren Goi Bileraren (Estrasburgo)** amaierako deklarazioan, estatu kideetako estatuburuek eta gobernuburuek adierazi zuten asmo osoa dutela emakumeen aurkako indarkeria eta emakumeen sexu-esplotazioko modu guztiak borrokatzeko: <https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?id=856279>

2002. urtean, **Ministroen Kontseiluak gomendio bat eman zien estatu kideei, emakumeak indarkeriaren aurka babestekoa**. Agiri horretan hau esaten da: “gizonen eta emakumeen arteko botere-desorekaren emaitza da emakumearen aurkako indarkeria, eta emakumeen diskriminazio larria eragiten ari da, bai gizartean, bai familietan”. Horrez gainera, eta besteak beste, behar den prestasunaren printzipioari erreparatzen dio, arazo horri aurre egiteko.

[http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/equality/03themes/violence-against-women/Rec\(2002\)5_Spanish.pdf](http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/equality/03themes/violence-against-women/Rec(2002)5_Spanish.pdf)

Genero Berdintasunaren aldeko Europako Ituna hitzartu zen 2006an, eta luzatu egin zen Batzordeak 2010eko martxoaren 5ean emandako komunikazio honen bidez: "Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromiso indartua: Emakumeen Gutuna".

¹⁵ FIGUERUELO, A. *La violencia de género: una cuestión de derechos humanos*. In POZO, M. (zuz.) *¿Podemos erradicar la violencia de género?* Granada: Comares argitaletxea, 2015.

Berariazko bost jarduera-esparru lantzen ditu gutun horrek, eta genero-indarkeria desagerraraztea da horietako bat. Jarduera-ardatz hori bera ezarri da, gerora, Batzordeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean 2010-2015 eperako onartu duen Estrategian.

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV%3Aem0033>

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV%3Aem0037>

Europako Parlamentuaren 2009ko azaroaren 26ko Ebazpenak, emakumearen indarkeria desagerrarazteari buruzkoak, adierazi zuen genero-indarkeria emakumeen eskubideen urraketa dela, gizonezkoak ez bezalakoak direnaren ustean erabiltzen dena.

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2009-0098+0+DOC+XML+V0//ES>

2009ko abenduaren 1ean, Lisboako Tratatuak jarri zen indarrean, eta emakumeen ahalduzko laguntzeko arau-xedapenak jasotzeaz gain, ordura artekoa baino jarduteko ahalmen handiagoa eman zion Europako Parlamentuari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan. Funtsezkoa zen hori egitea, genero-dimentsioa zaindu eta indartuko duten arau-ekimenak abiatzeko gaur egungo krisi-egoeran:

https://www.boe.es/legislacion/enlaces/documentos/ue/Trat_lisboa.pdf

Tratatu hori indarrean jarri ondoren, haxe adierazi zuen Europar **Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren** bertsio kontsolidatuaren 8. artikulua: "emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazi eta haien arteko berdintasuna bultzatzeko xedea finkatuko du Batasunak bere ekintza guztietan". Haxe dio 19. deklarazioak, tratatuaren 8. artikuluari buruzkoak: "Biltzarra bat dator honetan: emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko bere lehian, Batasunak ahalegina egingo du, bere politiketan, etxe barruko era guztietako indarkeriaren aurka egiten. Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte delituzko egintza horiei guztiei aurrea hartzeko eta egintza horiek zigortzeko, bai eta biktimei laguntza eta babesa emateko ere":

<http://www.boe.es/doue/2010/083/Z00013-00046.pdf>

EPSCO Kontseiluak, 2011ko martxoaren 7an, **Genero Berdintasunaren aldeko 2011-2020 Itun Europarra** onartu zuen. Itun horren helburuetako bat da emakumeen aurkako indarkeria modu guztiak borrokatzea, emakumeek beren giza eskubideak bete-betean erabiliko dituztela bermatzeko eta genero-berdintasuna iristeko, hazkuntza integratzaile baten alde: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2011:155:0010:0013:ES:PDF>

Lisboako Tratatuak, beraz, zigor-zuzenbidea harmonizatzeke eskumenak eman zizkion Batasunari, eta horrek esparru berri bat ezarri zuen lege-tresna berriak lantzeko emakumeen aurkako indarkeriarekiko borrokan. Geroztik, arau ugari eman dira, eta hauek dira aipagarrienak:

1. **2010/41/EB Zuzentaraua, jarduera autonomoa duten gizonezkoei eta emakumezkoei tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 86/613/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena:** http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv:OJ.L_.2010.180.01.0001.01.SPA&toc=OJ:L:2010:180:TOC

2. **2011/99 Zuzentarauak, babes-agindu europarrari buruzkoa** <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32011L0099&from=EN> eta **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 606/2013 Erregelamenduak, arlo zibileko babes-neurriak elkarri aitortzeari buruzkoak** (<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32013R0606&from=EN>) bermatzen dute estatu kideren batean babes-agindu bat jaso duten pertsonak eutsi egingo diotela estatus horri, baldin eta beste estatu kideren batera joaten edo lekualdatzen baldin badira.
3. Europar indarkeria mota horren aurka borrokatzeko mekanismo juridiko erkideak antolatzeko xedea hartuta, arau-tresna berri bat onartu zen 2011n: **Emakumeen aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Hitzarmen Europarra** (Istanbuleko Hitzarmena). <http://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>.

Istanbuleko Hitzarmena Europar eta nazioartean emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko tresna indartsuena dela aitortu da. 2014ko abuztuan jarri zen indarrean; haren 75. artikulua berariaz adierazten du EBk onartu egin behar duela. Hitzarmenak esanbidez aipatzen ditu genero-indarkeriaren biktimak, indarkeria sexualaren biktimak eta pertsonen arteko harremanetan erabilitako indarkeriaren biktimak. Eredu juridikoan loteslea den lehen eskualde-tresna da Europar, eta xehetasunez lantzen ditu emakumearen aurka erabiltzen diren indarkeria motak, hala nola indarkeria psikologikoa, jazarpena, indarkeria fisikoa, indarkeria sexuala eta sexu-jazartzea.

4. **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentarauak, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituenak**, bere barnean hartzen ditu emakumeen aurkako indarkeria pairatzen duten eta pairatu duten biktimak, legeek delituen biktimei aitortzen dizkieten eskubideen subjektu diren aldetik: <http://www.boe.es/doue/2012/315/L00057-00073.pdf>

Enplegu, Gizarte Politika, Osasuna eta kontsumitzaileen Batzordeak, 2011ko maiatzean, **legegintza-neurrien multzo bat onartu zuen biktimen eskubideak babesteko** (http://europa.eu/rapid/press-release_IP-11-585_es.htm) eta **COM (2011) 274 Komunikazioa onartu zuen, EBren biktimen alorreko egungo eta etorkizuneko ekintzak aurkezteko**: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52011DC0274&from=EN>

Azkenik, nabarmentzekoa da **Europako Parlamentuaren 2014ko otsailaren 25eko Ebazpena**, Batzordeari zenbait gomendio egiten dizkiona emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria borrokatzeko. Gomendio hauek dira aipagarrienak: Batzordeari gomendatzen zaio egintza-proposamen bat aurkezteko 2014. urtea amaitu baino lehen, estatu kideek emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria prebenitzearen alorrean egiten dituzten ekintzak laguntzeko eta sustatzeko neurriak ezarriko dituenak; Batzordeari gomendatzen zaio indarkeriaz egindako delituen estatistika-datu europarrei buruzko erregelamenduaren proposamen berrikusi bat proposa dezala; azkenik, gomendatzen zaio, batetik, berrespen nazionalak sustatzeko eta, bestetik, Europar Batasuna Istanbuleko Hitzarmenera, emakumeen kontrako indarkeriaren alorreko, atxikitze prozesua abiarazteko.

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2014-0126+0+DOC+XML+V0//ES>

Europako Kontseiluak, bestalde, gai-alor horretako politikak eta legeak garatu ditu. Istanbulko Hitzarmen horrez gain, beste tresna nabarmen hauek abiarazi ditu: **Gizakien Salerosketaren aurka egiteko Hitzarmena** (2005): https://www.coe.int/t/dghl/monitoring/trafficking/Source/PDF_Conv_197_Trafficking_Spanish.pdf eta **REC (2002)5 Gomendioa, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari buruzkoa**: [http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/equality/03themes/violence-against-women/Rec\(2002\)5_Spanish.pdf](http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/equality/03themes/violence-against-women/Rec(2002)5_Spanish.pdf)

Aurreko urtean, **Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Esparru Estrategikoa** argitaratu du Genero Berdintasunerako Institutu Europarrak. Agiri horrek Genero Berdintasunerako Institutuak proposatzen duen ikuspegia azaltzen du, erakunde europarrek eta estatu kideek emakumeen aurkako indarkeria-mailak identifikatu eta horiek desagerrarazteko politikak egiteko lana babeste aldera.

<http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/mh0215481enn.pdf>

Estatuan:

Espainiako ordenamendu juridikoan, **abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa** izan zen generoko egitate berezitu bat aitortu zuen lehen araua. Zio-azalpenean adierazten du emakumeen aurkako indarkeriak zer-nolako gaitza dakarkion gizarteari: *“Genero-indarkeria ez da eremu pribatuari dagokion arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desorekaren adierazgarri lazgarriena da. Emakumeen aurka eta emakume izate hutsagatik egiten den indarkeria da, erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dutela gutxieneko eskubiderik ere”*. Hori horrela, hau gaineratzen du Legeak: *“Botere publikoak ezin dira geldi egon genero-indarkeriaren aurrean, indarkeria horrek beste edozerk baino gehiago erasotzen baititu Espainiako Konstituzioak aldarrikatutako oinarritzko eskubideak, hala nola askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta bereizkeriarik eza”*.

Lege horrek eskubide batzuk arautzen ditu eta eskubide horiek bermatzen dizkie genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei, indarkeriazko harremanarekin eten eta beren bizi-proiektua berreskuratzeko aukera izan dezaten. Dena den, ohartarazi behar da eskubide horiek, lege horren esparruan, ezkontideengandik edo, elkarrekin bizi ala ez, harreman horren pareko afektibotasun-harremanez lotutako beste norbaitengandik indarkeria pairatu duten edo pairatzen ari diren emakumeei bermatzen zaizkiela.

Legeak arautzen du berariazko neurriak sortu behar direla biktimak osotasunean onera daitezen, hau da, ez da nahikoa erasotzailearengandik urruntzea. Beste neurri asko hartu behar dira, kasuen ezaugarriei erreparatuta: tratatu txarren ondoriozko kalte fisikoak eta psikikoak konpontzeko neurriak, biktimaren eta haren kargu dauden adingabeen egoera normaltzekoak, enpleguarekin, etxebizitzarekin, osasunarekin eta harreman pertsonalekin lotutakoak, aisia eta denbora libreko gozatzeko neurriak; abiatu diren prozesu judizialak ixtea, hala nola, tratatu txarren salaketak, seme-alabak ikusteko bisiten arauak, banantzeak edo dibortzioak; gerora tratatu txarrak ez errepikatzeko neurriak, ikusi dituzten harreman-ereduak ez errepikatzeko neurriak hartzea seme-alabekin, etab. Legeak berak arautzen du *Gizarte Laguntza Osoa* eman behar zaiela; hau da, emakume biktimen eta beraien zaintzapean dauden adingabekoen eskubidea da arretako gizarte-zerbitzuak, larrialdi-zerbitzuak, laguntzakoak, harrerakoak eta oneratzeko osokoak eskuratzea.

<http://www.boe.es/boe/dias/2004/12/29/pdfs/A42166-42197.pdf>

Lege hori argitaratu ondoren, **Emakumearenganako Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Berezia** sortu zen. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko Berdintasun Politiken Idazkaritza Nagusiaren mendeko organoa da, eta genero-indarkeriaren alorreko politika publikoak lantzeko eskumena du. Gobernu-azpiordezkaritzaren mende, **emakumearenganako indarkeriaren aurkako unitateak** sortu ziren autonomia-erkidegoetan, jarraipeneko eta koordinazioko lanak egiteko, eta 2006an, **Genero Indarkeriaren alorreko Sentsibilizazio eta Prebentzio Plana** onartu zen, bi urtero berritzekoa, gai horretan jarduteko esparru erkidea izateko.

http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2005-3774

Hemen nabarmentzekoa da, era berean, **3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa**, bere xedea baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea eta gizarte-kohesiorako eredu berri baten oinarriak sortzea. “Zeharkako dimentsioa du legeak, eta bizitzako eremu guztietara zabaltzen du bere eragina; bereziki, alor politikora, zibilera, lanekora, ekonomikora, sozialera, kulturalera eta artistikora”.¹⁶

Horiez gainera, nabarmentzekoak dira, batetik, **Herritar immigrante atzerritarren artean genero-indarkeria artatzeko eta prebenitzeko Plana** (2015-2018), berariaz adierazten baitu genero-indarkeriaren biktimak diren emakume atzerritar immigranteen egoera espezifikora egokitu behar dela eman beharreko arreta. Eta bestetik, **Gizakiak sexu-esplotaziorako salerostearen aurka borrokatzeko plan integrala** (2008), aitortzen baitu emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen agerikoa dela emakumeak eta neskatoak xede horretarako salerostea.

http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/planActuacion/otrasMedidas/pdf/Plan_atencion_preencion_violencia_genero_poblacion_extranjera_inmigrante%282009_2012%29.pdf

http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/planActuacion/planContraExplotacionSexual/docs/Plan_Integral_Trata_18_Septiembre2015_2018.pdf

2013. urtean, **Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko estrategia nazionala** argitaratu zen, emakumeek, emakume hutsa izateagatik, pairatzen duten indarkeriarekin amaitzeko botere publikoek egiten duten lana antolatzeke tresna izan dadin; hala, estrategia hori ekintza-plan egonkorra da, 2016. urtera artekoa, gizartearen gaitz horri aurre egiteko. Estrategia horren bidez, emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazi nahi da, indarkeria hori zentzu zabalean ulertuta; horrez gainera, eta berariaz, genero-indarkeria borrokatu nahi da zentzu hertsian, gizartean duen tamaina eta eragin handiarengatik.

<http://www.msssi.gob.es/ca/ssi/violenciaGenero/EstrategiaNacional/pdf/EstrategiaNacionalCastellano.pdf>

2015. urtean, apirilaren 27ko 4/2015 Legea onartu da, **Delitu Biktimen Estatutuarena**, eta gailor horretako araudi europarrak arautzen duenaren ildoan, biktimen ondasun materialak eta moralak babestu nahi ditu, haien duintasunaren aitorpenetik abiatuta. Biktimaren estatutua aitortzen die genero-indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alabei, baita haien amei ematen zaizkien baliabide eta babes berdinak jasotzeko eskubidea ere. Horrez gainera, prozesutik kanpoko zenbait eskubide aitortzen zaizkie, aintzat hartu gabe zigor-arloko

¹⁶ KANARIETAKO BERDINTASUN INSTITUTUA. GENERO INDARKERIAREN AURKAKO SISTEMA INTEGRALAREN KOORDINAZIO-ZERBITZUA. *Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta emateko gida*. Kanarietako Berdintasun Institutua. Kanarietako Gobernuaren Presidentzia, Justizia eta Berdintasuneko kontseilaritza, 2007. Hemen eskura daiteke: <http://www.gobiernodecanarias.org/obc/cms/export/sites/icigualdad/resources/documentacion/Violencia/GuiaAtencionViolencia11.pdf>

prozesuren batean alderdi diren edo akzio judizialik ez abiatzea erabaki duten aintzat hartu gabe, eta eskubide horiek erabilgarri izango dituzte baita zigor-arloko prozesuari ekin aurretik ere.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/04/28/pdfs/BOE-A-2015-4606.pdf>

Azkenik, mugarri handia izan da bi lege onartu izana, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko. Hauek dira bi lege horiek: **8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa, eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa**. Arau horiek zenbait alderdi garrantzitsu barneratu dituzte, hala nola adingabeak emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako biktima zuzenak direla aitortzea, “adingabearen interes gorena” kontzeptua mugatzea eta adingabeek entzunak izateko duten eskubidea aitortzea.

http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8222

http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8470

Euskal Autonomia Erkidegoan:

Otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez, **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea** sortu zen, administrazio-izaera duen erakunde autonomo gisa. Nortasun juridiko propioa du, eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariari atxikita dago. Sortu zenetik, haren funtsezko helburua izan da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzea Euskal Autonomia Erkidegoko politikaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen arlo guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasun-politikak bultzatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakundea da. Emakunderen funtzioak, lehen aipatutako legean zehaztuak, aldatu egin ziren **otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen** bidez. Horrenbestez, funtzio hauek hartu zituen Emakundek, besteak beste: proposatutako helburuak lortzeko zuzentarauak prestatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteei zuzentarau horiek bete ditzaten bultzatzea; berdintasun-politiken eta autonomia-mailako legeen jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari egokitzen ote diren ikusteko; legeak erreformatzeko proposamenak prestatzea, bi sexuen arteko benetako berdintasuna eraginkorra galarazten edo eragozten duten oztopoak kentzeko; politika-eremu guztietan genero-ikuspegia aintzat hartzeko metodoak diseinatzea; eta EAEko herri-administrazioei aholku ematea eta haiekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza-planak diseinatzea.

http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2012-3546

http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/leyes/ley20050004_t_cas.html

Hori horrela, hau aitortzen du otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak: *“apustua, une honetan, zera da, berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea (...) halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomeno, egiturazkoa eta unibertsala, gizartetik desagerraraz dadin.”* Legearen VII. kapituluak “Emakumeen aurkako indarkeria” izena du, eta, bertan, zenbait neurri arautzen ditu etxean tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak babesteko; horrez gain, ikerketaren, prebentzioaren eta prestakuntzaren alorreko neurriak ezartzen ditu.

Gainera, hau arautzen du 51.2. artikuluan: “Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aldi-aldi ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena.

Horretarako, inplikaturak dauden gainerako EAEko administrazio publikoek informazioa emango diote beren ardurapean dituzten baliabideei eta programei buruz”.

Eusko Jaurlaritzak, berdintasunerako planen bidez, genero-indarkeriaren alorreko helburuak eta jarduerak planifikatu ditu. Emakunderi dagokio berdintasunerako planak egitea, EAEko berdintasunerako politika publikoak bultzatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko organoa den aldetik.

Erakundeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren eremuan, nabarmentzekoak dira Emakundek bultzatzen duen etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktime izan diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko erakundearteko hitzarmena, 2001eko urrian izenpetutakoa, eta **Etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmena**, 2009. urtean izenpetutakoa. Etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea dute xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, jarduteko jarraibide eta irizpide batzuk ezarri behar dira, profesionalek jarraitu beharrekoak, bakoitzari dagokion eremuan bai eta erakundeen arteko harremanetan ere.

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/2.acuerdo.interinstitucional.cas.pdf

Hauek dira II. hitzarmen horrek sorrarazi duen **Jarraipen Batzordearen** eginkizunak: hitzarmenean adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jarduera-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzea proposamenak egitea. Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (osasunean, herritarren segurtasunean, justizian, gizarte-bazterketan, enpleguan, etxebizitzan eta hezkuntzan eskudun direnak), EAEko hiru aldundiak, Eudel, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

2013. urtean, **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana** onartu zen, eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea da plan horren hiru ardatz-ekintzetako bat; hori horrela, berariazko xede ditu indarkeriazkoak ez diren ereduak bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko informazioa eta ikerketak hobetzea, eta indarkeriazko jokabideen hautemate goiztiarra eta horien gaineko informazioa indartzea.

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_vi_plan/es_emakunde/adjuntos/VIPlan_final.pdf

Emakundek hainbat txosten eta balantze egiten ditu aldiro, biktimizazioen eta biktimen datuak biltzeko eta etxean emakumeen kontra baliatzen den indarkeriaren arloan EAEn dauden programen eta baliabideen eraginkortasuna eta irismena ebaluatzeko. Nabarmentzekoa da, azterlan honen xedearekin duen loturari erreparatuta, informazio-sistemen lantaldeak, 2013. eta 2015. urteen bitartean, urrats nabarmenak eman dituela Erakundearteko II. Hitzarmenari atxiki zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiek sistema homogeen bat erabil dezaten informazioa biltzeko: erakundeek biltzen dituzten datuen eta datu horiek biltzeko sistemen arteko aldeak eta berdinak edo konparagarriak diren ezaugarriak identifikatu dira, adierazleak adostu dira, etab.

Aurten bertan, eztabaida sortu du **ekainaren 30eko 7/2015 Legearen onarpenak (gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa)**. Arau horrek banandutako edo dibortziatutako bikoteen seme-alaben zaintza partekatua arautzen du, eta interes berezia

du lantzen ari garen gairekiko loturan. <http://www.boe.es/boe/dias/2015/07/24/pdfs/BOE-A-2015-8275.pdf>

Informazio-iturriei buruzko ohar batzuk


Froga agerikoek erakusten dute emakumeen aurkako indarkeria arazo larria dela eta mundu osoan zabaldua dagoela. Horren berri ematen dute herrialde askotan egin diren azterlanek. Hala ere, datuak biltzen jarraitzeko premia dago oraindik, behar bezala dokumentatzeko politiken eta estrategien lanketa, indarkeria mota horri aurre egiteko neurriak ebaluatzeko eta horien guztien ondorioak zehazteko.

Sarri askotan, ezin izaten da lanen arteko konparaziorik egin –ez herrialdeen artean, eta zenbaitetan, ezta herrialde baten barruan ere–, definizio desberdinak erabiltzen direlako, aztertutako taldeen artean aldeak daudelako, etab. Gutxi dira, gainera, aldizkakotasun jakin eta egonkor batez eguneratzen diren azterlanak, eta zaila izaten da denboran gertatzen diren aldaketak neurtzea. Horrez gainera, indarkeria pairatzen duten emakumeen gaineko zenbait daturen falta sumatzen da (esaterako, adinaren, jatorriaren edo bestelako faktore batzuen arabera banakatutako datuak), baina baita indarkeria erabiltzen duten erasotzaileen gainekoena ere.

Aitortu behar da zaila dela emakumeen aurkako indarkeria kuantifikatzea, zenbait faktorek zaildu egiten baitute lan hori. Esaterako, emakumea, maiz, ez da ohartzen indarkeria pairatzen ari denik; gertatzen diren kasu guztien ehuneko txiki bat baino ez da salatzen; eta ez daude adostuta bildu beharreko datuen gaineko adierazleak eta irizpideak, estatistikak nolabaiteko fidagarritasunez egin ahal izateko. Hori horrela, askotarikoak dira gaur egun erakunde ofizialen datuak, emakumeen elkarrekin bildutakoak eta interbentzioaren alorrean lan egiten duten erakundeek beraiek jasotakoak.

Datuen iturri bat baino gehiago erabili erabili da txosten hau egiteko, eta azken ataleko bibliografia-erreferentzien dosierrean jaso dira guztiak. Hala ere, txosten honetan sarri aipatzen diren iturrien metodologia-ezaugarri nabarmenenak azalduko dira atal honetan.

Lehenik egin, garrantzitsua da bereiztea, batetik, poliziaren, epaitegien, emakumeak hartzeko zentroen eta antzerako erakundeen erregistro ofizialetatik hartutako datuak, eta bestetik, inkestetatik eratorritako datuak.



Inkestetako datuak ez dira beti fidagarriak izaten, eta zenbaitetan, zaila izaten da gai hau inkesten bidez lantzea. Hala ere, inkestaren formula interesgarria da eraginak kuantifikatzeko eta ikusteko beste bide batzuetatik erregistra daitekeena baino askoz ere gauza gehiago barne hartzen dituela arazo honek. Bestalde, salaketetatik edo errekursoetatik jasotako datuek informazio fidagarria ematen dute, baina emakumeen salatzeko edo laguntza eskatzeko erabakiak soilik adierazten dituzte.

ERREGISTROETAKO DATUAK:	HERRITARREI EGINDAKO INKESTEN DATUAK:
✓ Gertatutako eta egiaztatutako egoeren gaineko informazioa jasotzen dute, eta, ondorioz, oso fidagarriak dira.	✓ Salatu eta/edo publikoak diren kasuetara eta gainerako kasuetara iristen dira.
✓ Emakumeen salatzeko edo laguntza eskatzeko erabakiak adierazten dituzte, eta ez dute gainerako emakumeen berri ematen.	✓ Biktimen, gertakarien ezaugarrien eta bestelako datuen gaineko informazio handiagoa ematen dute.
✓ Ez dute une jakin batean dauden biktimen kopuru	✓ Laginketa-erroreak gerta daitezke edo akatsak egin daitezke, baldin eta hautaketa-metodoak ez badu herritarren zati bat kontuan hartu (esaterako,

edo zenbateko osorik adierazten, denbora-epe jakin batean izan diren gertakarien ondoriozko biktimak adierazten baitituzte (esaterako, estatistika polizialak ez du zenbatzen zenbat emakumek jasaten dituzten, aurreko urteren batean delitu penal baten hartzaille izan ondoren, indarkeria mota horren ondorioak, aurten delitu penal baten hartzaille izan ez arren).	✓ bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak).
✓ Oro har, biktimen eta erasotzaileen ezaugarriei buruzko informazio gutxi jasotzen da.	✓ Elkarriketatutako pertsonen oroimenari lotutako arazoak izan ditzakete.
✓ Ordenamendu juridikoak modu askotara tipifikatu izan du indarkeria, eta horrek sakabanatu egin ditu estatistika ofizialak.	✓ Ez da indarkeriaren definizio bat eta bakarra erabiltzen beti, eta galderen formulazioak baldintzatu egin dezake datuen fidagarritasuna.
✓ Urteak iragan ahala, aldatu egiten dira datuak biltzeko irizpideak (aldatu egiten direlako definizioak eta bestelako alderdiak), eta horrek zaildu egiten du bilakaera-analisiak egitea.	

“Erregistroetako” iturriak:

- **Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila:** urtero ematen dituzte datuak Azterlan eta Analisien Dibisioak eta Ertzaintzak (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila), eta horietan, EAEko poliziak ofizialki erregistratu dituen emakumeen eta indarkeria-kasuen kopurua adierazten da. Erreferentzia argia dira bikotekideak edo bikotekide ohiek emakumeengan eragiten duten indarkeria, familia barneko indarkeria eta askatasun sexualaren aurkako delituak (indarkeria sexuala) kuantifikatzeko. Besteak beste, datu hauek erregistratzen dira: biktimen eta biktimizazioen kopurua, motaren arabera biktimizazioak, gertakarien lekua, indarkeriaren biktimen eta erasoak egin dituzten gizonezkoen ezaugarri sozial eta demografikoak, biktimizazioen denbora-ezaugarriak, salaketak eta babes-aginduak.
- **Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, foru-aldundiak eta udalak:** emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren emakumeei zuzendutako zerbitzuen eta baliabideen gaineko arretari buruzko datuak. Kasuaren arabera, hauek erregistra daitezke: pertsona erabiltzaileen edo laguntza-eskatzzaileen kopurua, sexua, adina, lurraldea, laguntzen zenbatekoak, etab. Erakunde bakoitzaren urteko memorietan argitaratzen dira datu horiek, eta horietako batzuk, gainera, Emakundera (erakundearteko lantalde teknikora) bidaltzen dira urtero, Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenaren ebaluazioaren eta jarraipenaren harira.

“Inkestetako” iturriak:

- **Genero-indarkeria EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna, 2011:** Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari atxikitako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak argitaratutako lana da. Azterlanak, alde batetik, indarkeriak EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeengan duen eraginari buruzko datuak biltzen ditu, telefonoz 2.600 pertsonari (1.340 emakume) egindako inkesta baten ondoriozkoak. Bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeei eragindako indarkeriari buruzko informazioa dakar, bai eta familiako beste gizonezko batzuek eragindakoari eta lan-esparruan eta espazio publikoan eragiten zaienari buruzkoa ere. Bereizi egiten ditu bizitzan noizbait indarkeria jasandako emakumeak eta egun (azken urtean) indarkeria pairatzen ari direnak. Adierazitako indarkeriari eta 25 adierazleren multzo bat baliatuz ondorioztatutako indarkeriari buruzko datuak jasotzen ditu azterlanak. Azterlanak, bestalde, herritarrek emakumeen aurkako indarkeriaren gainean duten pertzepzioari buruzko informazioa biltzen du.

- **Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzioak eta iritziak, 2015:** Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratutako azterlana da, eta genero-berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko jarera eta iritziei buruzko informazioa dakar. Telefono bidezko inkestak egin dira datuak biltzeko, eta 18 urte edo gehiagoko 2.000 pertsonari egin zaizkie galderak.
- **Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. makroinkesta, 2015:** Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzak argitaratu du azterlan hau, 2015. urtean. Lau urtean behin egiten da 1999. urtetik, eta 2011. urtetik aurrera, Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzak hartu du bere gain lan hori egiteko ardura. Azterlanaren helburu nagusia da jakitea Espainian bizi diren emakumeen zer ehunekok pairatu izan duen edo gaur egun pairatzen duen indarkeria, emakume izateagatik. Bikoteak osatzen dituzten pertsonen artean emakumeen aurka eragiten den indarkeriari buruzko prebalentzia-datuak biltzen ditu estatu osoan, eta aurreko makroinkestekiko berrikuntza moduan, emakumeek bikotearen esparrutik kanpo pairatutako indarkeria fisikoaren eta sexualaren prebalentziari buruzko datuak bildu dira. Indarkeria jasan duten emakumeek adierazitako indarkeria soilik aztertzen da, baina bereizi egiten da bizitzan noizbait indarkeria pairatu duten emakumeek pairatutakoa eta egun (azken urtean) pairatzen ari diren emakumeek pairatutakoa. Metodologiaren alorrean egin den berrikuntza nabarmenetako bat da "kontrolerako" galdera bat egin dela, adierazi gabeko indarkeria-egoerak biltzen saiatzeko (alde horretatik, Nazio Batuetako jarraibideek gomendatzen dute emakume guztiei galdetzeko ea beldurrik izan duten beraien egungo bikotekidearekin edo bikotekide ohiekin). Inkestak etxeetan egiten dira 2011. urteaz geroztik, eta 2015. urtean, lehen aldiz, aurrez aurre egin zaizkie elkarriketak 16 urte edo gehiagoko emakumeei (aurreko makroinkestek adinez nagusi ziren emakumeei soilik egiten zizkien elkarriketak). Lagin zabaleko azterlana izan da, 10.171 emakumekoa.
- **Emakumeen aurkako genero-indarkeria: EB eskalako inkesta. Inkestaren konklusioen laburpena, 2014:** Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen FRA Agentziak argitaratutako inkesta da, emakumeen indarkeriari buruz egiten den mota horretako lehena da, Europar Batasuneko kide diren 28 estatuen bidez. Europar Batasun osoko 42.000 emakumeri egindako elkarriketetetan oinarritzen da. Indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoko bizipenen gaineko informazioa biltzen da, bikotekideen arteko indarkeriari dagozkionak barne hartuta ("etxeko indarkeria"). Era berean, jazarpenari, sexu-jazarpenari eta teknologia berriek emakumeek bizitako abusuen bizipenetan duten egitekoari buruzko galderak jasotzen dira inkestan. Horrez gainera, haurtzaroan bizitako indarkeriaz galdetzen da.

DATUAK I.: arazoaren tamaina eta lotutako faktoreak

Emakumeen aurkako indarkeriaren eragina: zenbat pertsonari eragiten die indarkeria mota bakoitzak?

Adierazi den moduan, ia aho batez onartzen da emakumeen aurkako indarkeria delitu ezkutua dela, hainbat arrazoiengatik. Oso gutxitan izaten da delitu horien berri eta, proportzioan, salaketa gutxi egiten dira; beraz, zaila da indarkeria horren zifra egiazkoak jakitea. Hori horrela izanda, iturri askotako datuak uztartzen dira atal honetan, ahalik eta esparru zabal eta egiazkoena erakusteko.

Erregistro ofizialeko datu orokor batzuk

Emakumeen aurkako indarkeriak EAEn urtero eragiten dituen biktimen kopuruari erreparatuta, agerikoa da lehen mailako arazo politikoa eta soziala dela.

Indarkeria hori **4.091 emakumek** pairatu zutela erregistratu zuen Ertzaintzak 2014. urtean.

Ertzaintzak, 2014. urtean, erregistratu zuen¹⁷ 2.932 emakumek pairatu zutela indarkeria EAEn beraien bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik, 859 emakumek jasan zutela indarkeria familiako beste gizonen batengandik, eta 300 emakumek pairatu zutela indarkeria sexuala familiatik kanpoko gizonengandik. Guztira, **4.091 emakume izan dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktima urtebeteko epean.**

Urte berean eraso bat baino gehiago pairatzen dituzte zenbait emakumek. Guztira, emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko 5.124 biktimizazioen¹⁸ berri izan zuen Ertzaintzak 2014. urtean, eta indarkeriazko 2.662 egoeraren berri izan du 2015. lehen sei hilabeteetan.

Lau indarkeria-egoera horietako hirutan gutxi gorabehera (% 75) lotura sentimentalaren bat zuten edo izan zuten erasotzaileak eta biktimak. Familian gertatu ziren egoera horien % 19 (ez dira hor sartzen bikotekideak eta bikotekide o horiek eragindakoak) eta gainerakoak (% 6) askatasun sexualaren aurkako delituak izan ziren (sexu-erasoak, jazarpena, etab.).

¹⁷ Ertzaintzak bere jardun-eremuan eta eskumenekin ezagututako eta dokumentu polizialean erregistratutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika-informazioa jasotzen dute aurkeztutako datuek.

Denbora-epe jakin batean delitu penalen hartzaile izan diren emakumeak zenbatu dira biktima moduan. Gizonezkoek (bikotekideak, bikotekide ohiak, senideren batek edo bestelako gizonak) eragindako indarkeria adierazten dute datuek.

¹⁸ Emakumeak denbora-epe batean delitu penal baten hartzaile izan diren egoerak dira biktimizazioak. Biktimizazio bat baino gehiago izan ditzake emakume batek.


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK ETA BIKTIMAK¹⁹. Guztizkoak eta % EAE, 2014 eta 2015eko 1. seihilekoa

2014		5.124 indarkeria-egoera	4.091 emakume
	Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa	3.864 egoera % 75	2.932 emakume % 72
	Familia barneko indarkeria	959 egoera % 19	859 emakume % 21
	Indarkeria sexuala	301 egoera % 6	300 emakume % 7
2015eko 1. seihilekoa		2.662 egoera	2.184 emakume

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Bizkaian bizi ziren 2014. urtean erasoak pairatutako emakumeen % 56,15, hamarretik hiru Gipuzkoan (% 29,97), eta % 13,88 Araban (eranskinean banakatuta kontsulta daitezke udaletako datuak).


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK LURRALDEAREN ARABERA. Guztizkoak eta % EAE, 2014



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

¹⁹ Bikotekideak edo bikotekide izandakoak emakumeari eragindako indarkeria adierazten du "bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria" epigrafeak; "indarkeria familiar" epigrafeak bizikidetz-unitateko edo aurreko epigrafean jaso gabeko senideren batek emakumeari eragindako indarkeria adierazten du, hau da, ez du bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa adierazten; eta "indarkeria sexuala" epigrafeak familiaren eremutik kanpo emakumearen aurka eragiten den indarkeria sexuala adierazten du ("askatasun sexualaren kontrako delituak" dira, tipifikazio hori dutenak Zigor Kodean).

Emakumeen aurkako indarkeria mota bakoitzaren banaketak joera bera erakusten du hiru lurralde historikoetan.



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.


Biktimizazioen % 56,48 Bizkaian gertatu ziren 2014. urtean, hamarretik hiru Gipuzkoan (%30,66) eta % 12,86 Araban. Tasa horiek nolabaiteko proportzionaltasuna dute emakumeek lurralde horietan duten banaketarekin.

Biktimizazioen batez bestekoa 45,64koa da 10.000 emakumeko EAEn, zertxobait handiagoa Bizkaian (48,63) eta txikiagoa Araban (40,59). Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indakeriari soilik erreparatzen baldin badiogu, joerak antzekoak dira lurralde guztietan.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOA LURRALDEAREN ARABERA Gutizkoak eta % EAE, 2014

	Gutizko datuak	%	emakumeen % EAEn 2014an	Tasa, 10.000 emak. k.
Araba	659	12,86	14,46	40,59
Bizkaia	2.894	56,48	53,01	48,63
Gipuzkoa	1.571	30,66	32,53	43,03
Gutitira	5.124	100,00	100,00	45,64


Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.



Non gertatzen dira erasoak? Udalerrien arabera banakatutako datuek 2014. urtean adierazi zuten hiriburuetan gertatutako biktimizazioen ehunekoa, lurralde osoan gertatutakoekiko, % 31 ingurukoa izan zela Bizkaian (911 Bilbon, eta 1983 beste udalerri batzuetan) eta Gipuzkoan (488 Donostian, eta 1083 beste udalerri batzuetan), eta % 78ra igo zela proportzio hori Araban (514 Gasteizen, eta 145 beste udalerri batzuetan). Hala ere, hiru hiriburuak biktimizazioen kopuruan dituzten aldeak ez dira hain handiak udalerri bakoitzean dauden emakumeen populazioaren bolumenari erreparatzen baldin bazaio; hala, faktore hori kontuan hartuta, Bilbok du ratorik handiena, 38 biktimizazioko tasa baitu 10.000 emakumeko, 35ekoa du Donostiak eta 31koa Gasteizek.

Adierazi den moduan, EAE osoan 46 biktimizazio inguru gertatu ziren 10.000 emakumeko, baina ratio hori, oro har, zertxobait handiagoa izan ohi da biztanleria txikiko udalerrietan; hala ere, oso kontuan izan behar da tentu handiz aztertu behar direla oso biztanle gutxi dituzten udalerrietako tasak²⁰.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK HIRIBURUETAN. %. EAE, 2014



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

EAEko hamar udalerritatik, zazpitan (% 70,92) erregistratu ziren biktimizazioak, baina aldeak ikusten dira lurraldetik lurraldera. Biktimizazioak gertatu ziren Bizkaiko udalerrien % 77,68n eta Gipuzkoakoen % 70,45ean; Araban, berriz, udalerrien %56,86an gertatu zen biktimizazioen bat (biztanleriaren proportzio oso handi bat Gasteiz hiriburuan bizitzearen ondorioa da hori).

Ez zen biktimizaziorik erregistratu 73 udalerritan (EAEko udalerrien % 29,08). Udalerri guztien % 7,3 dira biktimizazioen tasa oso txikia duten udalerriak (10.000 emakumeko 0,1 eta 14,9 biktimizazio dituztenak); udalerri guztien % 17,4k du biktimizazio-tasa txikia (15 eta 29,9 bitartekoa); udalerrien % 31,5 dira tasa ertainak dituztenak (30 eta 44,9 bitartekoak);

²⁰ Alde horretatik, gogorazi behar da askotan nahikoa dela udalerri batean biktimizazio bakarra gertatzea bertako tasak gora egiteko; beraz, datu hori tentu handiz interpretatu behar da.

udalerrien % 21,9k biktimizazioen tasa handia du (45 eta 59,9 bitartekoa); eta gainerako % 21,9ak oso tasa handiak ditu (60 biktimizaziotik gorakoa 10.000 emakumeko).

BIKTIMIZAZIOEN KOPURUAK ETA TASAK ARABAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA 2014



ARABA	GUZTIRA		BIKOTEKIDEA/BIKOTEKIDE OHIA	
	Biktimizazio-kopurua	Tasa, 10.000 emak.	Biktimizazio-kopurua	Tasa, 10.000 emak.
UDALERRIA > 10.000 EMAK.	514	37,26	385	27,91
5.001 ETA 10.000 EMAK. BITARTEKO UD.	44	-	32	-
1.000 ETA 5.000 EMAK. BITARTEKO UD.	32	17,37	20	10,86
UDALERRIA < 1.000 EMAK.	47	78,52	34	56,80
GUZTIRA	659	40,59	488	30,06

*Tasa kalkulatzeko, INE erakundeak duen errolda jarraituak 2014ko urtarrilaren 1ean zituen emakumeei buruzko biztanleria-datuak erabili dira.

**Baztertu egin dira emakumearen udalerrria ezezaguna zuten biktimizazioak (biktimizazioen % 3,34).

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

BIKTIMIZAZIOEN KOPURUAK ETA TASAK BIZKAIA, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA 2014



BIZKAIA	GUZTIRA		BIKOTEKIDEA/BIKOTEKIDE OHIA	
	Biktimizazio-kopurua	Tasa, 10.000 emak.	Biktimizazio-kopurua	Tasa, 10.000 emak.
UDALERRIA > 10.000 EMAK.	2075	42,58	1586	32,55
5.001 ETA 10.000 EMAK. BITARTEKO UD.	296	59,76	213	43,00
1.000 ETA 5.000 EMAK. BITARTEKO UD.	374	77,21	277	57,18
UDALERRIA < 1.000 EMAK.	149	70,86	45	45,55
GUZTIRA	2.894	48,63	2.187	36,75

*Tasa kalkulatzeko, INE erakundeak duen errolda jarraituak 2014ko urtarrilaren 1ean zituen emakumeei buruzko biztanleria-datuak erabili dira.

**Baztertu egin dira emakumearen udalerrria ezezaguna zuten biktimizazioak (biktimizazioen % 2,73)

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

BIKTIMIZAZIOEN KOPURUAK ETA TASAK GIPUZKOAN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA 2014




GIPUZKOA	GUZTIRA		BIKOTEKIDEA/BIKOTEKIDE OHIA	
	Biktimizazio-kopurua	Tasa, 10.000 emakum.	Biktimizazio-kopurua	Tasa, 10.000 emakum.
UDALERRIA > 10.000 EMAK.	881	31,57	656	23,51
5.001 ETA 10.000 EMAK. BITARTEKO UD.	383	67,73	304	53,76
1.000 ETA 5.000 EMAK. BITARTEKO UD.	221	94,03	162	68,92
UDALERRIA < 1.000 EMAK.	45	74,55	30	49,70
GUZTIRA	1.571	43,03	1.189	32,56

*Tasa kalkulatzeko, INE erakundeak duen errolda jarraituak 2014ko urtarrilaren 1ean zituen emakumeei buruzko biztanleria-datuak erabili dira.

**Baztertu egin dira emakumearen udalerrria ezezaguna zuten biktimizazioak (biktimizazioen % 2,61)

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIO-TASAK UDALERRIEN ARABERA. EAE, 2014




Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Noiz gertatzen dira erasoak? Urte osoan gertatzen dira biktimizazioak, baina estatistikek adierazten dute udan edo udaldiaren inguruko hiletan (uztaila, ekaina, iraila, urria eta abuztua) gertatzen direla emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazio gehien (urteko batez bestekoa baino % 10,30 kasu gehiago erregistratu zen 2014ko uztailean); hala ere, kontuan izan behar da joera hori bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeriaren kasuan nabarmentzen dela (biktimizazio guztien hiru laurden gertatzen da indarkeria mota horren ondorioz).

Familian gertatzen diren gainerako kasuei soilik erreparatzen baldin bazaie, ikusten da abenduan, urtarrilean eta apirilean gertatzen direla nagusiki, Gabonetako eta Aste Santuko hiletan.

2015eko lehen sei hilekoan eta 2014ko denbora-epe berean gertatu diren kasuan konparatuz gero, goranzko joera ikusten da ia hil guztietan. Emakumeek 416 eraso-egoera pairatu zituzten batez beste 2014ko lehen sei hilekoan, eta kopuru hori 444 erasora igo da 2015eko lehen sei hilekoan.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK HILAREN ARABERA. Guztizkoak. EAE, 2014 eta 2015eko lehen sei hilekoa




Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Bestalde, asteburuetan (eta, batik bat, igandeetan) egin zitzairen 2014. urtean eraso gehien emakumeei (esaterako, ostegunetan gertatutakoak baino % 43,20 biktimizazio gehiago erregistratu ziren igandeetan).

Joera horri berari jarraitzen dio, nagusiki, bikotekideek eta bikotekide ohiek eragindako indarkeriak, baina egoera dezente aldatzen da familia barneko indarkeriaren eta askatasun sexualaren aurkako delituen esparruan (hala ere, igandea da, indarkeria horietan ere, biktimizazio gehien hartzen dituen eguna). Era berean, igandearen prebalentzia handiago bat erakusten dute 2015eko lehen sei hileko datuek.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA. Guztizkoak eta % EAE, 2014 eta 2015eko lehen sei hilekoa




Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Urtez urte gora egin du erregistratutako **biktimizazioen** kopuruak. 2015eko lehen sei hilekoan, aurreko urteko epe berean baino ia % 7 gehiago erregistratu dira.

Igoera horren arrazoi nabarmenetako bat da indarkeria pairatzen duten gero eta emakume gehiagok erabakitzen dutela erakundeetara jotzea, laguntza eskatzeko. Dena den, ezin da baztertu emakumeen aurkako indarkeria-kasuen gorakada bat gertatu izana.

Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen datuen bilakaerak goranzko joera ageri du azken urteetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2010ean baino 839 indarkeria-egoera gehiago erregistratu ziren emakumeen aurka 2014. urtean; hau da, **biktimizazioen kopuruak % 19,58 egin du gora lau urtetan**, eta urtetik urterako batez besteko igoera % 5koa izan da, gutxi gorabehera. 2014. urtean, ia % 3ko igoera erregistratu zen 2013. urteko biktimizazioekiko (142 indarkeria-egoera gehiago) eta **2015eko lehen sei hilekoan, berriz, aurreko urteko denbora-epe berean zenbatutakoak baino ia % 7 gehiago erregistratu dira.**

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA. Guztizkoak eta ehunekoen igoera urtetik urtera. EAE, 2010-2014





Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Emakumeen aurka eragiten diren indarkeria mota guztietan egin du gora biktimizazioen kopuruak; hala ere, azken urtean (2013tik 2014ra bitartean), indarkeria sexualeko kasuek izan dute igoera-ehunekoa handia (indarkeria mota horretako biktimizazioek % 9,76 egin dute gora). Indarkeria horren atzetik, bikotekideek eta bikotekide ohiek eragindako indarkeriaren biktimizazioen kopurua igo da gehien 2014an, aurreko urtean baino % 3,56 gehiago zenbatu baitira. Azkenik, familian emakumeen aurka eragindako indarkeriaren biktimizazioen kopurua 2013. urtean baino % 2,83 txikiagoa izan da.

Bestalde, lurraldeei erreparatuta, Bizkaian igo da gehien biktimizazioen kopurua epe horretan (% 6,53), eta haren atzetik, Gipuzkoan (% 6,07). Araban, ordea, % 5,85 behera egin dute biktimizazioek.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA INDARKERIA MOTAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA
Guztizkoak eta % EAE, 2013-2014



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Zenbait azterlanek adierazten dute erregistratutako biktimizazioen eta salaketen gorakadak lotura duela erakunde publikoek eta emakumeen elkarteek arazoa ikusarazteko egin duten lanarekin eta gizartearen sentsibilizazio gero eta handiagoarekin. Lan horren guztiaren ondorioz, erakundeak eta profesionalak gero eta jarrera hobea dute, gero eta laguntza-baliabide eta babes-tresna gehiago jartzen dira, eta finean, indarkeria pairatzen duten emakumeek gero eta konfiantza handiagoa dute instituzioengan. Indarkeriaren egiturazko izaera aintzat hartuta, **pentsatzekoa da biktimizazioen goranzko bilakaeraren arrazoa salaketan dagoela, hau da, gero eta gehiago direla pairatzen duten indarkeria-arazoa publiko egiteko prest dauden emakumeak**; beraz, ezkutuan dagoen indarkeria gero eta gehiago azaleratzen ari dela esan daiteke.

Hala ere, ezin da baztertu biktimizazioen kopuruaren igoera hori azal dezakeen beste hipotesi bat. Azterlan batzuek adierazi dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde eman diren zenbait urratsek aldaketak eragin dituztela sexuen arteko harreman moduetan, eta gizonezko batzuk zailtasunak izaten ari direla aldaketa horietara egokitzeko; hala, indarkeria-egoerak sorraz ditzakete erresistentzia horiek.

Azken 10 urteetan (2005. urtearen eta 2015. urtearen lehen seihilekoaren bitartean), Ertzaintzak emakumeen aurkako **45.851 indarkeria-egoera erregistratu ditu guztira**.

Indarkeria mota horrek beti ekartzen ditu ondorio psikologiko nabarmenak hura pairatzen duten emakumeengan. Emakume horietako askok, gainera, zauri fisikoak jasaten dituzte, eta zenbaitetan, erail egiten dituzte. **2002. urtetik gaur egunera, 38 emakume erail dituzte** Euskal Autonomia Erkidegoan.

Zehazki, aurten, orain bitartean, hiru emakume izan dira erailak (lehen sei hilekoan horietako bat eta azken hil hauetan beste biak): María Ana (29 urtekoa), Leyre (34 urtekoa) eta Almudena (39 urtekoa).


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ERAILDAKO EMAKUMEEN KOPURUAREN BILAKAERA. EAE, guztizkoak. 2002tik 2015eko 1. sei hilekora



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Bikotekideek edo bikotekide ohiek erail dituzten emakumeei buruzko datuak bildu ditu Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritzak, eta datu horiek ere agerian uzten dute arazo honen tamaina. Datu horiei erreparatuta, ez genituzke egoera bakartuen moduan ikusi behar mutil-lagunek, senarrek, bikotekide ohiek edo bestelako gizonetako erasotutako edo eraildako emakumeen egoerak. Espainia osoan, 2003. urteaz geroztik, 814 emakume erail dituzte haien bikotekideek edo bikotekide izandakoek.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ERAILDAKO EMAKUMEEN KOPURUAREN BILAKAERA ESPAINIAN. Guztizkoak. 2003-2015/11/23



Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta berdintasun Ministerioa).

Indarkeria ezkutua, inkestetako datu orokor batzuk

Indarkeria pairatzen duten emakume askoren egoera ez da erregistroetan jasotzen.

Kalkuluen arabera, indarkeria hori pairatzen ari diren **emakumeen % 48** ez da joan ez poliziarengana, ez epaitegira, ez laguntza-zerbitzuetara.

Arazoaren zati bat baino ez dute azalerazten Ertzaintzaren datuek; izan ere, **ez dira erregistroetan jasotzen erakundeetara laguntza eske joan ez diren emakumeen egoerak.**

*Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (FRA)*²¹ Europar Batasunean emakumeei eragiten zaien indarkeriaren gainean egindako azterlan batek ohartarazten du indarkeriaren biktima diren emakume gehienek ez dutela beren egoera salatzen, ez poliziari, ez delitu mota horren biktimei laguntzeko elkarteei; beraz, indarkeriaren biktima diren emakume gehienek ez dute jotzen, ez sistema judizialera, ez bestelako zerbitzuetara.

Illo horri berari jarraitzen dio *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko 2015eko Makroinkesta*²², eta, berariaz, ohartarazten du Espainian bizi eta beren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria pairatu duten emakumeen % 29k soilik jo duela (beren kabuz edo beste norbaiten bidez) poliziarengana edo epaitegietara bere egoera salatzerako. Alde horretatik, indarkeria mota hori pairatu duten emakumeen % 45ek jo du zerbitzu mediku, juridiko edo sozialetara laguntza eske. Finean, eta kalkuluen arabera, **indarkeria mota hori pairatzen duten emakumeen % 48 inguruk ez du laguntzarik eskatu, ez poliziari, ez epaitegiari, ez laguntza-zerbitzuei.**

Hori horrela, ikerlan honen “esparrua” azaltzeko atalean adierazi den moduan, inkestetako datuek informazio giltzarria ematen dute arazoaren tamainari buruzko ikuspegia osatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista EAEn* izeneko txostena egin zuen Eusko Jaurlaritzak 2011n²³, eta txosten horren arabera, **16 urte edo gehiagoko emakumeen % 12,5ek pairatu du noizbait emakumeen aurkako indarkeria motaren bat Euskal Autonomia Erkidegoan**, hau da, 231.556 emakumek, gutxi gorabehera. Gaur egun, emakumeen % 2 inguruk adierazi du indarkeria mota hori pairatzen ari dela –37.419 emakume, gutxi gorabehera–.

Azterlan batzuek egin dituzten kalkuluen arabera, 16 urtetik gorako emakumeen % 12,5 inguruk pairatu du indarkeria mota hori **noizbait beren bizitzan.**

Azterlan horren arabera, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria pairatzen ari da emakume horien % 7,5ek (138.934 emakume), familia barneko indarkeria % 1,79k –ez du barne hartzen bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa– (33.159 emakume), lan-

²¹ EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women: an EU-wide survey*. 2014. Linean eskuragarri: http://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-technical-report_en.pdf

EBn bizi diren 18 eta 74 urte bitarteko emakumeak.

²² OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERTINTASUNERAKO MINISTERIOA. *Emakumeen aurkako indarkeriaren makroinkesta (2015) Emaitzen aurrerapena*. 2015. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE_MACROENCUESTA_VIOLENCIA_CO_NTRA_LA_MUJER_2015_05-04-15.pdf

Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago duten emakumeak.

²³ EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA EMATEKO ZUZENDARITZA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Bilbo: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, 2011.

EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

eremuan eragindako indarkeria % 1,42k, eta eremu sozialean edo publikoan eragindako indarkeria % 2,7k (50.016 emakume).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, INDARKERIA MOTAREN EDO EREMUAREN ARABERA. % ETA ABSOLUTU ZENBATETSIAK. EAE, 2011


2011	BIZITZAN NOIZBAIT		GAUR EGUN	
	%	EMAKUMEAK	%	EMAKUMEAK
 Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	7,50	138.934	1,19	22.044
 Familia barneko indarkeria (bikotekide edo bikotekide ohi ez direnek eragindakoa)	1,79	33.159	0,67	12.411
 Lan-eremuko indarkeria	1,42	-	0,4	1.690
 Eremu sozial eta publikoko indarkeria	2,70	50.016	0,15	2.779
	12,5	231.556	2,02	37.419

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Indarkeria mota bakoitzari begiratuta, eta azterlan horrek berak adierazten duenaren arabera, **indarkeria psikologikoa da erabiliena**, eta haren atzetik, nahikoa urrun, indarkeria fisikoa erabiltzen da. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan direla adierazi duten emakumeen % 78,4k —emakume guztien % 9,8k— aitortu du indarkeria psikologikoa pairatu duela noizbait bere bizitzan.

Indarkeria mota bakoitzaren presentzia nabarmen aldatzen da eremutik eremura. Izan ere, asko erabiltzen da indarkeria psikologikoa lan-eremuan eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan (baita, maiz, indarkeria fisikoa ere), baina indarkeria mota horren erabilera nabarmen jaisten da eremu sozial edo publikoan. Azken eremu horretan, maizago egiten dira eraso sexualak, pertsona ezezagunen aldetik.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, PAIRATZEN DUTEN EDO PAIRATU IZAN DUTEN INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %. EAE, 2011



Oharra: Ehunekoen batura ez da 100, aukerak ez direlako baztertzailak.

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Kalkuluen arabera, Europar Batasunean 18 eta 74 urte bitarte dituzten emakumeen % 7k pairatu du noizbait indarkeria fisikoa eta % 2k indarkeria sexuala.

Halaber, aurrez adierazitako azterlan europarrak **zenbatetsi du 13 milioi emakumek pairatu zutela indarkeria fisikoa 2014. urtean Europar Batasunean, lurralde-eremu horretan 18 eta 74 urte bitarte dituzten emakumeen % 7k. Horrez gainera, eta kalkuluen arabera orain ere, 3,7 milioi emakumek pairatu zuten indarkeria sexuala Europar Batasunean, emakumeen % 2k.**

Azterlanak adierazi du, era berean, **Europar Batasuneko emakumeen erdiak (% 53k) ahalegina egiten duela leku eta egoera jakinak saihesteko, zenbaitetan bederen, eraso fisiko edo sexualen biktima izateko beldurrarengatik**, baina gizonezkoek ez dituzte neurri horretan mugatzen beraien mugimenduak (hori adierazten dute delituen biktimizazioei eta delituei zaien beldurrari buruzko inkestek).

Emakumeen aurkako indarkeria erdi ezkutuan gertatzen dela eta gizarteak nekez ikusten duela aintzat hartuta, emakume batzuek berariaz salatutakoaz harago ikertu nahi izaten dute inkesta batzuek. Aintzat hartuta emakumeak indarkeria-egoerak pairatzen ari daitezkeela, indarkeria hori bizi dutela aitortuta edo aitortu gabe; Eusko Jaurlaritzak 2011n egindako inkestaren galderetako batzuek adierazle zuzen eta zeharkakoak jasotzen dituzte, emakumeen aurka hainbat eremutan erabiltzen diren indarkeria motak hautemateko.

Hori horrela, emakumeek galdera horiei emandako erantzunari erreparatuta, haien aurka indarkeria erabili dela ondorioztatu daiteke zenbait kasutan, alde batera utzita haiek indarkeriaren biktima diren aitortzen duten ala ez. Aurrez egindako azterlanek indarkeria “teknikoa” edo “ondorioztatua” deritzote indarkeria aitortu gabeko horri, eta bereizi egin dituzte egoera horiek, “ageriko” edo “adierazitako” indarkeria-egoerekiko. Inkestak, guztira, 25 indarkeria-egoera²⁴ planteatzen ditu (indarkeria fisikoaren adierazpen dira 4; indarkeria psikologikoarena 11; indarkeria sexualarena 7; eta bestelako indarkeria motena 3, hala nola

²⁴ Eremuaren arabera, adierazleak elkar baztertzen dira; hala, familia-eremuko 23 item galdetu dira, lan-eremuan 18 item, eta eremu sozialean, berriz, 17 item aztertu dira.

ekonomikoarena eta sozialarena), eta jakin nahi du galdetuak izan diren euskal emakumeek zer maiztasunekin bizi izan dituzten egoera horiek azken urtean.

Indarkeria ondorioztatuari buruzko datu eskuragarriek adierazten dute EAEko emakumeen % 29,6k bizi izan duela azken urtean emakumeen aurkako indarkeria-egoeraren bat, eta % 18,2k bizi izan duela gutxienez egoeraren bat aldizkakotasun jakin batez (maiz edo noizean behin). Galdetutako emakumeen % 2,9k adierazi du egoera horietako hiru edo gehiago bizi izan dituela *maiz edo noizean behin*, eta % 1,6k adierazi du horrelako bost egoera baino gehiago bizi izan dituela.

Alde argi eta nabarmena dago emakumeek kanpora adierazten dutenaren eta horren atzetik dagoen errealitatearen artean. Galdera zuzenak egin ondoren, **emakumeen % 2k aitortu du indarkeriaren biktime sentitzen direla gaur egun**, baina, planteatu zaizkien egoerei emandako erantzunei erreparatu ondoren, ondorioztatu da **emakumeen % 18,2k bizi duela, nolabaiteko maiztasunez, indarkeria-egoeraren bat**. Beste azterlan batzuek ere egiaztatu dute alde edo diferentzia hori.

Inkesta erantzundako emakumeen % 2 inguruk adierazten du indarkeria mota hori pairatzen ari dela; hala ere, emakumeen % 18 inguruk bizi ditu, nolabaiteko maiztasunez, indarkeria-egoerak.

AZKEN URTEAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-EGOERAK BIZI IZAN DITUZTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ETA EGOEREN KOPURUAREN ARABERA. GUZTIZKO ZENBATETSIK ETA % EAE, 2011

OROKORRA (EREMU GUZTIAN)	NOIZBAIT	MAIZ EDO NOIZEAN BEHIN	EGOERA HORRETAN DAUDEN EMAKUMEEN ZENBATESPENA
GUTXIENEZ EGOERAREN BAT (1/25 edo gehiago)	29,6	18,2	337.146
HIRU EGOERA BAINO GEHIAGO (3/25 edo gehiago)	5,1	2,9	53.721
BOST EGOERA BAINO GEHIAGO (5/25 edo gehiago)	2,6	1,6	29.639

Oharra: Egoera horretan dauden emakumeen zenbatespena egiteko, maiz edo noizean behin erantzun duten emakumeen ehunekoei erreparatu zaie.

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Datu banakatuak dakartzaten taulak erakutsiko dira orain, xehetasunez aztertzeko indarkeria-egoerak.

Egoera horien artetik, nabarmentzekoa da mugikorraren, posta elektronikoaren eta sare sozialen bidez egiten den kontrola. Gutxi dira oraindik “ziberjazarpen”²⁵ deritzonaren gaineko datu kuantitatibo espezifikoak, baina zenbait azterlanek ohartarazi dute, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien goraldian baita, oso zabalduta daudela emakumeen aurkako indarkeria erabiltzeko modu berriak, batik bat gazteen artean.

Tresna horiek erabiltzean (smartphoneak, sare sozialak, etab.), larriagoa izan daiteke emakumeen aurka eragiten den indarkeria; izan ere, gero eta handiagoak dira emakumeak kontrolatzeko aukerak eta gero eta kontrol-tresna gehiago dago. Gainera, gero eta zailagoa da indarkeria-egoerak hautematea, jokabide horietako batzuk gehiegizko kontrol baten adierazle direnaren gaineko kontzientzia apaltzen denean.

²⁵ TORRES, C. (zuz.). *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud: un riesgo en la sociedad de la información y del conocimiento*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioko argitalpen-zentroa. Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza, 2013.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK PAIRATU DITUZTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ARABERA. %. EAE, 2011.

		Noizbait azken urtean	Maiz edo noizean behin
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea.	1,6	1,6
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu.	1,2	0,7
	Kaletik jarraitu zaitu.	3,4	0,7
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin eraso zaitu.	0,7	0,4
		Noizbait azken urtean	Sarritan edo batzuetan
INDARKERIA PSIKOLOGIKOA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.).	7,7	4,5
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu.	6,6	4,1
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.).	5,8	3,7
	Ez du zure lana balioesten.	8,8	6,8
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu.	1,8	1,2
	Janzten duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu).	0,7	0,7
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu.	3,0	2,2
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula.	1,6	1,1
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela.	2,4	1,9
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen.	2,3	1,8
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu.	1,0	0,6
		Noizbait azken urtean	Sarritan edo batzuetan
SEXU-INDARKERIA	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik.	0,4	0,3
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora.	2,1	1,0
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean.	6,6	3,1
	Zu bortxatzen saiatu da.	0,4	0,4
	Bortxatu egin zaitu.	0,2	0,2
	Exhibizionismo-ekintzak ikusi dituzu kalean.	5,7	1,0
	Jazarpenak, ukituak edo nahi gabeko igurtziak izan dituzu taberna edo dantzalekuren batean, kalean...	4,5	2,3
		Noizbait azken urtean	Sarritan edo batzuetan
BESTE BATZUK	Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin	1,0	0,7
	Telefonia, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu.	1,3	1,0
	Irabazten duzu dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina.	0,8	0,8

Oharra: taulan, beltzez adierazi dira larrientzat jo ditugun egoerak.

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria mota guztien artean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa da tasa handienak erakusten dituen, bai gurean, bai mundu osoan. Indarkeria mota horri, zentzu hertsian, genero-indarkeria esan ohi zaio.

Ertzaintzak 2014an erregistratu zituen lau indarkeria-egoeretatik hirutan zuten, edo izana zuten, **lotura sentimentalen** bat erasotzaileak eta biktimak.

Gogoratu behar da **emakumeek beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik pairatutako 3.864 indarkeria-egoera erregistratu zituela Ertzaintzak 2014. urtean** (erregistratutako biktimizazio guztien % 75), **eta 2.932 emakume izan zirela indarkeria mota horren eraginpean** (indarkeriaren eraginpeko emakume guztien % 72).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK ETA BIKTIMAK BIKOTEKIDEEKIKO ETA BIKOTEKIDE OHIEKIKO LOTURAN Guztizkoak eta % EAE, 2014



Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa

3.864 indarkeria-egoera

2.932 emakume

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak 2011n egin zuen *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista EAEn* txostenak egindako kalkuluen arabera, **EAEko emakumeen % 7,5ek paira zezaketen bizitzan noizbait indarkeria beren bikotekideen edo bikotekide ohiengandik** (138.934 emakume, gutxi gorabehera), **eta % 1,19 ariko litzateke indarkeria hori pairatzen gaur egun** (22.044 emakume, gutxi gorabehera).

BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIAREN BIKTIMAK. % eta guztizko zenbatetsiak. EAE, 2011

2011	BIZITZAN NOIZBAIT		GAUR EGUN	
	%	EMAKUMEAK	%	EMAKUMEAK
 Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa	7,50	138.934	1,19	22.044

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Bikotekideek edo bikotekide ohiek eguneroko bizitzan edo etxean eragiten duten indarkeria mota horrek ezaugarri zehatzak ditu, eta zenbait autorek adierazi egin dituzte ezaugarri horiek²⁶:

- *Kode patriarkalaren ondoriozko desberdintasunak*: gizonezkoek beren bikotekideengan eragiten duten indarkeriaren arrazoiak egiturazkoak dira, eta gizonezkoak gehiago izatearen ideologian oinarritzen dira. Emakumezko askok bat egiten duten pentsaera horrekin, eta ondorioz, rol oso desberdinak barneratzen dituzte gizonak eta emakumeak.
- *Ikusezina gizartean*: Emakumeen bikotekideek etxeetan emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria da munduan zabalduen dagoen krimen ezkutua.
- *Kontrolatu eta zigortzeko tresna*: Emakumeen aurka etxeetan erabiltzen den indarkeriaren helburua instrumentala da erabat, haren helburua baita gizonaren nagusitasuna eta emakumearen menekotasuna ziurtatzea, emakumeari zer egin behar duen adieraztea, autoritatea nork duen erakustea eta bikoteko kide bakoitzak zer egiteko dituen erakustea. *“Emakumeari argi utzi nahi zaio gizonaren borondatearen eta gogoaren mende izan behar duela, eta gizonak emakumeari kontuak eskatzeko, hura kontrolatzeko eta zenbait gauza debekatzeko ahalmena duela”*.
- *Erruduntasun-sentipena*: Erasotzaile askorengan ez da erruduntasun-sentipenik ageri, baina emakume askok erruduntasun handia sentitzen dute bikotekidearengandik jasotzen duten tratatu txarrengatik.
- *Irteerarik gabeko harremana*: Indarkeria behin eta berriro tresna moduan erabilia, prozesu bat osatzen da, eta emakumea eta gizona prozesu horretan harrapatuta geratzen dira. Kateatuta geratzen direla esan daiteke: emakumea, beldurragatik eta hartzen duen indarkeriaren meneko delako; eta gizona, seguru sentitzen delako erasoei eutsita. Gizonaren kontrola finkatu egiten da, eta horrek gero eta eraso handiagoak egitera darama; hala, indarkeria progresiboa izaten da sarritan.

Zenbat iraun ohi du indarkeriak? Eusko Jaurlaritzaren inkestako datuen arabera, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen duten emakumeen **ehuneko adierazgarri batek, % 46,7k, 10 urte baino atzeragotik pairatzen du indarkeria hori.**

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria pairatzen duten emakumeen ia erdiak hamar urte baino gehiago daramatza egoera

BIKOTEKIDEARENGANDIK EDO BIKOTEKIDE OHIARENGANDIK INDARKERIA PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEAK, INDARKERIAREN IRAUPEN-DENBORAREN ARABERA. % EAE, 2011

	%
Urtebete baino gutxiago	26,7
Urtebete eta 5 urte bitartean	13,3
6 eta 10 urte bitartean	13,3
10 urtetik gora	46,7
Guztira	100

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Indarkeria psikologikoa da indarkeria mota ohikoena bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeriaren eremuan –bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu dutela aitortzen duten emakumeen % 87k onartzen du mota horretako indarkeriaren biktima izan dela—. Horrez gainera, nabarmentzekoa da bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa pairatu duten emakumeen ehunekoa (% 42).

²⁶ ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

Aurreko indarkeria motek bezainbesteko presentzia ez duten arren, azpimarratzekoa da bikotekidearen edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten emakume horien % 19k indarkeria soziala pairatu izana adierazi duela (bakartzea, senide eta lagunengandik urruntzea, jendaurrean iraintzea, etab.), % 18k indarkeria ekonomikoa pairatu izana (berariaz mugatzea edo kentzea baliabide ekonomikoak...) eta % 10ek indarkeria sexuala pairatu izana (sexu-erasoak, abusu sexualak, jazarpena...).

BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK, PAIRATZEN DUTEN EDO PAIRATU IZAN DUTEN INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %. EAE, 2011

	BIZITZAN NOIZBAIT	GAUR EGUN
Psikologikoa	87	100
Fisikoa	42	12,5
Fisikoa eta psikologikoa	33	12,5
Soziala	19	12,5
Ekonomikoa	18	12,5
Sexuala	10	6,3

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAE: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAE bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Aurreko atalean adierazi den moduan, zenbait adierazletatik ondorioztatutako indarkeria (indarkeria tekniko ere esaten zaio) erreferentzia osagarri interesgarria da bikotekideek edo bikotekide ohiak emakumeei eragiten dieten indarkeriaren arazoaren tamaina neurtzeko.

Eusko Jaurlaritzaren azterlanak 2011. urtean hauteman zuen **EAEko emakumeen % 8,5ek indarkeria-egoeraren bat bizi izan duela bere bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik azken urtean, eta % 6,3k nolabaiteko maiztasunez bizi duela egoera hori** (hala ere, % 1 ingurukoa izan zen emakumeek aitortutako indarkeria-tasa, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasotakoa).

Bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin eguneroko bizitzan izaten diren indarkeria-egoerak xehetasunez aztertuz gero, ikusten da emakumeak balioa kentzea edo mespretxatzea dakarten egoerei buruzko itemak nabarmentzen direla, bai emakumeek beraiek egiten dutenarekiko, bai beste pertsona batzuekin duten harremanekiko (*“ez du zuk egindako lana balioesten”, “oihu egiten dizu, iraindu edo mehatxatu”* edo *“lotsagarri uzten zaitu beste pertsona batzuen aurrean”*).

Esparru horretan aztertu diren indarkeria-adierazpen guztien artean, *“ez du baloratzen egiten duzun lana”* izan da emakumeek beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik gehien pairatu dutena. Galdetuak izan diren emakumeen % 4,1ek adierazi du hori, eta galdetuak izan diren emakumeen % 3,5ek aitortzen du sarritan edo batzuetan gertatzen zaiela hori. Nabarmentzekoak dira, era berean, beste egoera batzuk, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik noizean behin edo maiz pairatu izan dituztela adierazi baitute zenbait emakumek: *oihuak, irainak edo mehatxuak (% 1,6), lotsagarri uztea beste pertsona batzuen aurrean (% 1,6) eta ironiaz jokatzeko sinesmenak mespretxatzeko, hala nola elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea, etab. (% 1,5).*

Deigarria da, halaber, emakumeen % 1,1ek aitortzea bere bikotekideak edo bikotekide ohiak askotan esaten diola gauza guztiak gaizki egiten dituela eta traketsa dela. Prebalentzia-ehunekoak %1aren ingurukoak dira egoera hauetan: *Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako*

behar bezala zaintzen/ulertzen; haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea; etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula; eta ordutegiak kontrolatzen dizkizu.

AZKEN URTEAN BIKOTEKIDEARENGANDIK EDO BIKOTEKIDE OHIARENGANDIK EMAKUMEEN AURKAKO ZENBAIT INDARKERIA-EGOERA PAIRATU DITUZTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ARABERA. %. EAE 2011

	NOIZBAIT AZKEN URTEAN	MAIZ EDO NOIZEAN BEHIN
INDARKERIA FISIKOA		
Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea.	1,0	1,0
Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu.	0,7	0,5
Kaletik jarraitu zaitu.	0,1	0,1
Armez, aiztoz edo bestelako objekturen batez eraso zaitu.	0,1	0,1
INDARKERIA PSIKOLOGIKO EDO ESPIRITUALA		
Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.).	1,9	1,5
Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu.	2,2	1,6
Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.).	1,9	1,6
Ez du zure lana balioesten.	4,1	3,5
Ordutegiak kontrolatzen dizkizu.	1,1	0,9
Janzten duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu).	0,7	0,7
Zenbaitetan beldurra ematen dizu.	1,0	0,8
Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula.	1,0	0,9
Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela.	1,4	1,1
Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen.	1,3	1,0
Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu.	0,3	0,3
SEXU-INDARKERIA		
Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik.	0,3	0,3
Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora.	0,3	0,3
Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean.	0,2	0,1
Zu bortxatzen saiatu da.	0,1	-
Bortxatu egin zaitu.	0,1	-
Komunikatzeko beste modu batzuk.		
Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin	0,7	0,7
Telefona, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu.	1,0	0,7
Irabazten duzun dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina.	0,7	0,7

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Estatuak bildutako datu berriago batzuek adierazten dute indarkeria mota horrek eragin-ehuneko handiagoak izan ditzakeela. *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkestak 2015ean* adierazi du Espainian bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeen % 10,3k pairatu duela bizitzan noizbait indarkeria fisikoa bere bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik, hau da, 2.058.851 emakumek. Horrez gainera, emakumeen % 1,8k, hau da, 359.799 emakumek, aitortzen du indarkeria mota horren biktima izan dela azken urtean.

Lehen adierazi den moduan, indarkeria fisikoaz gain, emakumeek beste indarkeria mota batzuk pairatzen dituzte bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik. Inkesta horren beraren datuen arabera, Espainian bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeen % 8,1ek indarkeria sexuala pairatu du bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik. Ehuneko horrek 1.599.107 emakume adierazten ditu. Gaur egun –azken 12 hiletan– indarkeria sexualaren

biktima diren emakumeei buruzko datuek adierazten dute Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 1,4k (279.844 emakumek) pairatzen duela indarkeria mota hori.

Emakume batek indarkeria mota bat baino gehiago pairatu ahal izan du bere bizitzan, eta neurri horretan, zenbatetsi daiteke **Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 12,5ek (2.498.605) indarkeria fisikoa eta/edo sexuala pairatu izan duela bikotekidearen edo bikotekide ohiarengandik. Emakume horien % 2,7 (539.699 emakume) izan da indarkeria mota horren biktima azken urtean.**

GAUR EGUN EDO NOIZBAIT BIKOTEKIDEARENGANDIK EDO BIKOTEKIDE OHIARENGANDIK INDARKERIA FISIKOA, SEXUALA EDO BIAK PAIRATU DITUZTEN EMAKUMEAK. %. ESPAINIA, 2015


	INDARKERIA FISIKOA		INDARKERIA SEXUALA		INDARKERIA FISIKOA EDO SEXUALA	
	Bizitzan noizbait	Azken 12 hiletan	Bizitzan noizbait	Azken 12 hiletan	Bizitzan noizbait	Azken 12 hiletan
Bai	10,3	1,8	8,1	1,4	12,5	2,7
Ez	88,8	97,9	91,3	98,4	86,4	96,9
ED/EDE	0,9	0,3	0,7	0,2	1,1	0,4

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkesta (2015) Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Indarkeria sexualaren motari erreparatuta, datuek adierazten dute emakumeen % 6,4 sexu-harremanak izatera behartua izan dela, halakorik egin nahi ez zutenean.

Horrez gainera, emakumeen % 6,1ek adierazi du sexu-harremanak izan dituztela beren borondatearen aurka, horiei uko eginez gero bikotekideak edo bikotekide ohiak izan zezakeen erreakzioaren beldurrez; emakumeen % 3,4k adierazten du egin nahi ez zuten sexu-jardunen bat edo iraingarria edo umiliagarria zaien sexu-jardunen bat egitera behartu diela bikotekideak edo bikotekide ohiak, eta % 3,1ek esan du bere bikotekidea edo bikotekide ohiaren sexu-harremanak izatera behartzen saiatu dela bere borondatearen aurka, baina, gogor heldu edo min egin arren, ez dutela lortu.

BIZITZAN ZEHAR BIKOTEKIDE EDO BIKOTEKIDE OHIREN BATENGANDIK JASANDAKO INDARKERIA SEXUALAREN MOTAK. %. ESPAINIA, 2015



Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkesta (2015) Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Txosten horrek datu osagarri interesgarri bat ematen du. Beraien **bizitzan, uneren batean, bikotekidearekiko edo bikotekide ohiarekiko beldurra sentitu dute Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 13k. Guztira, 2.598.549 emakumek.** Horietatik, % 2,9k sentitu du beldur hori noizbait bere gaur egungo bikotekidearekin (579.676 emakume).

Espainian bizi diren emakumeen % 13k sentitu du noizbait beldurra bere bikotekidearekiko edo bikotekide ohiarekiko.

BIZITZAN NOIZBAIT BIKOTEKIDEAREKIKO EDO BIKOTEKIDE OHIAREKIKO BELDURRA SENTITU DUTEN EMAKUMEA.
Guztizkoak eta % ESPAINIA, 2015

BIZITZAN NOIZBAIT	
Bai	13,0
Ez	84,9
ED/EDE	2,1

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkesta (2015) Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Denari begiratuta, aintzat hartzen baldin bada 16 urteko edo gehiagoko zenbat emakume izan diren indarkeria fisiko edo sexualaren biktima eta zenbatek sentitu duten beldurra beren bikotekidearekiko edo bikotekide ohiarekiko, emakumeen portzentajea % 15,5era igotzen da estatuan (3.098.270 emakume).

Interesgarria da, era berean, txosten horrek berak bikotekideek edo bikotekide ohiak eragindako beste indarkeria mota batzuei buruzko datuak aztertzea. Kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa da horietako bat; izan ere, egoera hori pairatzen dute edo bizitzan noizbait pairatu dute Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 25,4k. Horrez gainera, bizitzan noizbait, indarkeria psikologiko emozionaleko egoerak bizi izan dituzte % 21,9k eta indarkeria ekonomikokoak % 10,8k, beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiengandik.

BIZITZAN ZEHAR BIKOTEKIDE EDO BIKOTEKIDE OHIREN BATENGANDIK JASANDAKO INDARKERIA PSIKOLOGIKOA ETA EKONOMIKOA. Guztizkoak eta % ESPAINIA, 2015

2015	%	
Kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa	25,4	5.077.166
Indarkeria psikologiko emozionala	21,9	4.377.556
Indarkeria ekonomikoa	10,8	2.158.795

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkesta (2015) Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Biktimak dira, baita ere, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alaba adingabeak.

Indarkeria-egoeren lekuko izan ohi dira seme-alabak, eta, askotan, zuzenean pairatzen dituzte erasoak.

Aintzat hartu behar da, bestalde, **biktimak direla, baita ere, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alaba adingabeak.** Emakumeak kontrolatzeko erabiliak izaten dira askotan, eta etxeko indarkeriaren ondoriozko kalteak pairatu ohi dituzte.

Izan ere, estatuan egindako *Makroinkesta*k egiaztatu du **ohikoa dela seme-alabak indarkeria-egoeren lekuko izatea**; zehazki, indarkeria fisikoa eta/edo sexuala eta/edo bikotekidearekiko edo bikotekide ohiarekiko beldurra pairatu duten unean seme-alabak zituzten emakumeen % 63,6k adierazi du beraien seme-alabek ikusi edo entzun egin zituztela indarkeria-egoera horietakoren bat edo batzuk (seme-alabak adingabeak zirenean gertatu ziren egoera horietako gehienak, % 92,5).

Horrez gain, seme edo alaba adingabeek, indarkeria-egoerak ikusi edo entzuteaz gain, **sarri askotan** (egoeren % 64,2an), **zuzenean pairatzen dituzte erasoak**.

Datuen erregistro-sistema ofizialak ez du, oraingoz, indarkeriaren eragina pairatu duten adingabeen kopuru zehatz bat ondorioztatzen uzten; hala ere, adierazi behar da **estatu espainiarrean adingabeko 6 biktima hil zirela 2013. urtean, 4 adingabeko biktima hil zirela 2014. urtean eta 3 biktima adingabeko hil direla 2015. urtean.**²⁷

Adingabekoek pairatzen duten indarkeriaren gutxi gorabeherako erreferentzia moduan erabil daitezkeen beste datu batzuk dira Ertzaintzak erregistratutako biktimizazioak, bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindakoak, bai familia-harremanen aurkako delituen ondorioz, bai zaintza-betebeharrak urratzeagatik egindako falten ondorioz.

Familia-harremanen aurkako 96 delitu erregistratu ziren 2014. urtean (horietako batzuk dira, esaterako, zaintza-betebeharra urratzea, adingabea ostea eta prestazio ekonomikoak ez ordaintzea), eta 86 falta adingabea ez zaintzeagatik.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIEK ERAGINAK, URRAKETA MOTAREN ARABERA (FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUAK ETA ZAINZA-URRAKETAKO FALTAK) EAE, 2014

FAMILIA-HARREMANEN AURKAKO DELITUAK, GUZTIRA	95
Zaintza-betebeharra urratzea	8
Adingabea etxea uztera bultzatzea	2
Adingabea ostea	8
Familia abandonatzea	10
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	67
ADINGABEKOAREN ZAINZA URRATZEAGATIKO FALTAK, GUZTIRA	86

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Halaber, *Eusko Jaurlaritzaren 2011ko txostenak* zenbatetsi zuen bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen duten emakumeen % 68,8k dituela seme-alabak, eta kalkulatu zuen emakume biktimen % 27,3 inguruk dituztela seme-alabak. Zenbateko horiek kontuan izanda, txostenak zenbatetsi zuen **EAE osoan 13.708 haur izan daitezkeela indarkeriaren biktima, hau da, 18 urte baino gutxiagoko biztanleriaren % 4,11, gutxi gorabehera**. Konparaziozko erreferentzia bat ematen digu *2011ko Makroinkestak*²⁸, eta bertan adierazten da ehuneko hori % 10aren ingurukoa izan daitekeela estatuan.

Familia barneko beste indarkeria mota batzuk

Emakume batzuek indarkeria pairatzen dute bikotekidea edo bikotekide ohia ez diren familiako beste gizon batzuegandik

Guztira, indarkeria mota horretako **959 biktimizazio** erregistratu ziren 2014an.

Bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeriatik harago, kontuan hartu behar dira emakumeen aurka erabiltzen diren beste indarkeria mota batzuk. Ertzaintzak 2014. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratu dituen kasuen % 19an, emakumeak indarkeria pairatu zuen familiaren barnean, bere bikotekidea edo bikotekidea ez den gizonen batengandik. Aurten, indarkeria mota horretako 959 biktimizazio erregistratu dira, eta

²⁷ OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. *Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren estatistika-ataria*. <http://estadisticasviolenciagenero.msssi.gob.es/>

²⁸ MEIL, G. *Análisis sobre la macroencuesta de violencia de género 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2012

2015eko lehen sei hilekoan 512 egoera erregistratu dira.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK ETA BIKTIMAK FAMILIA BARNEAN (BIKOTEKIDEK EDO BIKOTEKIDE OHIEK ERAGINDAKOA IZAN EZIK). Guztizkoak eta % EAE, 2014



Familia barneko indarkeria


959 indarkeria-egoera

859 emakume

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Semeak ama eraso duenean gertatu dira familia barneko indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen % 43,16. Aitaren erasoak pairatu duten alaba adingabeak izan dira % 12,30. Gainerako egoeretan (% 44,53), osabak, aitona, anaiak eta bestelako senide gizonezkoak izan dira erasotzaileak.

EMAKUMEEN AURKA FAMILIA BARNEAN ERAGINDAKO INDARKERIAREN ONDORIOZKO BIKTIMIZAZIOAK (BIKOTEKIDEAK ETA BIKOTEKIDE OHIAK IZAN EZIK, ERASOTAILEAREKIKO HARREMANAREN ARABERA %. 2015ko 1. sei hilekoa



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Alde horretatik, *Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 2015eko Makroinkestak* zehazten du, familia barnean aitak eta amaren bikotekideak direla (ez dira aintzat hartzen erasoak pairatutako emakumeen bikotekideak eta bikotekide ohiak) erasotzaile nagusiak (% 18,8). Familiako beste gizonezko batzuek erabiltzen dute indarkeria mota horren % 10,3²⁹.

EAEn familia barneko indarkeriaren ondorioz Ertzaintzak erregistratu dituen biktimizazio horietako askotan, 50 urte baino gehiago zituen erasoak pairatu duen emakumeak, 2015eko lehen sei hilekoan gertatu diren kasuen % 42,8an, eta erasotzaileak semea bera izan da, aldi horretan, kasu horien % 43,2an.

Nabarmentzekoak dira, era berean, biktima adingabekoen kopuruak; izan ere, kasu guztien % 20 izan dira 2015eko lehen sei hilekoan (denbora horretan 92 kasu izan dira, eta 2014. urte osoan 175 kasu izan ziren). Adierazi behar da, horrez gainera, aitaren beraren erasoak pairatu dutela neskatilek 2014. urtean lau

Familia barneko indarkeriaren biktima izaten dira, batik bat, 50 urtetik gorako emakumeak, eta adingabeko emakumeak, haien aiten erasoak pairatuta.

2015eko lehen sei hilekoan, 50 urte edo gehiago zituen erasoak pairatu duten emakumeen % 43k eta kasuen % 20an izan dira biktima 18 urtetik beherako neskatilak.

²⁹ Makroinkestak batera aztertzen ditu bikotekide edo bikotekide ohi ez diren eraginpeko indarkeria fisikoak eta sexuak, ondorioz, ez dago eskura familia barneko indarkeria soilik eta familiarik kanpo erabiltzen den indarkeria berariaz aztertzen duen daturik. Hala ere, familia barneko kideei dagozkien ehunekoak soilik adierazten dira testuan: gizonezko senideak –aita ez direnak– eta amaren aitak/bikotekideak.

kasuetatik hirutan, eta horietatik eraso eta/edo abusu sexualak izan dira % 7.

Lehen adierazi den moduan, Eusko Jaurlaritzak 2011n egin zuen *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista EAEn* txostenak behatu zuen **emakumeen % 1,79 inguruk pairatu duela bizitzan noizbait familia barneko indarkeria** (bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindakoak aparte utzita), hau da, EAEko 33.000 emakumek baino gehiagok. Eta **gaur egun** ia 12.500 emakume **izan daitezkeela indarkeria mota horren eraginpean (% 0,67)**.

FAMILIA BARNEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK % ETA ABSOLUTU ZENBATETSIAK. EAE, 2011				
2011	BIZITZAN NOIZBAIT		GAUR EGUN	
	%	EMAKUMEAK	%	EMAKUMEAK
 Familia barneko indarkeria (bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindakoak aparte utzita)	1,79	33.159	0,67	12.411

Iturria: *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Indarkeria psikologikoa da emakumeen familia barnean pairatzen duten indarkeria ohikoena. Eredu horretan indarkeria pairatu duten emakumeen % 84,8 izan da indarkeria modu horren biktima. Horrez gain, galdetuak izan diren emakumeen % 43,8k adierazi du indarkeria fisikoko egoerak bizi izan dituela eremu horretan.

BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA MOTAK %. EAE 2011		
	BEHIN EDO BEHIN	GAUR EGUN
Psikologikoa	84,8	90,0
Fisikoa	43,8	20,0
Fisikoa eta psikologikoa	34,8	15,0
Soziala	17,9	10,0
Ekonomikoa	17,0	10,0
Sexuala	13,4	5,0

Iturria: *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Indarkeria sexuala familiatik kanpo

Emakume gazteenak izaten dira, bereziki, familiatik kanpoko indarkeria sexualaren hartzaile.

2014. urtean **301 eraso** egin ziren, lau erasotatik hiru 30 urtetik beherako emakumeei, eta **% 45 neskatila** adingabekoei.

Askatasun sexualaren aurkako delituen % 88,5 familiaren eremutik kanpo gertatu ziren 2014. urtean EAEn³⁰. Ertzaintzak 2014an erregistratu dituen emakumeen aurkako eraso guztien % 6 izan ziren familiaren eremutik kanpo egindako eraso sexualak (**301 eraso 2014an eta 129 eraso 2015eko lehen seihilekoan**).

³⁰ Emakumeen askatasun sexualaren aurkako delituen ondoriozko 340 biktimizazio erregistratu ziren, guztira, 2014. urtean. Eraso eta abusu sexualak izan ziren gehienak, baina izan ziren exhibizionismoko, adingabeen usteltzeko eta pornografiako kasuak ere. Delitu gehienak familiaren eremutik kanpo egiten baldin badira ere (301 delitutan izan zen erasotzailea familiatik kanpoko norbait), kontuan izan behar da delitu horien % 11,5 egin zirela familiaren barnean (13 delitutan izan zen erasotzailea emakumearen bikotekidea edo bikotekide ohiak, eta 26 delitutan biktimaren familiako beste gizonezkoen bat).



Indarkeria sexuala

301 indarkeria-egoera

300 emakume

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Azken bi urteetan nabarmen igo da indarkeria-egoera horien kopurua, eta azken urtean (2013 eta 2014 bitartean) **% 14 inguru igo dira familiatik kanpoko indarkeria sexualaren biktimizazioak.**

Pentsatzekoa da igoera horren arrazoietakoa bat izan daitekeela herritarrak oro har, eta eragileak eta emakumeak berariaz, **gero eta kontzientziatuago daudela arazo horrekin.**

Indarkeria sexualaren kasuen kopuruak gora egin du azken urteetan familiaren eremutik kanpo, eta arazo horrekiko kontzientziazio gero eta handiagoarekin lotu daiteke igoera hori.

Azken urtean, **% 14** igo da kasuen kopurua.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SEXUALAREN ONDORIOZKO BIKTIMIZAZIOAK. Guztizkoak eta ehunekoen igoera urtetik urtera. EAE, 2010-2014



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Ertzaintzak familiatik kanpoko indarkeriaren gainean dituen erregistroetan ageri ez diren kasuetako batzuk bistaratzeko aukera ematen du Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean egin zuen *Genero Indarkeria EAEn* azterlanak. Txosten horrek adierazten duenaren arabera, 16 urtetik gorako emakumeen % 2,7k pairatu du noizbait indarkeria publiko edo soziala (50.016 emakumek). Bestalde, adierazi behar da, era berean, emakumeen % 1,42 inguruk bizi izan dituela, txostenak adierazten duenaren arabera, lan-eremuko indarkeria-egoeraren bat bere bizitzan.

Indarkeria psikologikoa (% 63,9) eta indarkeria fisikoa (% 41,7) dira indarkeria mota ohikoenak eremu sozialean. Horren harian, bi indarkeria mota horiek, bata eta bestea, ageri dira indarkeria-egoera askotan (% 75).

LANEAN ETA EREMU SOZIALEAN ERAGITEN DIREN INDARKERIA MOTAK %. EAE, 2011

	LAN-EREMUAN	EREMU SOZIALEAN
Psikologikoa	90	63,9
Fisikoa	10	41,7
Fisikoa eta psikologikoa	10	75
Soziala	10	16,7
Ekonomikoa	0	8,3
Sexuala	5	22,2

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

EAEn galdetuak izan diren emakumeengandik ondorioztatuko indarkeriaren edo indarkeria teknikoaren datuei begiratuz gero, lanean ari diren emakumeen % 5,5ek adierazi du azken urtean sarritan edo batzuetan bizi izan dituela bere lana gutxiesteko jokabideak; emakumeen % 1,9 izan da lantokian hirugarren pertsonen aurrean lotsarazia eta % 1,6k entzun behar izan ditu nahiko sarri oihuak, irainak edo mehatxuak.

AZKEN URTEAN LAN-EREMUAN EMAKUMEEN AURKAKO ZENBAIT INDARKERIA-EGOERA PAIRATU DITUZTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ARABERA. %. EAE 2011

	NOIZBAIT AZKEN URTEAN	MAIZ EDO NOIZEAN BEHIN
INDARKERIA FISIKOA		
Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea.	0,0	0,0
Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu.	0,0	0,0
Kaletik jarraitu zaitu.	0,0	0,0
Armez, aitzoz edo bestelako objekturen batez eraso zaitu.	0,0	0,0
INDARKERIA PSIKOLOGIKO EDO ESPIRITUALA		
Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinemenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.).	1,9	0,2
Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu.	2,9	1,6
Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.).	2,9	1,9
Ez du zure lana balioesten.	7,8	5,5
Zenbaitetan beldurra ematen dizu.	0,2	0,2
Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula.	0,0	0,0
Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela.	0,6	0,4
Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu.	0,0	0,0
SEXU-INDARKERIA		
Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik.	0,2	0,0
Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora.	0,0	0,0
Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean.	0,6	0,4
Zu bortxatzen saiatu da.	0,2	-
Bortxatu egin zaitu.	0,0	0,0

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Eremu sozial edo publikoan, oro har, *izaera sexualeko komentarioak edo keinu iraingarriak jasotzea* izan ohi da emakumeek pairatu behar izaten duten indarkeria. Euskal Autonomia Erkidegoan galdetuak izan diren emakumeen %6,1ek esan du horrelako egoera bat gutxienez pairatu duela azken urtean.

Era berean, kalean sexu-exhibizionismoa ikusi behar izatearen itema nabarmentzen da. EAEko emakumeen % 5,7k aitortzen du indarkeria mota hori bizi izan duela: jazarpena, norberak nahi

ez dituen ukitzeak edo igurtziak taberna, dantzaleku edo antzekoetan (% 4,5); ironia erabiltzea edo norberaren sinesmenak ez balioestea (% 3,7) edo norbaitek kalean jarraitzea (% 3,2).

AZKEN URTEAN EREMU SOZIALEAN EMAKUMEEN AURKAKO ZENBAIT INDARKERIA-EGOERA PAIRATU DITUZTEN EMAKUMEAK, MAIZTASUNAREN ARABERA. %. EAE 2011

	NOIZBAIT AZKEN URTEAN	MAIZ EDO NOIZEAN BEHIN
INDARKERIA FISIKOA		
Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea.	0,3	0,3
Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu.	0,3	0,1
Kaletik jarraitu zaitu.	3,2	0,6
Armez, aitzoz edo bestelako objekturen batez eraso zaitu.	0,6	0,3
INDARKERIA PSIKOLOGIKO EDO ESPIRITUALA		
Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.).	3,7	2,1
Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu.	2,4	0,9
Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.).	1,9	0,9
Zenbaitetan beldurra ematen dizu.	1,6	1,1
Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela.	0,1	0,1
Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu.	0,7	0,4
INDARKERIA SEXUALA		
Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik.	0,1	0,0
Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora.	1,9	0,8
Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean.	6,1	2,8
Zu bortxatzen saiatu da.	0,1	-
Bortxatu egin zaitu.	0,1	-
Exhibizionismo-ekintzak ikusi dituzu kalean.	5,7	1,0
Jazarpenak, ukituak edo nahi gabeko igurtziak izan dituzu taberna edo dantzalekuren batean, kalean...	4,5	2,3

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Txostenak, Ertzaintzaren erregistroetako datuekin bat etorrita, alde nabarmenak ageri ditu adinaren arabera, eta nabartzen du emakume gazteenak (16-29 urtekoak) direla azken urtean genero-indarkeriako adierazpen gehien bizi izan dituztenak azken urtean eremu sozial edo publikoan.

Txosten horren datuek adierazten dutenaren arabera, askoz handiagoa da gaueko eremuetan eta leku bakandu edo ilunetan pasatzean sexu-izaerako indarkeria-egoerak bizi izan dituzten emakumeen ehunekoa 30 urtetik beherako emakumeen artean, gainerako adin-tarteetako emakumeen artean baino. Zehazki, kaletik jarraituak izatea (% 11,3), sexu-exhibizionismoko egoerak ikustea (% 13,7) eta jazarpena edo norberak nahi ez dituen igurtziak pairatzea lokaletan (% 13,2). Adin-talde horretako emakumeek pairatzen dute gehien, halaber, Internet bidez eta informazioaren eta komunikazioaren beste teknologia batzuetatik eragiten den indarkeria (mezu iraingarriak edo pornografikoak, etab.).

Txostenak, era berean, adierazten du emakume gazteak direla indarkeria-indize handienak dituztenak familiakoak ez diren pertsonekin harremanetan jartzean gertatzen diren indarkeria-kasuetan. Emakume gazteen % 5,7 izan da oihukatua, iraindua edo mehatxatua; % 3,8k esaten du norbaitek beldurrarazia sentitu dela inoiz; eta % 3,3k adierazi du lotsagarri utzi dutela beste pertsona batzuen aurrean.


Estatuan, bikotekideen edo bikotekide ohien eremutik kanpo eragiten den indarkeria fisiko edo sexualari buruzko datuak ematen ditu *Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak*. Lan horrek adierazten du Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago

dituzten emakumeen % 7,2k pairatu izan duela izaera sexualeko indarkeria motaren bat bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremutik kanpo. Horrez gainera, emakumeen %11,6k pairatu ditu indarkeria fisikoko egoerak eremu horretan.

Guztira, Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 15,9k bizi izan du bizitzan noizbait indarkeria fisiko edo sexualaren adierazpenen bat bikotekidea edo bikotekide ohia ez den norbaitengandik.

Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 15ek bizi izan du bizitzan noizbait indarkeria fisiko edo sexualaren adierazpenen bat bikotekidea edo bikotekide ohia ez den norbaitengandik.

INDARKERIA FISIKO ETA/EDO SEXUALAREN PREVALENTZIA BIZITZAN ZEHAR, BIKOTEKIDEEN EDO BIKOTEKIDE OHIEN EREMUTIK KANPO. %. ESPAINIA 2015.



Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkestak (2015) Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Orain arte adierazi duguna berresten du azterlan horrek: 30 urtetik beherako emakumeei eragiten die batik bat familiaratik kanpoko indarkeria sexualak, adin horretakoak izan baitira indarkeria mota hori pairatu duten lau emakumetik hiru 2015eko lehen seihilekoan, eta horien artean, neskato adingabeak nabarmentzen dira (denbora-epe horretan erregistratutako indarkeria sexualeko kasuen % 45ean, hau da, 58 kasutan, biktimak 18 urte baino gutxiago zituen, eta 2014. urte osoan, berriz, 169 kasu erregistratu ziren adin-tarte horretan).

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen eta erasotzaileen ezaugarriak: Zer emakumek pairatzen dute? Zer gizonak erabiltzen dute?

Emakumeen aurkako indarkeria eta adina


Emakume gazteek ere pairatzen dute indarkeria mota hori.

30 urte edo gutxiago zituen, 2015eko lehen sei hilekoan, indarkeria mota hori pairatu duten emakumeen % 32,5ek.

Askok bestelakorik pentsa baldin badezakete ere, adin guztietako emakumeek pairatzen dute indarkeria hori, baita gazteenek ere. **2015eko lehen sei hilekoan indarkeria mota hori pairatu duten emakumeen % 32,5ek zituen 30 urte edo gutxiago, eta zehazki, neskato adingabeak ziren % 8,5.** Alde horretatik, 31 eta 50 urte bitartean zituen indarkeria hori pairatutako emakumeen % 52k, eta 50 urtetik gorakoak ziren gainerako % 15,5.

Izan ere, 30 urte edo gutxiago zituen azken 12 urteetan erailak izan diren hamar emakumetik bik (% 20k). Gainera, 31 eta 50 urte bitartekoak ziren % 46k eta 50 urtetik gorakoak % 34.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN BANAKETA, ADINAREN ARABERA. Guztizkoak eta % EAE, 2015eko 1. sei hilekoa



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

**Ez dira irudian jaso adin jakinik gabeko kasuak (% 0,04)*

Familia barneko indarkeria izan da emakume gazteek pairatu duten indarkeria nagusia 2015. urtearen lehen erdialdean (18 urtetik beherakoak ziren biktimen % 50), eta indarkeria mota horren ondotik, indarkeria sexuala izan da gehien pairatutako bigarren indarkeria (biktimen % 32k zituen 18 urte baino gutxiago). Hala ere, oso kontuan izan behar da **30 urte baino gutxiago zituela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoak pairatutako emakumeen % 29k.**

30 urte baino gutxiago zituzten bikotekideengandik edo bikotekide ohiarengandiko erasoak pairatu dituzten emakumeen % 29.

Zenbait azterlanek ohartarazi dute herritar gazteek eta nerabeek rol sexistak errepikatzen dituztela, eta adierazi dute, era berean, diskriminazioaren aurreko arreta lasaituta egon

daitekeela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortuta izatearen pertzepzio faltsuaren ondorioz.

Adinez nagusi diren emakumeen artean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria izan da erabiliena, 50 urte bete bitartean. 50 urtetik aurrera, gora egiten du familia-barneko indarkeriak, eta 2015eko lehen sei hilekoan, indarkeria-mota hori jasan du, hain justu, erasoak pairatu dituzten 65 urtetik gorako hamar emakumetik seik (% 64,13k).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN BANAKETA, ADINAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA. %. EAE, 2015eko 1. sei hilekoa

	Bikotekidea/ bikotekide ohia	Familia barnekoa	Indarkeria sexuala	Guztira
14 urtetik beherakoak	1,22	65,85	32,93	100
14 - 17 urte	32,67	36,63	30,69	100
18 - 20 urte	64,44	22,22	13,33	100
21 - 30 urte	84,05	9,57	6,38	100
31 - 40 urte	89,97	7,25	2,78	100
21 - 50 urte	82,51	16,05	1,44	100
21 - 64 urte	48,57	48,98	2,45	100
65 urte edo gehiago	35,87	64,13	0	100

Adin talde bakoitzeko indarkeria mota nagusia:

► 14 urtetik behera → % 66 familia barnekoa ► 14 - 17 urte → % 37 bikotekidea/bikotekide ohia ► 18 - 50 urte → 84% bikotekidea/bikotekide ohia ► 51 - 64 urte → % 49 familia barnekoa eta % 49 bikotekidea/bikotekide ohia ► 65 edo gehiago → % 64 familia barnekoa


*Ez dira irudian jaso adin jakinik gabeko kasuak (% 0,04)

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Adierazi den moduan, erail egiten dituzte indarkeria mota hori pairatzen duten emakumetako batzuk. Batez beste, 46 urte zituzten 2002 eta 2014 bitartean eraildako emakumeek.

Azken 12 urteetan hil diren emakumeen % 45,71ek zituen 31 eta 50 urte bitartean, 50 urte baino gehiago % 34,29k, eta hamar emakumetatik bik (% 20) zituzten 30 urte edo gutxiago.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZ ERAILDAKO EMAKUMEA 2002 ETA 2014 BITARTEAN, ADINAREN ARABERA. %. EAE



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna izeneko azterlana argitaratu zen EAEn 2011. urtean, eta azterlan horretako datuek ere agerian uzten dute prebalentzia handia dutela indarkeria aitortu edo adieraziko egoerek **30 eta 39 urte bitarteko emakumeen taldean** (% 9,8koa da talde horretan, eta % 7,5koa emakume guztien multzoan).

Azterlanak, bestalde, indarkeriaren eragin desberdina erakusten du eremutik eremura, adinaren arabera. Adierazten du, alde horretatik, bikotekideen edo bikotekide ohien eremuko indarkeriak eragin handiagoa duela 30 eta 39 urte bitarteko emakumeengan, familia barneko indarkeriak prebalentzia handiagoa duela 50 eta 64 urte bitarteko emakumeengan; lan-

eremuko indarkeria 40 urtetik beheragoko emakumeengan nabarmentzen dela, eta emakume gazteenengan (16 eta 29 urte bitarte dituzten emakumeengan) duela eragin handiena eremu sozial edo publikoko indarkeriak.

Txostenak adierazitakoaren harian, deigarria da zer indarkeria-indize apalak hauteman diren emakume gazteen artean, indarkeria ondorioztatuko edo teknikoko indizeen aldean. Azalpen bat baino gehiago izan daiteke egoera hori azaltzeko, baina berriki egin diren azterlan batzuek adierazi dute arriskutsua izan daitekeela gazteen artean zabalduta dagoen “itxurazko” berdintasunaren pertzepzioa.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EDO PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEAK, EREMUAREN ETA ADINAREN ARABERA. %. EAE. 2011.

	OROKORRA	16 - 29 urte	30 - 39 urte	40 - 49 urte	50 - 64 urte	65 urte edo gehiago
OROKORRA: eremuetakoren batean(*)	12,5	10,4	18,9	13,3	10,8	10,1
BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTE OHIAK	7,5	7,1	9,8	5,8	7,2	7,4
FAMILIA BARNEKO GENERO-INDARKERIA						
(bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak izan ezik)	1,79	0,9	1,2	2,9	2,0	1,8
<i>FAMILIAN (bikotekidea edo ohiak + familia barruko genero-indarkeria)</i>	8,4	7,5	11,1	7,9	7,8	7,7
LAN-ESPARRUA (oharra)	1,8	0,6	2,9	2,7	1,2	1,0
EREMU SOZIAL/PUBLIKOA	2,7	2,8	4,5	3,3	2,3	1,2

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Xehetasunez eta adinaren arabera banakatuta aztertzen baldin badira bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria “teknikoaren” emaitzak, ikusten da nabarmen handiagoa dela, batez besteko orokorraren aldean, indarkeria mota horrek 29 urte baino gutxiago dituzten emakumeengan duen eragina. Aldeak bereziki nabarmenak dira egoera hauetan: *irainak, oihuak eta mehatxuak, beste pertsona batzuen aurrean lotsagarri uztea, eta, haserretzen denean, emakumeak maite duena mespretxatzea.*

Horrez gainera, ehunekoak handiak dira emakume-talde horrengan honako alderdi hauetan: *zenbaitetan beldurra ematen dizu; errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen; ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin; ordutegiak kontrolatzen dizkizu; eta telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu.*

Bestalde, 65 urtetik gorako emakumeen kasuan, hauek dira ehuneko handienak dituzten indarkeria-egoerak: *presio egiten dizu sexu-harremanak izateko; dirua kentzen dizu edo ez dizu autonomiaz bizitzeko behar adina ematen eta sarritan edo batzuetan esaten dizu traketsa zarela.*

AZKEN URTEAN BIKOTEKIDEARENGANDIK EDO BIKOTEKIDE OHIARENGANDIK GUTXIENEZ INDARKERIA-EGOERA BAT BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEAK, ADINAREN ARABERA. %. EAE. 2011

	GUZTIRA	16-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 urte edo gehiago
Gutxienez egoera bat noizbait (1/23 edo gehiago)	8,5	11,8	10,2	7,5	8,2	6,2

Gutxienez egoera bat maiz edo zenbaitetan (1/23 edo gehiago)	6,3	6,1	8,6	5	7,2	5
Gutxienez egoera larri bat maiz edo zenbaitetan (1/15 edo gehiago)	5,7	5,7	7	4,6	6,2	5

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

AZKEN URTEAN BIKOTEKIDEARENGANDIK EDO BIKOTEKIDE OHIARENGANDIK MAIZ EDO ZENBAITETAN EMAKUMEEN AURKAKO ZENBAIT INDARKERIA-EGOERA PAIRATU DITUZTEN EMAKUMEAK. EMAITZA OROKORRAK ETA ADINAREN ARABERA. %. EAE, 2011

		Orokorra	16-29 urte	30-39 urte	>65 urte
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea (13. itema)	1,0	2,4	0,4	0,9
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,5	0,9	0,0	0,6
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,1	0,5	0,4	0,0
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin erasota zaitu. (20. itema)	0,1	0,0	0,0	0,0
		Orokorra	16-29 urte	30-39 urte	>65 urte
INDARKERIA PSIKOLOGIKOA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	1,5	1,9	1,2	1,8
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	1,6	3,3	2,0	1,2
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	1,6	2,8	0,8	1,8
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	3,5	3,3	3,3	3,3
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu. (7. itema)	0,9	1,4	0,4	0,9
	Janzten duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu). (9. itema)	0,7	0,5	0,0	0,9
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	0,8	1,9	0,4	0,9
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	0,9	0,9	0,8	1,2
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	1,1	1,4	0,4	2,1
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen. (15. itema)	1,0	1,9	0,4	0,6
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,3	0,5	0,0	0,3
		Orokorra	16-29 urte	30-39 urte	>65 urte
SEXU-INDARKERIA	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik (8. itema)	0,3	0,0	0,0	1,2
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,1	0,5	0,0	0,0
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,1	0,0	0,0	0,0
		Orokorra	16-29 urte	30-39 urte	>65 urte
BESTE BATZUK	Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin (5. itema)	0,7	1,4	0,4	0,9
	Telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	0,7	1,4	0,0	0,9
	Irabazten duzu dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina. (6. itema)	0,7	0,5	0,4	1,8

Oharra: taulan, beltzez adierazi dira larrirentzat jo ditugun egoerak. Hiru adin-talde horiek aukeratu dira muturreko taldeak konparatzeko eta ehuneko orokor handiena duen taldearen datuak jasotzeko.

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Berariaz, emakume gazteen aurkako indarkeria aztertzen duten zenbait lanek³¹ gogorarazten digute emakume gazteek, adineko emakumeen moduan, zailtasunak izan ditzaketela indarkeria-egoera batean daudela konturatzeko (mendetasun afektibo bat bizi badute, egoera ukatzen badute, errua beren buruari botatzen badiote, etab.). Hala ere, eskubideei eta askatasunei dagokienez, emakume gazteentzat lehen baino berdintasun-maila handiagokoa den gizarte batean izaten dituzte zailtasun horiek emakume gazteek.

Oraindik ere zurruna da genero-rolen bereizketa gazteen eta nerabeen artean, eta gizonen eta emakumeen artean berdintasun-egoera bat bizi denaren ustea zabaldua izateak nahasmendua sortzen die neskei, azken horiek ez baitituzte erasoak eta jokabideak identifikatzen eta, ondorioz, ez dute beren burua defendatzen jokabide horien aurrean.

Emakumeen aurkako indarkeria arbuiazen duen gizarte batean bizi dira neska gazteak, eta, ondorioz, *“beti arbuia izan duten egoeraren baten protagonista direla ikusten badute, lotsa eta nahasmendu handiak bizitzen dituzte”*. Emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazio-egoerak arbuiazen badira ere, arbuiaze hori nahiko abstraktua da eta beste pertsona batzuei gertatzen zaienean agertzen da; izan ere, *“gazteek zailtasun handiak dituzte indarkeria-adierazpenak hautemateko beren jokabideetan, bai berdinen arteko taldeetan, bai beren harreman afektiboetan”*.

KONTROL-IZAERAKO INDARKERIA PSIKOLOGIKOA AZKEN 12 HILETAN, ADIN TALDEEN ARABERA. %. ESPAINIA, 2015

	BAI	EZ	EE
16-19 urte	25,0	73,8	1,2
20-24 urte	19,2	79,8	1,0
25-29 urte	14,2	85,0	0,8
30-34 urte	10,1	89,4	0,6
35-39 urte:	10,7	88,5	0,8
40-44 urte:	8,3	90,6	1,0
45-49 urte:	9,2	90,7	0,1
50-59 urte:	7,4	91,7	0,9
60+ urte	6,1	93,1	0,8
GUZTIRA	9,6	89,6	0,8

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkesta (2015) Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Estatuan izandako indarkeria-datuak xehetasunez eta adinaren arabera aztertzeak, *Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak egindako azken makroinkesta* behatu behar da, eta lan horrek ohartarazten du **16 eta 24 urte bitarteko emakume gazteek gainerako adineko emakumeek baino proportzio handiagoan pairatzen dutela kontrol-izaerako indarkeria psikologikoa**; izan ere, adin guztien batez bestekoa % 9,6koa da, eta emakume gazte horien % 21,1ek pairatu du indarkeria mota hori.

Itxura batean, pertsona gazteak gainerako biztanleak baino toleranteagoak dira kontrol-izaerako indarkeria-jokabideekiko; izan ere, indarkeria hori % 25era igotzen da noizbait bikotekidea izan duten 16 urtetik 19 urtera bitarteko emakume gazteengan.

Azterlan horrek berak salatzen du belaunaldiz belaunaldi transmititzen direla zenbait mezu, *“jeloskortasuna maitasunaren adierazpena da”* ildokoak, eta nesken % 35,8k eta mutilen % 36,8k entzun dituztela ildo horretako aholkuak. Ikusi da, era berean, lau nerabetatik ia hiruk (% 73,3) entzun dutela mezu hori pertsona helduengandik, sexu batekoak zein bestekoak izan.


³¹ CANTERA, ESTÉBANEZ, VÁZQUEZ. *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbao: Emakunde, Eusko Jaurlaritzak, 2009.

Erasotzaileetako asko gizon gazteak dira.

30 urte baino gutxiago ditu 2015eko lehen sei hilekoan emakumeen aurka indarkeria erabili duten lau gizonetatik batek 2015 (% 25ek).

Bestalde, asko dira erasoak egiten dituzten mutil gazteak. Erasotzaile gehienek (% 59,99), egia da, 31 eta 50 urte bitarteko adina dute, baina berariaz nabarmendu behar da **30 urte baino gutxiago dituela 2015eko lehen sei hilekoan emakumeen aurka indarkeria erabili duten lau gizonetatik batek (%25ek)** eta, zehazki, erasotzaile guztien % 3 inguru adingabeak direla.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ERABILI DUTEN ERASOTZAILEEN BANAKETA, ADINAREN ARABERA. %. EAE, 2015eko 1. sei hilekoa



Adingabeak: % 3

18 - 30 urte: % 22

31 - 50 urte: % 60

50etik gora: % 15

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Erasotzaile gazteenek familia barneko indarkeria erabiltzen dute batik bat (adingabeak dira indarkeria mota hori erabili duten guztien % 10, eta erasotzaile guztien % 11 dira 18 eta 20 urte bitarteko gazteak). Hala ere, komeni da bikote oso gazteetan erabiltzen den indarkeriaren gainean hausnartzea, **bikotekidea edo bikotekide ohia erasotzen duten gizonen artean % 21 baitira 30 urtetik beherakoak.**

Bikotekidea edo bikotekide ohia erasotzen duten gizonen artean, % 21ek ditu 30 urte baino gutxiago.

Datuek erakusten dute premiazkoa dela indarkeriaren aurkako prebentzio- eta sentsibilizazio-lana egitea hurrekin eta gazteekin. Lan egin behar da generoko estereotipoen eta rolen transmisioa eteteko, eta indarkeriaren adierazpen arinetako batzuk, "mikromatxismoak" deritzotenak, ez normalizatze.

Jatorria eta emakumeen aurkako indarkeria

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima gehienak bertan jaiotakoak dira.


EAEn edo beste autonomia-erkidegoren batean jaiotakoak dira 2015eko lehen seihilekoan emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten hamar emakumetik zazpi.

Gure gizarteak errotuta ditu emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zenbait mito, eta mito horiek arazoaren tamaina ezkututzen dute eta hari behar bezalako arreta ematea eragozten dute. Mito horietako bat da immigranteak direla indarkeria hori pairatzen duten emakume gehienak (Eusko Jaurlaritzak orain gutxi egin duen *biztanleen pertzepzioari buruzko 2015eko azterlanak*³² adierazten du EAEko biztanleriaren % 27 inguru datorrela bat ideia horrekin).

Ertzaintzaren datuek, ordea, adierazten dute **2015eko lehen seihilekoan emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten hamar emakumetik zazpi (% 68) jaio direla EAEn edo beste autonomia-erkidegoren batean** eta % 32 atzerrian.

Aurreko urteko lehen seihileko datuek eta 2014. urteko datu guztiek adierazten dute jatorriaren arabera banaketa oso antzekoa dela; izan ere, aurreko urtean, indarkeria mota hori pairatutako emakumeen % 30,86 ziren atzerritarrak.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZ ERAILDAKO EMAKUMEA 2002 ETA 2014 BITARTEAN, JATORRIAREN ARABERA. %. EAE




EAEn eta estatuko beste autonomia-erkidegoren batean jaiotakoak ziren 2002 eta 2014 bitartean erailak izan ziren emakumeen % 71, eta atzerritarrak ziren gainerakoak (% 29).

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

³² PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: pertzepzioa eta herritarren iritziak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza, 2015.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartzen baldin bada atzerrian jaiotako emakumeak EAEko emakumezko herritar guztien %6 inguru direla³³, datuek adierazten dute emakumeen aurkako indarkeriak prebalentzia handiagoa duela atzerrian jaiotako emakumeengan (zehazki, Ertzaintzak 2014. urtean zehar identifikatu zituen datuek adierazten dute estatu espainiarrean jaiotako 1.000 emakumetatik 2,69k pairatu zutela indarkeria, eta atzerrian jaiotako 1.000 emakumetatik 18,11k pairatu zutela indarkeria urte horretan).

INDARKERIA MATXISTA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN BANAKETA, JAIOTERRIAREN ARABERA. %. EAE, 2015eko 1. seihilekoa




Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Emakume atzerritarrek tasa handiagoak izatearen arrazoi izan daitezke: zenbait faktore kultural eta sozial izatea, kalteberatasun sozial, emozional eta ekonomiko handiagoa dakarkiena; indarkeriaren gaineko pertzepzio desberdina izatea hizkuntzarekin zailtasunak izatea; hartzen dituzten herrialdeetan laguntzako gizarte-sarerik ez izatea; ingurunea ez ezagutzea; informazio eta laguntzako baliabideetarako sarbide murriztuagoa izatea; etab.

Amerikan jaiotakoak dira emakume horietako gehienak (%60,14), eta batik bat, Latinoamerikan; Europako beste herrialde batzuetatik datoz %21,01; Afrikatik %17,27; eta gainerakoak Asiatik (%1,29) eta Ozeanitik (%0,29).

INDARKERIA MATXISTA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN BANAKETA, JAIOTERRIAREN ARABERA. 2015eko 1. seihilekoa

Guztizkoak eta % EAE,



*Ez dira adierazten jaioterri ezezaguneko kasuak (%0,86)

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

³³ Iturria: EIN. Errolda jarraituaren estatistika 2014ko urtarilaren 1ean. Estatuko, autonomia-erkidegoko eta probintziako datuak.

Emakumeen jatorriari erreparatu gabe, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuak maizago gertatzen dira bestelako erasoak baino; hala ere, familia barneko indarkeriak edo indarkeria sexualak baino eragin handiagoa du indarkeria mota horrek atzerriko emakumeengan.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN BANAKETA, JATORRIAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA. EAE, 2015eko 1. seihiakoa



Ehuneko horizontalak	Bikotekidea/bikotekide ohiak	Familia barnekoa	Indarkeria sexuala	Guztira
EAE	68,66	24,44	6,90	100
BESTE ERKIDEGOREN BAT	65,00	31,43	3,57	100
ATZERRIA	84,17	10,70	5,14	100
Ehuneko bertikalak	Bikotekidea/bikotekide ohiak	Familia barnekoa	Indarkeria sexuala	Guztira
EAE	51,69	64,33	64,34	55,08
BESTE ERKIDEGOREN BAT	11,39	19,26	7,75	12,82
ATZERRIA	36,92	16,41	27,91	32,10
GUZTIRA	100	100	100	100

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Illo horretatik, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2015ean egindako *Makroinkestak* egiaztatu du nabarmen handiagoa dela Espainiatik kanpo jaio eta beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik indarkeria fisikoa, sexuala edo beldurra pairatu izana adierazten duten emakumeen proportzioa (% 27,7), Espainian jaiotako emakumeena baino (% 14).

Erasotzaile gehienek herritartasun espainiarra dute, eta erasotzaile horiek erasoak egiten dizkiete emakume atzeritarrei ere.

Espainian 2013. urtean emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko erailketa-kasuetan, **herritartasun espainiarra zuten erasotzaileen % 74k.** Herritartasun espainiarreko gizonezkoek erailak izan ziren emakume atzeritarren **% 25.**

Bestalde, kontuan izan behar da gizonezko erasotzaile gehienek herritartasun espainiarra dutela. *Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren VII. Txostenak, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2013an argitaratutakoak*³⁴, adierazten du urte horretan emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko **erailketen egile guztien % 26 zirela atzeritarrek eta % 75ek zuela herritartasun espainiarra.**

Biktimen herritartasun bereko gizonezkoek egiten dituzte erailketa gehienak, baina aintzat hartzekoa da **jatorri espainiarreko gizonezkoek erailak izan zirela 2013. urtean emakume atzeritarren % 25**, eta urte horretan eraildako emakume espainiarren kasuan, berriz, horien % 11 izan zen erasotzaile atzeritarren batek eraila.

³⁴ EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren VII. Urteko Txostena. 2013. urtea.* Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen Zentroa, 2015.

Ikasketa-maila eta emakumeen aurkako indarkeria

Heziketa-maila guztietako emakumeek pairatzen dituzte indarkeria-egoerak, hau da, heziketak, maila handikoa izanda ere, ez du indarkeriaren hartzaile izatea eragozten.

Ez dago batere argi zer-nolako eragina duen heziketaren faktoreak, baina zenbait azterlanek adierazten dute bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren eremuan zertxobait apalagoa izan litekeela indarkeria horren eragina unibertsitate-ikasketak amaitu dituzten emakumeengan. Eusko Jaurlaritzak 2011n egin zuen emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterlanak adierazten du indarkeria horren eragina % 5,6koa izan zela unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeengan, eta gainerako emakumeengan % 7,5koa izan zela.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EDO PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEEN EHUNEKOAK IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA EREMUAREN ARABERA. %. EAE. 2011

	GUZTIRA	Alfabetatu gabeak / Lehen Hezkuntza egin gabeak	Oinarrizkoak/ Eskola- graduatuak.	(I edo II)	Bigarren mailakoak	Unibertsitate tituludunak
OROKORRA: eremu guztietakoa	12,5	9,2	10,7	16,7	13,4	13,4
BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTE OHIAK	7,5	6,6	6,7	11,1	8,3	5,6
FAMILIA BARNEKO GENERO-INDARKERIA (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	1,79	1,0	2,2	1,3	0,0	2,8
FAMILIAN (bikotekidea edo ohiak + familia barruko genero-indarkeria)	8,4	7,1	7,4	12,4	8,3	7,2
LAN-ESPARRUA (oharra)	1,8	0,0	1,5	2,7	1,0	2,3
EREMU SOZIAL/PUBLIKOA	2,7	1,5	2,0	1,7	4,2	4,7

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Beste azterlan batzuek, hala nola *La Violencia Domestica en Cifras. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*³⁵ izenekoak, adierazten dute gizonezkoen heziketa-mailak eragin handiagoa izan dezakeela etxeko indarkerian, faktore horrek emakumeengan duen eragina baino. Heziketa-maila guztietako gizonezkoek ematen dizkiete tratatu txarrak emakumeei, baina etxeko indarkeriaren eremuan, haren eragina handiagoa da heziketa-maila apaleko senarra edo bikotekidea duten emakumeengan, eta txikiagoa heziketa-maila handiagokoa senarra edo bikotekidea duten emakumeengan.

Bikotekidearengandik tratatu txarrak jasotzen dituztela adierazten duten emakumeen artean, irakurtzen eta idazten ez dakiten emakumeen kopuruak bikoiztu egiten du biztanleria orokorreko emakumeena; eta, kontrako ikuspegitik, indarkeria-biktimeen artean, biztanleria orokorrean ageri direnak baino gutxiago dira unibertsitate-ikasketadun senar edo bikotekideak dituztenak.

³⁵ ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk.

Diru-sarrerak edo lan-egoera eta emakumeen aurkako indarkeria

Diru-sarrera guztietako etxeetan eragiten da indarkeria. Horrek esan nahi du diru-sarrera handiak izateak ez duela indarkeriarik eragotzen; hala ere, baliabide ekonomiko handiagoak edo txikiagoak izateak, eta horrekin lotuta, egiten den lan edo jarduerarekiko harremanak badu nolabaiteko eragina indarkerian.


Eusko Jaurlaritzak txosten bat egin zuen 2011n EAEn emakumeen aurka erabilitako indarkeriari buruz, eta txosten horrek estatistikaren aldetik adierazgarriak diren aldeak antzeman zituen maila sozioekonomiko desberdineko emakumeenganako indarkeria-tasak konparatzean; hala, genero-indarkeriaren prebalentzia handiagoa hauteman zuen 1.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi diren emakumeengan. Lotura edo harreman orokor horrek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren eremuan du isla handiena, gainerako eremuetan ez baita ikusten lotura edo harreman hori.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EDO PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEEN EHUNekoAK DIRU-SARREREN MAILAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA EREMUAREN ARABERA. %. EAE. 2011

	GUZTIRA	1.000 euro baino gutxiago	1.000€ eta 3.000€ bitartean	3.000 €-tik gora
OROKORRA: eremu guztietakoa	12,5	18,4	11,5	11,8
BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK	7,5	13,2	6,5	2,6
FAMILIA BARNEKO GENERO-INDARKERIA (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	1,79	1,3	1,9	5,3
<i>FAMILIAN (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>8,4</i>	<i>13,6</i>	<i>7,3</i>	<i>6,6</i>
LAN-EREMUA (oharra)	1,8	1,9	2,1	1,4
EREMU SOZIAL/PUBLIKOA	2,7	3,4	2,6	5,3

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA PAIRATU DUTEN EDO PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEEN BANAKETA, DIRU-SARREREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA EREMUAREN ARABERA. %. EAE. 2011



Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Txosten horren beraren datuek adierazten dutenaren arabera, indarkeriaren biktima diren emakumeen tasa nabarmen handiagoa da lanik ez duten emakumeen artean (% 21,6 dira lanik gabeak eta % 12,5 batez bestekoa). Familia barneko genero-indarkeria da horren salbuespena, batez bestekotik gorako tasa ageri baitute ordaindu gabeko etxeko lanak egiten dituzten emakumeek.

INDARKERIA MATXISTA PAIRATU DUTEN EDO PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEAK, HAIEN LAN-EGOERAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA EREMUAREN ARABERA. %. EAE. 2011

	GUZTIRA	Landuna	Ordaindu gabeko etxeko lanak	Ikaslea	Langabea	Pentsioduna edo erretiratua
OROKORRA: eremu guztietakoa	12,5	14,6	6,2	3,7	21,6	9,4
BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTE OHIAK	7,5	8,7	3,5	2,4	12,2	6,9
FAMILIA BARNEKO GENERO-INDARKERIA (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	1,79	1,6	2,7	0,0	1,5	1,4
<i>FAMILIAN (bikotekidea edo ohia + familia barneko genero-indarkeria)</i>	8,4	9,4	4,7	2,4	13,2	7,2
LAN-EREMUA (oharra)	1,8	2,0	0,0	0,0	3,8	1,0
EREMU SOZIAL/PUBLIKOA	2,7	3,5	1,2	1,2	5,4	0,7

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Bizilekua eta emakumeen aurkako indarkeria

Herri mota guztietan gertatzen da indarkeria mota hau. Ikusi dugun moduan, EAeko hamar udalerritik zazpitan (% 70,92) erregistratu da emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen bat; hala ere, ikusten da alderik lurraldetik lurraldera.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna txostenak argitaratutako datuek oso antzeko zenbatespenak egiten dituzte, indarkeriak emakumeen bizileku den udalerraren tamainaren arabera erakusten duen prebalentziari erreparatuta. Hala ere, datuek diotenaren arabera, udalerraren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da indarkeriaren prebalentzia-tasa eremu sozial edo publikoan; hala, hiriburuetan bizi diren emakumeek dute prebalentzia handiena indarkeria mota horretan.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PAIRATU DUTEN EMAKUMEAK, BIZILEKUAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA EREMUAREN ARABERA. %. EAE. 2011

	GUZTIRA	< 10.000 biz.	10.000-120.000 biz.	HIRIBURUA
OROKORRA: eremu guztietakoa	12,5	12,8	12,5	12,3
BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTE OHIAK	7,5	7,9	7,4	7,3
FAMILIA BARNEKO GENERO-INDARKERIA (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	1,79	1,8	1,6	1,9
<i>FAMILIAN (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	8,4	8,8	8,0	8,4
LAN-EREMUA (oharra)	1,8	1,6	2,7	0,9
EREMU SOZIAL/PUBLIKOA	2,7	2,1	2,7	3,1

Dibertsitate funtzionala eta emakumeen aurkako indarkeria

Hauek dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izateko **kalteberatasun handi**agoa dakarten faktoreetako³⁶ batzuk: etxebizitza bat edo baliabide ekonomikoak eskuratzeko zailtasunak, adina, adin txikiko seme-alabak izatea, laguntzeko gizarte-sarerik ez izatea edo gizarte-sare negatiboa izatea, ezintasun fisikoak edo psikikoak izatea, buruko gaixotasunak izatea eta mendetasunak. Horrez gainera, faktore horiek emakumeengan gertatzean, handitu egiten da haien kalteberatasuna.

Faktore horiek, alde edo molde, emakumeen independentziari eta autonomia-aukerei eragiten diete. Alde horretatik, buruko gaixotasunek eta ezintasunek eragin bereziki handia dute, kalteberatasun handiagoa baitakarkie indarkeriaren biktima diren emakumei; izan ere, gaixotasunek mendetasuna sortzen dute, eta erasotzaileek mendetasun-egoera hori erabiltzen dute biktimekiko kontrola handitzeko.

Europar Batasunean egindako zenbait proiektuk³⁷ salatu dute ezintasunak dituzten emakumeak egoera sozial bidegabeak bizi dituztela eta eskubide oinarritzkoenak urratzen zaizkiela eguneroko bizitzako egoeretan.

Zehazki, nazioartean, orain gutxi aitortu da minusbaliotasunak eduki eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen egoera berezia. Nazio Batuen Erakundeko **Giza Eskubideen Batzordeak**³⁸ hau adierazi zuen 1997. urtean: *“indarkeriarekiko bereziki kalteberak dira zenbait emakume talde, hala nola (...) gutxiengo diren taldeetako kide direnak, (...) eta minusbaliotasunak dituzten emakumeak”*. Horrez gainera, adierazi zuen gobernuen egitekoa dela *“emakumearen aurkako indarkeriaren alorreko informazioa ematea eta alor horretan eskura dauden zerbitzuetarako sarbidea bermatzea minusbaliotasunak dituzten emakumei”*.

Horrenbestez, indarkeria motaren bat pairatzeko arrisku handi-handia dute minusbaliotasunak dituzten emakumeek, eta emakume horiek pairatutako tratu txarren ehunekoak nabarmen handiagoak dira minusbaliotasunik gabeko emakumeenak baino. Hori gertatzen da zenbait faktore (pertsonalak, familiaren alorrekoak eta sozialak) gehitzen zaizkiolako hasierako faktoreari: emakume izateari. Bereziki kaltebera da minusbaliotasun oso handiak eta ikasteko eta komunikatzeko arazoak dituzten emakumeen egoera.

Minusbaliotasunak dituzten emakumeak gainerakoak baino kalteberagoak dira eta indarkeria mota hori pairatzeko arrisku handiagoa dute.

Zehazki, zenbait azterlanek adierazi dute minusbaliotasunak dituzten emakumeek indarkeriazko jokabideen hartzaile izateko arrisku berezia edo egoera oso kaltebera dutela, eta gizartean bizi duten bakartasuna dela horren arrazoi nagusia. Hauek dira, ildo horretatik, maiz aipatzen diren arrazoietakoa batzuk:

³⁶ EDE FUNDazioa. GIZARTE-IKERKETAKO ZERBITZUA. *La variable edad en la intervención con mujeres víctimas de la violencia de género*. Bilbao, 2011.


³⁷ METIS eta IRIS proiektuak, Europako Batzordearen DAPHNE Batasuneko ekimenaren barnekoak.

³⁸ NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA. *Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordearen 1997/44 Ebazpena, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa*. Geneva: Nazio Batuak, 1997.

- erasotzailearengandik defendatzeko gaitasun txikiagoa dute, beste pertsona batzuen laguntza eta zaintzaren mende daudelako.
- pairatu dituzten tratu txarren berri emateko zailtasun handiagoa dute, baldin eta komunikazio-arazoak baldin badituzte.
- genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta aholkua emateko lekuetara joateko zailtasunak dituzte, oztopo arkitektonikoen eta komunikatzeko zailtasunen ondorioz.
- autoestimu apala dute, mespretxatu egiten delako emakume gisa duten irudia.
- gizartean bakartuta daude eta mendetasun ekonomikoa dute, horietako askok ez dutelako etxetik kanpora lan egiten.
- tratu txarrak salatzekeo beldurra dute, eta lotura afektiboak eta ematen zaien zaintza galtzekoa.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2015ean egindako Makroinkestak hauteman du **% 33ko edo handiagoko minusbaliotasunen baten ziurtagiria duten emakumeek neurri handiagoan adierazten dutela (% 23,3), minusbaliotasunik ez duten emakumeek baino (% 15,1), indarkeria fisikoa, sexuala edo beldurra pairatu dutela beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik.**

INDARKERIA FISIKOA, SEXUALA EDO BELDURRA PAIRATU DUTEN EMAKUMEAK, AITORTUTAKO MINUSBALIOTASUNIK DUTEN ALA EZ AINTZAT HARTUTA. %. ESPAINIA. 2015



Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Makroinkesta (2015) Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak: zer adierazpen zehatz ditu indarkeria horrek? Zer ondorio dakartza?

Orain arte azaldu ditugun biktimizazioen atzean diren eraso motei buruzko zenbait datu azaltzeko, Ertzaintzak erregistratutako datuei erreparatuko digu, arau-urratze motaren arabera banakatuta.

Ertzaintzak 2014n urtean erregistratu zituen emakumeen aurkako erasoaren % 87,14 zigorkodean delituen tipifikazioa duten arau-urratzeak izan ziren, eta faltak izan ziren horien % 12,86.³⁹ Emakumeen aurkako gainerako indarkeria motetan baino zertxobait handiagoa da faltan ehunekoa familia barneko indarkerian (arau-urratze guztien % 21,58). Falta horiek dira, batik bat, bananketako edo dibortzioko hitzarmena edo ebazpen judiziala ez betetzea, mehatxuak eta adingabekoaren zaintza urratzea.

2014. urtean, *“tortura edo osotasunaren aurkako delituak”*⁴⁰ izan ziren emakumeen aurka gehien egin ziren delituak, familiaren barnean ohikotasunez eragindako tratu txarren harian (erregistratutako biktimizazio guztien % 53,24 izan ziren). Horien atzetik datoz, lehenik, “justizia-administrazioaren aurkako” delituak (delitu guztien % 12,98 izan ziren), hau da, kautelazko segurtasun-neurriak, kondenak eta bestelako neurriak urratzea, eta bigarrenik, “lesioen” tipifikazioa duten delituak (% 8,98), hau da, familian eragindako tratu txarrak eta lesioak. Ohartarazi behar da lesioen eta administrazioaren aurkako delituen ehunekoak zertxobait handitu direla 2015eko lehen seihilekoan.

Indarkeria-egoeren % 6,64an, emakumeen “askatasun sexualaren aurkako” delituak egin ziren; eraso eta abusu sexualak izan ziren gehienak, baina izan ziren exhibizionismoko, adingabeen usteltzeko eta pornografiako kasuak ere. Familiaren eremutik kanpoko gizonezkoek egin zituzten delitu horietako gehienak (% 88,53), baina egin ziren askatasun sexualaren kontrako delituak familiaren eremuan ere.

³⁹ 2015eko uztailera arte **Zigor Zuzenbideak** bi modu arautzen zituen **delitu-ekintzak bereizteko**: delituak eta faltak. Legeak tipifikatutako portaerak dira faltak (baita delituak ere), ez dira delituak bezain larriak eta falta-egilea ez da espetxera joango delituaren ondorioz; aitzitik, isunak, komunitatearen mesederako lanak eta antzeko zigorrak ezarriko zaizkio. Delituek larritasun handiagoa dute, egiazko kalte materiala eragin baitiezaioke babestutako ondasun juridikoari. Nabarmentzekoa da, 2015eko uztailaren 1etik aurrera ez dela faltarik izango, hori arautzen baitu martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodearena, aldatzekoak: <http://www.boe.es/boe/dias/2015/03/31/pdfs/BOE-A-2015-3439.pdf>. Orain arteko falta batzuk delitu izango dira ordutik aurrera, eta beste falta batzuk despenalizatu egingo dira; ondorioz, informazio mota hori jasotzeko modua aldatuko da hemendik aurrerako txostenetan.

⁴⁰ Zigor-kodeak ez du genero-indarkeriagatiko delitua arautzen. Giza hilketak, lesioak, mehatxuak eta bestelako delituak dira, eta dagozkien arau-urratzeetan sailkatzen dira. Baina salaketaren batek adierazten baldin badu tratu txarrak ohikoak direla, zigorkodearen 173.2 artikulua orokorra erabiltzen da (VII. Titulua-Torturak eta askatasun moralaren aurkako beste delitu batzuk): Norbaitek ohikotasunez indarkeria fisikoa edo psikikoa erabiltzen baldin badu bere ezkontidearekin edo ezkontidea izan denarekin, eta, bizikidetzarik izan gabe ere, haren pareko afektibotasun-lotura duen edo izan duen pertsonarekin, aurrekoekin, ondorengoekin edo odol, adopzio edo afinitatezko senidetasunez berezko edo ezkontza bidezko neba edo arreba dituenekin, edo berekin bizi diren adingabekoekin edo minusbaliotasunak izan eta babes berezia behar duten pertsonarekin edo ezkontidearen edo bizikidearen ahalaren, tutoretzaren, kuradoretzaren edo izatezko zaintzaren pean bizi direnekin, edo bere familia-bizikidetzako gunearen barruan bestelako harremanen bat duten pertsonarekin, edo, oso kalteberak direlako, zentro publiko edo pribatuaren zaintzapean edo babespean dauden pertsonarekin, sei hilabetetik hiru arteko espetxealdi-zigorrekin, armak eduki eta eramateko eskubidea hiru eta bost urte artean kentzearekin zigortuko da, bai eta, epaileak edo auzitegiak, adingabekoaren edo minusbaliotasunak izan eta babes berezia behar duen pertsonaren interesean, egoki irizten duenean, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera urtebetetik bost urte artean izateko desgaitasuna berezia ere, eta hargatik eragotzi gabe indarkeria fisikoko edo psikikoko ekintzei dagozkien delituengatik ezartzekoak izan daitezkeen zigorrak. Zigorrak goiko erdialdean ezarriko dira, baldin eta indarkeria-ekintzetako bat edo batzuk adingabekoaren aurrean egiten baldin badira, armak erabiltzen baldin badira, bizileku komunean edo biktimaren etxean egiten baldin badira, 48. artikulua araututako zigoretako bat urratuz egiten baldin badira, edo izaera bereko kautela-neurriak, segurtasun-neurriak edo debekuak urratuz egiten baldin badira. Horrez gainera, zaintzapeko askatasunaren neurria ezar daiteke idatz-zati honek adierazten dituen egoeretan.

Egindako delitu guztien % 2,79 izan ziren “askatasunaren kontrakoak”. Horien artean, mehatxuak nabarmentzen dira, baina izan ziren derrigortzeak eta bahiketak ere. Delituen % 2,34 “familia-harremanen aurkakoak” izan ziren, prestazio ekonomikoak ez ordaintzearen ondoriozkoak, baina delitu horien artean nabarmendu ziren, era berean, familia abandonatzea, adingabeak otea eta zaintzeko betebeharra urratzea.

Berariaz nabarmendu behar da “giza hilketa eta haren formak” tipifikazioa duten sei delitu egin zirela 2014. urtean; zehazki, egoera horietatik hirutan erailketa-saiakuntzak gertatu ziren, eta beste hiruetan, berriz, emakumearen heriotza eragin zuen erasotzaileak.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, ARAU-URRATZEAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA.
Guztizkoak eta % EAE, 2014 eta 2015eko lehen sei hilekoa

ARAU-HAUSTE MOTA	Bikotekidea/ bikotekide ohia	Familia barnekoa	Indarkeri a sexuala	Guztira , 2014an	%	Guztira, 2015eko 1. sei hilekoan	%
Giza hilketa eta haren motak	5	1	-	6	0,12	3	0,11
Lesioak	356	104	-	460	8,98	280	10,52
Askatasunaren aurkakoak	89	54	-	143	2,79	85	3,19
Tortura eta osotasun fisikoaren aurkakoak	2.251	477	-	2.728	53,24	1.338	50,26
Gizakien salerosketa	-	-	-	-	-	-	-
Intimitatearen aurkakoak, norberaren irudirako eskubidearen aurkakoak, etab.	1	1	-	2	0,04	2	0,08
Askatasun sexualaren aurkakoak	13	26	301	340	6,64	149	5,60
Ohorearen aurkako erasoak	-	1	-	1	0,02	-	0,00
Familia-harremanen aurkakoak	95	25	-	120	2,34	43	1,62
Justizia Administrazioaren aurkakoak	602	63	-	665	12,98	399	14,99
DELITUAK, GUZTIRA	3.412	752	301	4.465		2.299	
Pertsonen aurkako faltak	452	207	-	659	12,86	363	13,64
GUZTIRA	3.864	959	301	5.124	100	2.662	100


Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Adierazi den moduan, emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioek heriotza eragin dezakete, baina baita **lesio mota askotarikoak** ere.

2015eko lehen sei hilekoan, emakumeek zauriak izan dituzte mota horretako lau indarkeria-egoeretatik batean, gutxi gorabehera (% 24,72).

Edonola ere, **kalte fisikoetatik harago, indarkeria mota horrek beti dakartza ondorio psikologiko handiak, Ertzaintzaren datuek erregistratu ez arren, erasoan kalte-maila osatzen dutenak.**⁴¹

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOAK, KALTE-MAILAREN ARABERA. % EAE, 2015eko lehen sei hilekoa



Azterketa egitean, baztertu egin da kalte-maila ezezaguneko biktimitazioen ehunekoa, 208 indarkeria-egoera (% 7,82)
Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

⁴¹ Ertzaintzak ertzain-etxeetan biltzen ditu (auzitegiko medikurik, epailerik eta beste inor gabe) kalte-mailen gaineko datuak, emakumeari harrera egitean. Balorazio fisikoa izaten da batik bat, eta emakumeek daramaten mediku-txostena izaten da erreferentzia, baldin eta txostenik baldin badago. Hori da atestatua egiteko eginbideetako bat. Zuhurtziaz irakurri behar dira datu horiek, testuinguru jakin batean biltzen baitira eta lehen begiratuan ikusten ez diren arrastoak uzten baititu emakumeen aurkako indarkeriak (indarkeria psikologikoa, ohikotasunez eragindako indarkeria, etab.).

Estatuan 2015ean egin zen *genero-indarkeriaren gaineko Makroinkestak* adierazten du beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa eta/edo sexuala eta/edo beldurra pairatu duten emakumeen % 42k izan dituela bizitzan noizbait lesioak indarkeria mota horren ondorioz. Egoera horretan izan da, beraz, Espainian bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 6,5.

Indarkeria mota horren larritasunari erreparatzen baldin bazaio, ikusten da **emakumeei egindako eraso fisikoetako asko larriak direla**⁴² (% 6,5), eta egoera guztien % 3,9an ertaina izan dela eragindako indarkeria⁴³.

Emakume horien % 34k lesio ertainak izan ditu (ebakiak, harramazkak, ubeldurak edo minak), eta indarkeria horren ondoriozko lesio larriak izan ditu emakumeen % 7,6k (lesioak begietan eta belarrietan, bihurrituak, luxazioak edo erreduak, hezurren edo hortzen hausturak edo nahi gabeko abortuak).

Biktima izan diren emakumeek pairatutako beste kalte batzuk aztertzen ditu txostenak. Alde horretatik, emakumeen % 60,71ek egoerari aurre egiteko ezintasun-sentsazioa nabarmentzen du, % 59,76k tristura, % 58,37k amorrua eta % 51,55ek beldurra. Nabarmentzekoak dira, era berean, indarkeria horrek emakume askorengan sorrarazten dituen lotsa (% 38,71) eta erruduntasun-sentipena (% 30,15).

Oro har, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa eta/edo sexuala eta/edo beldurra pairatu izan duten emakumeek gainerako emakumeen baino maiztasun handiagoz dituzte osasun-egoera txarra izatearen sintomak, hala nola arrazoi jakinik gabeko negargura (% 43,3), aldarte-aldaketak (% 60,8), antsietatea edo larritasuna (% 53), insomnioa, lo egin ezina (% 53,3) edo tristura, ezertarako balio ez dutela pentsatzeagatik (% 33,1).

Finean, kalte handia eragiten dio genero-indarkeriak emakumearen osasunari; izan ere, indarkeria fisikoa eta/edo sexuala eta/edo beldurra pairatu izan duten % 78,2k adierazi du indarkeria horrek nabarmen edo asko erasan duela bere ongizate fisikoa edo psikologikoa.

Horrez gainera, adituek adierazi dute kalte horietako batzuk denboran irautea dutela, hala nola: konortea galtzea, hemorragiak, elikaduraren trastornoak, lo egin ezina, takikardiak, giharretako mina eta zorabioak.

Indarkeria mota horrek biktimengan uzten dituen arrasto psikologikoen multzo handiaren barruan sartu behar dira tratatuaren modalitate guztietan komunak direnetako batzuk. Emakumearen Institutuak eguneroko bizitzako indarkeriei buruz egindako txostenak⁴⁴ adierazten duenaren arabera, hauek dira, laburtuta, emakume biktimek pairatzen dituzten ondorioak:

⁴² Ukabilaz edo min eman dezakeen beste zerbaitekin kolpatzea. Ostikadak ematea, arrastan eramatea edo kolpatzea. Berariaz saiatzea itotzen edo erreduak egiten. Zure aurka pistola bat, aizto bat edo armaren bat erabiltzeko mehatxua egitea.

⁴³ Zaplaktekoak ematea edo min egin dezakeen zerbait jaurtitzea. Bultzatzea, heldzea edo iletik tiratzea.

⁴⁴ MARTIN, E. *Las violencias cotidianas cuando las víctimas son mujeres*. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Emakumearen Institutua, 1999.

- Nortasunari dagozkion ondorioak, hura garatzea eragozten dutenak. Ziurgabetasuna, mesfidantza, mendetasuna eta autoestimu baxua sorrarazten dituzte.
- Depresioari lotutako ondorioak. Tristura-sentimenduak eta suizidio eta heriotzako ideiak ekar ditzakete.
- Ondorio emozionalak. Beldurra, larritasuna, antsietatea, urduritasuna, tentsioa eta trastorno afektiboak eragin ditzakete. Horrez gainera, erasotzailearekiko sentimen kontrajarriak gerta daitezke: gorrotoa, erremina, haren heriotza desiratzea, eta zenbaitetan, pena eta errukia.

Emakumearen aurkako indarkeriak epe luzeko ondorioak dakartza, bai emakumearentzat, bai haren seme-alabentzat, eta gai horri ez heltzeak berak ere ondorio larriak dakartzkio gizarte osoari.

Azterlan ugari adierazten du indarkeria pairatzen duen emakumeak, askotariko osasun-arazoak izateaz gain, apaldu egiten dituela diru-sarrerak eskuratzeko eta bizitza publikoan parte hartzeko gaitasunak. Indarkeriak pobretu egiten ditu, eta pobreago bihurtzen ditu haien seme-alabak.

Haien seme-alabek arrisku handiagoa dute osasun-arazoak, eskola-errendimendu apala eta portaeraren trastornoak izateko. Sarritan, traumak eta sintoma psikopatologikoak izaten dituzte (fobiak, tikak, kontzentratu ezina, etab.), eta, epe luzera, distimia, autoestimu baxua, ezkortasuna, zailtasun sozialak eta mesfidantza izan ditzakete, bai eta, azken buruan, belaunaldien arteko zehartasuna ere (zenbait azterlanek esaten du aukera handiak daudela etorkizunean adingabeko horiek berriro egiteko bizi izan zutena, eta tratu txarren eragile izateko).

Azkenik, emakumeen aurkako indarkeria bizi duten etxeetan, etxeko seme-alabek etengabe ikusiko dute harreman-eredu jakin bat eta nola ulertzen den etxe horretan gizonak eta emakumeak “izan behar dutena”, desoreka handi batean oinarrituta. Aditu batzuek “bahiketa emozionalak”⁴⁵ gertatzen direla esaten dute, adingabeko horiek bizi duten munduan indarkeria baliozkoa delako gatazkak konpontzeko, emakumezkoek baino garrantzi handiagoa dutelako gizonaizkoek eta emakumeak obeditu beharrean daudelako.

⁴⁵ LIZANA, R. *A mí también me duele. Niños y niñas víctimas de la violencia de género en la pareja*. Barcelona: Gedisa argitaletxea, 2012.

Aurrerapausoak eta oztopoak: zer aurrerapauso ematen ari dira emakumeak? Zer zailtasun dituzte?

Emakumeen aurrerapausoak

Kapitulu honen beraren aurreko idatz-zati batean adierazi den moduan, goranzko joera ageri du emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioei buruzko datuen bilakaerak. Ertzaintzak, 2014. urtean 5.124 indarkeria-egoera, biktimizazio, erregistratu ditu, aurreko urtean baino % 2,85 gehiago eta 2010. urtean baino % 19,58 gehiago.

Ertzaintzak arau-urratze penalen tipifikazioa duten erasoak erregistratu arren, ez dira kasu guztietan jartzen salaketak.

Zehazki, 2014. urtean 3.021 emakumek jarri zituzten salaketak EAEn, eta Ertzaintzak, guztira, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko 3.621 salaketa tramitatu zituen: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren gaineko salaketak izan ziren % 73,79, familia barneko indarkeriaren gainekoak % 18,72 eta gainerako % 7,48a familiaren eremutik kanpoko indarkeria sexualaren gaineko salaketak izan ziren.



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAGATIKO SALAKETAK

2014an, guztira, **3.621 salaketa jarri ziren, eta 3.021 emakumek jarri zituzten salaketak**

2015eko lehen seihilekoa: **1.853 salaketa jarri ziren, eta 1.590**

Era berean, **goranzko joera ageri du salaketen bilakaerak azken urteetan**. Salaketen kopuruak % 21,3 egin du gora 2010. urtearekiko. Gero eta txikiagoa da Ertzaintzak identifikatu eta salaketarik jaso ez duten indarkeria-egoeren proportzioa (biktimizazioen % 69,6ri jarri zitzaizkien salaketak 2010ean eta 2014an, berriz, % 70,6ri) eta esan daiteke **emakumeak aurrerapauso handiak ematen ari direla**.

Proportzioan, askatasun sexualaren aurkako delituetan gertatu da igoerarik handiena (% 38,26 igo dira salaketak 2010etik 2014ra).

Erasoak pairatu eta salaketak jartzen dituzten emakumeen ehunekoak ere ia 5 ehuneko-puntu egin du gora 2010 eta 2014 bitartean; izan ere, orain lau urte portzentajea % 69 ingurukoa zen eta **erasoak pairatutako emakumeen % 74k jarri dute salaketa 2014an**. Gora egin du, era berean, emakume biktimak beraiek jarritako salaketen ehunekoa: salaketak jarri zituzten pertsona guztien % 81 izan ziren 2010ean, eta %83 izan dira 2014an.

**ERTZAINZAK TRAMITATUTAKO SALAKETEN KOPURUAREN ETA SALAKETAK JARRI DITUZTEN EMAKUMEEN KOPURUAREN
BILAKAERA. Guztizkoak. EAE, 2010- 2015eko 1. seihilekoa**

	GUZTIRA, 2010		GUZTIRA, 2014		GUZTIRA, 2015eko 1. seihilekoa	
	Salaketak	Salaketak jarri dituzten emakumeak	Salaketak	Salaketak jarri dituzten emakumeak	Salaketak	Salaketak jarri dituzten emakumeak
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	2.213	1.703	2.672	2.115	1.386	1.140
Familia barneko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)	575	515	678	636	349	332
Askatasun sexuala	196	194	271	270	118	118
GUZTIRA	2.984	2.412	3.621	3.021	1.853	1.590

Oharra: Askatasun sexuarean sartzen dira Zigor Kodean izaera hori duten delituak, familiarik kanpoko pertsonen egindakoak. Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

EAEko epaitegiek 2014. urtean bikotekideek edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeriaren gainera zenbat salaketa jaso zituen adierazten dute *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak* bildutako datuek, eta datu horien arabera, biktimek beraiek aurkezten dituzte salaketen % 5,96, eta biktimaren salaketaren ondoriozko polizia-atestatuei dagozkie beste % 58,84. Errealitate horrek adierazten du, era berean, inplikazio handia dutela senideek, gizarte-eragileek (poliziako agenteek edo bestelakoek) eta **hirugarren pertsonen** (hasiera batean, ez dute izaten zerikusirik eragin den indarkeria-egoerarekin) emakumeen aurkako indarkeria-egoeren salaketan, gero eta gehiago baitira urtetik urtera, eta agerikoa dirudi, alde horretatik, gizarteak gero eta kontzientzia handiagoa duela horren gainera (pertsona horiek, askotan, ahozko epaiketara joaten dira akusatuen aurkako egozpenak oinarritzeko eta, zenbaitetan, haren aurkako egozketa-frogak izaten dira).

GENERO-INDARKERIAGATIKO SALAKETEN KOPURUA EAE-KO EPAITEGIETAN (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa)								
SALAKETAREN URTEA	2009. urtea	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2015. urtea	
Zuzenean biktimak aurkeztuak	319	158	209	481	240	238	107	
Zuzenean senideak aurkeztuak	22	15	10	12	10	14	15	
Polizia-atestatuak, biktimak salatu ondoren	2.999	2.820	2.809	1.955	2.308	2.348	1.201	
Polizia-atestatuak, familiak salatu ondoren	67	79	45	43	48	59	20	
Polizia-atestatuak, zuzenean poliziak esku hartuta	371	369	790	1.092	1.085	1.079	586	
Lesioen parteak	139	159	196	213	190	200	109	
Laguntza-zerbitzuak eta hirugarrenak, oro har	141	91	66	57	56	52	48	
GUZTIRA	4.058	3.691	4.125	3.853	3.937	3.990	2.086	

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Urriaren 30era artekoak dira 2015eko datuak.

Bestalde, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datu-erregistroak adierazten du, era berean, **751 prozesu ukatu** zirela 2014. urtean, hau da, emakumeek ez zuten prozesu horietan deklaratu, eta bestelako frogarik ezean, artxibatu egin ziren espedienteak. Egindako ukoen ehunekoak oso antzekoak dira bertako emakumeen eta emakume atzeritarren artean.

Emakumeek arrazoi asko izaten dituzte bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik pairatzen duten indarkeria ez salatzeke edo prozesuan zehar kentzeko aurrez jarri diren salaketak. Besteak beste, faktore hauek hartu behar dira kontuan: beldurra; etsipena edo konfiantzarik ez izatea sistema judizialean edo indarkeria salatzearen edo publiko egitearen

ondorioetan; prozesu judizialak abiatzearen kostu handiak; mendetasun ekonomikoa (baliabide ekonomikorik ez izatea, etxebizitzarik ez izatea, etab.) eta/edo lotura afektiboa izatea biktimak erasotzailearekiko; bikote-harremanaren porrota ez onartzea; bikotearen barruan gertatzen dena arazo pribatua dela (eta ez delitua) eta soilik familiari dagokiola pentsatzea; erruduntasuna edo lotsa sentitzea, baldin eta indarkeria berak sorrarazi duela pentsatzen baldin badu emakumeak; erasotzaileak gizartean onespina izatea eta/edo biktimaren inguruneak ez aurre egitea indarkeria mota horri; zenbaitetan biktimak beraiek eta ingurukoek (batzuetan, baita profesionalak ere) izaten dituzten zailtasunak indarkeria moduan identifikatzeko indarkeria modu jakin batzuk (batik bat, psikologikoa eta sexuala); eta jendaurrean indarkeriaren biktima izateak dakarren estigma.

*Genero-indarkeriari buruzko 2015eko Makroinkestak*⁴⁶ adierazten du hiru hauek direla indarkeria pairatu duten emakumeek izaten dituzten arrazoi nagusiak indarkeria hori ez salatzeko: behar adinako garrantzirik ez ematea pairatutako genero-indarkeriari, beldurra, lotsa eta indarkeria horren berririk zabaldu nahi ez izatea.

Horrez gainera, eta kalkuluen arabera, polizian edo epaitegian salaketa jarri zuten emakumeen % 20,9k erretiratu egin zuten gerora salaketa hori Espainian. Inkesta horren arabera, hauek izaten dira emakumeen arrazoiak salaketak kentzeko: erasotzaileak berriro ez dela gertatuko agindu dielako (% 29,35), alda daitekeela pentsatzea (% 28,66), beldurra dutelako (% 28,59), bere seme-alaben aita delako (% 24,86), bikotekidearekiko pena sentitzen dutelako (% 23,95) edo mehatxuak egin dizkietelako (% 20,82).

Prozesu luzea eta mingarria da indarkeriazko harreman bat eten eta tratu txarren egilea uztekoa, eta, sarri askotan, ez da lehen saialdian lortzen; izan ere, Torres Falcón autoreak adierazten duen moduan: *“senarrak beren indarkeriaren aurrean jartzen dituztenean emazteek eta, batik bat, harremana eteteko urratsen bat ematen dutenean, gizonezkoek sufritu-itzurak egiten dituzte, eta ulertua ez denaren, bere kabuz baliatu ezin duenaren eta laguntza behar duenaren lekuan jarrita, txantaje handiak egiten dituzte. Oso erraza da emakumezkoak jolas horretan erortzea eta, orduan, konpontzaile-lanak egitea”*⁴⁷.

Nabarmentzekoa da, era berean, genero-indarkeria salatu zuten emakumeen erdiak (% 50,2) eten egin zuela bere harreman sentimentala salaketaren ondorioz, eta kasuen % 15,8an harremana amaituta zegoela salaketa jarri baino lehen.

Bikotekide ohiaren erasoa pairatu zutenean, bananduta edo banantze-bidean zeuden emakume gehienak.


2015eko lehen seihilekoan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoa pairatu duten emakumeen % 55ek etena zuen erasotzailearekiko harreman sentimentala.

Adierazi den moduan, emakumeen aurkako indarkeria-kasu gehienetan, erasotzailea eta biktima harreman sentimental batez lotuta daude edo lotura hori izan dute (lau biktimizaziotik hirutan, gutxi gorabehera). Berariaz azpimarratu behar da 2015eko lehen seihilekoan emakumeren batek bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoa jasan duen **egoeren % 55ean emakumea bananduta zegoela aurretiaz edo etena zuela erasotzailearekiko harreman sentimentala** eta emanak zituela egoera gainditzeko lehen urratsak.

⁴⁶ OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUNEN MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015. Avance de resultados.* 2015. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE_MACROENCUESTA_VIOLENCIA_CO_NTRA_LA_MUJER_2015_05-04-15.pdf


⁴⁷ TORRES, M. *La violencia en casa.* Mexiko: Paidós, 2001.

BIKOTEKIDEEK EDO BIKOTEKIDE OHIEK EMAKUMEEN AURKA EGINDAKO BIKTIMIZAZIOAK, ERASOTZAILEAREKIKO HARREMAN MOTAREN ARABERA. % EAE, 2015eko 1. seihiilekoa



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

2002TIK 2014RA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ERAILDAKO EMAKUMEAK, ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANAREN ARABERA. % EAE-N.




Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Izan ere, 2002 eta 2014 bitartean beren bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakumeen % 27k amaitua zuen alde aurretik haiekiko harremana.

Eraildako emakumeen % 37 ez zen erail zuen gizona bizi erailketaren unean.


2002TIK 2014RA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZ ERAILDAKO EMAKUMEAK, ERASOTZAILEAREKIN IZANDAKO BIZIKIDETZAREN ARABERA. % EAE



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Oztopoak:

Bikotekidearekiko harremana eten eta erasotzailea uzteko erabakia hartzean emakumeek izan ohi dituzten zenbait zailtasunei buruzko informazioa jaso zuen *Eusko Jaurlaritzak 2011n argitaratutako azterlanak*. Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu eta harekiko harremana eten duten emakume gehienek (% 62,2) adierazi dute harremanaren amaierak kaltetu egin duela beraien egoera emozionala (% 62,2), eta depresioak, antsietatea eta beste trastorno batzuk izan dituztela. Baina, horrez gain, nabarmentzekoak dira beste ondorio kaltegarri batzuk ere, hala nola, erasoak (% 40), hitzeko mehatxuak (% 37,8), jazarpena (% 33,3) eta arazo ekonomikoak (% 31,1).



Iturria: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila). EAEn bizi eta 16 urte edo gehiago dituzten emakumeak.

Ebazpen judizial bat da babes-agindua, eta “babes osoko estatutua” ematen die indarkeria mota horren biktimei. Horren bidez, jurisdikzio-organo bakar batek neurri penalak eta zibilak hartzen ditu, eta gizarte-laguntzako beste neurri batzuk aktibatzen ditu.

Ertzaintzak babes-aginduen 1.434 eskaera jaso zituen guztira 2014. urtean (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren gainekoak izan ziren 1.296 eskaera, familia barneko indarkeriaren gainekoak 135, eta indarkeria sexualaren gainekoak 3).

Eta 1.674 babes-agindu jaso zituen EAEko, Espainiako eta Europako gainerako epaitegietatik, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako delituak edo faltak gertatu izanaren zantzu oinarrituak eta emakumeen arrisku-egoera objektiboak egiaztatu ondoren.

EPAITEGIEK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN HARIAN EMANDAKO BABES-AGINDUAK. Guztizkoak. EAE, 2014 eta 2015eko 1. seihilekoa.

2014an, guztira: **1.674 babes-agindu**
2015eko lehen seihilekoa: **841 babes-agindu**

Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Azken urteetan eman diren babes-aginduen bilakaera aztertuta, ikusten da **beheranzko joera** ageri dutela, bai EAEn, bai Espainian. Alde horretatik, *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia* 2014an emandako datuek adierazten dute eskatutako 778 babes-aginduetako 409 eman zirela⁴⁸ (% 52,6) EAEko epaitegietan. Aurreko urtean eskaeren % 60,7 eman zen, eta ehuneko proportzioa handiagoa izan zen aurreko urteetan.

EAE-KO EPAITEGIEK EMANDAKO BABES-AGINDUEN KOPURUA (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria). Guztizkoak. 2009-2015							
IREKIAK-EBATZIAK	2009. urtea	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2015. urtea
Irekiak	989	994	953	808	839	778	390
Ebatzitakoak. Emanak	595	631	596	500	510	409	198
Ebatzitakoak. Ezetsiak	394	363	357	308	329	369	173
Hiruhilekoaren amaieran zain	96	0.	0.	0.	0.	0.	0.
Ebatzitakoak. Ez-onartuak							19

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Urriaren 30era artekoak dira 2015eko datuak.

Erasotzaile askok ez dituzte betetzen epaitegiek emakumeak babesteko erabakitzen dituzten neurriak.


Guztira, 665 biktimizazio erregistratu ziren 2014an, segurtasun-neurriak, urruntze-aginduak eta bestelako neurriak **urratzeagatik**.

Emakume askok jokabide aktiboak hartu dituzte eta indarkeria-egoeratik irteteko urratsak ematen ari dira, baina **zenbait erasotzailek** ez dituzte errespetatzen, eta **urratu egiten dituzte epaitegiek emakumeen arrisku-egoeretan erabakitzen dituzten neurri penalak**. Zehazki, 665 biktimizazio erregistratu ziren guztira 2014an, segurtasun-neurriak, urruntze-aginduak eta bestelako neurriak urratzeagatik.

Hau da, urte horretan erregistratu ziren emakumeen aurkako indarkeria-egoeren % 13n (guztira, 5.124 erregistratu ziren), erasotzaileek urratze-delituak egin zituzten. 2015. urteko lehen seihilekoan 399 urratze-ekintza erregistratu dira, denbora-epe horretan izandako biktimizazio guztien % 15.

⁴⁸ Nabarmendu behar da datu horiek ez datozela bat Ertzaintzaren datuekin, bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindako indarkeriara mugatzen direlako batetik, eta, bestetik, EAEko epaitegietan erregistratutako aginduak soilik kontuan hartzen dituztelako. Izan ere, Espainiako epaitegietara edo epaitegietatik lekualdatzen dira Ertzaintzak tramitatzen eta/edo jasotzen dituen aginduetako batzuk.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMIZAZIOEN BILAKAERA, SEGURTASUN-NEURRIEN, URRUNTZE-AGINDUEN ETA BESTELAKO NEURRIEN URRAKETARI ERREPARATUTA. Guztizkoak eta tasa. EAE, 2010 - 2015eko 1. seihiakoa



Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Herritarrek emakumeen aurkako indarkeriaren gainean duten pertzepzioa: zer sentibilizazio-maila dute herritarrek? Gezurrezko zer mito daude?

Indarkeriaren errealitatea, heriotzak eta gizakien sufrimendua gailendu dira ageriko gizarte-arazo diren aldetik, baina bada zailtasunik oraindik indarkeria horren adierazpen ugariak aitortzeko.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015ean egin zuen *Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: pertzepzioa eta herritarren iritzia*k azterlanak adierazten du EAEko herritarrek 6,4 puntutan balioesten dutela, 10 puntutik, EAEko gizonen eta emakumeen artean dagoen berdintasun-maila (eskala teoriko batean, erabateko desberdintasun-egoera litzateke 0 puntuazioa, eta erabateko berdintasuna 10 puntuazioa). Konparatuz gero berdintasunaren gaineko pertzepzio hori 2011n egindako kontsulta batean azaldutakoarekin, ikusten da handitu egin dela berdintasunezko gizarte batean bizitzearen ustea (puntuazioa 5,6 zen orduan eta 6,4 da orain).

Sexuari erreparatuz gero, gizonezkoek joera handiagoa dute berdintasun-maila “handiak” –7 eta 10 puntu bitartekoak– hautemateko. Horrez gainera, alderantzizko harremana dago ezarria adinaren eta berdintasun-pertzepzioaren artean; hala, zenbat eta handiagoa izan pertsonaren adina, orduan eta txikiagoa da emakumeen eta gizonen artean berdintasun-maila “handiak” daudela irizten duten pertsonen proportzioa. Pertsona gazteenak (18 eta 29 urte bitartekoak) dira, batik bat, Euskadin emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-maila “handiak” hautematen dituztenak. Bestela esanda, **gainerako herritarrek baino desberdintasun gutxiago hautematen dituzte pertsona gazteek emakumeen eta gizonen artean, eta desberdintasunaren pertzepzio hori aldatu egiten da sexutik sexura, gizonezkoek baino desberdintasun-pertzepzio handiagoa baitute emakumeek.**

Gainerako herritarrek baino desberdintasun gutxiago hautematen dituzte pertsona gazteek emakumeen eta gizonen artean, eta desberdintasunaren pertzepzio hori aldatu egiten da sexutik sexura, gizonezkoek baino desberdintasun-pertzepzio handiagoa baitute emakumeek

Beste datu batzuk jarri ditu eskuragarri CIS erakundeak *emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen gaineko pertzepzioaren gainekoak*, 2012. urteari dagozkionak⁴⁹, eta datu horiek adierazten dute pertsonen % 60k uste duela desberdintasun handiak daudela gizonen eta emakumeen artean, eta % 37k uste duela desberdintasun horiek txikiak edo ia ezdeusak direla.

Euskal herritarren gehiengoak (% 77k) uste du emakumeen aurkako indarkeriak bere horretan iraungo duela, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-egoera aldatzen ez den bitartean. Zehazki, Euskadin bizi eta 18 urte edo gehiago dituzten herritarren % 41 oso ados dago adierazpen honekin: “*emakumeen aurkako indarkeriak bere horretan jarraituko du, harik eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-egoera aldatzen ez den arte*”. Adierazpen horrekin nahiko ados dago beste % 36.

⁴⁹ CIS. SOZIOLOGIA IKERKETEN ZENTROA. *Percepción social de la violencia de género. 2012ko azaroa.*

Oro har, adostasun-maila handiagoa azaltzen dute emakumeek. Adierazpen horrekin oso ados dagoen emakumeen portzentajea % 45koa da, eta gizonezkoena, berriz, % 37koa. Adinari erreparatuta, datuek adierazten dute adin zaharragoko pertsonen indar handiagoz onesten dutela adierazpen hori, pertsona gazteagoek baino. Izan ere, 46 eta 64 urte bitarteko pertsonen % 46 inguru eta 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % 43 inguru dago oso ados adierazpen horrekin. Ehuneko horiek, ordea, % 39raino jaisten dira 18 eta 29 urte bitarteko pertsonekin eta % 36ra arte 30 eta 45 urte bitartekoekin.

Beren burua ezkerreko ideologiaren barruan kokatzen duten pertsonen gainerakoek baino adostasun-maila handiagoa dute ideia horrekin, eta adostasun-mailak gora egiten du, era berean, ikasketa-mailak gora egiten duen neurrian. Era berean, euskal gizartean emakumeen eta gizonen artean berdintasun-maila apalagoa dagoela uste duten pertsonen gainerakoek baino gehiago sinesten dute emakumeen aurkako indarkeriak bere horretan jarraituko duela desberdintasun-egoera amaitzen ez den bitartean.

Azken urteetan, **handitu egin da inguruan emakumeen aurkako indarkeria ezagutu duen pertsonen ehunekoa**. Herritarren % 27k dio ezagutzen duela bikote-harremanean tratatu txarrak pairatu dituen emakumeren bat bere familian, lagunaren artean, auzoan edo beste ingururen batean, eta % 28k dio ezagutzen duela emakumeren bati tratatu txarrak eragin dizkion gizonezkoren bat. Indarkeria mota hori pairatutako emakumeak ezagutzen zituzten pertsonen proportzioa % 18koa zen 2004an.

EAEn bizi eta 18 edo gehiago dituzten pertsona gehien-gehienak uste du onartezina dela emakumeen aurkako indarkeria, eta pentsatzen du legeak beti zigortu behar dituela egoera horiek. Gainerako % 6k onartezina dela uste du, baina ez du pentsatzen legeak beti zigortu behar dituenik.

Ez da alde handirik nabaritzen ez sexuaren, ez adinaren arabera. Hala ere, emaitzek adierazten dute emakumeek joera handiagoa dutela legeak indarkeria-egoera horiek beti zigortu behar dituela pentsatzeko (% 92), gizonek baino (% 88). Adinari begiratuta, 65 urte edo gehiagoko pertsonen gainerakoek baino joera apalagoa dute legeak indarkeria mota hori beti zigortu behar duela esateko (% 86).

Estatuan, *CIS erakundeak genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio sozialari buruz egindako* azterlanak hauteman du galdetuak izan diren pertsonen % 92k onartezin deritzotela gizonezkoak bere bikotekideari edo bikotekide ohiari eragindako indarkeriari. Hala ere, % 5ek adierazten du ekidinezina dela, eta % 2k irizten du onargarria dela egoera jakin batzuetan.

GENERO-INDARKERIAREN ONARGARRITASUNA %. EAE. 2015

	%
Onargarria egoera guztietan	0
Onargarria egoera jakin batzuetan	0
Onartezina, baina legeak ez du beti zigortu behar	6
Onartezina, eta legeak beti zigortu behar du	90
ED/EDE	3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: pertzepzioa eta herritarren iritzia, 2015ean egina.

ZURE USTEZ, GIZONAK BERE EMAZTEARI, BIKOTEKIDEARI EDO BIKOTEKIDE OHIARI EDO BESTE EMAKUMEREN BATI ERAGINDAKO INDARKERIA... %. ESPAINIA. 2012.

Beti gertatu da eta ekidinezina da	5,3
Onargarria da egoera jakin batzuetan	1,7
Erabat onartezina da	92,0
ED	0,6
EDE	0,3
(N)	(2.580)

Iturria: CIS, Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala, 2012.

Emakumeen aurkako tratu txarren zigorgarritasuna aztertzean, CIS erakundeak egindako azterlanak behatu du herritar gehienek uste dutela legez zigortu behar direla tratu txarrak, baina nabarmen aldatzen da ideia horren gaineko adostasun-maila tratu txarren mota batetik bestera.

Beti legez zigortu behar liratekeen tratu txarreatatik galdetuta, galdetuak izan diren pertsonen % 95ek uste du legeak beti zigortu behar dituela tratu txar fisikoak, eta tratu mota horrek lortzen du adostasun handiena. Hala ere, % 3k pentsatzen du, onartezinak iruditu arren, legeak ez lituzkeela beti zigortu behar, eta % 2k uste du onargarriak direla egoera jakin batzuetan. Oro har, % 5ek uste du ez direla beti zigortu behar.

Herritarren %90ek uste du beti zigortu behar direla sexu-harremanak behartzeko jokabideak, baina jokabide horiek zuzartzeko bideren bat irekitzen du herritarren % 10ek. Zehazki, % 8k uste du, onartezinak iritzi arren, legeak ez dituela beti zigortu behar jokabide horiek.

Hitzezko tratu txarrek dute onarpen-mailarik handiena, eta % 63k pentsatzen baitu legeak beti zigortu beharko lituzkeela jokabide horiek. Hitzezko tratu txar horiek “hitzezko mehatxu” bihurtuta ere, horien onarpen-maila nahiko handia da, elkarrizketatuak izan diren hiru pertsonetatik bik (% 69k) soilik pentsatzen baitu legeak beti zigortu beharko lituzkeela jokabide horiek, onartezinak direla iritzi arren.

Herritarren ehuneko handi batek (% 86) irizten du onartezina dela askatasuna mugatzea eta legeak beti zigortu behar dituela jokabide horiek, eta % 14 dira jokabide horiek nolabait justifikatzen dituztenak.

EMAKUMEEN AURKAKO TRATU TXARREN MOTA BATZUK ADIERAZTEN DIRA BEHEAN. ADIERAZI, MESEDEZ, HORIETAKO BAKOITZA, ZURE IRITZIAN, ONARGARRI OTE DEN EGOERA JAKINEN BATEAN; ONARTEZINA DEN, BAINA LEGEAK EZ LUKEEN BETI ZIGORTU BEHAR; ALA ONARTEZINA DEN ETA LEGEAK BETI ZIGORTU BEHAR OTE LUKEEN. %. ESPAINIA. 2012

	Onargarria da egoera jakin batzuetan	Onartezina, baina legeak ez du beti zigortu behar	Onartezina, eta legeak beti zigortu behar du	ED	EDE	(N)
Tratu txar fisikoak	1,2	3,0	95,1	0,4	0,2	(2.580)
Hitzezko tratu txarrak	2,5	32,6	62,9	1,6	0,3	(2.580)
Sexu-harremanak behartzea	0,9	7,9	89,8	1,0	0,4	(2.580)
Hitzezko mehatxuak	1,7	27,6	69,3	1,0	0,4	(2.580)
Askatasuna mugatzea	1,7	10,0	86,0	1,8	0,4	(2.580)

Iturria: CIS, Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala, 2012.

Gezurrezko mitoak

Zenbait mitok eta ustek gizartean duten zabalkundea aztertzea da herritarrek genero-indarkeriaren gainean duten pertzepzioaren berri izateko moduetako bat.

Aintzat hartuz gero zer datu kaleratu dituen *Prospekzio Soziologikoak 2015ean*, **ikusten da gezurrezko zenbait mitok indarrean dirautela gure gizartean**. Jende askok uste du *alkoholaren eta drogen abusua dagoela emakumeen kontrako indarkeria matxistaren ekintza gehienek atzean*. Ideia horrekin oso edo nahiko ados dago EAEn bizi eta 18 urte edo gehiago dituen biztanleriaren % 62. Emakumeek eta gizonek horren gainean dituzten iritziak nahiko antzekoak dira. Adinari erreparatuta, ordea, datuek adierazten dute 65 urtetik gorako pertsonak direla, batik bat, iritzi


horrekin bat egiten dutenak (% 74); aitzitik, pertsona gazteenak –18 eta 29 urte bitarte dituzten pertsonak– dira mito hori gutxien barneratuta dutenak (% 54).

Gizartean oso zabalduta dagoen beste uste edo ideietako bat da *eraso gehienak estres-maila handiko egoeretan edo une batez kontrola galtzen denean gertatzen direla*, galdetuak izan diren pertsonen % 61 baitago ados edo oso ados iritzi horrekin. Iritzi horri dagokionez, ez da alde handirik antzematen gizonen eta emakumeen artean. Adinari begiratuta, adin handieneko pertsonak (65 urtetik gorakoak) dira ideia hori gehien babesten dutenak (% 67).

Egungo gizartean indarrean dirauten gezurrezko mito batzuk.

EAEn bizi eta 18 urte baino gehiago dituzten hamar pertsonatik ia lauk uste du gezurrezko salaketa asko egiten dela genero-indarkeriako kasuetan.

Itxura batean, aztertutako gainerako itemek ez dute aurreko horiek bezainbesteko arrakastarik gizartean; hala ere, komeni da kontuan izatea Euskadin bizi eta adinez nagusi diren 10 pertsonatik ia lau oso edo nahiko ados dagoela bi iritzi hauekin: *etxean bortizkeriaz jokatzeko duenak bortizkeriaz jokatu du lanean eta lagunekin* (% 38), eta *gezurrezko salaketa asko egiten dira genero-indarkeriako kasuetan* (% 39). Emakumeen eta gizonen erantzunak oso antzekoak dira esaldi batekin zein bestearekin. Adinari begiratuta, nabarmentzekoa da uste horiek 65 urtetik gorako pertsonengan daudela zabalduen (% 42 dator bat lehen mitoarekin eta % 44 bigarrenarekin).



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: pertzepzioa eta herritarren iritziak, 2015ean egina.

Azpirarratzekoa da, 2011. urteaz geroztik, **nabarmen handitu dela hiru mito nagusiek duten babesa**: *alkoholaren eta drogen abusua dago emakumeen kontrako indarkeria matxistaren ekintza gehien atzean* (lehen % 50 zeuden oso edo nahiko ados, eta orain % 62), *eraso gehienak estres-maila handiko egoeretan edo une batez kontrola galtzen denean gertatzen dira* (% 42tik % 61ra) eta *gezurrezko salaketa asko egiten dira genero-indarkeriazko kasuetan* (% 25etik % 39ra). Aitzitik,

% 19tik % 14ra jaitsi da beste iritzi honekiko adostasun-maila: *emakumeek beraiek eragindakoak dira emakumeen aurkako indarkeriazko zenbait egoera.*

Gezurrezko salaketen gaia aztertzean, argitu behar da Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2104an egindako memoriaren⁵⁰ datuek laburtuta adierazten dituztela 2009-2013 urteen bitartean balizko salaketa faltsuen ondorioz abiarazi ziren auzien kopurua. Auzi guztiak kondena-epai batean amaitu izanaren suposizioa ontzat emanez gero, egindako salaketa guztien % 0'010 izango lirateke gezurrezkoak.

ESPAINIA URTEA	SALAKETAK, GUZTIRA	GEZURREZKO SALAKETENGATIKO KONDENAK	%	KONDENAK + TRAMITATZEN ARI DIREN AUZIAK	%
2009	135.540	11	0.0081	13	0.0096
2010	134.102	6	0.0045	8	0.0060
2011	134.002	7	0.0052	13	0.0097
2012	128.543	6	0.0047	20	0.020
2013	124.894	3	0.0024	17	0.013
GUZTIRA	657.084	33	0.005	71	0.010

Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia 2014ko memoria.

Estatuan, CIS erakundearen inkestak zenbait galdera interesgarri egiten ditu, antzemateko zergatik, gizartearen pertzepzioaren arabera, biktima batzuek eutsi egiten dioten bikote-harremanari, harreman horretan tratu txarrak pairatzen dituzten arren.

Galdetuak izan ziren herritarren % 59k soilik adierazi zuen ez zegoela ados edo adostasun maila txikia zuela iritzi honekin: “emakumeek tratu txarrak pairatzen baldin badituzte, onartu egiten dituztelako da”. Gizonezkoek baino adostasun-maila txikiagoa adierazten dute emakumeek iritzi horrekin, baina aldeak txikiak dira.

Herritarren % 67k uste du gizonezkoekiko mendetasun ekonomikoa dutelako onartzen dutela genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek tratu txarrak pairatzea; hala ere, herritarren % 27 ez dago ados azalpen mota horrekin.

ADIERAZI ZER ADOSTASUN-MAILA (OSO ADOS, NAHIKO ADOS, EZ OSO ADOS ALA EZ NAGO BATERE ADOS) DUZUN BAIETZAPEN HAUEKIKO %. ESPAINIA. 2012

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Ez nago batere ados	ED	EDE	(N)
Erasotzaile gehiago dago atzerritarren artean espainiarren artean baino	12,8	30,4	24,3	16,6	15,7	0,2	(2.580)
Mendetasun ekonomikoa dutelako onartzen dute emakumeek tratu txarrak pairatzea	14,8	52,2	18,9	7,8	6,1	0,2	(2.580)
Seme-alabengatik pairatzen dute biktimek	28,0	61,0	6,6	1,6	2,6	0,2	(2.580)
Buruko gaixotasunak izan ohi dituzte erasotzaileek	7,6	30,0	30,1	23,4	8,5	0,4	(2.580)
Ikasketa-maila apalak izaten dituzte tratu txarrak pairatzen edo pairatu izan dituzten emakumeek	4,8	28,4	35,8	22,4	8,3	0,4	(2.580)
Emakumeek tratu txarrak pairatzen baldin badituzte, onartu egiten dutelako da	7,0	27,6	30,7	28,5	5,2	0,9	(2.580)

Iturria: CIS, Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala, 2012.

⁵⁰ https://www.fiscal.es/memorias/memoria2014/FISCALIA_SITE/index.html

Gizarteak ez die maila bereko garrantzirik ematen tratu txar psikologikoei.

Espainiako herritarren % 9k ez ditu gaitzesten gutxiesteko egiten diren tratu txar psikologikoak, eta % 31k kontrolerako indarkeria onartzen du bikotearen baitan (ehuneko hori handiagoa da gazteengan).


EAEko herritar gehienek ustez, larriak dira emakumeen aurkako indarkeria modu guztiak, baina tratu txar psikologikoa eragiteko modu batzuk dute larritasun-baloraziorik apalena.

Tratu txarren modu guztien artean, *kolpekatzea, jotzea* da, nagusiki, balorazio oso larria duena EAEko herritarren aldetik, hori pentsatzen baitu herritarren % 96k. Horrez atzetik datoz, *emakumearen borondatearen aurka sexu-harremanak izatera behartzea*, oso larria baita jokabide hori % 88rentzat; *emakumearen irudiak, argazkiak edo informazioa zabaltzea bere onespenerik gabe*, oso larria da % 80rentzat; eta *mehatxuak*, oso larriak % 75entzat.

Indarkeria modu horien larritasuna baloratzean, ez dago sexuaren araberako alde handirik. Hala ere, ikusten da alderik adinaren arabera. Alde horretatik, adin handieneko pertsonak (65 urte edo gehiago dutenak) joera handiagoa dute jokabide horiek oso larriak direla baloratzeko. Oso larritzat irizten diren lau itemetan errepikatzen da joera hori, *kolpekatzea, jotzea* itemaren kasuan izan ezik. Item horretan, antzekoa da iritzia adin talde guztietan.

Hauek dira larritasun-balorazio txikieneko indarkeria moduak: *arretarik ez ematea, ezikusiarrena egitea* (oso larria da %25entzat), *irainak* (% 38) eta *etengabe kexu agertzea emakumearen gauzak egiteko moduarekin* (% 47).

Iritziak sexuaren arabera aztertuta, ikusten da emakumeek gizonek baino proportzio handiagoan hartzen dituztela indarkeria modu horiek oso larritzat, baina ez da alde handirik antzematen adinaren arabera.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: pertzepzioa eta herritarren iritzia, 2015ean egina.

Informazio osagarria ematen dute, era berean, CIS erakundeko datuek. Bat datoz EAEko emaitzeekin, datu horien arabera gaitzespen handiena jasotzen duten jokabideak baitira, bai indarkeria fisikoa erabiltzea “bultzatzea eta/edo jotzea haserretzen direnean”, bai bikotearen barruan sexu-abusuak eragitea “sexu-harremanak izatera behartzea”.

Gutxiesteko tratu txar psikologikoen gaineko jarrerak aztertzeke, jokabide hauen gaineko iritzia galdetu dira: alde batetik, bikotekideari egiten zaizkion irainen eta mespretxuen gainekoa, eta, bestetik, seme-alaben aurrean gutxiestearen eta nabarmen uztearen gainekoa, seme-alabak baldintzatu eta emakumeak seme-alaba horiekiko duen autoritatea eta balioa hondatzeko jokabideak aldetik. Jokabide horiekiko gaitzespena orokorra dela esan daiteke, galdetuak izan diren herritarren % 90ek baino gehiagok onartezin irizten baititu bi jokabide mota horiek. Hala ere, galdetutakoen % 2,4k uste du ezinbestean gertatzen direla bikotekidea mespretxatzeko jokabideak, eta % 0,6k uste du onargarri direla egoera jakin batzuetan; horrek esan nahi du % 3k ez duela uste jokabide horiek arbuigarriak direnik. Galderari erantzuten ez dion % 0,5 gehitu dakioke azken ehuneko horri.

Zabalduego daude iritzi horiek emakumeari seme-alaben aurrean balioa kentzea dakarten jokabideekiko; izan ere, % 1ek uste du jokabide horiek ezinbestean gertatzen direla, % 5ek uste du onargarria dela egoera jakin batzuetan, eta % 0,9k ez dio galderari erantzun; horrenbestez, elkarriketatutako pertsonen % 7k ez du jokabide mota hori arbuiatzen. Bi erantzunak batera aztertzearen ondorioa da **herritarren % 9k ez dituela pertsonak gutxiesteko tratu txar psikologikoak gaitzesten.**

Onarpen-maila zertxobait handiagoa du bikoteko beste kidea kontrolatzeko baliatzen den indarkeriak. Elkarriketatuak izan diren lau pertsonatik ia batek onartzen du, nolabait, bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea: % 19k uste du onargarria dela egoera jakin batzuetan eta % 3k uste du ezinbestean gertatzen dela kontrol hori.

Ez dira bikotekidearen ordutegiak soilik kontrolatzen, kontrolatu egiten baita, era berean, bikotekideak zer egin dezakeen edo zer ezin dezakeen egin. Hala ere, % 13k onargarri deritza egoera jakin batzuetan, % 2k irizten du ezinbestean esan behar zaiola bikotekideari zer egin dezakeen eta zer ez, eta % 1ek ez du argi zer jarrera hartu. Emaidza-aukera guztiak zenbatuta, galdetuak izan diren pertsonen % 5 bitartek uste du onargarria dela, neurri batean, bikotekideari lan egin dezan edo ikas dezan eragozte, eta % 4k bikotekideak familia edo lagunak ikus ditzan eragozte.

Oro har, herritarren % 31k onartzen du kontrol-izaerako indarkeria bikotearen barnean. Oro har, herritarrek kontrol modu bat bakarrik onartzen dute (elkarriketatuak izan diren pertsonen % 19k onartzen du modu bakarra, eta ordutegien kontrola da gehien aipatzen dena), eta % 12k onartzen ditu kontrolerako bi modu edo gehiago.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BIKOTE-HARREMANETAN IZATEN DIREN EGOERA ETA JOKABIDE BATZUK IRAKURRIKO DIZKIZUT. ESADAZU EZINBESTEAN GERTATZEKOAK DIREN, EGOERA JAKIN BATZUETAN ONAR DAITEZKEEN ALA ERABAT ONARTEZINAK DIREN. %. ESPAINIA. 2012

	Ezinbestean gertatzekoak dira	Onargarria da egoera jakin batzuetan	Erabat onartezina da	ED	EDE	(N)
Etengabe sesioan aritzea	9,1	29,5	60,5	0,7	0,2	(2.580)
Bikotekidea iraintzea edo gutxiestea	0,6	2,4	96,4	0,4	0,1	(2.580)
Bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea	2,3	18,9	77,6	1,0	0,3	(2.580)
Bikotekideak familia edo lagunak ikus ditzan eragozte	0,6	3,0	95,8	0,4	0,2	(2.580)
Seme-alabei oihukatzea	5,4	29,3	64,2	0,9	0,2	(2.580)
Hitzezko mehatxuak egitea	1,0	5,0	93,5	0,5	0,0	(2.580)
Bultzatzea eta/edo kolpekatzea haserretzen direnean	0,3	0,6	98,6	0,3	0,1	(2.580)
Lan egin edo ikas dezan eragozte bikotekideari	0,6	3,8	94,7	0,8	0,2	(2.580)
Egin ditzakeen eta egin ezin dituen gauzak agintzea	1,0	13,1	84,7	0,9	0,3	(2.580)
Bikotekidea gutxiesteko komentarioak egitea seme-alaben aurrean	1,0	5,0	93,1	0,7	0,2	(2.580)
Sexu-harremanak izatera behartzea	0,2	1,5	97,2	0,7	0,3	(2.580)

Iturria: CIS, Genero-indarkeriaren gaineko pertzepzio soziala, 2012.

Genero indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzak azterlan batean ikertu berri du nerabeek eta gazteek nola hautematen duten genero-indarkeria⁵¹, eta azterlan horrek ohartarazten du gazteek gainerako herritarrek baino errazago onartzen dituztela kontrol-indarkeriazko jokabideak. Hiru gaztetatik batek uste du ezinbestean gertatzen direla edo onargarriak direla “bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea”, “bikotekideak bere familia edo lagunak ikus ditzan eragozte”, “bikotekideari lan egiten edo ikasten ez uztea” edo “bikotekideari agintzea zer egin dezakeen edo zer ezin dezakeen egin”, hau da, **hiru pertsona gaztetatik batek ez ditu kontrol-jokabideak eta genero-indarkeria lotzen, eta gainerako herritarrak baino errazago onartzen ditu jokabide mota horiek.**

⁵¹ CIS. SOZIOLOGIA IKERKETEN ZENTROA. *Percepción de la Violencia de Género en la adolescencia y juventud. Ekaina 2013.*

DATUAK II: erantzun instituzionala

Gaur egun EAEn emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion erantzun instituzionalaren argazki bat egiteko asmoa hartuta, oinarrizko informazioz osatutako baliabideen eta zerbitzuen mapa bat dakar kapitulu honek, horietako bakoitzaren helburua eta eskuratze-baldintzak zehazten ditu (hainbat esteka gehitu dira, informazio gehiago eskuratu ahal izateko). Horrez gainera, estatistika-datuak eman dira, posible izan den kasuetan.

Mapa egiteko, genero-indarkeriaren biktima diren edo izan diren emakumeei aitortutako eskubideetan⁵² oinarritutako sailkapen bat erabili da; zehazki, eskubide horiek onartzen dituzte azaroaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoak⁵³, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen (4/2005 Legea) VII. kapituluak eta Erakundearteko II. Hitzarmenak. Eskubide horiek gerora haien seme-alabei zabaldu zaizkie⁵⁴, emakumeek indarkeriazko harremana eten eta beren bizi-proiektuak berregin dezaten.

Argitu behar da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren gaineko arauak ematera mugatzen dela 1/2004 Legea, baina mapa hau egitean zentzu zabalean bildu dira emakumeen aurkako indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendutako baliabide eta zerbitzu guztiak, familia barneko indarkeria, jazarpena, sexu-abusuak eta bestelako indarkeriak pairatzen dituzten emakumeak baztertu gabe. Hala ere, zentzu hertsian genero-indarkeria denaren, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren, tamaina handia eta eragin soziala aintzat hartuta, berariaz biktima horiek laguntzera zuzenduta daude baliabide asko.

Eskaintza publikoa erakusten du mapak, eta barnean hartzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei eta adingabekoei zuzendutako programak eta zerbitzuak, erantzukizun publikokoak direnak, bai administrazioak berak zuzenean kudeatzen dituenak, bai erakunde pribatuekin egindako hitzarmenen bidez ematen direnak.


Oso kontuan izan behar da programa eta zerbitzu horiek beren egitura propioa dutela EAeko hiru lurralde historikoetan. Probintzia guztiek araubide erkidea eta oinarrizko premisa komunak dituzte, baina prozesuak eta emateko moduak aldatu egiten dira lurraldetik lurraldera.

Azkenik, adierazi behar da mapak, batik bat, interbentzioko edo esku-hartzeko baliabideak eta zerbitzuak adierazten dituela (gizarte-interbentzio esaten zaio gizarte-beharrizanei erantzuteko egiten diren ekintzen multzo formal edo antolatuari –familiei ematen zaien laguntza formalek eta komunitatearen ekimen informalek bereizita–), baina jasotzen dituela, era berean, izaera prebentibo eta hezitzaileko beste baliabide eta erantzun instituzional batzuk.

⁵² OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUNEN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Guía de los derechos de las mujeres víctimas de violencia de género*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa.

⁵³ ESPAÑIA. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 2014ko apirilaren 23koa, 313. zk.

⁵⁴ 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren biktimaren estatutuari buruzkoa.



Ayudas para mujeres extranjeras

Situación de residencia

Protección víctimas extranjeras

Derecho de asilo

Otras iniciativas de carácter preventivo

Campañas de sensibilización,
programas educativos, redes,
eventos, premios...

Dotación presupuestaria

Presupuestos...

Informazioa eta orientazioa:

Eskubideek ezin dute eraginkorrak izan eta ezin dira osotasunean erabili, baldin eta eskubide horien titularrek ez baldin badakite eskubide horiek dituztela, eta ez badakite nola erabili behar dituzten. Funtsezkoa da emakumeek jakitea zer babes- eta segurtasun-neurri har daitezkeen beraien alde, legeak zer eskubide eta laguntza aitortzen dizkien, eta arretarako, larrialdietarako, laguntzarako eta oneratzeko osorako zer baliabide eskura ditzaketen.

Informazioa eta orientazioa	Telefonozko arreta-zerbitzua etxeko tratu txarren edo sexu- erasoen biktima izan diren emakumeentzat: 900840111 (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza).	Babes emozionala, informazioa eta orientabideak ematen dizkie biktimei, zerbitzu komunitarioek haien arreta osorako bidea abiatu, lagundu edo osa dezaten. Zerbitzuak telefono bidezko arreta doakoa bermatzen du eguneko 24 orduetan, eta urteko 365 egunetan. Hainbat hizkuntzatan ematen du arreta eta eskuragarria da entzumeneko eta/edo mintzameneko minusbaliotasunak dituztenentzat. Ez du uzten arrastorik fakturan.
	Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren web-orria: INFORMAZIO GEHIAGO	Webgune horien bidez, eskubideen, arauen, txostenen eta beste hainbat alderdiren gaineko informazioa eskura daiteke, eta administrazio publikoek eta gizarte-erakundeek herritarren eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen eskura jarri dituzten baliabideak (polizialak, judizialak, informazioa, arreta eta aholkularitza) aurki daitezke.
	Emakumeen aurkako indarkeriaren Estatuko Behatokiaren web-orria: INFORMAZIO GEHIAGO	
	Etxeko eta generoko indarkeriaren aurkako behatokiaren web-orria: INFORMAZIO GEHIAGO	
	Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundeko web-orria: INFORMAZIO GEHIAGO	
	Genero Indarkeriaren Bizkaiko Behatokiaren web- orria: INFORMAZIO GEHIAGO	
	Zonaldeko (udalak eta mankomunitateak) oinarritzako gizarte-zerbitzuak	Aurrez aurreko arreta ematen da udaletako oinarritzako gizarte-zerbitzuetan, eta, besteak beste, hauek eskaintzen dira: gertatzen ari dena aztertze laguntza eta aholkularitza, eta bizi-kalitatea hobetzeko hartu behar diren erabakien gaineko orientabideak; zerbitzu espezializatuetara jotzeko bidea (aldi baterako ostalua, zerbitzu juridikoak, psikologikoak, gizarte- eta hezkuntza-izaerako zerbitzuak, etxebizitza, enplegua, etab.); beste zerbitzu edo baliabide batzuetara jotzeko laguntza eta alor horretako gestioak; eta eskura daitezkeen eskubideen gaineko informazioa.


Informazio eta aholkularitzako baliabide espezifiko horiez gain, indarkeria pairatzen duten emakumeei beren eskubideen eta eskura ditzaketen baliabideen gaineko informazioa emateko konpromisoa ageri dute beste eragile batzuek ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Hitzarmenak*⁵⁵ protokolo baten bidez jarduteko konpromisoa dakarkie erakundeei (protokolo horren printzipio dira laguntza osoa eta pertsonalizatua ematea, berdintasuna, prebentzioa, adingabeko pertsonen interesa babestea, ahalduntzea eta normalizazioa, efikazia, arintasuna eta biktimizazio minimoa). Zehazki, horrela jardun behar dute:

- **Osasun- edo mediku-zentroak** mediku-txosten bat egingo du, baldin eta lesio fisikoak baldin badaude, bai eraso fisikoen ondoriozkoak, bai eraso edo abusu fisikoen ondoriozkoak, edo lesio psikikoak baldin badaude (txosten hori baliagarria izan daiteke epaiketari, baldin eta salaketa jartzen baldin bada); dagokion epaitegira bideratuko da lesioen txostena; beharrezkoa baldin bada, gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeko modua azalduko da; eta emakumearen osotasun fisikoa arriskuan baldin badago, Ertzaintza bertaratzea eskatuko da.
- **Ikastetxeetan**, ikasle emakumezkoren batek ikasle gizonezkoren batengandik, ikastetxeko langileren batengandik, senideren batengandik edo ikastetxetik kanpoko beste norbaitengandik tratatu txarrak edo sexu-indarkeria pairatu duela jakiten baldin bada edo horren susmo oinarritua baldin badago, edo ikasleren baten amak tratatu txarrak edo sexu-indarkeria pairatzen duela jakiten baldin bada edo horren susmo oinarritua baldin badago, egoera horren berri emango zaio ikastetxeko zuzendaritzari, eta zuzendaritzak horren berri eman behar die, bai gizarte-zerbitzuei, bai fiskaltzari, bai hezkuntza-ikuskaritzari. Horrez gainera, biktimei eta, beharrezkoa baldin bada, haien familiei jakinaraziko zaie zer zerbitzu eta prestazio eskura ditzakeen hezkuntza-eremuan, biktima diren aldetik.

Eskura dauden zenbait datu:

Guztira, 3.030 dei egin ziren emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei 24 ordutan telefono bidezko arreta emateko zerbitzura 2014. urtean.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

⁵⁵ EMAKUNDE. *EAE n etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Hitzarmena*. Gasteiz: Emakunde, 2009.

Gizarte-laguntza osoa:

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei osotasun fisiko eta moralerako eskubidea erabiltzeko modua ematea da atal honetan adierazten diren baliabideen helburua. Gizarte-zerbitzuak dira, eta arretaren, larrialdien, laguntzaren, harreraren eta oneratzeko osoaren alorrak lantzen dituzte: arreta psikologikoko zerbitzuak, gizarte- eta hezkuntza alorrean esku-hartzeko zerbitzuak, larrialdietan hartzeko egoitza-baliabideak, egonaldi ertain eta luzeko egoitza-baliabideak, eta beste gizarte-baliabide eta -zerbitzu batzuk.

Gizarte-laguntza osoa 1

Tratu txarrak eta eraso sexualak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programa
(Bizkaiko Foru Aldundia)
[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Bere helburua da tratu txarrek eta sexu-erasoek emakumeei, gizonei eta adingabeei eragindako ondorioak lantzea eta indarkeriazko jokabideak aldatzea.

Hartzaile izan daitezke: tratu txar fisikoak eta/edo psikologikoak eta/edo sexu-erasoak pairatutako emakumeak; tratu txar fisikoak eta/edo psikologikoak eta/edo sexu-erasoak pairatutako gizonezkoak; tratu txarrak eragiten dituzten pertsonak; tratu txarren biktima diren adingabeak; senideak (emakumeak eta gizonezkoak) eta/edo tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak pairatu dituztenen gertuko pertsonak, zeharkako biktimatzat hartuak.

Zenbait udal eta mankomunitatekin egindako hitzarmenen bidez ematen da zerbitzua, deszentralizatuta, Bizkaiko zenbait eremutan.

Gaur egun, Zutitu SL enpresak ematen du zerbitzua.

Arreta psikologikoa emateko foru-zerbitzua (Arabako Foru Aldundia)

Zerbitzu horrek bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten emakume biktima helduak hartzen ditu, baita sexu-erasoen biktimak, genero-indarkeriaren biktima izan diren adingabeak eta zeharkako biktimak ere.

Gasteizen eta Laudion eskaintzen da zerbitzua.

Gaur egun, Zutitu SL enpresak ematen du zerbitzua.

Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoaren biktimei laguntza psikosoziala emateko

programa (Gipuzkoako Foru Aldundia)
[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Indarkeria matxistaren biktima izan den pertsona ahalduntzea da programaren helburua. Indarkeria matxistaren biktimentzat egindako programa da, eta parte-hartzeko baldintza da tratu txarrak pairatu direla egiaztatzea.

Gipuzkoako Psikologoaren Elkartearekin egindako hitzarmen baten bidez ematen da zerbitzua gaur egun.

Laguntza psikologikoa emateko udal-programak

Foru-zerbitzuez gain, bada arreta psikologikoa eskaintzen duen udal eta mankomunitaterik.

Udalerri hauek dute programa mota hori, udal-baliabideak edo aldundiekin hitzartutako baliabideak diren bereizi gabe:

Bizkaian: Bilbao, Amorebieta-Etxano, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Berriz, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Leioa, Muskiz, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Lea-Artibaiako, Enkarterrietako, Mungialdeako eta Uribe Kostako mankomunitateak.

Arabian: Gasteiz, Amurrio, Audio eta Arabako Errioxako kuadrillako udalerriak.

Gipuzkoan: Donostia, Irun, Andoain, Arrasate, Azpeitia, Beasain, Bergara, Eibar, Errenteria, Hernani, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Urretxu eta Zarautz.

Gizarte-laguntza osoa 2	Familian esku hartzeko programa, etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen aurkako indarkerian espezializatua (Bizkaiko Foru Aldundia) INFORMAZIO GEHIAGO	Gizarte-babesa eta laguntza psikologikoa eskaintzen die erasotzailea bizi den etxera itzultzea erabakitzen duten emakumeei, eta familia horietan bizi diren adingabeei. Gerta daitezkeen krisi-egoerak gainditzeko bide ematen du, eta programaren hartzaileei egoera modu egokian konpondu ahal izateko trebetasunak eta baliabideak ematen dizkie. Programan sartzeko baldintzak: Bizkaiko lurralde historikoan erroldatua egotea eta/edo bizitzea eta tratu txarrak pairatu dituen emakumea izatea, zaintzapean adingabekoak izanda edo izan gabe, eta harrera-zentro batean izan ondoren, erasotzailea bizi den etxera bueltatzen dena; tratu txarren biktima izan den emakumea izatea, zaintzapean adingabekoak izanda edo izan gabe, eta erasotzailearekin bizi dena, salaketarik jarri ez den egoeretan; tratu txarren biktima izan den emakumea izatea, zaintzapean adingabekoak izanda edo izan gabe, salaketak behin baino gehiagotan jarri eta kendu ondoren, ezkontidearen etxera bueltatzen dena; tratu txarren biktima izan den emakumea izatea, zaintzapean adingabekoak izanda edo izan gabe, erasotzailearekin bizi eta salaketa bakarra jarri duena –gerora kendu daitekeena ala ez– eta tratu txarren iragan luzea dakarrena; tratu txarren biktima izan den emakumea izatea, zaintzapean adingabekoak izanda edo izan gabe, eta erasotzailearekin bizi ez dena; baldin eta berriro harekin bizitzeko eta tratu txarren lehengo egoerara bueltatzeko arriskua ikusten baldin bada; aurreko tratu txarren egoeretan dauden emakume biktimen zaintzapean dauden adingabeak. Gaur egun, Suspergintza elkarteak ematen du zerbitzua.
	Gizarte-laguntzako programa (Arabako Foru Aldundia) INFORMAZIO GEHIAGO	Laguntza eta orientazio pertsonaleko programa hezitzailearen jarduerak dira ingurunea (auzoa, hiria, gizarte-baliabideak eta beste hainbat alderdi) ezagutzeko laguntza ematea, justiziarekin lotutako prozesuetan laguntzea eta horien jarraipena egitea (ofiziozko abokatua eskatzea, salaketa jartzea, abokatuen komunikazioak eta epaitegietatik etorritakoak ulertzen laguntzea, etab.), eta emakumeak normalean bizi ohi duen krisi-egoeran laguntzea (laguntza ematea bizi duen problematika osatzeko eta baloratzeko, familia antolatzeke eta erabakiak hartzeko). Genero-indarkeriaren biktima izan eta harrerako etxebizitza batean dauden emakumeei dago zuzenduta, bai eta, epaileak familia-etxebizitza esleitu dielako, harrera-etxebizitzetara joateko premiarik izan ez, baina bizi izan duten tratu txarren egoera gainditzeko laguntza behar duten emakumeei ere. Programaren hartzaileek 20.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi behar dute.
Familian esku hartzeko programa, seme-alabek gurasoei eragindako indarkerian espezializatua (Bizkaiko Foru Aldundia)		Seme-alabek eragindako indarkeria bizi duten familiei zuzentzen zaie programa, hau da, seme edo alabaren batek egindako ekintza kaltegarriak bizi dituztenei. Ekintza horien helburua amarekiko, aitarekiko edo beste senideren batekiko boterea eskuratzea izan behar du. Abusua fisikoa, psikologikoa edo ekonomikoa izan daiteke. Programaren hartzaile dira Bizkaiko lurralde historikoan bizi eta 10 eta 21 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiak, baldin eta seme-alaba horiek indarkeria erabiltzen baldin badute amaren, aitaren edo familia guneko beste kideren baten aurka, hala nola anai-arreben aurka, amaren edo aitaren bikotekidearen aurka eta aiton-amonen aurka. Programak familietan esku hartzean, posible da haurra edo nerabea bere jatorriko familiarekin bizitzea, baina posible da, era berean, aldi baterako edo modu iraunkorrean familiatik aparte bizitzea (harrerako familiaren edo zentroren batean) neurri judizialen bat edo babes-neurriren bat erabaki delako, edo beste pertsona edo senide batzuekin bizitzea, familiak horrela erabaki duelako. Programaren onuradun izan daitezke, era berean, seme-alaben erasoak pairatzen ari diren amak eta/edo aitak edo adingabekoen tutoreak, adingabekorik gabe joanda ere. Gaur egun, Berritzuk ematen du zerbitzua.

**Gizarte-
laguntza
osoa 3**

**Aldi baterako
harrera-zerbitzua**
(Bizkaiko Foru
Aldundia)
[INFORMAZIO](#)
[GEHIAGO](#)

Egoitzetan edo arretarako berariaz prestatutako zentroetan aldi baterako harrera eskaintzen zaie emakumeei eta zaintzapean dituzten seme-alabei, baldin eta egoera larriei aurre egin behar baldin bazaie, gertakari sozioekonomikoek eta/edo bizikidetzagatzka larriek arriskuan jartzen dutelako programaren esku-hartzearen premian dauden pertsonen osotasun fisikoa edo emozionala. Laguntza horien onuradun izan daitezke emakumeak eta zaintzapean dituzten seme-alaba adingabeak, baldin eta familia-arazoren bat edo arazo sozial edo pertsonalen bat baldin badute eta arazo horrek nabarmen zailtzen baldin badu beraien ohiko ingurunean bizitzea eta, ondorioz, harrera-zentroren batera eramatea komeni baldin bada.

Hauek izan daitezke interbentziorako edo esku-hartzerako egoera batzuk: etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak, zaintzapean seme-alabak izanda ala izan gabe; zaintzapean edo tutoretzapean bizi izan diren emakume gazteak, Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Zerbitzuan espediente irekia dutenak eta, adin nagusitasunera iritsi ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzura bideratuak izan direnak; emakume gazteak, familia desegituratu bat dutenak, trebetasun sozial eta/edo pertsonalen gabeziaren bat eta/edo arazo sozial erantsiak dituztenak, autonomiaz gizarteratzeko zailtasunak dakartzkienak; emakume haurdun gazteak edo guraso bakarreko familien kargura daudenak eta berariazko laguntza behar dutenak haurrak zaintzeko trebetasunak eskuratzeko.

Zerbitzua eskuratzeko betekizunak dira: Bizkaian erroldatuta izatea eskaera-eguna baino urtebete lehenago gutxienez (denbora hori zenbatzeko, kontuan izango dira Bizkaiko udalerrietan bata bestearen atzetik egin diren erroldatzeak); eta diru-sarrerarik ez izatea edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren parean edo haren azpitik dauden diru-sarrerak izatea, gizarte-prestazio horren araubideak arautzen duenaren arabera.

Ez da erroldatuta egotearen eta/edo baliabide ekonomikoen mugaren betekizunik eskatuko, baldin eta egiaztatzen baldin bada, salbuespenezko egoeretan, ezinezkoa dela betekizun horiek betetzea. Edonola ere, behar bezala arrazoituta eman behar dira salbuespen horietan oinarritutako ebazpenak.

Guztira, 26 plaza ditu.

Emakumeari arreta emateko zentroetan sartzeko ematen diren laguntzek sei (6) hileko iraupena izango dute etxeko indarkeriaren biktimak izan eta zaintzapean seme-alabak dituzten edo ez dituzten emakumeentzat, eta urtebeteko iraupena izango du adierazi diren bestelako egoeretan dauden emakumeentzat. Hala ere, egoeraren ezaugarriei erreparatuta, epe laburragoak ezar daitezke laguntzaren ebazpenean. Denbora-epe bererako edo laburrerako eta elkarren segidan luza daitezke emandako laguntzak.

**Larrialdietarako
harrera-zerbitzua**
(Bizkaiko Foru
Aldundia)
[INFORMAZIO](#)
[GEHIAGO](#)

Emakumeren bat larrialdi-egoeran baldin badago pairatzen ari den tratatu txarren ondorioz, [Larrialdietarako Harrera Zerbitzuaren](#) hartzaile izan daiteke zaintzapean dituen seme-alabekin batera eta abenduaren 7ko 196/2005 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. puntuan arautzen diren betekizunak bete beharrik izan gabe (emakumeak hartzen dituzten zentroetan sartzeko baldintzak eta banakako laguntza ekonomikoak arautzen ditu foru-dekretu horrek).

Zerbitzua urteko 365 egunetan dago indarrean, eta etengabeko arreta ematen du eguneko 24 orduetan. Guztira, 15 plaza ditu.

**Genero-
indarkeriaren
biktima izan
direnentzako
harrera-
etxebizitzaren foru-
zerbitzua**
(Arabako Foru
Aldundia)

Bi etxebizitza ditu zerbitzuak, berehala eta aldi baterako hartzeko emakumeak eta haien zaintzapean dauden pertsonak, baldin eta, tratatu txarreko egoeraren batengatik, berehala irten behar baldin badute beren ohiko etxebizitzatik, erabat babesgabe daudelako eta familiaren etxetik irten behar dutelako.

Guztira, 11 plaza ditu.

Epe ertainerako harrera-zerbitzua da bitarteko etxebizitza, eta bere helburua da etxeko indarkeriaren biktima izan den emakumearen autonomia-aukerak indartzea, eta intimitateari eta pribatutasunari eutsiz gizarteratzen laguntzea. Harrerako etxebizitzaren edo partekatutako etxebizitzaren erabiltzaile izandako emakumeei zuzendutako baliabidea da, baldin eta, etxebizitza horietan egin beharreko denbora igaro ondoren, ezin baldin badute etxebizitza normalizatu batera joateko aukerarik.

Ostatu emateko programaz gain, babes sozial eta hezitzailea eta laguntza emateko

	programa bat eskaintzen zaie hartutako emakumeei, eta programa horrek jarraipena izaten du etxebizitzatik irten ondoren.
Indarkeria matxistaren biktimaren emakumeentzako egoitza-zentroak (Gipuzkoako Foru Aldundia)	Zentro horietan arreta eta ostatu ematen zaie bizikidetzaz gatazka larriak dituzten emakumeei, eta, bereziki, etxean tratatu txarren biktimak izan eta beren osotasun fisikoa edo emozionala arriskuan duten emakumeei, eta berariaz egoera babesgabea dauden beste emakume batzuei, arrazoi sozioekonomikoen edo pertsonalen ondorioz egoera kritikoan daudelako. Harrera eskaintzen zaie indarkeria matxistaren biktimak izan diren emakumeei eta haien mendeko pertsonari. Guztira, 20 plaza ditu.
Udalen egonaldi ertain eta luzeko harrera-zerbitzuak.	Foru-zerbitzuez gain, bada harrera-zerbitzu propioa eskaintzen duen udal eta mankomunitaterik. Udalerrri hauek dute zerbitzu mota hori, udal-baliabideak edo aldundiekin hitzartutako baliabideak diren bereizi gabe: Bizkaian: Bilbao (9 etxebizitza eta 45 plaza; bitarteetarako dira 2 etxebizitza), Abanto-Zierbena (etxebizitza 1 eta 5 plaza), Amorebieta-Etxano (etxebizitza 1 eta 5 plaza), Barakaldo (zentro 1 eta 12 plaza), Basauri (2 etxebizitza eta 10 plaza), Durango (etxebizitza 1 eta 5 plaza), Ermua (etxebizitza 1 eta 5 plaza), Galdakao (etxebizitza 1 eta 5 plaza), Sestao (etxebizitza 1 eta 5 plaza), Santurtzi (etxebizitza 1 eta 5 plaza) eta Busturialdeako mankomunitatea (etxebizitza 1 eta 6 plaza). Arabaren: Gasteiz (6 etxebizitza eta 33 plaza), Laudio (etxebizitza 1 eta 5 plaza) eta Amurrio (etxebizitza 1 eta 6 plaza). Gipuzkoan: Donostia (5 etxebizitza eta 25 plaza), Andoain (etxebizitza 1), Arrasate (etxebizitza 1), Azpeitia (etxebizitza 1), Asteasu (etxebizitza 1), Beasain (etxebizitza 1), Hernani (etxebizitza 1), Eibar (etxebizitza 1), Irun (etxebizitza 1), Lasarte-Oria (etxebizitza 1), Pasaia (etxebizitza 1), Errenteria (etxebizitza 1), Tolosa (2 etxebizitza), Usurbil (etxebizitza 1) eta Zarautz (etxebizitza 1). Kontuan izan behar da udal-baliabide horietako asko balioanitzak direla eta ez direla indarkeriaren biktimak diren emakumeek soilik erabiltzekoak.
Udalen larrialdiko harrera-zerbitzuak.	Foru-zerbitzuez gain, bada larrialdiko harrera-zerbitzu propioa eskaintzen duen udal eta mankomunitaterik. Udalerrri hauek dute zerbitzu mota hori, udal-baliabideak edo aldundiekin hitzartutako baliabideak diren bereizi gabe: Bizkaian: Bilbao (7 etxebizitza, larrialdiko harrerak eta epe ertain eta luzeko egonaldiak egiteko), Barakaldo (osotasuneko zentro bat, larrialdiko harrerak eta epe ertain eta luzeko egonaldiak egiteko), Mungialdea (zentro 1 eta 6 plaza). Arabaren: Gasteiz (berehalako edo larrialdiko harrerak egiteko zentro bat). Gipuzkoan: Donostia (zentro 1 eta 14 plaza). Kontuan izan behar da udal-baliabide horietako asko balioanitzak direla eta ez direla indarkeriaren biktimak diren emakumeek soilik erabiltzekoak.

Arreta osoko egoitza-zerbitzua
(Bizkaiko Foru Aldundia)

Proiektuak arreta osoko egoitza-zerbitzua eskaintzen die bakarrik dauden edo seme-alabak dituzten emakumeei, baldin eta Bizkaian bizi eta tratu txarren biktimak izan baldin badira. Helburu hauek ditu: aldi baterako harrera ematea tratu txarren biktimak izan diren emakumeei, beren seme-alabei eta haien mendeko pertsonari; lo egiteko eta jateko premiak asetzea eta zaintza osoa ematea egoiliarrei harrera-egoeran dauden denboran; laguntza eta babes sozial intentsiboa ematea, haien beharrianetara egokitua; artatutako pertsonen segurtasun fisikoa eta psikikoa ziurtatzea, eta bereziki, harrera-baliabideen kokapenaren izaera konfidentziala bermatzea.

Hala ere, beti eman behar du babes-eginkizuneko eragile publiko judizial edo poliziaiei eman beharreko informazioa.

Emakumearen eta haren zaintzapeko seme-alaben alderdi gatazkatsuak konpontzea edo arintzea. Alderdi horiek, oro har, lotura estua izaten dute biktimizazio, manipulazio eta beraien buruak gaitasun gabetzeko prozesuekin, eta zaildu egiten dute gizarteratze-prozesua. Emakumeak eta bere zaintzapeko seme-alabek bizitzan izan dituzten hutsuneak eta gabeziak konpontzea, garapen osorako oztopo izaten diren aldetik.

Gabezia horiek arriskuko egoerak sorrarazi ohi dituzte maila pertsonal eta sozialean eta familian bertan. Emakumearen eta zaintzapean dituen seme-alaben baliabide pertsonalak eta sozialak, garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko behar direnak, indartzea eta handitzea.

Harrera-zentro batean ematen da zerbitzu hori, eta, guztira, 26 plaza eskaintzen ditu. Hartzen diren emakumeen eta adingabeen ezaugarri konkretuei begiratuta banatzen dira plaza horiek, eta gutxi gorabeherako erreferentzia bat emateko, esan daiteke 10 plaza izaten direla emakumeentzat eta 16 haien seme-alabentzat.

Gaur egun, Berriztuk ematen du zerbitzua.

Gizarteratu eta laneratzeko etxebizitzak
(Bizkaiko Foru Aldundia)

Tratu txarren biktimak izan diren emakumeak gizarteratu eta laneratzeko egoitza-baliabidea da, intentsitate apalekoa, eta etxebizitzarik izan ez eta enplegarritasunik ez duten edo enplegarritasun apala duten biktimei zuzenduta dago. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak kudeatutako beste egoitza-baliabide batzuetatik bideratzen dira. Baliabide berria da eta bitarteko izaera izango du, intentsitate handiko egoitza-programen eta bizitza autonomo eta independentearen bitartekoa. Egoitza-baliabide horrek 16 plaza eskaintzen ditu, emakumeentzat, seme-alabentzat eta haien mendeko pertsonentzat.

Aldi baterako, sei (6) hilabeterako, egoitza-baliabidea da, eta luzatu egin daiteke denbora hori egoeraren ezaugarrien eta bilakaeraren arabera. Denbora horretan, erabiltzaileekin lan egiten da, enplegu eta etxebizitza egonkorak eskuratzeko, eta azken hori da, hain justu, programaren ardatza. Etxebizitzan egiten den egonaldiaren arrazoia, beraz, ez da, soilik, etxebizitza bat behar dela, eta bai bizitza independente batera iristeko prozesuaren azken faseari ekitea.

Helburu hauek bete nahi dira egoitza-baliabide horrekin: eremu fisiko egoki eta babestu bat ematea, esku-hartze hezigarriak egin eta bizitza autonomo baterako behar diren trebetasunak eta baliabideak erabiltzeko; lan-merkatuan sartzeko behar diren tresnak, gaitasunak eta konpetentziak eskuratzeko bidean laguntzea egoitza-baliabidean erabiltzaileei; kalitatezko enpleguak sustatzea, enplegua izan arren, baldintza prekarioetan edo ezkutuko ekonomian dabilen emakumeentzat; lan-baldintza duineko enpleguak eskuratzeko bidea erraztea, lanik izan ez arren, lan-merkatuan sartzeko prestakuntza eta gaitasunak dituzten emakumeei; baliabidean egoitza hartuta dauden emakumeei eta familia guneei laguntza profesionala ematea beren emantzipaziorako, autonomiarako, bizikidetzarako eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan.

Gaur egun, Suspergintza elkarteak ematen du zerbitzua.

Gizarte-laguntza osoa 4	Familia-elkarguneko programa bideratze judizialaren ondorioz (Eusko Jaurlaritzaz)	Hau da zerbitzuaren helburua: Adingabekoek, gurasoen banantzearen ondoren, bi gurasoekin harremana izaten jarraitzeko duten oinarritzko eskubidea bermatzea, eta garapen psikiko, afektibo eta emozional onerako harremanak ezartzea; euskarri fisiko (tokikoa) izatea, eta, unean-unean, profesionala, gurasoentzat, autonomiarako bidea egin dezaten eta, etorkizunean, seme-alabekiko harremanari euts diezaioten, zerbitzu honen premiarik izan gabe; adingabekoen osotasuna eta ongizatea ziurtatzea bisitak zaintzapean egin behar diren egoeretan. Banantze-prozesuan dauden edo prozesu hori igaro duten familiei ematen zaie, baldin eta arazoak edo zailtasunak badituzte adingabeko haurren eta gurasoen arteko harremanari eusteko. Hau da zerbitzuak duen ordutegia erabiltzaileei arreta zuzena emateko: astelehenetik ostegunera, arratsaldetan, 16:00etatik 21:00etara bitartean. Ostiral, larunbat eta igandeetan 10:00etatik 21:00etara ematen du zerbitzu, etenik gabe. Urteko egun guztietan ematen da zerbitzua, larunbatak, igandeak eta jai-egunak barne. Titulartasun publikoko 4 zentro daude: Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Portugaleten.
Interpretazio-zerbitzua (Bizkaiko Foru Aldundia)		Zerbitzua aurrez aurre edo telefono bidez ematen da, eta bere helburua da tratatu txarren biktimak izan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza-baliabideetan dauden emakumeen itzulpen-beharrizanak asetzeko. Hizkuntza jakin ez edo behar bezala ez dakiten emakumeei zuzentzen zaie zerbitzua, esku-hartze profesional osoak egin ahal izateko. Era berean, administrazio-agiriak eta beste agiri batzuk itzultzen dira zerbitzuaren bidez.
Gizarte-laguntzarako eragileen sarea Bizkaian (Bizkaiko Foru Aldundia)		Sarearen xede da biktimen eta erakundearen arteko zubi gisa, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten laguntzen duen gizarte-egitura izatea, emakume horiek gizarte-zerbitzuetara jotzea eta laguntza jasotzea erraztuz. Era berean, gizarte-egitura bat da, ingurune gertukoan gizarteratzen eta parte hartzen laguntzeko emakume horiei. Programaren beste helburu bat da, halaber, gizartearen sentikortasuna handitzen laguntzea, ohartzeko zer arazo handia den emakumeen aurkako indarkeria eta zer-nolako garrantzia duen gizarte zibilaren parte-hartzeak hura desagerrarazteko. Gizarte-laguntzarako eragileak, proiektu honetan, borondatez diharduten pertsonak dira, eta loturako edo bitartekaritzako lanak egiten dituzte emakume biktimen, gizarte-entitateen eta instituzioek, indarkeria-egoeretatik irteteko, eskaintzen dituzten baliabide espezializatuen artean. Lan hori egiteko, konpromiso soziala duen emakumea izan behar da, emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoerarekiko eta indarkeria sexistarekiko sentikorra, eta, alde horretatik, egokia izaten da elkarteren batean, eta lehentasunez, emakumeen elkarteren batean, parte hartzea. Gizarte-laguntzarako eragileek hautemateko, harrera egiteko, informatzeko, orientatzeko eta laguntzeko lanak egiten dituzte indarkeria sexistaren biktima izan diren emakumeekin. Lan horiek egiteko, emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako profesionalen talde baten laguntza dute eragileek. Talde horiek aurkitzen dituzte eragileak, eta, era berean, eragileen laguntzaile dira eta haien lanaren jarraipena egiten dute. Gaur egun, Suspergintza elkarteak ematen du zerbitzua.

Tratu txarren biktima diren emakumeen mendeko adingabeak zaintzeko zerbitzua
(Arabako Foru Aldundia)

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren, Laudioko Udalaren eta Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sarearen arteko lankidetzaz hitzarmena.

Programa horren helburu orokorra da tratu txarren biktima izan eta zaintzapean adingabeak dituzten emakumeen karga ekonomikoak, sozialak eta psikologikoak arintzea, eta helburu hori lortzeko, eskura dauden zerbitzu komunitarioak indartzea eta osatzea.

INFORMAZIO GEHIAGO

Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen mende bizi eta Laudioko arreta psikologikoko zerbitzu espezializatura joaten diren adingabeei zuzendua. Zerbitzuari ekiteko, pertsona interesdunak eskaera bat egin behar du Laudioko arreta psikologikoko zerbitzuan.

Arreta psikologikoko espezializatuko zerbitzu horren arreta-ordutegian ematen da zerbitzua.

Eskura dauden zenbait datu:

2014. urtean, beste 1.500 emakume gehiago sartu dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta psikologikoa emateko foru-programetan, eta, guztira, zerbitzu horiek 2.000 pertsona baino gehiago hartu dituzte urtebetean.

ARRETA PSIKOLOGIKOA JASO DUTEN PERTSONAK Guztizkoak. EAE, 2014								
	GUZTIRA	Erasotzaileak	Emakumeak	Adingabeak	Kasu berriak	Erasotzaile berriak	Emakume berriak	Adingabe berriak
Arabako Foru Aldundia	804	53	677	74	485	38	397	50
Bizkaiko Foru Aldundia	1.267				742		649	
Gipuzkoako Foru Aldundia					379		353	26

Iturria: EAE en etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko erakundearteko II. Hitzarmenetik eratorritako jardura-protokoloaren betetze-maila baloratzeko urteko txostenak eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako foru-aldundietako jardura-memoriak.

Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen bidez, 180 emakume eta adingabekori lagundu zitzaion, guztira, Bizkaian, eta 44 ingururi Araban.

GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEAREN ARRETA JASOTAKO PERTSONAK. Guztizkoak. EAE, 2014			
	GUZTIRA	Emakumeak	Adingabeak
Familietan Esku Hartzeko Programa, emakumeek etxean jasaten duten indarkerian espezializatua - BIZKAIA	180	103	77
Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen eta gizarte-laguntzarako foru-zerbitzua - ARABA	44*	20	24

Iturria: Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko erakundearteko II. Hitzarmenetik eratorritako jardura-protokoloaren betetze-maila baloratzeko urteko txostenak eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako foru-aldundietako jardura-memoriak.

Aldundiko egoitza-zerbitzuek 19 emakume eta adingabeko hartu zituzten Araban, 149 Bizkaian eta 125 Gipuzkoan. Horrek esan nahi du, guztira, 170 emakume eta 122 adingabe hartu direla EAE en.

HARRERA-BALIABIDEK HARTUTAKO PERTSONAK: LARRIALDIAK, EGONALDI LABUR ETA LUZEAK ETA BESTELAKOAK. Guztizkoak. EAE, 2014

	GUZTIR A	Emakumea k	Adingabea k	Bestelakoa k	Larrialdikoa k, guztira	Larrialdikoa k, emakumeak	Larrialdikoa k, adingabeak	Larrialdikoa k, beste dep. batzuk
Arabako Foru Aldundiko zentroak	19	10	9					
Bizkaiko Foru Aldundiko zentroak	142	81	60	1	107	63	43	1
Arreta osoko egoitza- zerbitzua - Bizkaia	35	18	17					
Laneratzek o etxebizitza - Bizkaia	7	4	3					
Gipuzkoak o Foru Aldundiko zentroak*	125	75	50					

Iturria: Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Hitzarmenetik eratorritako jarduera-protokoloaren betetze-maila baloratzeko urteko txostenak eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako foru-aldundietako jarduera-memoriak.

Oharra: Kasu berriak soilik adierazten dituzte Gipuzkoako datuek. Larrialdiko harreraren eta egonaldi ertain eta luzeko egoitza-zerbitzuan hartuak izan diren pertsonen batura adierazten dute Bizkaiko datu guztizkoak.

BESTE ZERBITZU ETA BALIABIDE BATZUEKIN HARTUTAKO PERTSONAK Guztizkoak. EAE, 2014

	Interpretazio-zerbitzua	gizarte-laguntzarako eragileen sarea	elkarguneak
BIZKAIA	296 ordu	gizarte-laguntzarako 23 erakunde eta 47 eragile 58 emakume biktimari laguntzen	353 familia, 432 adingabeko (209 neskatila 223 mutiko), 18.922 ekintza

Iturria: Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Hitzarmenetik eratorritako jarduera-protokoloaren betetze-maila baloratzeko urteko txostena. BFA.

Orientazio eta laguntza juridikoa:

Atal honetan adierazten diren baliabideen helburua da erabilgarri egitea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimek laguntza eta ordezkaritza juridiko berehalakoa eta espezializatua jasotzeko duten eskubidea.

Orientazio eta laguntza juridikoa	Biktimari laguntzeko zerbitzua (Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Saileko Zigor-arloko Betearazpenen Zuzendaritza). <u>INFORMAZIO GEHIAGO</u>	Delituen biktimen eskubideak babestea da zerbitzuaren egitekoa, eta legelariak, gizarte-langileak eta psikologoak osatutako diziiplina anitzeko taldeek ematen dute. Biktima mota orori (emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei eta bestelako biktimei) eskaintzen dio orientazioa, bai alderdi judizialei buruzkoa, eta bai, beharrezkoa baldin bada, alderdi sozialei buruzkoa ere. Orientazio eta laguntza aurrez aurrekoa, doakoa, konfidentziala, banakakoa eta pertsonalizatua ematen da prozesu osoan: laguntza psikologikoa, prozesu judizialaren gaineko aholkularitza, doako justiziaren tramitazioa, lege-prozeduren gaineko informazioa, etab. Horrez gainera, alor juridikoan laguntza psikologikoa eta soziala emateko programa bat ematen da, epaitegi-jardunek sorraraz dezaketen antsietateari eusteko, epaiketari aurre egiteko behar diren tresnak emateko biktimari, etab. Gaur egun, Euskadiko Bergizarteratze institutuak ematen du zerbitzua Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Clara Campoamor elkarteak Araban.
	Aholkularitza juridikoko zerbitzua (Bizkaiko Foru Aldundia). <u>INFORMAZIO GEHIAGO</u>	Programa honek familia-zuzenbidearen alorreko aholkularitza juridikoa ematen die emakumeei eta gizonei, eta aholkularitza ematen du tratatu txarrak eta/edo sexu-erasoak daudenean. Gaur egun, Clara Campoamor elkarteak ematen du zerbitzua.
	Orientazio juridikoko zerbitzua (Arabako Foru Aldundia).	Orientazio juridikoko zerbitzuak prozesu aurreko aholkularitza juridikoa ematen die emakumeei, eta jardun-eremuak ditu familia-zuzenbideko eta genero-indarkeriako gaiak lantzea eta genero-indarkeriak berariaz sorrarazitako prozesu juridikoen jarraipena egitea. Gaur egun, Zutitu SL enpresak ematen du zerbitzua.
	Orientazio juridikoko zerbitzua (Gipuzkoako Foru Aldundia).	Zaintzen, ondareen, konpentsazio-pentsioen eta beste alderdi askoren gaineko laguntza juridikoa ematen du zerbitzu horrek.
	Aholkularitza juridikoa emateko udal-zerbitzuak	Foru-zerbitzuez gain, bada aholkularitza juridiko propioa eskaintzen duen udal eta mankomunitaterik. Udalerrri hauek dute zerbitzu mota hori, udal-baliabideak edo aldundiekin hitzartutako baliabideak diren bereizi gabe: Bizkaian, Bilbao, Barakaldo, Abanto-Zierbena, Amorebieta, Arrigorriaga,

	Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Leioa, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Ugao-Miraballes, Urduña eta Busturialdea, Durangaldea, Enkarterri, Lea-Artibai, Lea-Ibarra, Mungialdea eta Uribe Kosta mankomunitateetako udalerrriak. Araban: Gasteiz, Audio eta Amurrio. Gipuzkoako zenbait udal.
Aholkularitza juridikoa (Emakumeari aholku emateko ARGITAN zentroa). INFORMAZIO GEHIAGO	Zerbitzu juridiko, sozial eta instituzionalak iristeko bidea errazten die emakumeei. Berdintasun gabeziaren, diskriminazioaren eta indarkeria sexistaren egoera askotarikoak bizi dituzten emakumeen beharrianak asetzen ahalegintzen da ARGITAN zentroa. Bizkaiko Barakaldo hirian dago.
Kontsultak-Asterokoa (Bizkaiko Abokatuen Bazkuna). INFORMAZIO GEHIAGO	Partikularrek legelari baten laguntza dute abokatutzarekin lotutako kontsulta eta kexa guztiak ebazteko. Ez dituzte partikularren kontsulta juridikoko erantzuten. Asteazkenetan ematen da zerbitzua, Bazkunaren bulego nagusietan.
Orientazio juridikoko zerbitzua (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako abokatuen elkargoak). INFORMAZIO GEHIAGO I INFORMAZIO GEHIAGO II	Espainian, genero-indarkeriaren (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren) biktimak diren emakumeen eskubidea da berehalako laguntza juridiko espezializatua izatea pairatu duten indarkeriak zuzenean edo zeharka sorrazi dituen prozesu judizialetan eta prozedura administratiboetan. Doako laguntza juridikoa izango da, eta ez dute frogatu beharrik izango ez dutela auzitara jotzeko nahikoa baliabiderik. Araututa dago <u>etxeko indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeek beti</u> izango dutela doako laguntza juridiko espezializatua. Laguntza horretan sartzen da: aurretiazko aholkularitza; abokatuaren laguntza, salaketa egiteko eta babes-agindua eskatzeko; eta abokatuaren laguntza, neurriak hartzeko agerraldian eta epaiketa azkarrean. Emakumeak pairatutako indarkeriak zuzenean edo zeharka sorrazi dituen prozesuetan abokatuaren gainerako lanak doakoak izateko, ezinbestekoa izango da baliabide nahikorik ez dela egiaztatzea eta doako laguntza juridikoa eskatzea. Abokatu-elkarteetako orientazio juridikoko zerbitzuek laguntza ematen diete herritarrei, aholkularitza juridikoa ematen dute, eta doako laguntza juridikoaren eskubidearen aitortzaren tramiteak kudeatzen dute⁵⁶. Genero-indarkeriaren biktimak izatea ezinbestekoa da tratatu txarrak pairatu dituzten emakumeek laguntza juridikoa izan dezaten, eta biktimaren izaera hori eskuratuko du emakumeen zigor-arloko prozedura bat abiatu dela egiaztatzen duenean. Modu hauek ditu hori egiaztatzeko: jarri den salaketa erakustea; kereila bat jartzea; babes- agindua lortzea; kondena-sententzia ematea. Biktimak izaerari eutsiko dio emakumeek zigor-arloko prozedura abian den bitartean eta, prozedura amaitu ondoren, baldin eta kondena-sententzia eman baldin bada.
Ofiziozko abokatu genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak defendatzeko txanda espezializatua	Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeek orientazio juridikoko eta abokatuen laguntza eta defentsa juridikoko zerbitzua eskatzen diotenean poliziari edo instantzia judizialen bati, berehala izendatuko da ofiziozko abokatu bat, dagokion lurraldeko abokatu-elkargoak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak defendatzeko

⁵⁶ 1/1996 Legea, urtarilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa, eta 996/2003 Errege Dekretua, uztailaren 25ekoa, Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onartzekoa. Urriaren 5eko 42/2015 Legeak aldatua. [Ref. BOE-A-2015-10727](#). Legedia bateratua: <http://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-750>.

Hau arautzen du 2. artikuluko g letrak: "Auzibidera jotzeko baliabideak dituzten ala ez begiratu gabe, doako eta berehalako laguntza juridikorako eskubidea izango dute genero-indarkeriaren, terrorismoaren eta gizakien salerosketaren biktimek, biktimak izateagatik lotuta, eratorrita edo ondorioztatuta sortzen diren prozesuetan, eta eskubide hori izango dute, era berean, adingabeek eta minusbaliotasun psikikoa duten pertsonak, baldin eta abusuen edo tratatu txarren biktimak baldin badira."

duen txanda espezializatuaren barnean.

Horrez gainera, adierazi behar da **Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien** sorrera dela familiaren barneko harremanetan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak direnen egoera juridikoa, soziala eta familia-egoera egoki eta eraginkortasunez tratatuko dela bermatzeko neurri juridikoetako bat; hori horrela, zigor-arloan instrukzio-epaileak espezializatze formularen alde egin da, eta baztertu egin dira, ondorioz, jurisdikzio-ordena berri bat sortzeko aukera eta arlo zibileko epaileei zigor-arloko eskumenak ematekoa.

Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak eskumen espezializatuko epaitegi arruntak dira; hau da, zigor-arloko eskumenak eta eskumen zibilak dituzte. Zehazki, haiei dagokie genero-indarkeriarekin lotutako zigor-arloko prozesuen instrukzioa egitea eta egoera horiekin lotutako auzi zibilak aztertzea. Epaitegi horien egitekoa da lege-neurriak hartzea gizonengandik pairatzen duten indarkeriatik babesteko emakumeak, bai haien senarrengandik pairatzen duten indarkeriatik, bai, emakumearekin bizikidetzarik izan ez arren, harekin pareka daitekeen afektibotasun-harremanez lotutako gizonengandik pairatzen duten indarkeriatik. Horrez gainera, lege-babesa eman behar diete indarkeria-egoera horien eragina jasaten duten pertsona bereziki kalteberei. Horrenbestez, harreman afektiboen testuinguruan gertatzen diren indarkeria-adierazpenak aztertuko dituzte, eta ez genero-indarkeriaren beste adierazpen mota batzuk.

Eskura dauden zenbait datu:

2014. urtean, 800 emakumeri baino gehiagori eman zioten laguntza juridikoa foru-aldundietako zerbitzuek. Urte horretan bertan, gainera, 2.544 emakume hartu zituen Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak; horien % 54 Bizkaian.

LAGUNTZA JURIDIKOKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUMEAK. Guztizkoak. EAE, 2014							
	EAE, guztira	Bizkaia, guztira	Araba, guztira	Gipuzkoa, guztira	Emakume berriak Bizkaian	Emakume berriak Araban	Emakume berriak Gipuzkoan
Foru-aldundiak		549	211		498		43
BLZ	2.544	1.386	627	647			

Iturria: Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Hitzarmenetik eratorritako jardura-protokoloaren betetze-maila baloratzeko urteko txostena. Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak eta Herri Administrazio eta Justizia Sailako Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak Emakunderi emandako datuak. Oharra: Bizkaian eskuragarri dauden datuak ez daude sexuaren arabera banakatuta. Biktimak Laguntzeko Zerbitzuaren datuek aintzat hartzen dituzte delitu orokorren biktimak izan diren emakumeak ere.

BIKTIMAK LAGUNTZEKO ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUMEAK Guztizkoak. EAE, 2014								
Artatutako emakumeen adina	18 urtetik beherakoak	18-30	31-40	41-50	51-65	65 urtetik gorakoak	zehaztu gabe	GUZTIRA
Bizkaia	15	125	217	232	119	39	596	1.343
Araba	1	89	108	118	46	20	225	607
Gipuzkoa	10	70	103	121	80	36	174	594
EAE	26	284	428	471	245	95	995	2.544

Iturria: Herri Administrazio eta Justizia Saila.

Oharra: Datu horietan sartuta daude delitu orokorren biktimak izan diren emakumeak ere.

Laguntza ekonomikoak:

Emakumearen aurkako indarkeriaren biktimek eskura ditzaketen gizarte-prestazio ekonomikoak adierazten dira atal honetan, aintzat hartu gabe berariaz diren ala ez kolektibo horri zuzendutakoak. Oro har, laguntza mota horren helburua da bitarteko ekonomikoak bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei, beren gizarteratzeari laguntzeko.

Laguntza ekonomikoak

Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa (Eusko Jaurilaritza).

[INFORMAZIO](#)
[GEHIAGO](#)

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa da, baldin eta lana lortzeko zailtasunak baldin badituzte, duten adinarengatik, prestakuntza orokor edo espezializaturik ez izateagatik edo bizi duten egoera sozialarengatik. Eskubide subjektibo hori aitortzen da emakume horiei biziraupenerako gutxieneko baliabide batzuk bermatu eta erasotzailearengandik independizatzeko, beren egoera egonkortzeko, eta finean, gizarteratzen laguntzeko.

Eusko Jaurilaritzako Gizarte Gaietako Zuzendaritzak tramitatzen du. Oinarritzko baldintza hauek bete behar dira laguntza hori jasotzeko: biktima-izaera egiaztatzea eta ez igaro izana urtebete baino gehiago babes-neurriak indarrean jarri diren egunaren eta laguntza-eskaera egiten den egunaren artean; zailtasun handiak izatea enplegu bat lortzeko; EAEko udalerriren batean erroldatua izatea 6 hilabete lehenago gutxienez; lanbide-arteko gutxieneko soldataren %75etik gorako errentarik ez izatea eta ez bizitzea erasotzailearekin; genero-indarkeriagatiko Gizarteratze Errenta Aktiborik jaso ez izana; lehenago laguntza hori bera ez jaso izana; urtebete baino gehiago ez igaro izana babes-neurriak indarrean jarri ziren egunaren eta eskaera egiten den egunaren artean.

Oro har, genero-indarkeriako egoera egiaztatu behar da egoera horri dagozkion eskubideak izateko, egiaztatzeko bideak dira kondena-sententzia, biktimaren aldeko babes-agindua, eta, salbuespenez, fiskaltzaren txostena, eskatzailea genero-indarkeriaren biktima izatearen zantzuak daudela adierazten duena, harik eta babes-agindua ematen den arte.

Jasotako laguntzaren zenbatekoa langabezia-subsidioaren 6 hilabeteren parekoa da, salbu eta emakumeak ardurapeko familia baldin badu edo % 33ko edo handiagoko minusbalotasunen bat baldin badu. Azken egoera horietan, laguntzaren zenbatekoak langabezia-subsidioaren 12, 18 edo 24 hilabeteren parekoa izan daiteke, egoeraren arabera.

Gizarteratze Errenta Aktiboa (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa)

[INFORMAZIO](#)
[GEHIAGO](#)

Lan-merkatuan sartzeko arazo handiak eta beharrian ekonomikoa duten langabeei ematen zaie laguntza hau, baldin eta enplegua bilatzeko lan aktiboa egiteko konpromisoa hartzen baldin badute beren gain.

Baldintza hauek bete behar dira laguntza hori eskatzeko: langabezia-egoeran izatea; enplegu-eskatzailearen inskripzioa egitea, inskripzioa indarrean edukitzea laguntza jasotzen den denbora guztian eta jarduera-konpromiso bat izenpetzea; 65 urte baino gutxiago izatea; ez dira hilean 483.98 eurotik gorako diru-sarrera-propiorik izan behar; familia-unitateko kideen hileko diru-sarreraren baturak ez du, kide-kopuruagatik zatitu ondoren, 483.98 eurotik gorako zenbatekoa eman behar urtean (ez dira aintzat hartzen erasotzailearen errentak); ez izatea lehendik Gizarteratze Aktiboko Errentaren hiru programaren onuradun; genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzea.

Laguntza 426 eurokoa izaten da hilean urtebeteko eperako (2 aldiz luza daiteke), eta/edo 1.287.00 eurokoa ordainketa bakarrean. Bizilekuz aldatu beharrean baldin bada, 1.278 euroko laguntza gehigarria ematen zaie genero-indarkeriaren biktimei.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen baldin bada gizarteratze aktiboko errenta eskatu baino lehen, galdu egiten da gizarteratze aktiboko errenta jasotzeko eskubidea.

**Bizilekuz
aldatzeko
laguntzak**
(Estatuko
Enplegu Zerbitzu
Publikoa).

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Gizarteratze aktiboko errentaren hiru hileko laguntza osagarria da, eta genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima bizilekuz aldatu beharrean baldin badago ematen da. Eskatzaileak baldintza orokor hauek bete behar ditu: betekizunak bete behar ditu eta gizarteratze aktiboko errentaren programan sartzeara edo haren onuradun izatea eskatu behar du, genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izateagatik; genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izan behar du eta, arrazoi horregatik, bizilekuz aldatu beharrean gertatu behar du gizarteratze aktiboko errentaren programan sartzeko eskatu aurreko 12 hiletan edo programa horren barruan dagoen denboran.

Udalerrri berera edo beste udalerrri batera egindako bizileku-aldaketa izan daiteke. Laguntza hori behin bakarrik jaso daiteke gizarteratze aktiboko errentaren programan sartzeko eskubide bakoitzeko, programa horrek irauten duen bitartean zenbat bizileku-aldaketa egiten diren aintzat hartu gabe.

**Diru-sarrerak
bermatzeko
errenta**
(Lanbide).

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Baliabiderik izan ez, edo, izanda ere, oinarritzko beharrianak asetzeko nahikoa baliabide ez duten pertsonak kobra dezakete laguntza hau, baldin eta betekizun batzuk betetzen baldin badituzte. Lanik gabeko pertsonak izan daitezke, baliabide gutxiko langileak, pentsiodunak, bestelako pentsioak jasotzen dituztenak, egoitza-baimenik gabeko immigranteak, etab.

Lanbidek tramitatzen du, eta betekizun hauek bete behar

dira: bizikidetza-unitate bat izatea urtebete lehenagotik (ez dute baldintza hori bete beharrik genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatuta duten emakumeek); 23 urtetik gorakoa izatea (18 urtetik aurrera eska dezakete biktima-izaera egiaztatuta duten emakumeei); 3 urtez erroladatuta izan behar dute EAEn (erroladan urtebeteko antzinatasuna eta egiaz urtebetez bizitzea eskatzen zaie biktima-izaera egiaztatuta duten emakumeek); ez dute oinarritzko gastuei aurre egiteko adina baliabiderik izan behar. Bizikidetza-unitateko pertsona-kopuruaren arabera zehazten dira gehieneko diru-sarrerak. Bizikidetza-unitate horrek hilean eskura dituen baliabideak zehazteko, unitateko kide guztien baliabideak hartzen dira kontuan; ez dute egoitzaren batean, espetxean edo lanaldi murriztuan izan behar; baliatu egin behar dituzte, aldez aurretik, beraiei dagozkien eskubide edo prestazio ekonomiko guztiak; ez dute laguntzak edo diru-laguntzak itzultzeko prozesuren batean edo alor horretako zehapen-prozeduraren batean izan behar; ez dute laguntzak edo diru-laguntzak jasotzeko ezintasuna dakarren zehapen administratiborik edo zigor-arloko zehapenik izan behar.

Ez zaie diru-sarrera moduan zenbatuko laguntza hau biktima izatearen egiaztapena izan eta genero-indarkeriarengatik beste laguntzaren bat kobratzen ari direnei. Ez dira zenbatuko, ezta ere, bizikide zituen beste pertsona batzuen diru-sarrerak, baldin eta ohiko etxebizitza utzi beharrean izan baldin bada indarkeria-egoeraren ondorioz.

Lan egiteko konpromisorik ez hartzea onartuko zaie biktima izatearen egiaztapena izan eta lan egiteko prestakuntzarik ez duten emakumeei.

Hileko gehieneko diru-sarrerak:

OROKORRA	PENSIODUNAK
kide 1.- 665,9 €	756,7 €
2 kide.- 855,07 €	945,88 €
3 edo gehiago.- 945,88 €	1.021,55 €

Gehieneko zenbatekoa hilean (diru-sarrerak baldin baditu hartzaileak, diru-sarrerak deskontatzen zaizkio gehieneko zenbatekoari, laguntza osagarria kalkulatzeko):

OROKORRA	PENSIODUNAK
kide 1.- 619,28 €	703,73 €
2 kide.- 795,22 €	879,66 €
3 edo gehiago.- 879,66 €	950,04 €
Guraso bakarrekoen osagarria	44,50 €-koa

**Etxebizitza-
prestazio
osagarria
(Lanbide)**

Aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarria, eta ohiko etxebizitza edo bizilekua alokatzeko gastuak estaltzeko ematen da, haren modalitate guztietan: errentamendua, azpi-errentamendua, errentamendu kidetza, ostatu hartzea eta logelen alokairua.

Eskatzeko bete behar diren betekizunak: diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izan behar da, bi modalitateetaren batean; titularrak aldizkako gastuak izan behar ditu ohiko etxebizitzaren edo alojamenduarengatik; eskaera egin behar du, eta halakorik baldin bada, jakinarazi behar du helburu bererako beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskuratzen ote dituen edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturengandik; ez du diru-laguntzak itzultzeko edo horien gaineko zehapeneko prozedurarik izan behar irekita; ez du laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzeko ezintasuna dakarren zehapen administratiborik edo zigor-arloko zehapenik izan behar, eta ez du horiek jasotzeko legezko debekurik izan behar.

Zenbatekoa: 250 € hilean. Gehigarriak jasotzeko eskubidea izanez gero, zenbateko hori 320 eurokoa izan daiteke hilean.

**Gizarte-
larrialdietarako
laguntzak
(Udalak)**

Gizarte-larrialdietarako laguntzak ez dira aldizkakoak, eta gastu arruntei edo aparteko izaera duten gastuei aurre egiteko behar den adina baliabiderik ez duten pertsonen eta familiei ematen zaizkie. Gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko edo arintzeko ematen dira. Diru-laguntzak direnez, aurrekontu-horniduren mendeak dira.

Ohiko etxebizitza edo alojamendua erabiltzeko eta horietan bizitzeko behar diren gastuak (alokairua, ura, argia, oinarritzko ekipamendua) ordaintzeko ematen dira, baita bizikidetza-unitateko kideren baten beharrian oinarritutakoak (osasun-laguntza, arropa, etab.) ordaintzeko eta aurreko atal horietakoren batek aurrez eragindako zorpetzeari aurre egiteko ere.

Laguntzak eskuratzeko, baldintza hauek bete behar dituzte eskatzaileek: sei hilabete erroldatuta EAEn; bizikidetza-unitate bat eratua urtebete lehenago (bada salbuespenik); ez dute etxebizitza-prestazio osagarriaren onuradun izan behar, salbu eta aurrez adierazitako b eta c letretan adierazten diren gastuak estaltzeko eskatzen baldin badira; 18 urte beteta izan behar dituzte, salbu eta eskatzailearen mende adingabeak edo minusbaliotasunak dituztenak bizi baldin badira edo eskatzailea bera umezurtza baldin bada; ez dute berariazko gastuei aurre egiteko behar adina baliabiderik izan behar; eta Etxebiden izena emanda egon behar dute.

**Laguntzak
indarkeriazko
delituen eta
sexu-
askatasunaren
aurkako
delituen
biktimentzat
(Ekonomia eta
Ogasun
Ministerioa)**

Diru-laguntza publikoen sistema bat⁵⁷ ezarri da Espainian gertatutako delitu mingarrien eta indarkeriazko delituen zuzeneko eta zeharkako biktimentzat; hau da, delitu horien ondorioz heriotza edo gorputzeko lesio larriak nahiz osasun fisiko zein mentalean kalte larriak izan dituzten biktimentzat. Halaber, Lege honetan zehaztutako laguntzen onuradun izango dira sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak, baita delitu horiek indarkeriarik gabe egiten direnean ere.

Honako hauek izango dira laguntza horien onuradun, zuzeneko biktimaren izaera egiaztatu ondoren: delitua gertatu den unean espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste estatu kide bateko nazionalitatea dutenak, edota, hala ez izan arren, eskuarki Espainian bizi direnak edo beren lurraldean espainiarrei ematen zaizkien laguntza analogoak aitortzen dituen beste estatu bateko nazionalitatea dutenak. Heriotzarik gertatzen baldin bada, laguntza jaso dezakete, zeharkako biktima moduan, hildako pertsonaren ezkontideak eta seme-alabek, bai eta, hildakoaren mendeko ekonomikoak baziren, haren gurasoek ere (betekizun jakin batzuk betez gero).

Lesio larriak dira gorputzaren osotasuna edo osasun fisikoa eta psikikoa kaltetzen eta, aldi baterako edo modu iraunkorrean, ezgaitasuna dakarkiotenak lesioa pairatu duenari. Ez dira ezgaitasun iraunkorrak izango % 33tik beherako minusbalotasun-maila dutenak.

Delituek sortutako kalte eta galeren ondoriozko kalte-ordainek zenbait muga ezartzen dituzte laguntza horiek jasotzeko.

Indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneako Soldataren 40 eta 130 hileko soldaten artekoa da laguntza; hainbat irizpideren arabera izango da emango den zenbatekoa, hala nola biktimaren eta onuradunaren egoera ekonomikoa, ekonomikoki horien mende dauden pertsonak, edota biktimaren erasate- edo galera-maila.

Laguntzak eman daitezke, gainera, sexu-askatasunaren aurkako delituaren biktimari kalteak eragin baldin bazaizkio osasun mentalean. Hori gertatuz gero, biktimak bere kasa aukeratutako tratamendu terapeutikoa ordain daiteke, nahiz eta jasandako kalteak aldi baterako ezgaitasunik eragin ez. Era berean, behin-behineko laguntzak lortzeko aukera dago prozesu penalari amaiera emango dion behin betiko ebazpen judiziala eman aurretik; betiere, biktima edo haren onuradunak egoera ekonomiko prekarioan gelditu direla egiaztatzen bada, behin gertaerak agintari eskumendunen aurrean salatu eta gero edo prozesu penala ofizioz jarraitzen denean; behin-behineko laguntza horiek ezin dira izan Legeak heriotza-kasuetarako, gorputzeko lesio larrietarako edo osasunean eragindako kalte larrietarako ezarritako gehieneko laguntza-kopuruaren % 80 baino handiagoak.

Laguntza-eskaerak egiteko aukera preskribatu egiten da delitu-ekintza gertatzen den datatik urtebetera; horrenbestez, bertan behera geldituko da hainbat egoeratan.

**Mantenu-pentsioa ez
ordaintzearen
ondoriozko
aurrerakinak**
[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Mantenuaren Ordainketa Bermatzeko Funttsaren⁵⁸ bidez, seme-alaba adingabekoei mantenua ordainduko zaiela bermatzen da, baldin eta mantenu hori eman behar dela erabaki baldin badu epaileak onartutako hitzarmen batek edo banaketa, dibortzioa, ezkontzaren deuseztatzea, seme-alabatasuna edo mantenua ordaindu beharra erabakitzen duen ebazpen judizialen batek, eta ez baldin bada mantenu horren ordainketa egin. Hori gertatzen denean, diru-zenbateko bat emango da, aurrerakin moduan.

«Mantenu» esaten zaio elikagaiak, ostalua, arropak, mediku-laguntza eta heziketa

⁵⁷ 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko eta sorosteko.

738/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 23koa, indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimentzako laguntzen erregelamendua onartzeko (maiatzaren 27ko BOE).


Kontsultatzeko da, era berean, 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren biktimaren estatutuari buruzkoa.

⁵⁸ 42/2006 Legea, abenduaren 28koa, gerora 1618/2007 Errege Dekretuak (Mantenua Ordaintzeko Berme Funttsaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoa) garatua.

Eskura dauden zenbait datu:

2014. urtean, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoa emateko 246 eskaera aurkeztu ziren, eta horien %88,21 ebatzi zen (217). Ebatzitako eskaeren %64,06 onartu zen, ezetsi egin ziren %34,56, eta uko egin zitzaien⁵⁹ gainerakoei (%1,38). Ez da alde handirik lurraldetik lurraldera, baina ezetsitakoen ehunekoak zertxobait handiagoa da Araban.

Laguntza horietako batzuk (hamarretik sei) ezesteko arrazoi izan ziren gainditu egin zela ezarritako gehieneko muga ekonomikoa, eta emakumeen aurkako indarkeriagatik Gizarteratze Aktiboko Errenta jasotzen zela edo jaso izan zela, laguntza horrekin bateraezina dena.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.

Emandako laguntzen banaketa-ehunekoak aldatu egin dira azken urteetan; hala ere, ratioen aldaketen arrazoia ez da beti emandako laguntzen kopuruaren aldaketa, bestelako faktore batzuek ere eragina baitute aldaketa horietan⁶⁰. 2014. urtean, eskatutako laguntzen %56,50 onetsi ziren, 2013. urtean baino zertxobait gehiago, baina, esaterako, 2012. urtean baino gutxiago (%68,16).

DIRU-LAGUNTZEN HARTZAILEAK. Gutzizkoak. EAE, 2005-2015

⁵⁹ Emakumeak erasotzailearekiko harremana berregitean gertatzen da.

⁶⁰ Tentuz aztertu behar dira laguntza ekonomikoaren bilakaerari buruzko datuak. Faktore asko izan daitezke aldaketa horien eragile, hala nola gobernuaren aldaketak, prozesuak geldiarazi eta espedienteak aldiz/urtez geroratzea dakartenak, bestelako laguntzen (DBE, etab.) ebazpen-denborekiko aldeak edo laguntzen aginduetan egindako aldaketak.

	2005. urtea	2006. urtea	2007. urtea	2008. urtea	2009. urtea	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2015. urtea
Eman diren "ordainketa bakarreko" laguntzak (27. art.)				24	40	84	109	182	122	139	
Bizilekua aldatzeko laguntzen kopurua	18	22	29	36	61	54	64	78	112	128	75
GAE laguntzen hartzaile-kopurua		166	227	277	352	411	444	497	663	780	678


Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa).

Guztira, 139 laguntza eman ziren 2014an, horien % 46,76 Bizkaian, % 28,06 Araban eta % 25,18 Gipuzkoan. **Laguntza horietan, guztira, 846.036 euro eman dira.**


Laguntza mota hori emateko bideratutako diru-zenbateko guztizkoa murriztu egin zen 2014. urtean, aurreko hiru urteetan goranzko joera erakutsi ondoren.

Atzerrian jaiotako emakumeek jaso dituzte emandako laguntza ekonomikoak % 53, eta gainerakoa (% 47) EAEen edo beste autonomia-erkidegoren batean jaiotako emakumeei eman zaie. Emakume atzerritarren ehunekoa gainerakoena baino handiagoa da, kolektibo horretan batez bestekoaren azpitiko errenta-mailak izaten direlako.

INDARKERIAREN BIKTIMA IZANDAKO EMAKUMEEI EMANDAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK, ESKATUTAKO LAGUNTZA GUZTIEKIKO. Guztizkoak eta % EAE, 2008-2014




139 laguntza ekonomiko



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN GUZTIZKO ZENBATEKOAK. Guztizkoak (€). EAE, 2011-2014





Iturria: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.

Babes-neurriak:

Pairatu dituzten indarkeria-egoerak salatzeko eskubidea dute emakumeek. Salaketaren bidez, agintariei jakinarazten zaie zigor-arloko arau-urratze bat izan daitekeen ekintza bat egin dela, hau da, Zigor Kodeak delitu edo falta moduan arautzen duen jokabide bat, gaztigu edo zigor bat dakarkiona hura egiten duenari. Salaketa egin eta hura agintaritzat judizialera igorri ondoren, delitu-ekintza bat egin izanaren zantzurik badela erabakitzen baldin badu instantzia judizialak, zigor-arloko eginbideak abiaraziko ditu⁶¹.

Horrez gainera, babes-agindu bat eska dezakete. Organo judizial eskudunak ematen duen ebazpen judiziala da babes-agindua, baldin eta delitu bat edo falta bat egin denaren zantzu oinarrituak baldin badaude eta, zigor-arloko tramitazioa egiten den denboran, biktimarentzat arrisku-egoera bat dagoela eta horrek babes-neurriak hartzeko premia dakarrela ikusten baldin bada⁶².

Biktimak segurtasunerako duen eskubidea egiaz erabiltzeko xedearekin lotutako zenbait baliabide eta zerbitzu azalduko ditugu orain.

Babes-neurriak

Salaketa (Polizia)

Eguneko 24 orduetan hartzen ditu **Ertzaintzak** salaketak.

Hala nahi baduzu, abokatu bati deituko dio zer egin aholka diezazun salaketa jarri aurretik eta salaketa jartzeko unean; horrez gainera babes-agindua eskatzeko aholkuak emango dizkizu, bai zigor-arloko neurrien gainekoak (prebentziozko espetxeratzea, urruntze-agindua, komunikazioak debekatzea, etab.), bai behin-behineko neurri zibilen gainekoak (famiaren etxebizitzaren erabilera, seme-alaben zaintza eta bisiten erregimena, mantenu-pentsioa, etab.).

Hala nahi baduzu, gizarte-zerbitzuekin jarriko da harremanetan; batik bat, presazko alojamendua behar baldin baduzu.

Ertzaintzak harreman egonkorra du beste polizia batzuekin, informazioa trukatzeko. Lankidetzat hori funtsezkoa da, bereziki, biktima, aldi baterako edo behin betiko, beste lurralderen batera joaten baldin bada bizitzera.

Horrez gainera, Barne Ministerioaren mendeko Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak famiari arreta emateko zerbitzuak eta prebentziozko, laguntzeko eta babesteko unitateak sortu ditu **Polizia Nazionalaren** barruan eta emakumeen eta adingabeen ekipoak **Guardia Zibilaren** barruan. Genero-indarkeriaren biktima den emakumea zaren aldetik dituzun eskubideak babestu nahi dituzte hiru zerbitzu horiek, tratatu txarrak eragin dizkizun pertsonaren aurkako salaketa jartzen duzun unetik bertatik. Zuri laguntza osoa, pertsonalizatua eta espezializatua ematea da helburua.

Babes-agindua (epaitegia)

Organo judizial eskudunak ematen duen ebazpen judiziala da babes-agindua, baldin eta delitu bat edo falta bat egin denaren zantzu oinarrituak baldin badaude eta, zigor-arloko tramitazioa egiten den denboran, biktimarentzat arrisku-egoera bat dagoela eta horrek babes-neurriak hartzeko premia dakarrela ikusten baldin bada.

Babes-aginduak agiri bakar batean biltzen ditu genero-indarkeriaren biktima izan den emakumearen aldeko, eta, beharrezkoa baldin bada, bere seme-alaben aldeko neurri zibilak eta zigor-arloko neurriak, kautela-izaerakoak, eta, era berean, administrazio publikoek biktimen alde ezarritako gizarte-babeseko mekanismoak abiarazten ditu. Genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzen du babes-aginduak, eta horrek

⁶¹ Prozedura Kriminalaren Legearen 45., 46. eta 47. artikulua.

⁶² Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren (genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko lege organikoa) 62. artikulua; Prozedura Kriminalako Legearen 544.ter artikulua.

Agintaritza judizialak zigor-arloko neurriak eta neurri zibilak erabaki ditzake genero-indarkeriaren biktima izan den emakumearen alde, eta, egoerak hala eskatzen baldin badu, bere seme-alaben alde. Zigor-arloko neurri hauek erabaki daitezke: familiaren bizilekutik kanporatzea erasotzailea; herri jakinen batean bizitzeko debekua ezartzea; biktimarengana eta/edo bere senideengana edo beste pertsonengana distantzia jakin batera gerturatzeko debekua ezartzea biktimari; biktimarekin, bere senideekin edo beste pertsona batzuekin edozein bitartekoren bidez (postaz, telefonoz, etab.) komunikatzeko debekuz ezartzea erasotzaileari; leku jakin batzuetara (biktimaren lantokira, seme-alaben eskolara, etab.) gerturatzeko debekua ezartzea erasotzaileari; biktimaren bizilekuaren gaineko datuak ezkutatzea; biktimari babes judiziala ematea areto judizialetan; armak konfiskatzea eta armen edukitzea debekatzea. Neurri zibil hauek hartzea erabaki daiteke: familiaren etxebizitzaren, altzarien eta gauzen erabilera eta gozamena; seme-alaba adingabekoen zaintza eta babes esleitzea; guraso-boterearen erabilera etetea; aita seme-alabekin komunikatzeko eta bisitak edo egonaldiak egiteko duen erregimena etetea edo horiek egiteko modua zehaztea, esaterako, horiek elkargune batean egin behar izatea; mantenu-prestazio bat eman beharra finkatzea; adingabekoak arriskutik atera eta kalteak eragozteko behar diren bestelako neurriak.

Biktimak berak, gertuko senideek, haren abokatuak eta fiskaltzak eska ditzakete neurriak. Salaketa egiteko betebeharra betetzeko izango den arren, biktimaren egoeraren berri baldin badute gizarte-zerbitzuek, horren berri eman behar diote organo judizialari edo fiskaltzari, babes-aginduak emateko prozedurak abiarazi edo eskatzeko.

Biktimak edo bere lege-ordezkariek eskatu behar ditu neurri zibilak, eta adingabekoak edo ezgaituak baldin badaude, fiskaltzak.

Salaketa aurkezten den unean edo gerora eska daiteke babes-agindua.

Salaketa aurkezten ez baldin bada, babes-aginduak berak du salaketa-izaera, aginduan adierazitako gertakarietako eta indarkeria-egoeretik. Epaitegiak 72 orduko epea du gehienez, eskaera egiten denetik, babes-agindua emateko, biktimaren eta erasotzailearen agerraldiak izapidetu ondoren. Agerraldi horiek aparte egin behar direla arautzen du legeak, aurrez aurrekorik gerta ez dadin.

Autobabeserako neurrien arloko prestakuntza
(Ertzaintza)

Biktimak, bere espedienteari esleitutako ertzainak lagunduta, babeserako aholku praktikoak dakartzan bideo bat ikusiko du. Arretaz eta partaidetza landuz ikusten da bideoa, autobabeserako neurriak barneratu eta erreparasatzeko. Osagarri moduan, neurri horien laburpena dakarren eskuorri bat ematen da.

Bortxa telefonoa
(Ertzaintza)

Ertzaintzak Bortxa telefono bat eskainiko dio biktimari. Eskuko telefono bat da, eta unitate eta zerbitzu hauetarako lotura zuzena egiten du larrialdietarako tekla baten bidez: Ertzaintzaren larrialdi-zentroa; biktimaren bizilekuari dagokion mugapeko unitatea, kasuaren jarraipena egiten duena; 24 orduz arreta psikologikoa emateko zerbitzua; alarma piztea (teklari sakatzean, terminalaren GPS kokapena aktibatzen da eta telefono bidezko konexio zuzena ezartzen da Ertzaintzako larrialdi-zentroarekin); Ertzaintzaren larrialdi-zentroak, era berean, terminalaren entzute modua piztu dezake, baldin eta deia galtzen baldin bada edo biktimak arrisku larria bizi baldin badu.

Biktimak Bortxa telefonoa onartzen duenean, Ertzaintzak 12 orduko gehienez epean jarriko du haren eskura.

Zaintza etengabea (bizkartzainak)
(Ertzaintza)

Ertzaintzak jarraipen pertsonalizatua eskaintzen die emakumeei, eta babes-neurri egokienak hartzen dira, arrisku-mailaren arabera. Biktimak zaintza etengabea (bizkartzainak) behar baldin badu, kasuaz arduratzen den unitateak egiten du lan hori, harik eta segurtasun-

enpresa bat azpikontratatzeko den arte. Gehienez, 72 ordutan egiten da izapide hori.

Jarraipenaren kudeaketa telematikoa (eskuturrekoa) (Ertzaintza)	Erasotzaileak urruntze-agindua baldin badu, hari urruntze-neurriak kontrolatzeko bitarteko telematikoa (eskuturrekoa) ezartzea eska dezake biktimak.
Kontrazaintza-zerbitzua (Ertzaintza)	Biktimak arrisku handia izan eta bizkartzainik edo eskuturrekorik nahi ez duenetan ezartzen da, baita erasotzaileak urruntze-neurriak urratzen dituela susmatzen denean ere.
Biktima epaitegira eramatea bere lehen agerraldian (Ertzaintza)	Babesa handitzeko eta tramite judizialak errazteko egiten da.
Egunerokoak eta zonaldeak zaintzea (Ertzaintza)	Biktimaren eguneroko bizitzako jarduerak zaintzen dira, erasotzaileak haren aurkako beste erasorik ez duela egiten egiaztatzeko, eta epaileak erasotzaileari mugatu dizkion zonaldeak kontrolatzen dira, hura han ez dabilela ziurtatzeko.

Eskura dauden zenbait datu:

Ertzaintzak, 2014. urtean, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko 3.621 salaketa tramitatu zituen, eta emakumeek beraiek jarri zituzten salaketa horien % 83,4. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria salatzeke jarri ziren 2.672 salaketa, 678 familia barneko bestelako indarkeria-egoerak salatzeke, eta familia esparrutik kanpora askatasun sexualaren aurka egindako delituak salatzeke 271.

ERTZAINZAK EAE-N EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ALORREAN TRAMITATU DITUEN SALAKETAK ETA SALAKETAK JARRI DITUZTEN EMAKUMEAK (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barnekoa edo sexuala). Guztizkoak. 2014								
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE-N, GUZTIRA	
	Salaketak	Salaketak jarri dituzten emakumeak	Salaketak	Salaketak jarri dituzten emakumeak	Salaketak	Salaketak jarri dituzten emakumeak	Salaketak	Salaketak jarri dituzten emakumeak
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	332	281	1.582	1.227	758	607	2.672	2.115
Familia barneko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)	85	83	394	366	199	187	678	636
Askatasun sexuala	45	45	152	151	74	74	271	270
GUZTIRA	462	409	2.128	1.744	1.031	868	3.621	3.021


Oharra: Askatasun sexualean sartzen dira Zigor Kodean izaera hori duten delituak, familiatik kanpoko pertsonen egindakoak. Iturria: Segurtasun Saila, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

Urte horretan bertan, Ertzaintzak babes-aginduen 1.434 eskaera jaso zituen guztira (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren gainekoak izan ziren 1.296 eskaera, familia barneko indarkeriaren gainekoak 135, eta indarkeria sexualaren gainekoak 3). Eta 1.674 babes-agindu jaso zituen EAEko, Espainiako eta Europako gainerako epaitegietatik, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako delituak edo faltak gertatu izanaren zantzu oinarrituak eta emakumeek arrisku-egoera objektiboak egiaztatu ondoren. Agindu horien guztien harian, hainbat neurri hartu ziren, kautela-izaerakoak, zigor-arlokoak eta laguntza eta babes sozialekoak⁶³.

Babes-neurri polizialei begiratzean, adierazi behar da, 2014ko abenduaren 31ko datan⁶⁴, EAEko 1.080 emakumek zutela, guztira, Ertzaintzak emandako eskuko telefonoa⁶⁵ babes-neurri moduan; 30 erasotzailek eta indarkeriaren biktimak zuten lokalizatze eskuturrekoa (GPS gailua), eta 37 emakumek zuten, etengabe, bizkartzain bat.

Bilakaera-datuek adierazten dute handitu egin dela eskuko telefonoa babes-neurri moduan darabilten emakumeen kopurua (2014. urtean, aurreko urtean baino % 8,87 emakume biktima gehiagok erabili zuten neurri hori). Lokalizatze eskuturrekoa erabili duten emakumeen kopurua egonkortu egin da azken urteetan, eta bizkartzaina daramatenen kopuruak behera egin du, pixkana, 2012tik aurrera (Gipuzkoa da salbuespena, antzeko kopuruak izan baititu azken urteetan).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, BABES-NEURRI POLIZIALEN ARABERA (bizkartzaina, lokalizatze eskuturrekoa eta eskuko telefonoa). Guztizkoak. EAE, 2009-2014



*Urte bakoitzeko abenduaren 31n indarrean zeuden neurriak, neurri horiek noiz hartu ziren kontuan izan gabe.


Iturria: Segurtasun Saila. Ertzaintza.

⁶³ Babes-aginduak emateko eskumena dute epaitegiek, aintzat hartu gabe emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten emakumeek haiek eskatu dituzten ala ez. Era berean, eskatzen zaizkien aginduak ezesteko eskumena dute.

⁶⁴ Horiek dira 2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden neurriak, neurri horiek noiz hartu ziren aintzat hartu gabe.


⁶⁵ 2011. urtetik aurrera, emakume guztiei eskaintzen zaie eskuko telefonoa, aintzat hartu gabe zer arrisku-maila duten, urruntze-agindurik eman den ala ez, etab. Emakumeak erabakitzen du eskubide hori erabiliko duen. Beren espedientearen amaitu arte erabil dezakete emakumeek eskuko telefonoa.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN ETA BIZKARTZAINA DUTEN EMAKUMEAK, LURRALDEAREN ARABERA. Guztizkoak. EAE, 2009-2014




*Urte bakoitzeko abenduaren 31n indarrean zeuden neurriak, neurri horiek noiz hartu ziren kontuan izan gabe.
Iturria: Segurtasun Saila. Ertzaintza.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN ETA LOKALIZATZEKO ESKUTURREKOA DUTEN EMAKUMEAK, LURRALDEAREN ARABERA. Absolutuak. EAE, 2009-2014



*Urte bakoitzeko abenduaren 31n indarrean zeuden neurriak, neurri horiek noiz hartu ziren kontuan izan gabe.
Iturria: Segurtasun Saila. Ertzaintza.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN ETA ESKUKO TELEFONOA DUTEN EMAKUMEAK, LURRALDEAREN ARABERA. Guztizkoak. EAE, 2009-2014



*Urte bakoitzeko abenduaren 31n indarrean zeuden neurriak, neurri horiek noiz hartu ziren kontuan izan gabe.
Iturria: Segurtasun Saila. Ertzaintza.

Gaiaren gaineko informazio osagarria ematen dute Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bildutako datuek; hala ere, zehaztu behar da bereiztea datu horiek, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bildutakoek ez bezala, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriara mugatzen direla, eta babes-aginduen alorrean, EAEko epaitegietan erregistratutakoak soilik jasotzen dituztela (Ertzaintzak tramitatzen eta/edo jasotzen dituen aginduetako batzuk Espainiako beste epaitegi batzuetatik jasotzen edo beste epaitegi batzuetara igortzen dira).

EAEko epaitegietatik igorritako 3.990 salaketa erregistratu zituen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2014. urtean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren gainekoak.

Biktinek beraiek aurkeztu zituzten, zuzenean, salaketa horien % 5,96, biktimaren salaketa zekarten polizia-atestatuetatik eratorriak ziren salaketen % 58,85, eta senideen, gizarte-eragileen (polizia-agentek, etab.) eta hirugarren pertsonen bitartekaritza izan zen gainerako % 35,19an.

GENERO-INDARKERIAGATIKO SALAKETAK EAE-KO EPAITEGIETAN (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa) Guztizkoak. 2009-2015								
SALAKETAREN URTEA	2009. urtea	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2015. urtea	
Zuzenean biktimak aurkeztuak	319	158	209	481	240	238	107	
Zuzenean senideek aurkeztuak	22	15	10	12	10	14	15	
Polizia-atestatuak, biktimak salatu ondoren	2.999	2.820	2.809	1.955	2.308	2.348	1.201	
Polizia-atestatuak, familiak salatu ondoren	67	79	45	43	48	59	20	
Polizia-atestatuak, zuzenean poliziak esku hartuta	371	369	790	1.092	1.085	1.079	586	
Lesioen parteak	139	159	196	213	190	200	109	
Laguntza-zerbitzuak eta hirugarrenak, oro har	141	91	66	57	56	52	48	
GUZTIRA	4.058	3.691	4.125	3.853	3.937	3.990	2.086	

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Urriaren 30era artekoak dira 2015eko datuak.

Iturri horrek berak adierazten du 2014. urtean 778 babes-agindu eskatu zirela EAEko epaitegietan bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren alorrean. Horietatik, ezetsi egin ziren 369 (% 47,4), eta 409 babes-agindu eman ziren (% 52,6).

EAE-KO EPAITEGIEK EMANDAKO BABES-AGINDUAK (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa) Guztizkoak. 2009-2015								
	2009. urtea	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2015. urtea	
Irekiak	989	994	953	808	839	778	390	
Ebatzitakoak. Onetsiak	595	631	596	500	510	409	198	
Ebatzitakoak. Ezetsiak	394	363	357	308	329	369	173	
Hiruhilekoaren amaieran ebazteko zain	96	0.	0.	0.	0.	0.	0.	
Ebatzitakoak. Onartugabeak							19	

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Urriaren 30era artekoak dira 2015eko datuak.

Enpleguaren alorreko laguntzak

Gizarteratzeko xedea dute zenbait prestazio ekonomikorik, hala nola aurreko atalean adierazi den Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak. Indarkeria pairatzen duten emakumeen eskura jartzen diren beste baliabide mota batzuek, berriz, haien laneratzea lagundu nahi dute. Biktima batzuei lan-alorreko zenbait eskubide aitortzen zaizkie lan-merkatutik kanpo ez geratzeko pairatzen duten indarkeriaren ondorioz, eta atal honetan jasoko dira eskubide horiek ere.

Enpleguaren
alorreko
laguntzak

**Genero-indarkerian
espezializatutako
laneratze-tutorea**
(Lanbide)
[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Genero-indarkerian espezializatutako laneratze-tutore bat dute eskura biktimek Lanbideren bulego bakoitzean.

Tutore horrek informazio eta aholkularitza indibiduala eta pertsonalizatua eskain dezake genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen enplegarritasuna hobetzeko laguntza ekonomikoen gainean, laneko orientazioa eta ibilbide pertsonalizatuak; beharrezkoa baldin bada, beste zerbitzu batzuetara (oinarrizko gizarte-zerbitzuetara eta beste batzuetara) bidera ditzake egoerak; udalerrietako gizarte-langileekin batera lan egin dezake, bikoiztasunak eragotzi eta esku-hartze eraginkorrak egiteko; genero-indarkeriaren biktima izan direnak laneratzeke ibilbide pertsonalizatuak eskain ditzake, horietan bereziki lantzeko autoestimua eta motibazioa, eta lehentasuna eman diezaike indarkeriaren biktima diren emakumeei, egin ditzaketen enpleguko eta prestakuntzako programetan sartzeko.

Biktimen datuak isilpean erabiltzeko aukera ematen da, baldin eta biktimak horrela eskatzen baldin badu.

**Lan-arloko
eskubideak:** lanaldia
murriztea, lan-
denbora
berrantolatzea,
mugikortasun
geografikoa,
eszedentziak,
kontratuak
bereiztea,
justifikatutako
hutsegiteak...

Eskubide hauek izango dituzte biktima-izaera egiaztatu eta besteren konturako langile diren emakumeek⁶⁶: murrizketa bat eska dezakete lanaldian, soldatan jaitsiera proportzionala izango duena, genero-indarkeriaren biktima izan den emakumeak babes eraginkorra lortu edo gizarte-laguntza osoa eskuratzeko eskubidea erabil dezan; ordutegia egokitu eta lan-debora berrantolatzeke eskubidea; mugikortasun geografikorako eskubidea, lanpostua gordeko diona lehen 6 hiletan; lan-harremana eteteko, baina lanpostua gordeta, sei hiletatik gorakoa izango ez den epean; lan-kontratua langilearen erabakiz amaitzeko eskubidea, eta hori gertatzen baldin bada, legeko langabezia-egoeran izateko, hala, eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen baldin baditu, langabezia-prestazioa edo langabeziako subsidioa jasotzeko eskubidea izango du; genero-indarkeriak lanera ez joatea edo berandu joatea eragiten baldin badute, egoera horiek justifikatutako egoeratzat hartuko dira, baldin eta hori erabakitzen baldin badute arretako gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek; genero-indarkeriaren biktima izan den langilearen kaleratzea deuseza izatea, haren lan-eskubideek horrela aitortzen dutenean.

⁶⁶ Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategineko 37.7, 40.3.bis, 45.1.n, 48.6, 49.1, 52.d eta 55.5.b artikulua (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategin hori).

Emakumezko funtzionario publikoek dituzten zenbait berezitasun kontsulta daitezke hemen: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa; 2007/7 Legea, apirilaren 12koa,

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena;

TAS/2865/2003 Agindua, urriaren 13koa, Gizarte Segurantzaren Sistemako Itun Berezia arautzen duena (21. art.).

Norberaren kontura lan egiten duen emakumezko langileekiko zenbait berezitasun kontsulta daitezke hemen: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa (21.5. artikulua); 20/2007 Legea, uztailaren 20koa,

Lan Autonomoaren Estatutua arautzeko; 32/2010 Legea, abuztuaren 5koa, babes-sistema espezifiko bat ezartzen duena langile autonomoen jardura-etenduretarako; 1541/2011 Errege Dekretua, urriaren 31koa, abuztuaren 5eko 32/2010 Legea garatzeko.

Gizarte Segurantzaren alorreko eskubideak: amatasuna eta aitatasuna, erretiro aurreratua, alarguntasun-pentsioa, langabezia-prestazioa...	Honako eskubide hauek dituzte biktima-izaera egiaztatzen duten emakumeek ⁶⁷ : amatasuneko eta aitatasuneko prestazioen ondorenetarako, alta-egoerekin parekatuko dira genero-indarkeriaren biktima izan eta besteren konturako edo norbere konturako langile direnek kotizazio efektiboko izaeraz egindako aldiak; erretiro-pentsio aurreratua eskuratzeko eskubidea izango dute lana genero-indarkeriaren biktima izateagatik utzi behar izan duten emakumeek, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen baldin badituzte; konpentsazio-pentsioa jasotzeko eskubiderik izan ez arren, alarguntasun-pentsioa jasotzeko eskubidea izango du genero-indarkeriaren biktimak baldin eta banantzen edo dibortziazten baldin bada eta eskatutako baldintzak betetzen baldin baditu; alarguntasun-pentsioa galduko du giza hilketaren edo lesioen doloeko delitua egiteagatik kondenatua izan denak, delituaren biktima ezkontidea edo ezkontide ohia edota izateko bikotekidea edo bikotekide ohia baldin bada; eta, horrela erabakitzen baldin bada, handitu egin daiteke umezurtzen zurtzasun-pentsioa; langabeziako prestazioa eta subsidioa izateko eskubideen ondorenetarako, eskatutako baldintza betetzeaz gain, emakume langilea legeko langabezia-egoeran izango da, baldin eta bere lan-kontratua borondatez amaitzen edo eteten baldin badu, genero-indarkeriaren biktima izatearen ondorioz.
Bitarteko kontratua genero-indarkeriaren biktimak ordezkatzeko	Enpresek gizarte-segurantzarekiko kuotan hobari bat izateko eskubidea dute, baldin eta bitarteko kontratuak formalizatzen baldin badituzte genero-indarkeriaren biktima izan diren langileak ordezkatzeko, bai lan-kontratua eten dutelako, bai mugikortasun geografikorako eskubidea erabili dutelako, bai lantokiz aldatzeko eskubidea baliatu dutelako. ⁶⁸
Genero-indarkeriaren biktimak kontratatzen dituzten enpresen pizgarriak	Gizarte-segurantzako enpresa-kuotan hobari bat izateko eskubidea dute genero-indarkeriaren biktimak kontratatzen dituzten enpresek, eta kontratuen izaera mugagabeak edo aldi baterakoak zehaztuko du hobari horren zenbatekoa ⁶⁹ .
Norberaren konturako jardura bati ekiteko pizgarriak	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, lanik gabe baldin badaude eta langile-eskatzaile moduan izena emanda baldin badaude enplegu-zerbitzu publikoetan, diru-laguntza bat jaso dezakete langile autonomo moduan lanean hasten baldin badira, eta, horrez gainera, diru-laguntza finantzario bat eskura dezakete, enpresa sortu eta abian jartzeko inbertsioak finantzatzeko ⁷⁰ .
Gizarteratu eta laneratzeko etxebizitzak (Bizkaiko Foru	Tratu txarren biktima izan diren emakumeak gizarteratu eta laneratzeko egoitza-baliabidea da, intentsitate apalekoa, eta etxebizitzarik izan ez eta enplegararritasunik ez duten edo enplegararritasun apala duten biktimei zuzenduta dago. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak kudeatutako beste egoitza-baliabide batzuetatik bideratzen dira. Baliabide berria

⁶⁷ TAS/2865/2003 Agindua, urriaren 13koa, hitzarmen berezia arautzen duena Gizarte Segurantzako sisteman; 1335/2005 Errege Dekretua, azaroaren 11koa, Gizarte Segurantzako familia-prestazioak arautzen dituen (xedapen gehigarri bakarra); 295/2009 Errege Dekretua, martxoaren 6koa, Gizarte Segurantzako sistemaren amatasuneko, aitatasuneko, haurdunaldiaren barneko arriskuko eta edoskitze naturalaren garaiko arriskuko prestazio ekonomikoak arautzen dituen; Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua (161 bis.2 artikulua); Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua (174.2 artikulua); 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako babes osoa emateko neurriei buruzkoa (lehen xedapen gehigarria); 3158/1966 Dekretua, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko prestazio ekonomikoen zenbatekoak zehazteko eta horietarako eskubidea edukitzeko erregelamendu nagusia onartzen duena (38. artikulua); 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako babes osoa emateko neurriei buruzkoa (21.2. artikulua); Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua (208.1.1.e eta 208.1.2 artikulua eta berrogeita bigarren xedapen gehigarria).

⁶⁸ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes osoa emateko neurriei buruzkoa (21.3. artikulua).

⁶⁹ 43/2006 Legea, abenduaren 29koa, hazkundera eta enplegua hobetzeko.

⁷⁰ TAS/1622/2007 Agindua, ekainaren 5koa, enplegu autonomoa sustatzeko programari emango zaizkion diru-laguntzak arautzen dituen.

Aldundia)	da, eta bitarteko izaera izango du, intentsitate handiko egoitza-programen eta bizitza autonomo eta independentearen bitartekoa. Egoitza-baliabide horrek 16 plaza eskaintzen ditu, emakumeentzat, seme-alabentzat eta haien mendeko pertsonentzat. Aldi baterako, sei (6) hilabeterako, egoitza-baliabidea da, eta luzatu egin daiteke denbora hori egoeraren ezaugarrien eta bilakaeraren arabera. Denbora horretan, erabiltzaileekin lan egiten da, enplegu eta etxebizitza egonkorra eskuratzeko, eta azken hori da, hain justu, programaren ardatza. Etxebizitzan egiten den egonaldiaren arrazoia, beraz, ez da, soilik, etxebizitza bat behar dela, eta bai bizitza independente batera iristeko prozesuaren azken faseari ekitea. Helburu hauek bete nahi dira egoitza-baliabide horrekin: eremu fisiko egoki eta babestu bat ematea, esku-hartze hezigarriak egin eta bizitza autonomo baterako behar diren trebetasunak eta baliabideak erabiltzeko; lan-merkatuan sartzeko behar diren tresnak, gaitasunak eta konpetentziak eskuratzeko bidean laguntzea egoitza-baliabideen erabiltzaileei; kalitatezko enpleguak sustatzea, enplegua izan arren, baldintza prekarioetan edo ezkutuko ekonomian dabiltzan emakumeentzat; lan-baldintza duineko enpleguak eskuratzeko bidea erraztea, lanik izan ez arren, lan-merkatuan sartzeko prestakuntza eta gaitasunak dituzten emakumei; baliabidean ostatu hartuta dauden emakumei eta familia guneei laguntza profesionala ematea beren emantzipaziorako, autonomiarako, bizikidetzarako eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan. Gaur egun, Suspergintza elkarteak ematen du zerbitzua.
Laneratze-programa	San Prudencio lan-fundazioaren enplegarritasun-zerbitzuaren barneko proiektua da laneratze-programa. Genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumei laneratze-zerbitzua ematen zaie, Arabako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Gestio Sailaren eta San Prudencio lan-fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren bidez. Arabako genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumei zuzendutako zerbitzua da, eta eskatzailearen oinarritzko gizarte-zerbitzuan eska daiteke, baita genero-indarkeriaren biktimei arreta psikologikoa emateko gizarte-zerbitzu espezializatuetan ere.

Eskura dauden zenbait datu:

2015. urtean, 15 kontratu hobaridun izenpetu ziren EAEn genero-indarkeriaren biktimak izandako emakumeekin, eta 5 pertsonari egin zizkieten enpresek bitarteko kontratuak, genero-indarkeriaren biktimak izan diren langile emakumezkoak ordezkatzeko.

EAE-N IZENPETUTAKO KONTRATUAK Guztizkoak. 2003-2015													
	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea	urtea
Kontratu hobaridunen kopurua	4	3	9	9	2	7	5	11	4	9	8	11	15
Ordezkapen-kontratuen kopurua	0.	0.	4	3	5	11	16	9	9	21	50	2	5

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Etxebizitzaren alorreko laguntzak

Emakume biktimek etxebizitzarako sarbidearen alorreko beste laguntza batzuek dituzte eskura, lan honen aurreko ataletan adierazi diren etxebizitza-gastuetarako laguntzez gain (etxebizitzaz aldatzeko laguntzak, etxebizitza-osagarria eta gizarte-larrialdietarako laguntzak) eta gizarte-zerbitzuen sareak eskaintzen dituzten harrera-baliabideez gain (indarkeriaren ondorioz familia-etxebizitza utzi behar denean eskaintzen direnak).

Etxebizitzaren alorreko laguntzak

Puntuazio gehigarria guraso bakarreko unitateentzat, baldin eta mendeko seme-alaba adingabeak baldin badituzte eta/edo genero-indarkeriaren biktimak izan eta alokairu-erregimenean eskatzen baldin badute babes ofizialeko etxebizitza
(Eusko Jaurlaritza)

Emakume biktimen aukera da⁷¹ alokairuko etxebizitza baten eskatzaile gisa izen ematea Etxebiden, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima-izaera adierazita.

Barematze orokorrean 10 puntu gehiago emango zaizkio 2 urteko epean; ez du gutxienezko diru-sarrerarik egiaztatu beharrik izango, ezta etxebizitza eskatzen duen udalerrian erroldatuta egon beharrik ere. Horrez gainera, ez du, kasu guztietan, etxebizitzarik ez izatearen baldintza bete beharrik izango.

Baldintza hauek bete behar dira: etxebizitza bilatzeko lan bizia egitea aldeztu aurretik; txosten tekniko batek adieraztea egoera pertsonala eta familia-egoera, egindako interbentzio soziala eta etxebizitza-egoera; eta Etxebiden izena emanda izatea.

Biktimen datuak isilpean erabiltzeko aukera ematen da, baldin eta biktimak horrela eskatzen baldin badu.

Alokairu-erregimeneko etxebizitzaren zuzeneko esleipenak
(Eusko Jaurlaritza)

Salbuespenez, harrera-baliabideren batean ostatu hartuta izan diren emakumeek, ezin izan baldin badute etxebizitza bat eskuratu, alokairu-erregimeneko etxebizitza bat (esleipen zuzenekoa) eska dezakete, baldin eta berariazko baldintzak betetzen baldin badituzte.

Baldintza hauek bete behar dira eskaera hori egiteko: indarkeriaren biktimak hartzeko etxebizitzetan emandako denboraren estaldura; Etxebiden izena emanda izatea; etxebizitza bilatzeko lan bizia egitea aldeztu aurretik; eta txosten tekniko batek adieraztea egoera pertsonala eta familia-egoera, egindako interbentzio soziala eta etxebizitza-egoera

Biktimen datuak isilpean erabiltzeko aukera ematen da, baldin eta biktimak horrela eskatzen baldin badu.

Eusko Jaurlaritzaren programetako alokairu-etxebizitzak aldatzea
(Eusko Jaurlaritza)

Eusko Jaurlaritzaren programaren bateko alokairu-etxebizitzetan bizi diren emakumeek aldaketak egitea eska dezakete, baldin eta arriskuan daudela uste baldin badute.

⁷¹ 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa.

Eskura dauden zenbait datu:



Guztira, 592 emakume zeuden izena emanda Etxebiden 2014. urtean alokairu-etxebizitzaren eskatzaile gisa, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktimari dagokion egiaztapenarekin. Urtetik urtera igo egin da laguntza mota hori eskatzen duten emakumeen kopurua.

Guztira, 54 emakumeri esleitu zitzaizkien etxebizitza mota hori 2014an, hau da, emakume eskatzaile guztien % 9,12ri. Aurreko urtekoa baino handiagoa da ehuneko hori, eta oraindik handiagoa 2012ko datuarekin konparatuz gero; izan ere, eskatzaileen % 1ek baino gutxiagok jaso zuten laguntza hori urte horretan.⁷²

Bestalde, 2014. urtean, etxebizitzaren esleipen zuzena egiteko 15 eskaera erregistratu ziren guztira; horietatik, onetsi egin ziren 7 (% 46,67), 6 ezetsiak izan ziren, eta 2 ebatzi gabe geratu ziren urte horretan. Laguntza horiek jasotako emakumeen proportzioa haren aurreko urtekoa baino apalagoa izan zen (% 68).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN ETA ETXEBIDEN ALOKAIU-ETXEBIZITZA BAT ESKATU DUTENAK (absolutuak) ETA ESLEIPENDUN IZAN DIRENAK (%) Guztizkoak eta % EAE, 2009-2014

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN ETA ETXEBIZITZAREN ZUZENAKO ESLEIPENA ESKATU DUTENAK (ABSOLUTUAK) ETA ESLEIPENDUNAK (%). Guztizkoak eta % EAE, 2009-2014




2014 urtea

2014 urtea



⁷² Kontuan izan behar da 2012. urtean indarrean jarri zela 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa.



*No se cuenta con datos de adjudicatarias para 2009, 2010 y 2011.



*No se cuenta con datos de adjudicatarias para 2009, 2010 y 2011.

*Ez dago 2009an, 2010ean eta 2011n esleipendun izandakoen gaineko daturik.

*Ez dago 2009an, 2010ean eta 2011n esleipendun izandakoen gaineko daturik.

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Hezkuntzaren alorreko laguntzak

Hezkuntzaren alorreko laguntzak

Hezkuntzarako bekak (Eusko Jaurlaritza) [INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko eta unibertsitatetik kanpoko bekak eskaintzen dizkie emakumeen indarkeriaren aurkako biktimak diren emakumeei eta beren seme-alabei.

Berehalako eskolatzea

Genero-indarkeriako ekintzen ondorioz bizilekuz aldatu beharrean baldin badaude genero-indarkeriaren biktimak, biktima horien seme-alabek bizileku berrian berehala eskolatzeko eskubidea dute.

Espedienteen lekualdatzearen tramitazioa (Eusko Jaurlaritza) [INFORMAZIO GEHIAGO](#)

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren seme-alabak ikastetxez aldatzen baldin badira, espediente akademikoak lekualdatzeko tramiteak egiten dira.

Laguntzak emakume atzerritarrei

Laguntzak emakume atzerritarrei	Genero-indarkeriar en biktima izan eta Espainian bizi diren emakume atzerritarrek	Europar Batasuneko kide den estaturen bateko edo Europako Esparru Ekonomikoko estaturen bateko herritar baten senide den emakume atzerritarrek⁷³ bizileku-eskubideari eutsiko dio ezkontzaren baliogabetzea, dibortzioa edo antzeko egoeraren bat gertatu ondoren, baldin eta ezkontuta zegoenean genero-indarkeriaren biktima izan zela egiaztatzen baldin badu. Ezkontidearekin edo bikotekidearekin berrelkartzen diren EBtik kanpoko emakumeek bizileku-eta lan-baimen independenteak jaso ditzakete haien aldeko babes-agindua eman denean edo fiskaltzaren txosten batek adierazten duenean genero-indarkeriaren zantzuak daudela, 5 urteko iraupenaz. Europar Batasunetik kanpokoak izan eta legez kanpoko egoeran dauden emakumeek salbuespen-egoeren ondoriozko aldi baterako bizileku- eta lan-baimena eska dezakete haien aldeko babes-agindua ematen denean edo fiskaltzaren txosten batek genero-indarkeriaren zantzuak daudela adierazten duenean, eta baimena eskura dezakete zigor-arloko prozedura kondena-sententzia batez amaitzen denean edo ebazpen judizial batek adierazten duenean emakumea genero-indarkeriaren biktima izan dela, 5 urteko iraupenaz. Salbuespenezko egoeren ondoriozko bizileku-baimena eska dezakete, era berean, beren seme-alaba adingabekoen alde. Aldi baterako bizileku-baimena eta besteren konturako lanerako lan-baimena duten emakume atzerritarrek berritu egin ditzakete baimen horiek lan-harremanari dagokion kontratua genero-indarkeriaren biktima izatearen ondorioz amaitzen edo eteten denean.
	Biktima atzerritarren babesa	Genero-indarkeriako eraso bat salatzen denean ikusten baldin bada indarkeria pairatu duen emakumea legez kanpoko egoeran dagoela, ez da zehapen-prozedura administratiborik abiatuko eta, halakorik bada, eten egingo dira indarrean dauden zehapen-prozedura administratiboak edo, kasuan kasu, kanporatze-aginduen betearazpena. Zigor-arloko prozedura amaitzean, aldi baterako bizileku-baimena emango zaio emakumeari, baldin eta kondena-sententzia ematen baldin bada edo ebazpen judizialek ondorioztatzen baldin bada genero-indarkeriaren biktima izan dela. Horrela ez baldin bada, jarraipena emango zaio legez kanpoko egonaldia dagokion zehapen-prozedura administratiboari.⁷⁴
	Asilo-eskubidea	Errefuxiatu-izaera aitortuko zaie genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, baldin eta beldurrez badaude zantzu oinarrituak daudelako jazarriak izan daitezkeela pentsatzeko talde sozial, genero edo sexu-orientazio jakinekoko izateagatik, beren jatorriko herrialdetik kanpo baldin badaude eta, beldurra dakarkien zantzu horien ondorioz, ez baldin badute herrialde hartako babesik eskuratu nahi. Izaera hori bera aitortuko zaio ohiko bizileku zuen herrialdetik kanpo dagoen emakume aberrigabeari, baldin eta bizitzeari buruzkoa; 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa; 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa (9.4. art.); 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (19.2. art.); apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzekoa, (59.2. art.); 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (31 bis art.); apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzekoa, 131. artikulutik 134. artikulura; 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (38.6. art.). Asilo-eskubidea aitor diezaieten, emakumeek jazarriak izateko duten beldur oinarritu horrek jazarpen-ekintza larrietan oinarritu behar du, hau da, indarkeria fisikoko edo psikikoko ekintzetan, sexu-indarkeriako ekintzak barne. Jazarpen-arrazoiak baloratzeko, jatorrizko herrialdearen egoerari erreparatuko zaio, eta talde sozial jakinaren kontzeptuaren barnean sartuko dira, alde horretatik, sexu-orientazioaren edo identitate sexualaren ezaugarri komun

⁷³ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa (17.1. art.); 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa; 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak onartua; 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa; 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa (9.4. art.); 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (19.2. art.); apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzekoa, (59.2. art.); 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (31 bis art.); apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzekoa, 131. artikulutik 134. artikulura; 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (38.6. art.).

⁷⁴ 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (31 bis art.); apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzekoa, 131. artikulutik 134. artikulura.

batean oinarritutako taldeak. Era berean, jatorriko herrialdean egoerak arrazoi sendoak badakartza genero-arrazoiengatiko jazarpenaren beldur izateko, jatorriko herrialde horretatik ihes egin duten pertsonak sar daitezke kontzeptu horretan⁷⁵.

Beste prebentzio-ekimen batzuk

Heziketa eta sentsibilizazioa lantzea izan daiteke orain arte azaldu diren zerbitzu eta baliabideetako batzuen osagaietako bat, baina atal honetan zerrendatuko diren ekimenek (programak, komunikazio-kanpainak, etab.) berariaz dute arazo horren gaineko sentsibilizazioa lantzeko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko helburua. EAEko gizarte-eragileek (gizarte-erakundeek, administrazio publikoek, etab.) landutako ekimenak dira guztiak.

Adierazi behar da azalduko den ekimenen zerrendak ez dituela dauden ekimen guztiak jasotzen; hala, dauden modalitateen berri ematea da zerrendaren helburua. Hauek nabarmendu behar dira:

Emakunderen **NAHIKO! programa** hezkidea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzekoa, inplementatzeari ekin zitzaion 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak deitutako programa da, eta bere asmoa da eraldatze-prozesu bat sustatzea, hezkidetzaren eredua barnera dezaten gaur egungo eskola mistoek.

Berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza bultzatzeko hezkidetzaprograma da Nahiko. Elkarrekin berdintasunez bizitzeko programa bat da, balioen hezkuntza du oinarri, eta giza eskubideak eta genero-rolen azterketa lantzen ditu.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)



Indarkeria sexista prebenitzeko xedea hartuta, **Beldur Barik** programa koordinatzen dute zenbait erakundeak. Ekimen hori Berdintasuna sareko udalerriek abiarazi zuten, Emakunderen laguntzarekin. Egun Emakundeak kudeatzun du programa hau hiru foru aldundien eta Eudelen laguntasunarekin.

Beldur Barik programa gazteei zuzentzen zaie, hausnarketa-prozesuak abiarazi eta gizartearen eraldaketa bultzatzeko. Berdintasuna, errespetua, autonomia eta askatasuna sustatu nahi da gazteengan.

WEB: <http://www.beldurbarik.org/>



⁷⁵ 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzekoa.

Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea da **Berdinsarea**. Guztira, 59 udalerrik osatzen dute Bedinsarera. Berdintasunaren alde daude udalerririk guztiak, eta EUDELe (EAEko udalerrien elkarteak) Emakunderen laguntzarekin bultzatzen eta koordinatzen du EAEko udalerrien partaidetzaz. Berdinsareak EAEko biztanleriaren % 75,3 hartzen du, eta erreferentziazko eredua da, bai berdintasunaren alorrean, bai gainerako esparruetan.



Sarearen helburua da toki-administrazioetan kudeatutako programa eta zerbitzuak bultzatzea, sendotzea, koordinatzea eta ebaluatzea, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka.

Tokiko erakundeek berdintasunaren alorrean egiten duten lanaren eraginkortasuna handitzea da BERDINSAREA sarearen helburua, bai eta, era berean, tokiko erakundeek eta udalaz gairik gainerako erakundeek arteko lotura-lana egitea ere.

Bestalde, Emakunde urtero abiarazten du “**Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gunea**”, erakunde publiko eta pribatuak gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean abiarazten dituzten ekimenetako batzuen topaleku izan dadin. Emakunde martxoaren 8a ospatzeko sustatu duen kanpainaren leloa jaso du 2015eko Guneak: “Gizartea aurrera doa berdintasunerantz, ez dezagun atzera egin”, eta topagune plurala eta irekia izan nahi du, berdintasunaren balioaz hausnartzeko eta bide horretan atzera egitearen arriskuez gogoeta egiteko.

Gunearen helburuetako bat da erakunde, kolektibo eta elkarteak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten ari diren lana batzea, erakustea eta sendotzea.

Web-orria:

<http://www.emakunde.euskadi.eus/proyecto/-/foro-2015/>



Horren harian, berriaz nabarmentzekoak dira “**ahalduntze-eskolak**” eta “**emakumeen etxeak**”, gure autonomia-erkidegoko zenbait udalerritan indarrean direnak:

ARABA	BIZKAIA		GIPUZKOA	
Gasteiz	Abadiño Balmaseda Basauri* Berriz	Durango Elorrio Ermua* Getxo* Ondarroa*	Alegia** Anoeta** Arrasate* Asteasu** Azpeitia* Eibar* Errenteria Getaria** Hernani* Irun	Saiatz mankomunitatea** Urola Garaia mankomunitatea* (Ezkio Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga) Pasaia Tolosaldea Zarautz / Zizurkil**
		(*) Emakumeak Ahalduntzeko Eskolen Bizkaiko Sarean daude eskola horiek. (*) Emakumeak Ahalduntzeko Eskolen Gipuzkoako Sarean daude eskola horiek. (**) Berdinbidean Gipuzkoa ekimeneko partaide dira ekimen horiek. Gipuzkoan biztanle gutxi dituzten udalerrietan berdintasun-politikak sustatzeko ekimena da.		

EMAKUMEEN ETXEAK	
BIZKAIA	GIPUZKOA
Balmaseda Basauri Durango Ermua Ondarroa	Arrasate Azpeitia Donostia Eibar

Bereziki nabarmentzekoak dira, era berean, erakunde zibiko eta sozial ugariaren lana, elkarteek, fundazioek eta bestelako entitateek egindakoa, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta indarkeria horren biktima diren emakumeak artatzen dituzten aldetik. Besteak beste, emakumeen eskubideak egiaz erabilgarri izan daitezen saiatzen dira entitate horiek.

Entitate horien gaineko informazio gehiago eskura daiteke esteka hauek erakusten dituzten direktorioetan:

<http://www.3sbizkaia.org/DirectorioEus.aspx>

<http://www.direktorioa.net/>

Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da **GIZONDUZ**, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua, eta helburu du gizonezkoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunen gaineko kontzientzia hartzea, eta berdintasunaren alde lan egin eta parte har dezaten bultzatzea.

Xede hauek ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.



gizonduz

Web-orria:

<http://www.euskadi.eus/gizonduz>

Egia da arau-aldaketak izan direla, aurrerapenak egin direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean, eta emakumeek esparruak irabazi dituztela, baina emakumearen irudiak oso estereotipatuak izaten jarraitzen du komunikabideetan eta publizitatean. Hala, **Begira** Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen lehentasunezko helburuak dira eduki mediatikoek emakumea ez gaizki tratatzea, ez mespretxatzea edo mendeko pertsonen moduan ez aurkeztea, eta, era berean, eduki horiek emakumeen eta gizonen bestelako irudi bat ematea, lortu nahi dugun gizarte-egoeran izan beharrekoa.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzorde bat da, aholku-emaile eta topagune. Batzordearen zeregina da aholkularitza eskaintzea eta azterketak egitea, publizitatearen eta komunikazioaren eremuetan sexuagatiko bereizkeria mota oro desagerrarazteko.

Halaber, komunikabide publikoek zabalduko edukiek kode etikoak izan eta bete ditzaten sustatzen du, eta komunikabide pribatuekin akordioak egitea bultzatzen du, komunikazioa berdintasun-printzipiora egokitu dezaten.



Web-orria: <http://www.emakunde.euskadi.eus/proyecto/-/publicidad-comunicacion/>

HAUSNARKETAK: arazoaren nolakoa eta erantzun egokiak eman beharraren erronka

Atal honetan, gure autonomia-erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arazoiari ematen ari zaizkion erantzunen gaineko hausnarketa batzuk egiten dira, alor horretan dauden erronka nagusiak zehazteko. Hausnarketa batzuk zuzenean eratortzen dira txosten honen 2. eta 3. atalean biltzen diren datuetatik, eta beste batzuk, berriz, aztertze-jardun horren beraren ildotik, bat egiten dute gai-alor honetan egin diren beste lan nabarmen batzuen konklusioekin. Erreferentzia dokumentalen dossierrean jaso dira lan horiek (hori horrela, bibliografiaren berrikuspenean baliatzen du atal honek, argitaratu berriak diren zenbait agiri interesgarriren konklusio nagusiak biltzeko, sailkatzeko eta elkarrekin lotzeko).

Ematen diren orientabideek ez duteosatzen egin beharreko hobekuntzen zerrenda osorik; aitzitik, emakumeen aurka erabiltzen den indarkeriaren aurka borrokatzean aintzat hartzekoak diren alderdi eta elementu nabarmen batzuk adierazten dituzte.

Arazoaren aitortzaren gainekoak...

Lehen mailako arazo politikoa eta soziala den aldetik, emakumeen aurkako indarkeriak behar adinako fokuratzetik eta aitortzarik ez duela aldarrikatzen dute, oraindik ere, emakumeen elkarrekin eta mugimendu feministak. Arazoaren aitortza egiazkoa izango baldin bada, erakundeek konpromisoak sendoa izan behar du, gaiarekiko interes eta sentikortasun handiena duten pertsonen egindako apustuez gaindikoa.

Egia da bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria, etxeko indarkeria eta indarkeria sexuala fokuratzen eta erantzuten dituela Erakundearteko II. Hitzarmenak, baina indarkeriaren arazoa osotasunean hartuko duen esku-hartze baten falta sumatzen da, bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeriari erreparatzen baitzaio nagusiki –bai ematen diren arauetan, bai egiten diren komunikazio-ekintzetan–. Horren ondorioa da, neurri batean, bikotekideek edo bikotekide ohiek eraildako emakumeen heriotzak fokuratzen dituela gizarteak, eta ez diela behar adinako garrantzirik ematen beste indarkeria mota batzuei, hala nola indarkeria sexualari, prostituzioari eta emakumeen salerosketari, emakumeen genitalen mutilazioari, indarkeria instituzionalari, lan-esparruko indarkeriari eta feminizidioei.

Era berean, araugintzan eman diren zenbait urrats barneratu behar ditu gizarteak; esaterako, emakumeen aurkako indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alabak indarkeria horren biktima zuzenak direla aitortu behar du.

Horrez gainera, orain artean eman zaiena baino arreta handiagoa eman behar zaie indarkeria horien sortzaile diren arrazoiei; izan ere, aurre egin behar zaie oinarririk gabeko sineste faltsuei (aurreiritziak eta estereotipoak dira: salaketa faltsuak egiten direla uste izatea, zaintza partekatua inguruko ikuspegiak, gazteek indarkeria-arazorik ez dutela pentsatzea, etab.), eragozpen baitira gizarteak arazoaren aitorpena egin dezan.

Gogoratu behar da emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa behar bezala ezagutu ezean, gizarteak babestu egiten dituela zenbait jarrera matxista eta defentsibo; esaterako, tratatu txarren eragileak aita onak izan daitezkeela pentsatzea.

Estatuan indarkeria matxisten aurka lan egiten duten erakundeen, profesionalen eta gizarte-mugimenduen hausnarketak biltzen ditu “Generando Red” ekimenak egindako diagnostikoak, eta haren barne, gai horixe bera lantzen da: “ez dira sistema patriarkala eta kultura matxista salatzen, indarkeriaren arrazoi estrukturalak eta desoreka orokorreko testuinguruaren kausa direnak, eta emakumeen kolektiboari indarkeria eragiten diotenak, modu eta maila askotan (...) Giza Eskubideen ikuspegi feminista falta da indarkeriei aurre egiteko unean, eta emakumeak eskubide osoko subjektu izatea”⁷⁶.

Era berean, hainbat forotatik salatzen da komunikabideen jarduna; izan ere, estereotipo horiek iraunarazten dituzte komunikabide askok. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko albisteak ematean, gertakarien alderdi morbosoa eta eskandalagarriak nabarmentzen dituzte, baina ez dute horien arrazoiaren gaineko hausnarketarik egiten, eta ez dituzte auzitan jartzen indarkeria horri eusten dioten egiturak.

Bestalde, zenbait azterlanek, emakume biktimen beraiei iritziak jasotzean, adierazten dute emakume horiek gizarte-babes handiagoa eskatzen diotela gizarteari, bai eta, oro har, inplikazio handiagoa izatea ere emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko: “*jendeak ez dezala beste aldera begiratu*”. Gizarteak, oro har, ulerkorragoa izan behar du emakumeek bizi duten egoerarekin; hala, ez da “*emakumea epaitu behar eta ez zaio mesfidantzaz begiratu behar haien kontakizunari*”⁷⁷. Horrenbestez, lortu behar da indarkeria pairatzen duten emakumeek ingurunearen babesa jasotzea, ingurune horrek emakumeen interesak zaintzea, eta, era berean, indarkeria eragiten duten gizonen portaera mespretxatzea.

Indarkeriaren gainean egiten diren sentsibilizazioko eta prebentzioko kanpainen eta komunikabideek gai honen inguruan ematen dituzten albisteek ez dute emakumea errudun gisa azaldu behar, eta gizarteak indarkeria pairatzen edo indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen gainean duen pertzepzioa aldatzen saiatu behar dute. Emakume migratuek, gainera, estigma handiagoa dute, aurreiritzien eta estereotipoen eraginez.

Emakumeak bi aldiz biktima ez izateko eta pairatzen duten estigmari aurre egiteko, ezinbestekoa da haiei biktima soilen “etiketarik” ez jartzea (gizarteak irudi jakinetan du zehaztua nolakoak diren indarkeria pairatzen duten emakumeak; horren ondorioz, auzitan jartzen ditu ahaldundutako emakumeak eta biktimaren estereotipoa betetzen ez dutenak). Emakumeen oneratzeko-prozesutik estereotipoak eta aurreiritziak aldentzeko ahalegina egin behar da, kalte handia egiten baitiote prozesu horri. Komeni da jendartearen pentsamoldean “eskubideak babestearen” ideia indartzea, eta ez “emakumeak babestearena”, eta emakumeak “baliabideen onuradun” gisa ikusi beharrean, “eskubideen subjektu” gisa ikustea.

Premiazkoa da, gainera, argitaratzen diren datuek eta argitaratzen ez direnek errealitatea ezkuta dezaten eragozte; izan ere, emakumezko aditu batzuek salatzen dute ez dela honako gertakari hauen berri handirik ematen: “zigor-arloko epaitegiek erabakitzen dituzten absoluzioak”; “erasoa egin denetik denbora batera gertatutako tratatu txarren ondoriozko heriotzak”; “tratatu txarrak salatu ondoren, zenbat egoeratan geratzen diren emakumeak

⁷⁶ MUGARIK GABE. *Emakume ugari borrokalari: indarrak batuz indarkeria matxisten kontra. Aurrera darraien prozesu batetik ikasten*. Mugarik Gabe, 2015.

⁷⁷ EDE FUNDAZIOA. GIZARTE-IKERKETAKO ZERBITZUA. *La variable edad en la intervención con mujeres víctimas de la violencia de género*. Bilbao, 2011.

babesik gabe”;⁷⁸ ez da indarkeria salatu ondoren berriro erasotuak edo erailak gertatzen diren emakumeen berri ematen; ez da azaltzen zer zaila den eremu pribatuan gertatzen denaren gaineko frogak eskuratzea eta hori dela, eta ez salaketa faltsuak, kasu ugari artxibatzearen arrazoiak; etab. Eta, horrekin batera, salatzen dute elkarte batzuek kontrasalaketak jartzeko aholkuak eta tresnak ematen dizkietela erasotzaileei, baita, banantze-egoeretan seme-alabak baldin badaude, “neurriak aldatzeko demanda” erabiltzekoak ere, emakumeei eraso egin eta pobretzeko.

Emakumeen eta beren seme-alaben aurkako indarkeria modu guztiak ikusarazi behar dira eta sistema patriarkala eta desoreka orokortua salatu behar dira, indarkeria mota horren egiturazko arrazoiak diren aldetik, eta gizarte-eragile guztien, eta batik bat, komunikabideen inplikazioa lortu behar da. Horrez gainera, giza eskubideen urraketaren ikuspegitik handitu behar da indarkeria hori pairatzen duten emakumeei ematen zaien gizarte-babesa, ez daitezen bi aldiz izan biktima.

Informazioa jasotzeko sistemen gaineko hausnarketak...

Txosten honek argi erakutsi du arazo honen izaeraren eta tamainaren gaineko datu zehatz eta fidagarrien gabezia dela emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko politikak egiten behar dituztenek eta alor horretan lan egiten duten profesionalak duten muga nabarmenetako bat.

Europar Batasunak, 1997an, mandatu hau ezarri zien kide dituen estatuei: urtero biltzea, lantzea eta argitaratzea beren lurraldean emakumeen aurka eragiten diren indarkeria modu guztiei buruzko datuak. Horrenbestez, behar adina datu biltzen direla bermatzeko konpromisoa dute, eta horregatik du berebiziko garrantzia gaur egun arlo horretan dauden hutsuneei eta gabeziei erreparatzea.

Oro har, herrialde askoren muga nagusi berak hauteman dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Erakundearteko II. Hitzarmenak, informazio-sistemen taldearen bidez, adierazleak homogeneizatzeko eta kategorietan ezartzeko egin duen lana <http://www.emakunde.euskadi.eus/violencia/-/informacion/coordinacion-cooperacion/>. Hainbat faktoreekin lotzen dira muga horiek:

- Hainbat erakundek egin dituzten txosten eta erregistroetako asko eta asko sektorialak dira. Hau da, arazoaren gaineko datu partzialak biltzen dituzte, eta ez da beti erraza izaten datu partzialak elkartu eta argazki osoa egitea; beraz, zaila izaten da datuak batzea eta estatistikak egiteko erabiltzea.
- Ez dira beti irizpide berak erabiltzen datuak biltzeko, ez dira beti arazoaren gaineko ikuskera berak baliatzen, eta biztanleria-kontzeptu desberdinak erabiltzen dira zenbaitetan (batzuetan, lurralde jakin bateko emakumeak dira erreferentziako biztanleria, beste batzuetan, berriz, adin jakin bat, etab.); horrenbestez, lortzen diren emaitzak ez dira paretsuak eta nekez konpara daitezke.
- Horrez gainera, datuak ez dira behar adinako denboran biltzen, eta ezin izaten dira aldaketak neurtu.
- Ez da beti modu berean jasotzen indarkeria mota bakoitzak emakumeen talde bakoitzarengan duen eraginaren gaineko informazioa, banakatutako datuak falta direlako, batetik, indarkeria pairatzen duten pertsonen datu sozial eta demografikoen gainean, eta bestetik, ez direlako arreta beraz aztertzen emakumeen aurkako indarkeria modu guztiak.
- Nabarmentzekoa da, era berean, erasotzaileen gaineko datu gutxi biltzen direla.

⁷⁸ FALCON, L. eta CAMPOS, O. *Hacer los derechos realidad. Violencia contra la mujer*. Madril: Vindicación Feminista, 2006.

- Ez dira indarkeria mota hori pairatzen duten emakumeen seme-alaba adingabeen gaineko datu nahikorik jasotzen.
- Ez da behar adina informazio biltzen “ziberindarkeriaren” gainean;
- Hobetu egin behar da emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari aurre egiteko programen eta zerbitzuen aurrekontu-horniduren gaineko informazioa eta informazio horren eskuragarritasuna.

Zehazki, gure autonomia-erkidegoan, *Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak* datuen erregistroa hobetzeko helburua hartu du, eta adierazi du komeni dela “terminoen eta kontzeptuen esparru komun bat *indartzea*, jarduera-eremu bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuko dituen, eta, horren ondorioz, arreta-zerbitzuetako profesionalek arazoa ulertzeko erraztasunak izatea eta biltzen den informazioa erakundeen artean konparatzeko modukoa izatea”. Eta, gaineratzen du, “Xede hori betetzeko lanetan, arreta berezia eman behar zaio gizarte-zerbitzuen esparruari (...), eta, berariaz, udal-mailako datuen erregistroa hobetzeko lanari”⁷⁹.

Garrantzia ematen zaio emakume erabiltzaileek zerbitzuak nola erabiltzen dituzten jakiteko datuen erregistroa hobetzeari, emakumeek beraiek eta zerbitzuak ematen dituzten profesionalek zer-nolako satisfazio-maila duten jakiteari, eta normalean ikusten ez diren datuak, hala nola elkarteek egindako lanaren gainekoak, bistaratzeari.

Lehen adierazi dugun moduan, inkestetako datuek abantaila agerikoak dituzte erregistro ofizialen eta salaketen gaineko datuekiko, baina badituzte, era berean, zenbait desabantaila ere; beraz, datuak biltzeko metodo osagarriak direla ulertu behar da, eta ez elkarren baztertzailak. Inkestean gainean, berariaz nabarmendu behar dira autore batzuek proposatu dituzten zenbait gako⁸⁰:

- Lurralde-eremuetako datuen konparagarritasuna handitu behar da, eta, horretarako, datuak biltzeko modu homogeneousak erabili behar dira, adostutako galderak izango dituzten azterlan komunak baliatuta.
- Galdera komun batzuk erabili behar dira aldiro egiten diren inkestetan.
- Modu sistematikoan jaso behar dira emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak estatuko eta nazioarteko estatistika-erakunde ofizialetan (EUROSTAT erakundean, esaterako).
- Lagen esparruak dakartzan arazoak desagerrarazteko, egoera ahulean edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeen kolektiboak barneratu behar dira inkestetan.
- Galderak eta galdetzeko moduak hobetu behar dira.
- Gizarte-bazterketaren analisia barneratu behar dira galderetan.
- Estatistika banakatuak landu behar dira, arazoaren eragina hobeto aztertzeko, maila sozial eta ekonomikoen arabera eta beste aldagai batzuen arabera.

Berariaz ohartarazi behar da aldiroko estatistika-eragiketa nagusiek ez dutela biztanleriak emakumeen aurkako indarkeriaren gainean duen pertzepzioari buruzko daturik biltzen. Egia da gaia lantzeko saio adierazgarriak gure egin direla autonomia-erkidegoan, baina, oraindik, lan egin behar da EAEko *gizarteak* emakumeen aurkako indarkeriaren gainean duen *pertzepzioaren bilakaerari buruzko datu nahikoak* biltzen direla bermatzeko.

⁷⁹ BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA. *II Txostena Bizkaiko Lurralde Historiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Gaineko Erakundearen Jokabideari Buruzko Gomendioak eta Hobetzeko Proposamenak*. 2013.

⁸⁰ DÍAZ- AGUADO, M.J. *Guía de buenas prácticas para paliar los efectos de la violencia contra las mujeres y conseguir su erradicación*. Santiago de Compostela: Europar Batasuneko Lehendakaritza.

Bestalde, eta lehen adierazi dugun moduan, definizioak, eta, besteak beste, datuak biltzeko irizpideak askotarikoak direnez, alde handiak izaten dira iturriek argitaratzen dituzten datuen artean eta datuak ez dira behar bezainbeste zehazten zabaltzen diren txostenetan; ondorioz, kaltetu egiten da herritarrek datuen fidagarritasunaren gainean duten pertzepzioa, eta horrek, azken buruan, datuak zalantzan jartzea eragin dezake. Horrenbestez, arreta handiz egin behar dira datuak zabaltzeko eta komunikatzeko ekintzak.

Azkenik, funtsezkoa da, indarkeriaren eraginari eta prebalentziari buruzko datuak biltzeaz gain, mekanismo gardenak ezartzea EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren aurka egiteko dauden neurri juridikoen, ematen diren zerbitzuen eta baliatzen diren prebentzio-estrategien jarraipena egiteko eta horien guztien aplikazioa ikuskatzeko, eragin- eta ebaluazio-adierazle egokien bidez. Gaur egun, diagnostiko-informazioa falta dela esan daiteke, bai eman diren erantzunen eta hartu diren neurrien ebaluazioaren gainekoa (prebentzioaren eta arretaren alorretan), bai erantzun eta neurri horien ondorioak eta eraginkortasuna zehaztekoa. Hori da nazioarteko erakundeak gomendatzen ari direna.

Alde horretatik, azpimarratzekoa da Europako Emakumeen Lobbyak⁸¹ egindako proposamena; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean egiten diren politikak (bai publikoak, gobernuak proposatu eta ekintza-planetan zehaztutakoak, bai GKEk egiten dituztenak) ebaluatzeko sortu zen lobby hori. Helburu hori lortzeko, arazoaren hainbat alderdiren (jardura politikoen, arauen, hezkuntzaren eta bestelako alderdien) gaineko adierazleak proposatu dira, Emakumeen aurkako Indarkeria modu guztiak Desagerrarazteko Hitzarmenak (CEDAW) proposatzen dituen adierazleetan oinarrituta.

Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko datuen erregistroak (erakunde publikoek eta entitate pribatuak erabiltzen dituzten definizioak, irizpideak, bilketa-aldizkakotasuna eta bestelako alderdiak) koordinatzeko urratsak eman behar dira, horien batura egin eta arazoak EAEn erakusten duen erradiografia estatistiko irakurgarria osatzeko, eta lurraldeen arteko datuen konparagarritasuna bermatzeko. Era berean, handitu egin behar da indarkeria hori pairatzen duten emakumeen seme-alaba adingabeen gaineko informazio-bilketa, zehaztu egin behar dira emakumeen eta erasotzaileen ezaugarri sozial eta demografikoak, eta ebaluatu egin behar dira ematen diren erantzunak.

Prebentzioaren gainekoak...

Desberdintasunaren bilakaera moduan adieraz daiteke indarkeria, haren muturreko sintoma moduan; horrenbestez, hainbat eragilek adierazten dute gizarte-aldaketa bat, sistema sozialaren balioen aldaketa, dela prebentzio eraginkor baten oinarria, berdintasunezko eredu baten bidea egiteko. Informazioa eta orientazioa emateaz gain, kontzientziak piztu eta aldatu behar dira.

Lehen adierazi den moduan, funtsezkoa da sentsibilizazioko eta prebentzioko programen eta ekimenen diskurtsoek zorrotasunez eta argi eta garbi lantzea indarkeriaren kausak, egiazko transformazio- eta aldaketa-prozesuak sortzeko. Era berean, gaur egungoak baino zabalagoak izan behar dute etorkizuneko ekintzek, herritarrari ez baitaio, itxura batean, “emakumeen aurkako indarkeria” terminoaren atzean zer errealtate konplexua dagoen ulertarazi; hori

⁸¹ www.observatorioviolencia.org

horrela, ezkutuan geratzen dira indarkeria modu batzuk, hala nola sexu-indarkeria, emakumeen genitalen mutilazioa, indarkeria sinbolikoa, prostituzioa...

Horrez gainera, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko estrategia sendo batek osoa eta epe luzekoa izan behar du; alde horretatik, ekarpen egokia da III. Ardatzak *emakumeen kontrako indarkeria desagertzea* lan lerro propioa (7. Programa: sentzibilizazioa eta prebentzioa) izatea VI. planak, baina birpentsatu egin behar dira egun epe laburregia edo zeharkakotasun nahikorik ez duten esku-hartze edo interbentzioak.

Hezkidetzak tresna giltzarria izan behar du prebentzioaren alorrean, hezkuntza-metodo horrek sexuen arteko berdintasuna eta sexu-arrazoiagatiko diskriminaziorik eza baititu abiapuntu. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planak⁸² adierazten duen moduan, "eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetu".

Hezkidetzan hezteko, pertsonen balio-berdintasunetik hezi behar da, neskatoen eta mutikoen potentzialtasuna eta banakotasuna aitortzetik abiatuta, haien sexuari begiratu gabe. Hezkuntzaren lehen etapetatik hasita, jarrera ez-diskriminatzaileak indartzen ditu prozesu horrek. "Hezkuntza-ikuspegi horren helburua genero-desberdintasunak etengabe desagertzea baita, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere. Gizonezkoen kulturaren eta emakumezkoen kulturaren alde positiboak berreskuratu nahi dira, eta era dikotomikoan genero bakar bati lotuta ez dauden jokabide-erreferente bihurtu, neska eta mutilen giza garapena bultzatzeko eta identitate pertsonala duten subjektuak direla onartzeko, estereotipoak alde batera utzita. Hezkuntza-planteamendu hori funtsezkoa da genero-indarkeriari heltzerakoan".

Azken urteetan aurrerapen handiak egin dira, baina ez da ahaztu behar Planak adierazten duen hau: "ikerketek erakusten digute nesken eta mutilen arteko harremanek asimetrikoak izaten jarraitzen dutela, eta egoera asko abusuan oinarrituta daudela; gaitasunak, trebetasunak eta bizitza-proiektuak generoarekin loturik daude oraindik; curriculum-edukietan, emakumeen ekarpenak ez dira ikusten, eta sexismoa eta genero-indarkeria nerabeen eta gazteen bizitzan garapenean eragiten ari diren errealitateak dira". Hori horrela, gure autonomia-erkidegoaren erronketako bat da egungo eskola mistotik abiatu eta transformazio bat egitea, "hezkidetzako eskolaren eredia erdietsi eta genero-ikuspegia txertatzeko ikastetxeen kulturen eta jardunbidean, planteamendu oso batetik".

Alderdi hauek landu behar dira berariaz:

- Profesionalei berdintasunaren alorrean jarduteko eta indarkerien aurka egiteko prestakuntza, hastapenekoa eta etengabekoa, emateko planak sustatzea.
- Guraso-elkarteekin lan egitea, familiengana iritsi eta haiek hezkidetzan inplikatzeko.
- Curriculumeko edukiak berraztertzea, genero-ikuspegia aintzat hartuz.
- Estereotipo sexistarik eta hizkuntza baztertzailek gabeko testuliburuak eta material didaktikoen aukeraketa bultzatzea.

⁸² EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. *Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2013.

- Sexu-aniztasunean eta emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako bizikidetzeta eta harreman afektibo-sexualak izateko hezteak.
- Indarkeria-kasuak goiz hautematea eta biktimei arreta eraginkorra ematea, hezkuntza-komunitate osoaren inplikazio handia bilatuz.
- Espazioen erabileran, genero-analisia barneratzea.

Hezkuntza formalaren alorrean zenbait ekimenen bidez egiten den lana funtsezkoa da prebentzioaren alorrean, baina ikuspegi osoagoa hartuko baldin bada, ahalegin handiagoa egin behar da EAEen hezkuntza ez formaleko beste espazio batzuen inplikazioa lortzeko, herritarrek ez ditzaten, ahal den neurrian, mezu kontraesankorrik jaso.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia⁸³ zenbait orientabide bildu ditu, emakumeak eta haien erakundeak ahalduzkoak deia egiten dutenak, gizartearen aldaketa bizkortzeko: “Aldaketa hori egiteko, funtsezkoak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak eta, neurriak hartzen direnean, emakumeen ahalduzkoa mesedetzen duten ikuspegiak hartzea, haien partaidetza soziala eta politikoa handitzeko (...) Elkartzeko dinamikak sustatu eta indartu behar dira asmo hori bermatzeko, eta erakundeen laguntza behar da, baliabideak jartzea, parte-hartzeko bideak prestatzea eta balioa ematea emakumeen elkartearen ekarpenei eta jakintzari”. Zentzuzkoa da, ildo horretatik, indarrean diren programei eustea eta indartzea.

Horrekin batera, lan ugari adierazten dute emakumeen aurkako indarkeriari irtenbidea emateko estrategia egokiak emakumeen ekintzarako eta partaidetzarako gaitasunak sustatu behar dituztela eta emakumeen elkartearen eta gizarte zibileko beste eragile batzuen arteko harremanak indartu behar dituztela; izan ere, elkarte horiek proiektu eta programa berritzaileak abiarazi dituzte, bai prebentzioaren alorrean, bai esku hartzearen edo interbentzioaren alorrean, eta horiek aintzat hartzea komeni da egin asmo diren hobekuntzak lantzean.

Lehenago adierazitako ebaluazio falta edo gabezia hori are nabarmenagoa da prebentzio-programen kasuan. Kontuan izan behar da bildu diren datuetako batzuek agerian uzten dutela ez datozela bat, batetik, gazteek hitzen bidez indarkeria mota horrekiko adierazten duten arbuioa eta, bestetik, gazteek dituzten jarrerak eta egiten dituzten ekintzak; hori horrela, ezinbestean eta sakontasunez aztertu behar dira gazteen artean inplementatzen diren programen edukiak eta metodologiak, argitzeko programa horien zer alderdi ez diren funtzionatzen ari. Hala ere, oso kontuan izan behar da emaitzak ikusteko presa izanez gero, zaila izan daitekeela arazoaren ezaugarriekin koherentea izango den ebaluazio bat egitea.

Bestalde, nabarmentzekoa da prebentzioaren eta arretaren arteko lotura. Prebentzioaren alorrean lan egiteko moduetako bat da indarkeria pairatzen duten emakumeekin esku-hartze edo interbentzio zuzenak egitea, eta, ondorioz, egokia da bi alor horiek lotzea. Arreta, beraz, prebentzio modu bat dela uler daiteke, baldin eta emakume horiek sentsibilizaziorako eragile izaten baldin badira. Alde horretatik, esku-hartze zuzeneko zerbitzuetan eta programetan lan egiten duten profesionalen prestakuntzaren eta espezializazioaren egokitzapen-mailari begiratu behar zaio, lotura hori egitea posible dela bermatzeko.

Azkenik, gizarte-eragileek prebentzioaren alorrean duten ardurari erreparatuta, nabarmentzekoa da komunikabideei sarri egozten zaiela indarkeria matxistaren konplizeak izatea, etengabe transmititzen dituztelako gizonen eta emakumeen arteko

⁸³ BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Gaiak Erakundearen Jokabideari buruzko Gomendioak eta hobetzeko proposamenak, II. txostena*. 2013.

desberdintasunak edo desorekak iraunarazten dituzten generoko rolak eta estereotipoak –eta ez, soilik eta berariaz, emakumeen aurkako indarkeriaz diharduten informazioak–. Emakumeei egiten zaien diskriminazioan konplize izateari utziko baldin badiote –hori da, izan ere, emakumeen aurkako indarkeriaren oinarria–, beren profesionalen prestakuntza sustatu behar dute komunikabideek. Komunikabideetako profesionalen prestakuntza hobetzen baldin bada, hobetu egingo da emakumeen aurkako indarkeriaren berri ematen duen informazioaren tratamendua (estereotipoak, errua emakumeei egozte, indarkeria justifikatzea, sentsazionalismoa, etab.). Begira Komisioaren lan-ildoari jarraitu behar zaio, informazio-eredu zaharkituak eta sexistan aldatzen laguntzeko.

Prebentzio-estrategiak arazoaren ikuspegi orokorra izan behar du, indarkeriaren arrazoiengan eragin behar du, eta izaera integrala izan behar du, epe luzean. Hezkidetzak funtsezko bitartekoa da, eta hezkidetzaren bidean inplikatu behar dira bai irakasleak, bai familiak, bai hezkuntza ez-formaleko eragileak. Emakumeen elkarteak lana sustatzea eta haiekiko elkarlana indartzea jardunbide egokia da arazoari gero eta erantzun hobeak emateko. Zenbat eta hobeagoa izan prebentzio-programen ebaluazioa, orduan eta errazagoa izango da programa horien efikazia handitzeko gako erabilgarriak identifikatzea. Interbentzioak edo esku-hartzeak berak prebentzioaren alorrean ematen dituen aukerei erreparatu behar zaie.

Legediaren gainekoak...

Urrats handiak eman dira arauak eta xedapenak egin eta onartzeko bidean. Oro har, indarkeriari buruzko araudi espezifikoak emateko urratsak egin dira estatuan, autonomia-erkidegoetan eta udaletan; hala ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria soilik arautzen dute araudi horietako askok.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurka Babes Osoa ematekoa, da horren adibide, Europak jardunbide egokiko araua zela aitortu zuen arren, lege partziala izatea baita bere gabezia nabarmenetako bat, zer indarkeria motari erreparatzen dion begiratura.

Legea onartu zenetik 10 urte baino gehiago igaro dira, baina oztopoak daude oraindik hura betetzeko. Aditu askok irizten du lege hori onartu ondorengo arau-garapena ez dela egokia izan, aurrekontu-hornidura ez delako behar bestekoa izan. Horixe bera gertatu da beste arau batzuekin, hau da, asmo-adierazpen hutsean geratu dira eman diren arauetako asko.

Indarkeria “etxean” pairatzen duten emakumeen eta sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeen eskubideak arautzen ditu 4/2005 Legearen VII. kapituluak; horrela, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrutik kanpora zabaltzen ditu eskubideak. Hala ere, egiaz eraginkorrak izateko, garapen handiagoa behar dute xedapen horietako batzuek.

Aurrekontuen urritasunaz gain, legea betetzeko oztopo nabarmenak dira legea bete behar dituzten langileek ez dutela behar adinako prestakuntzarik, eta ez dela haren eraginaren jarraipenik eta ebaluaziorik egiten. Zenbaitetan, gainera, indarrean dauden arauak betetzeko mugak dakartzate arauak darabiltzaten ikuspegi desberdinek (adingabekoak, zaintza partekatua, emakumeen aurkako indarkeria, etab.), eta mugatzailea da, era berean, behar besteko koordinaziorik ez izatea zenbait lurralde-eremutako administrazioen sailen artean.

Autonomia-erkidego batzuetan, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, beste batzuetan baino urrats gehiago eman dira eta baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea lortu da, baina, oro har, indarreko arauak eskatzen dituzten betekizunek laguntza-ikuspegia dute, eta ez dira arretaren beraren eta arazoaren ezaugarri bereizgarrien arteko koherentzia ziurtatzeko bezain malguak.

Giza eskubideen beste urraketa batzuekin ez bezala, emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan ez dira behar bezala bermatzen erreparazioa jasotzeko eskubidearen funtsezko lau elementuak: kalte-ordaina, errehabilitazioa edo oneratzeko osoa, berriro ez gertatzearen bermeak eta ordaina edo egiaren zabaltzea.

Eman berri diren bi arauk aldatu egin dute haurrak eta nerabeak babesteko sistema (8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa, eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa), eta zenbait berrikuntza interesgarri barneratu dituzte sisteman. Besteak beste, adingabeak genero-indarkeriaren biktima zuzenak direla aitortu da, “adingabearen interes gorena” kontzeptuaren edukia argitu da, eta adituak eta entzunak izateko eskubidea aitortu zaie adingabeei.

Laburbilduz, arau berriak argitu egin dituzte lehendik araututa zeuden zenbait betebeharrak eta emakumearen eta seme-alaben arteko harremanaren iraupenaren alde egiten dute, babesaren printzipio zuzentzaile izateko. Berebiziko garrantzia du horrek, amen ahalduz indartzen baita, eta ondorioz, seme-alaben ongizatea.

Araudi berriak ez ditu modu automatikoan eteten guraso-agintea, zaintza, bisita-erregimena eta bestelako alderdiak, epailea izango baita, lehen gertatzen zen moduan, horiek etengo diren ala ez erabakiko duena, baina, hemendik aurrera, berariaz hartu behar ditu adingabeen segurtasuna bermatzeko neurrien gaineko erabakiak. Arauen eraginkortasunaren baldintza izango dira, beraz, genero-indarkeriaren egiaztapena eta epaileak egindako balorazioa.

Hori horrela izanda ere, zenbait adituk uste du tentuz hartzeko aldaketa dela, harik eta ziurtatzen den arte arau berriak aldaketa nabarmen bat dakarkiotela arazo horren eragina pairatzen duten adingabeen babesari. Tentuz ibiltzeko arrazoiak daude, aurreko araudiaren arazo nagusia arauaren interpretazioan eta aplikazio praktikoan zetzalako, hain justu: “hura gauzatu behar duten eragile juridikoen prestakuntza eta espezializazio falta eta emakumeen eta adingabeen eskubidea bermatzea”.⁸⁴

Aldaketek bide hori jorratzen ez baldin badute, pentsatzekoa da egungo araudiak orain arteko eragozpen berdinak gainditu beharko dituela, hala nola:

- Delitu mota horien gaineko probak lortzeko izaten diren zailtasunak (salaketa jarri ondoren, ez da beti indarkeria egiaztatzea lortzen) eta biktimek izaten dituzten zalantzak salaketei denboran eusteko (hitz egin da horri buruz aurreko kapituluetan).
- Indarkeria mota hori pairatzen duten emakume batzuek ez salatzeko erabakia hartzea.
- Oraindik imaginario edo iruditeria kolektiboan irautea erasotzailea aita ona izan daitekeenaren ideiak, horrek azaltzen baitu zergatik izaten dituen botere judizialak, zenbaitetan, zaintza eteteko erreparatuak.

⁸⁴ TORRES, M.C., “*Menores expuestos a la violencia de género: ¿qué hay de nuevo tras las últimas reformas legislativas? Luces y sombras*”, in Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren buletina, 38. zk., 2015eko iraila. Hemen kontsulta daiteke: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt38/ca_temas.html

- Adingabekoen manipulazioa eta erabilera instrumentala (horrek, era berean, indarkeria pairatzen duten emakumeen biktimizazioa eragiten du, ezin izaten baitute behin betiko eten aita erasotzailearekiko harremana).

Legedia garatzeko lan handia egin da, baina eragozpenak daude oraindik ere arauak betetzeko, eragile juridikoek ez baitute behar besteko prestakuntzarik eta espezializaziorik. Aurrekontuek behar besteko hornidurarik ez izateak ere mugatu egiten du baliabideen mantentze egokia eta ez du behar bezala bermatzen emakumeen aurkako indarkeriaren biktimek erreparaziorako duten eskubidea.

Laguntzaren gaineak...

Arretaren alorrean zer hobekuntza egin behar diren zehaztean, sail batzuetan sailka daitezke hobetu beharreko arreta-alderdiak:

1. BALIABIDEAK IZATEA:

Eskura dauden datuei erreparatuta, ez dirudi azken urteetako krisi-testuinguruak zuzenean edo modu nabarmenean erasan dionik EAEn gai-alor honetara bideratzen diren baliabide publikoen kantitateari, eta hor bada alderik beste autonomia-erkidego batzuekiko, zenbait erkidegotan nabarmen urritu baita biktimei informazioa eta arreta emateko eta haien errekupeziara bideratzeko baliabideen sareak.⁸⁵ Hala ere, pentsatzekoa da artatu beharreko gizarte-premien handitzeak eraginen bat izan zezakeela lehendik zeuden zerbitzu batzuek emandako arretaren zabaleran, intentsitatean eta/edo kalitatean, eta mugatu egin zitzakeela zerbitzu berrien agerpena. Horrez gainera, prestazio ekonomikoen gainean, ohartu behar da, lehen ikusi den moduan, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei emandako laguntzen guztirako diru-zenbatekoak %11 egin duela behera 2014. urtean, aurreko urtearekiko.

Inportantea da arreta osoa, doakoa, eskuragarria, berehalakoa eta emakumeak bizi izan duen indarkeria-egoerara egokitutakoa bermatzea sexu-indarkeriaren biktimei eta gainerako emakume biktimei. Izan ere, nabarmentzekoa da igo egin dela, azken urteetan, indarkeria sexualeko egoeren kopurua, baina ez dela igoera horri erantzungo dion zerbitzu edo programa berariazko abiatu. Era berean, beren amen aurka eragiten den indarkeriaren biktima diren adingabeen berariazko beharrianak artatzen dituzten baliabideak eta programak egokitzea sustatu behar da, ematen den arreta koordinatzeko, eta inondik ere makaldu gabe emakumeak abiatu duen indartze-prozesua.

Arreta hori bermatzeko, baliabide egokiak izan behar dira, eskuragarriak eta langileen, aurrekontuen, dedikazioen, kualifikazioen, protokoloen eta gainerako alderdien errealitate eta beharrian askotarikoei egokitutakoak.

Bestalde, azterlan batzuek adierazten dute debate bat egin beharko litzatekeela erabakitzeke ea egokia ote den kalteberatasun edo ahulezia sozialeko irizpideak erabiltzea gizarte-babeseko baliabide eta laguntzetara iristeko, eta ez beste sistema batzuei dagozkien irizpide edo baldintzak (esaterako, biktima-izaeraren egiaztatzea edo salaketa, sistema judizialari dagozkionak), azken horiek eragotzi egin baitezakete zenbait emakumek baliabide horietara iristea. Bestela esanda, baliabideetara iristeko baldintzak malgutzea eta emakume guztiak

⁸⁵ CEDAW. *Informe Sombra 2008-2013 sobre la aplicación en España de la convención para la eliminación de toda forma de discriminación contra las mujeres* (CEDAW). CEDAW Sombra España plataforma, 2014.

horietara iritsiko direla bermatzea da asmoa, indarkeria pairatutako emakumeak bere bikotekidearekiko hartzen duten erabakia edozein dela ere (harremana etetea edo ez etetea, salaketa jartzea edo ez jartzea, etab.). Horrela, emakumeen premietara doitu nahi dira baliabideak, eta ez alderantziz. Salaketak ez instrumentalizatzea da beste helburu bat (ohartu behar da salaketak, gaur egun, arreta baldintzatzen duela zenbait kasutan).

Irisgarritasuna handitzeko –maiz, ez dute jakiten zer baliabide eta zerbitzu dauden eta nola funtzionatzen duten–, inportantea da, era berean, baliabide mota horien berri ematea. Ziurtatu behar da aldiro eguneratzen direla emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako baliabideen mapak, eta mapa horietan adierazten direla bai izaera publikoa duten baliabideak, bai sektore pribatuak sustatzen dituen baliabideak eta laguntzak. Horrez gainera, baliabideen berri emateko ekintzek ez dute ahortzi behar hizkuntza ulertzeko zailtasunek oztopatu egiten dutela emakume atzerritarrak baliabideetara iristea.

Azkenik, nabarmentzekoa da azterlan batzuen protagonista izan diren emakumeek beraiek eskatu dutela sistemaren funtzionamendua arintzea. Azpimarratzen dute garrantzitsua dela egun dauden administrazio-tramiteak laburtzea eta arreta-baliabideek arreta azkarragoa emango dutela bermatzea; izan ere, tratu txarrak pairatu dituzten emakumeek krisi-egoeran eskatzen dute laguntza, eta berehalako erantzunik ematen ez baldin bada, emakumeak berriro pentsa dezake laguntza-eskaera horren egokitasuna edo gertatutakoak horrenbesteko larritasunik ez duela sinetsaraz diezaioke erasotzaileak: *“oso azkar eman behar dira hitzorduak, bestela pentsatu egiten duzu eta, agian, ez zara joaten. Asko kostata hartzen da erabakia, eta inportantea da sareak azkar erantzutea, krisi-egoeran baitago norbera”*⁸⁶.

2. BALIABIDEEN NOLAKOA:

Baliabideen eskaintza zehazteko, biktimen beharrianak jakin behar dira lehendabizi, eta eskaintza horrek ase egin behar ditu zaurgarritasun- edo kalteberatasun-egoera bereziko emakumeen premiak.

Alde horretatik, argitaratu berri diren hobekuntza-gomendio batzuek orain hamar urteko txostenek ohartzen zituzten beharrianak edo premiak adierazten dituzte (esaterako, horri buruz hausnartzea proposatzen zuen Arartekoak 2003an egindako txosten batek⁸⁷). Oraindik hausnartzeko eta aztertze dago zergatik emakume-profil batzuk ez diren arreta-sarera iristen: emakume ijitoak, emakume gazteak, adineko emakumeak, emakume immigranteak, egoera irregularrean dauden emakumeak, prostituzioan diharduten emakumeak eta bestelako arazoak dituzten emakumeak, hala nola desgaitasunak, buruko gaixotasunak eta toxikomaniak.

Eta, oraindik ere, laguntza-programak egitean, emakumeen egoera zaurgarrien profilei begiratu behar zaie, interbentzioak edo esku-hartzeak erabakitzeko faktoreen presentziari erreparatuta (desgaitasuna, buruko gaixotasuna, toxikomania, etab.), erabilgarri dauden baliabideak ez baitaude arazo gehigarri edo erantsiak dituzten emakumeentzat prestatuak (esaterako, tratu txarren biktima diren emakumei arreta emateko sarearen egoitza-zerbitzuetatik kanporatzeko arrazoia da substantziak kontsumitzea).

Gizarte-arazoak gainjartzen direnean, hau da, tratu txarrak, substantzien kontsumoa edo buruko gaitzak pilatzen direnean, berrelikatu egiten dira arazoak, diskriminazio anizkoitza eragiten dute eta asko zailtzen dira esku-hartze edo interbentzioak. Ezkutuan bizi direnez, zaila

⁸⁶ EDE FUNDAZIOA. GIZARTE-IKERKETAKO ZERBITZUA. *La variable edad en la intervención con mujeres víctimas de la violencia de género*. Bilbao, 2011.

⁸⁷ ARARTEKOA. *Erantzun instituzionala EAE emakumeen aurkako indarkeriari. Txosten berezia Eusko Legebiltzarrari*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003ko abendua.

da emakume horiek identifikatzea eta kuantifikatzea, baina aztertu egin behar da gai hori, baliabide espezializatueterako sarbidea izan dezaten.

Bestalde, emakume profesional batzuek uste dute bereziki sakondu behar dela emakume gazteek pairatzen dituzten tratu txarren bizipenetan, honako alderdi hauen berri izateko: nola hautematen duten indarkeria, zergatik den txikiagoa haien presentzia baliabideetan, berdintasunaren diskurtsoak erasoen pertzepzioan nola eragiten duen, etab.

Baliabide egokiak prestatuko baldin badira edo daudenak egokituko baldin badira, horien ebaluazio parte-hartzailea egin behar da, zerbitzuen eta programen emakume erabiltzaileekin. Era berean, emakume horien eskubideen erabilera bermatu behar denez, komeni da emakume horiek buru-belarri parte hartzea eskaintzen diren zerbitzuen kalitate-estandarrik identifikatzeko lanetan.

Baliabide espezializatuen emakume erabiltzaileen beraien proposamenak jaso dituzte zenbait azterlanek, eta adierazi dute konfiantza-espazioak sortzea komeni dela, konfiantza-espazioak sortzeko eta beste emakume batzuekin elkartzeko prestatu behar direla baliabideak. Ahal den neurrian, esku-hartzeetako espazio fisiko atsegin eta erosoak prestatu behar dira, emakumeek konfiantza eta babesa senti dezaten.

3. BIKTIMAK HARTZEN DITUZTEN PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA ETA ESPEZIALIZAZIO-MAILA:

Indarkeria pairatzen duten emakumeak identifikatzeko helburua finkatu ondoren, xede hori lortuko bada, lehen arretako profesionalen partaidetza bilatu behar da osasunaren alorrean, hezkuntzaren esparruan eta beste hainbat eremutan (profesional horiek leku egokian daude lehen identifikatze- eta detektatze-lanak egiteko).

Era berean, indarkeria hori pairatzen duten seme-alabak identifikatu nahi dira; izan ere, lehen azaldu dugun moduan, indarkeria horren biktima zuzenak dira. Horrenbestez, indarkeria-egoera horiek identifikatzeko urratsak eman behar dira, identifikatzen ez baldin badira, eta ondorioz, esku hartzen ez baldin bada, ezkutuan jarraituko dute babesgabe dauden egoerak eta handitu egingo da indarkeriaren biktima diren neskato eta mutiko horien diskriminazio-prozesua, beren abiapuntuko egoera desabantailakoa baita gainerako haurrekiko.

Gogoratu behar da, alde horretatik, are ezkutukoagoa dela zaintzaren beharrean eta mendeko egoeran dauden emakumeen aurka (degaitasunak, gaixotasunak edo antzeko egoerak bizi dituzten emakumeen aurka) erabiltzen den indarkeria, oso indarkeria modu sotilak erabil baitaitezke haien aurka (zaintza-premiak ez asetzea, jaten ez ematea, edaten ez ematea, etab.). Komeni da pertsona horiei eragiten zaizkien tratu txarren gaineko prestakuntza ematea profesionalei, baita gerta daitezkeen indarkeria-egoerak behar bezala kudeatzeko eta ondo hartzen jakiteko behar diren komunikazio-trebetasunen gaineko prestakuntza ere.

Sexu-indarkeriako egoerak behar bezala ez ikusaraztearen eta identifikatzearren arrazoietakoa bat izan daiteke profesionalak ez izatea berriazko prestakuntzarik alor jakin horietan.

Garrantzitsua da ematen den arretaren xedea, oro har, emakumeak ahalduntzea izatea, eta lan hori genero-ikuspegitik egitea. Lan hori egiteko, ezinbestekoa da prestakuntza, hasierakoa eta etengabekoa, lehenestea, eta prestakuntza-bidean jartzea sektore guztietako profesionalak (sektore sozialekoak, polizialekoak, judizialekoak, osasungintzakoak, hezkuntzakoak eta gainerako sektoreetakoak).

Pertsona aditu batzuek adierazten dute profesional askoren prestakuntzak gehiegi lantzen dituztela prozedurazko alderdiak eta alderdi teknikoak, eta prestakuntza mota horrek ez diola askorik erreparatzen kritikaren alderdiari; horrenbestez, esan daiteke testuinguru teorikorik gabeko esku-hartzeak egiten dituztela profesional horiek. “Oztopo ugari antzematen da profesionalen prestakuntzan, ez baitira esparru teorikoari eta kontzeptuei buruzko ezagutzak eskatzen; esku-hartzeak egiteko tresnak eskatzen dira, baina ez dute ulertzen esparru kontzeptual hori dela, hain justu, esku-hartzeetarako bitartekoa”⁸⁸.

Txosten batzuek adierazten dute, era berean, baliabideak ez daudela behar beste egokিতa desgaitasunak dituzten emakumeen berariazko beharrianetara, langileek ez dutelako prestakuntza egokirik eta ez dakitelako emakume horiek zer beharrian eta berezitasun dituzten.

Gaitasunaren esparruan, berariaz erreparatu behar zaie lehiaketa publikoen bidez arreta espezializatuko zerbitzuak kontratatzeiko baldintzei eta esleipen-irizpideei, entitate esleipendunek behar adinako eskarmentua dutela eta behar diren gainerako baldintzak betetzen dituela bermatzeko. Funtsezkoa da, era berean, zer arreta-eredu erabili nahi den zehaztea, horrek erabakitzen baitu nola ulertuko den indarkeria eta zer-nolako harremanak landuko diren indarkeria pairatu duten emakumeekin.

4. INDARREAN DIREN ZERBITZUEN ETA PROGRAMEN ARTEKO KOORDINAZIOA:

Aurrerapen handiak egin dira erakundeen arteko koordinazioa estutzeko, ados daude horrekin bai erakundeak, bai eragileak; hala ere, argitaratzen diren memoriek eta txostenek diote badela zer hobeturik. Egituraketa eta koordinazioa indartzen jarraitu behar da (esaterako, foru-aldundien Biktimei Laguntzeko Zerbitzuaren, Etxebideren, Lanbideren eta gainerako erakundeen artekoa), sare-lana sendotu eta biktimei egiten zaien harreraren denborak eta kalitatea hobetzeko.

Interbentzio-esparru bakartuekin amaitzea komeni da, emakumeek eragozpenik izan ez dezaten beste baliabide batzuetara joateko. Hobetu beharreko alderdi hauek nabarmentzen dira:

- Hobetu egin behar da emakumeak igorpenerako txosten idatzien bidez beste baliabide batzuetara bideratzen dituztenean ematen den laguntza; izan ere, bigarren mailako berbiktimizazioak gerta daitezke, baldin eta emakumeak hura hartzen duten zerbitzu guztietan eman behar baldin badu pairatu duenaren berri.
- Koordinaziorako II Akordioa (Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobia egiteko erakundeen arteko II akordio) izenpetu duten erakundeen (Hezkuntzaren, Ertzaintzaren, Osakidetzaren, epaitegien eta gainerako erakundeen) arteko koordinazioa sistematizatu behar da, koordinazio hori beharrian edo eskaera jakinen araberako ekintzetara mugatu gabe.

5. GIZARTE-LAGUNTZA:

Hainbat azterlanek adierazten dute esku-hartzeek ez dutela emakumeak berbiktimizatu behar. Alor horretan, erabakigarriak dira emakumeak hartzen dituzten profesionalen prestakuntza eta emandako arreta espezializatuaren ikuspegia. Berariaz bermatu behar da, garrantzi handikoa baita, arreta-sare guztiko profesionalek beraiek ez leporatzea emakumeei indarkeria gertatu

⁸⁸ MUGARIK GABE. *Emakume ugari borrokalaria: indarrak batuz indarkeria matxisten kontra. Aurrera darraien prozesu batetik ikasten*. Mugarik Gabe, 2015.

izanaren errua edo erantzukizuna, emakumeek hartutako erabakiak ez zalantzan jartzea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko jarrera anibalenterik ez izatea. Horrez gainera, aintzat hartu behar dira emakumeen interesak, eta lehentasuna eman behar zaio haien indartzeari. Alde horretatik, berebiziko garrantzia du emakumeen aurkako indarkeria ez nahastea indarkeria orokorrarekin (arreta handia izan behar da horrekin topagune edo elkarguneetan, epaitegietan, poliziaaren arreta-lekuetan eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetan).

Emakume askoren egoeran esku hartzen hastean, ezinbestekoa izaten da lehentasunez asetzea oinarrizko beharrian jakin batzuk, baina lehentasun horrek ez ditu esku-hartzearen beste alderdi batzuk zokoratu behar. Horren harian, gogoratu behar da, lehen adierazi dugun moduan, arretaren eta prebentzioaren arteko lotura. Arretaren eta prebentzioaren arteko uztardura handitzeko, arretaren esparruak lehentasuna eman behar dio hausnarketari eta ikaskuntzari (arazoak jabetzearen ikuspegitik, betiere), eta eskubideen subjektu gisa begiratu behar die emakumeei, “oneratu eta aurrera egin dezaketen pertsona moduan; arretaren eta errehabilitazioaren bitarteko prozesua jardun politikoa dela pentsatuta, eragin politikoa duela, politika egiten ari zarela, zure harreman modua politikoa delako”.⁸⁹

Emakume profesional batzuek adierazten dute, era berean, ezaugarri eta adin guztietako emakumeen berariazko beharrianetara egokitu behar direla esku-hartze sozial eta psikologikorako eta hezkuntza-interbentziorako tresnak eta dinamikak, eta horrela, arreta banakatuaren alde egin behar dela. Esate baterako, adin handiko emakume batzuek egoera bereziak bizi dituzte, erlijio-sinesmen handikoak direlako, komunikatzeko zailtasunak edo osasun-arazoak dituztelako, erasotzailearekiko mendetasun ekonomiko handia dutelako, testuinguru zurrunetan sozializatzen direlako, denboraldi luzeak bakarrik ematen dituztelako, edo, besteak beste, tratatu txarren ibilbide luzea dutelako. Emakume horiekin lan egiteko, aisialdiko eta denbora libreko eremu babestuetan bultzatu behar da autoafirmazioa eta ahalduzkoa; betiere, komunikazioa eta harremanak sustatzeko.

Esku hartzeko tresnak egokitzeko prozesuaren beste ekinbide batzuk izan daitezke, besteak beste, zubi-izaerako programak egitea, esku-hartze sozial eta hezitzaileko prozesuak amaitzen dituzten emakumeei laguntzeko, lasaitzeko leku bat izan dezaten; edo, emakumeei leku normalizatuetan bizitzen hasteko laguntza ematea, mailakatua izan dadin esku hartzeko prozesuaren amaiera.

Lehen adierazi den moduan, ebaluatu egin behar dira esku hartzeko programak eta zerbitzuak, baina horien efikazia ebaluatzeko premia baldin badago ere, ez da emakumeen errehabilitazioa ebaluatu behar, tentagarria izan badaiteke ere, helburu edo estandar isolatuen arabera edo arazoaren ezaugarri bereziekin zerikusirik ez duten helburu edo estandarren arabera. Alde horretatik, ez da ahaztu behar “indarkerian presiozko eltze baten moduan esku har daitekeenik, indarkeria hori su motelean egosi denean; beraz, denbora behar da indarkeriarik eza ezartzeko, eta harremanak izateko beste modu batzuk baliatu behar dituzu”⁹⁰.

Azkenik, ematen den arretan eragin dezaketen zenbait faktore aipatu behar dira, kontuan hartuak izan daitezen hobekuntzak egitean. Besteak beste, nabarmendu behar da gizarte-sektorea emakumeen ehuneko handia duen lan-sektorea dela eta, maiz, lan-baldintzak prekarioak izaten direla. Egoera horrek kaltetu egiten ditu birziklatzeko aukerak, zaintzarako espazioak eta beste alderdi asko.

⁸⁹ MUGARIK GABE. *Emakume ugari borrokalari: indarrak batuz indarkeria matxisten kontra. Aurrera darraien prozesu batetik ikasten*. Mugarik Gabe, 2015.

⁹⁰ Idem.

Horrez gainera, sektore horretan esku hartzen duten profesionalek ez dute aitortzarik jasotzen eta, maiz, gutxietsi eta auzitan jartzen da haien lana; zenbaitetan, gainera, zilegitasuna ukatzen zaio lan horri. Azken egoera horren adierazle garbia da espezializatu gabeko baliabideetako profesionalek, zenbaitetan, emakumeei irakaspenak eman nahi izaten dizkietela eta objektibotasunik ez duten “parte” izatea leporatzen dietela emakumeentzat erreferentzia eta laguntza diren profesional horiei; hori horrela, egiten duten lanarekiko jarrera kritikoei aurre egiten behar izaten diete.

6. LAGUNTZA POLIZIALA:

Oro har, onuragarri irizten dira azken urteetan esparru polizialean egin diren hobekuntzak; hala ere, intzidentziak (puntualak eta ez hain puntualak) izaten direla ohartarazi dute zenbait eragilek, eta adierazten dute tentu handiz bete behar direla giltzarri diren prozesu jakinak, hartutako pertsona guztiekin egiten den lana egokia dela ziurtatzeko. Bereziki zaindu behar dira honako prozesu hauek:

- Salaketa jartzean abokatuak ematen duen laguntza, garrantzi handikoa baita emakumeek salaketa jartzeko gutxieneko jarraibideak eskura ditzaten (zer zigortzen den eta zer ez den zigorgarria jakiteko, salaketak noiz jar daitezkeen eta noiz ez jakiteko, etab.).
- Emakumeei epaiketa azkarrei buruz, doako justiziari buruzko eta gainerako alderdiei buruz ematen zaien laguntza ahalik eta osoena izan behar du, itxaropen faltsurik ez sorrarazteko.
- Erasoak ikusten dituzten adingabeen gaineko informazioa biltzea, garrantzitsua baita haientzako babes-neurriak abiarazteko.
- Agente guztiek ezagutu behar dituzte jarduera-protokoloak.
- Poliziak arriskuaren gainean egiten duen balorazioa, erabakigarria izaten baita epaitegietan (profesionalek prestakuntza eta sentsibilizaziorik ez baldin badute, gerta liteke, esaterako, ez aintzat hartzea emakume biktimek arriskuak gutxiesteko joera izaten dutela).

7. LAGUNTZA JURIDIKOA:

Aztertutako dokumentazioan bereziki salatzen da esparru judizialeko profesionalek ez dutela izaten genero-ikuspegidun prestakuntzarik eta sentsibilizaziorik izaten, eta, gainera, epaitegietako talde espezializatuak ere gabezia hori izaten dutela maiz. Indarkeriaren alorreko epaitegiek espezializazio erretorikoa dute, ez egiazkoa. Prestakuntza-gabezia horren ondorioz, ez zaie behar besteko informaziorik ematen emakumeei, eta horrek kaltetu egiten du haien prozesua.

Sombra txostenak adierazten du esparru judizialeko eragileek prestakuntza-gabezia handiak dituztela: “Ez zaie aurretiazko prestakuntzarik eskatzen genero-indarkeriaren alorreko sekzioetara iristen diren fiskalei. Epaileei dagokienez, 2010. urtean egin zen hastapeneko lehen ikastaro nahitaezkoa emakumeen gaineko indarkeriaren alorreko epaitegietara sartzen ziren epaileentzat. Epaitegira urte horren aurretik sartutako epaileei ez zaie berariazko prestakuntzarik edo meriturik eskatu. Gaur egun, lineako ikastaro baten bidez jasotzen dute prestakuntza profesional horiek. Abokatuak genero-indarkeriaren alorrean jasotzen duten prestakuntza espezifiko ere ez da oso egokia, presentziako eta lineako ikastaroak eskaintzen diren arren. Ez dira sakon lantzen genero-indarkeriaren kausak eta ondorioak, ezta horien atzean dauden estereotipoak ere. Adibide gisa balio dezake ikustea Abokatutzaren Kontseilu Orokorrak egindako inkesta batek haxe adierazten duela: ustezko salaketa faltsuak eta horrek

genero-indarkeriaz salatutako gizonengan eragiten duen erruduntasun-presuntzioaren urraketa eta babesgabezia dira abokatuak gehien kezkatzen dituen gaietako bat”⁹¹.

Emakumeek ez dute prozesuen eta prozeduraren gaineko informazio nahikorik; izan ere, informazioa falta zaie bete-betean jakiteko zer eskubide dituzten eta zer eskubide ezin duten baliatu (esaterako, ez deklaratzeko eskubidea dutela jakin dezakete, baina ez horrek auzia artxibatzea ekar dezakeela); ez dakite zer adierazleri begiratu behar dioten babes-aginduak eskatzeko; ez dute jakiten prozesuak erabaki azkarrak hartzera behartzen duela; eta, besteak beste, ez dute doako justiziaren gaineko informazio nahikorik izaten, ez baitira prozesu guztiak horren baitan sartzen.

Itxaropen handiak jarri dira justizia-sisteman, baina sistema horrek, maiz, berbiktimizatu egiten ditu indarkeria pairatzen duten emakumeak (bakarrik, babesik gabe eta auzitan jarriak sentitzen dira emakumeak askotan), eta ematen duen erantzuna ez da egokia izaten. Berariaz, itxaropen handiak jartzen dira emakumeek egindako salaketetan (azkarra izango da, doako aholkularitza ematen da, etab.), baina bide luze baten urrats bat da salaketa, eta ez du lortzen, berez, emakumeek eta beren seme-alabek indarkeria pairatzeari uztea.

Alor horretan ikusten da, berariaz, ez dagoela arazoarekiko perspektiba nahikorik eta ez dela bete-betean ulertzen arazoa. Horren ondorioz, indarkeria instituzionaleko jardun moduak ikusten dira emakumeen aurka. Besteak beste, jardunbide hauek ohartarazi behar dira: pilatu egiten dira erasoak, eta horrek egoeraren perspektiba eta indarkeriaren ikuspegi orokorra galarazten du; berdinen arteko salaketa moduan hartzen dira salaketa gurutzatuak; eta aparteko gertakari ezohikoa izaten da adingabeei begirako neurri zibilak hartzea, tratatu txarren eragileen bisiten edo zaintzen gainekoak.

Prozesu gogorak, luzeak eta mingarriak izaten dira, oso nekagarriak. Izan ere, hau adierazten dute txosten ugariak:

- Epaiketa azkarretan, prozesuari aurre egiteko prestaketa emozional eta legezkorik gabe joaten dira emakumeak epaitegietara. Prozesu-modalitate bat dira epaiketa azkarrak, eta ez dakarte kaltearen erreparaziorik (eta, neurri batean, uler daiteke, horien bidez, gutxietsi egiten direla delitu horiek, beste delitu batzuekiko).
- Nekeak, presio psikologiko eta emozionalak eta bizi ditzaketen erruduntasun-sentipenak dakarkieten blokeoen ondorioz, erraza izaten da emakumeek emandako lekukotzak hutsalak edo kontraesankorrak direla esatea eta, ondorioz, lekukotza horiek zalantzan jartzea (prestakuntza egokirik gabeko balorazio taldeek konfiantza faltaz begiratzen diote emakumeen esanari).
- Epaitegietako leku fisikoa ez da egokia izaten eta emakumeek denbora luzeegian egon behar izaten dute intimitaterik eta pribatutasunik gabeko itxaron-geletan, eta agerraldiak bionborik gabe egiten dira maiz.
- Instrukzioak, oro har, motelak izaten dira (urte eta erdi eta hiru urte bitartekoak).
- Koordinazio espezifikoak falta da medikuen, auzitegietako psikologoek eta beste beste profesional batzuen artean.
- Epailak erabakitzen du frogan balorazioa. Lesioen gaineko txostenek ez baldin badago, zaila izan daiteke gertatutakoaren frogak lortzea.
- Sententziak ematean, oraindik ez da behar bezala baloratzen tratatu txar psikologikoa.

⁹¹ CEDAW. *Informe Sombra 2008-2013 sobre la aplicación en España de la convención para la eliminación de toda forma de discriminación contra las mujeres* (CEDAW). CEDAW Sombra España plataforma, 2014.

- Adingabeak babesgabe daude ikerketa judizialean, ez delako haiei egokitutako hizkuntzarik erabiltzen, froga psikosozialak egin aurretik aitarekin hitz egiten dutelako, etab.
- Ez da “behar den prestasunik” salaketak ikertzean. Lehen adierazitako Sombra txostenaren esanetan, “emakumeen eta neskatoen aurka erabilitako indarkeriarekiko genero-estereotipoak ikusten dira oraindik ere, batik bat kontserbadoreak izan diren esparruetan, hala nola epaitegietan eta esparru militarrean, eta horren ondorioz larriena izaten da delituak ez prebenitzea, ez ikertzea eta haien aurkako babesik ez ematea; horrela, urratu egiten da “behar den prestasunaren” printzipioa, eta hori egiaztatzen eta salatzen dute behin eta berriz emakumeen eta giza eskubideen aldeko elkarteek. Genero-indarkeria ikertzea epaitegien egitekoa izan beharko lukeen arren, kezkatzekoa da ikustea kasuak ofiziozko ikerketa handirik egin gabe artxibatzen direla, baldin eta biktimek ez badituzte gertakariak gutxieneko izaeraz egiaztatzeko frogak ekartzen”⁹².

Emakume askok “utzi” egiten dute prozesua, lege-eragozpen handiak topatzen dituztelako. Genero-estereotipoek eragindakoak dira oztopo horietako asko. Sakon aztertzekoa da alderdi hori, eta azterketa hori egitean, ez da komeni emakumeen erabakiak zalantzan jartzea; horrez gainera, operadore juridikoen ikuspegiez gain, bestelako ikuspegiak ere hartu behar dira kontuan.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen jartzen diren baliabideak egokiak eta irisgarriak direla ziurtatu behar da, eta, familian eragindako indarkeriaz gain, kontuan izan behar dira adingabeak eta eragozpen erantsiak dituzten emakumeak (degaitasunak dituzten emakumeak, atzerritarrak, ijitoak, adinekoak, etab.). Baliabideak eskuratzeko bidean, sistemarekiko harremanak azkarragoa eta malguagoa izan behar du. Baliabide egokiak prestatzeko, emakume erabiltzaileek parte hartu behar dute baliabideen ebaluazioan. Funtsezkoa da esparru polizialean eta judizialean lehen esku-hartzea egiten duten profesionalen prestakuntza eta espezializazio egokiak izatea, bai kasuak hautemateko, bai emakumeen berbiktimizazioak saihesteko. Garrantzitsua da, era berean, esku-hartze espezializatuak egiten dituzten profesionalen prestakuntzak osagai kritiko bat izatea, eta, horren bidez, bermatzea hausnarketak eta ikaskuntzak leku nabarmen bat izango dutela lanean erabiliko dituzten arreta-ereduetan. Nabarmen hobetu da erakundeen arteko koordinazioa, baina beste urrats batzuk eman behar dira, eragilearen arteko konfiantza handitu eta sare-lana egiteko, biktimekin egindako lana gero eta azkarragoa eta kalitate handiagokoa izan dadin.

⁹² CEDAW. *Informe Sombra 2008-2013 sobre la aplicación en España de la convención para la eliminación de toda forma de discriminación contra las mujeres* (CEDAW). CEDAW Sombra España plataforma, 2014.

DOKUMENTU-ERREFERENTZIEN

DOSSIERRA

Txostenak eta ikerlanak

Presupuestos del estado para 2015: a las elecciones con tacones y maquillaje. 2015. Eskuragarri hemen:

[http://www.fsc.ccoo.es/comunes/recursos/99922/doc222262_Presupuestos del Estado para 2015 a las elecciones con tacones y maquillaje.pdf](http://www.fsc.ccoo.es/comunes/recursos/99922/doc222262_Presupuestos_del_Estado_para_2015_a_las_elecciones_con_tacones_y_maquillaje.pdf)

ALBERDI, I. *Cómo reconocer y cómo erradicar la violencia contra las mujeres.* “La Caixa”, Gizarte Ekintza. *Violencia: Tolerancia Cero.* Bartzelona: “La Caixa” fundazioa, 2005.

ALBERDI, I. eta MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España.* Bartzelona: “La Caixa” fundazioa, 2002. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk. Hemen eskura daiteke:

https://obrasocial.lacaixa.es/deployedfiles/obrasocial/Estaticos/pdf/Estudios_sociales/es10_es.pdf

INTERNATIONAL AMNESTY. *Informe Anual 2011. El estado de los derechos humanos en el mundo.* Madril: Amnesty International (EDAI), 2011. Hemen eskura daiteke: http://files.amnesty.org/air11/air_2011_full_es.pdf

INTERNATIONAL AMNESTY. *La trampa del género: mujeres, violencia y pobreza.* Madril: Amnesty International (EDAI), 2009. Hemen eskura daiteke: <http://amnistiainternacional.org/publicaciones/89-la-trampa-del-genero.html>

AMURRIO, V. eta beste batzuk. *Genero-indarkeria Bilboko nerabe eta gazteen bikote-harremanetan. Zerbitzuan*, 2010eko ekaina, 47. zk., 121.-134. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Violencia%20de%20genero%20en%20las%20relaciones%20de%20pareja.pdf>

APARICI, E. eta ESTARELLAS, C. *Historias de vida, Historias de violencia. Si mi pareja me hace daño, ¿por qué sigo con ella?* Bartzelona: Aresta argitaletxea, 2010eko maiatza, 282. or.

ARARTEKOA. *Erantzun instituzionala EAE emakumeen aurkako indarkeriari. Txosten berezia Eusko Legebiltzarrari.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003ko abendua. Hemen eskura daiteke: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_12_3.pdf

ASOCIACIÓN PARA EL PROGRESO DE LAS COMUNICACIONES. *Voces desde espacios digitales: violencia contra las mujeres relacionada con la tecnología. Informe de Síntesis.* Asociación para el Progreso de las Comunicaciones, 2011. Hemen eskura daiteke: <http://www.igualdad.net/sites/default/files/APC.pdf>

ARGITUZ, GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA. *Txostena: Bizkaiko landa-ingurunean genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek laguntza, arreta eta justizia zerbitzu zein*

prestazioetarako benetako sarbidea izateko dituzten beharrizanak eta oztopoak identifikatzea. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintzako Saila, 2015. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/Mujeres_rurales_VG_c.pdf

AYLLON, E (Koord.). *En la Violencia de Género no hay una Sola Víctima. Atención a los hijos e hijas de mujeres víctimas de violencia de género*. Save The Children, 2011ko otsaila. Hemen eskura daiteke: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/violencia_de_genero_victima.pdf

BLANCO, P. *La violencia contra las mujeres jóvenes. Atención y prevención desde los servicios sanitarios*. In P. Blanco eta C. Ruiz-Jarabo (Zuz.). *La violencia contra las mujeres: prevención y detección: cómo promover desde los servicios sanitarios relaciones autónomas, solidarias y gozosas*. Madril: Díaz de Santos, 2004.

BONINO, L. *Los micromachismos*. La Cibeles, 2004, 2. zk., 1.-4. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.luisbonino.com/pdf/Los%20Micromachismos%202004.pdf>

CABRERA, R. (koord.). *Análisis de medidas para mejorar la protección policial y judicial de las víctimas de violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2011 Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/libro_1_2_analisismedidas.pdf

CALVETE, E. eta CORRAL, S. *Estudio de la conducta violenta en parejas jóvenes desde la perspectiva de género*. Emakunde, 2003.

CANTERA, I. eta ESTÉBANEZ, I. eta VÁZQUEZ, N. *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbao: Emakunde, Eusko Jaurilaritza eta BBK, 2009, 105 or. Eskuragarri hemen: <http://minoviomecontrola.com/ianire-estebanez/Resumen-violencia-contra-mujeres-jovenes-noviazgo.pdf>

CASTELLS, M. *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura*, 1998. 2. lib. El poder de la Identidad.

CEDAW. *Informe Sombra 2008-2013 sobre la aplicación en España de la convención para la eliminación de toda forma discriminación contra las mujeres (CEDAW)*. CEDAW Sombra España plataforma, 2014. Hemen eskura daiteke: http://www.rednosotrasenelmundo.org/IMG/pdf/InformeSombra_Actualizado_23Sep_2014.pdf

IOÉ KOLEKTIBOA. *Actitudes de la población ante la violencia de género en España*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2011. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/libro_1_0_actitudesVG.pdf

ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA. *Etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedura*. Emakunde, 2013. Hemen eskura daiteke:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/djuntos/1ai.procedimiento.muerte.cas.pdf

EUROPAKO BATZORDEA. *Hirian bizi den Emakumearen Europako Gutuna*. Brusela: Europako Batzordea, Gizarte Gaietako eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza, Emakumeen Lobby Europarra, 1994-95.

EUROPAKO BATZORDEA. *Feasibility study to assess the possibilities, opportunities and needs to standardize national legislation on violence against women, violence against children and sexual orientation violence*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2010. Hemen eskura daiteke: http://ec.europa.eu/justice/fundamental-rights/files/feasibility-study-harmonisation_en.zip

EUROPAKO BATZORDEA. *Violence against women and the role of gender equality, social inclusion and health strategies*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2011. Hemen eskura daiteke: <http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=6336&langId=en>

EUROPAKO BATZORDEA. ENPLEGU, LAN-HARREMAN ETA GIZARTE-GAIETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. *Cien palabras para la igualdad. Glosario de términos relativos a la igualdad entre hombres y mujeres*. Brusela: Europako Batzordea, 1998. Hemen eskura daiteke: http://www.europarl.europa.eu/transl_es/plataforma/pagina/celter/glosario_genero.htm

GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE INTERAMERIKARRA. *Acceso a la justicia para mujeres víctimas de violencia sexual: la educación y la salud*. 2011. Hemen eskura daiteke: <http://www.oas.org/es/cidh/mujeres/docs/pdf/VIOLENCIASEXUALEducySalud.pdf>

CORRAL, S. *Conductas violentas en parejas jóvenes: Prevalencia y perfil cognitivo asociado al ejercicio de la violencia*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2006.

GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. BERDINTASUN ARLOA. ESPAINIAKO PROBINTZIEN ETA UDALERRIEN FEDERAZIOA. *Violencia de género en los pequeños municipios del Estado Español*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2009 Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/libro6_VG_municipios.pdf

DELGADO C. *Por qué la violencia de género es algo diferente: reenfocando el concepto*. In POZO, M. del (zuz.) *¿Podemos erradicar la violencia de género?* Granada: Comares argitaletxea, 2015

DÍAZ- AGUADO, M.J. *Guía de buenas prácticas para paliar los efectos de la violencia contra las mujeres y conseguir su erradicación*. Santiago de Compostela: Europar Batasuneko Lehendakaritza.

DÍAZ- AGUADO, M.J. eta CARVAJAL, M.I. *Igualdad y prevención de la violencia de género en la adolescencia*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2011 Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/libro8_a_adolescencia.pdf

DÍAZ- AGUADO, M.J., MARTÍNEZ, R. eta MARTÍNEZ, J. *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/Libro_1_9_Evoluc_Adolescencia_Igualdad.pdf

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaian egindako ikerketa baten emaitzak*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintzako Saila, 2006. Hemen eskura daiteke: http://web.bizkaia.net/gizartekintza/genero_indarkeria/pdf/dokumentuak/ca_Violencia.pdf

UNDP PROGRAMAREN LATINOAMERIKARAKO ETA KARIBERAKO ESKUALDE-ZUZENDARITZA *El compromiso de los Estados: Planes y políticas para erradicar la violencia contra las mujeres en América Latina y El Caribe*. 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.endvawnow.org/uploads/browser/files/lac_commitment_of_the_states-sp.pdf

DURÁN, M^a. A. *La ciudad compartida. Conocimiento, afecto y uso*. Santiago. Txile. SUR edizioak, 2008.

EDE FUNDAZIOA. GIZARTE-IKERKETAKO ZERBITZUA. *La variable edad en la intervención con mujeres víctimas de la violencia de género*. Bilbao, 2011. Hemen eskura daiteke: <http://www.fundacionede.org/ca/archivos/investigacionsocial/21-variable-edad-intervencion-mujeres-victimas-violencia-genero.pdf>

EDE FUNDAZIOA. GIZARTE-IKERKETAKO ZERBITZUA. *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak: bizipenak eta eskariak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2012. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/eu_def/adjuntos/pub.mujeres.victimas.de.violencia.eus.pdf

EMAKUNDE. *Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2006. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/1ai.guia.maltrato.domestico.violencia.sexual.2006.eus.pdf

EMAKUNDE. *Erakundeen erantzuna EAEn etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera-premiei. Etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeen alorreko harrera-baliabideen eraginkortasun- eta irismen-mailaren ebaluazioa*. 2009. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/Eval_Acogida_E_MK2009_eu.pdf

EUDEL. *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeen laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida*. EUDEL, 2006. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/Guia_Resumen_Eudel_e.pdf

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *An analysis of the Victims' Rights Directive from a gender perspective*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2015. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/mh0115698enn.pdf>

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Review of the Implementation of the Beijing Platform for Action in the EU Member States: Violence against Women – Victim Support*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2012. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/Violence-against-Women-Victim-Support-Report.pdf>

FALCON, L. eta CAMPOS, O. *Hacer los derechos realidad. Violencia contra la mujer*. Madril: Vindicación Feminista, 2006.

FERRER, A. BOSH, E. eta RIERA, T. *Las dificultades en la cuantificación de la violencia contra las mujeres en la pareja: análisis psicosocial*. Revista de Intervención Psicosocial, 2006, 15. lib., 2. zk.

FIGUERUELO, A. *La violencia de género: una cuestión de derechos humanos*. In POZO, M. del (dir.) *¿Podemos erradicar la violencia de género?* Granada: Comares argitaletxea, 2015.

CASANOVA FUNDAZIOA. *La Atención Primaria frente a la Violencia de Género. Necesidades y Propuestas*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2015 Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2015/pdf/Atencion_Primaria_VG.pdf

KANTABRIAKO GOBERNUA. *Estudio sobre violencia de género y actitudes sexistas en la población joven de Cantabria*. Santander: Emakumearen Zuzendaritza Nagusia. Kantabriako Gobernu, 2007.

EUROPAKO KONTSEILUA. *Europako Kontseilua eta genero-indarkeria. Documentos elaborados en el marco de la campaña paneuropea para combatir la violencia contra las mujeres (2006-2008)*. Madril: Berdintasun Ministerioa. Lankidetzarako eta Erakundeen arteko Harremanetarako Zuzendariordetza Nagusia, 2009. Bilduma: Contra la Violencia de Género. 4. agiria. Hemen eskura daiteke: http://www.msssi.gob.es/gl/ssi/violenciaGenero/publicaciones/colecciones/PDFS_COLECCION/libro4_consejoeuropa.pdf

GRACIA, E. eta LILA, M. *Attitudes towards violence against women in the EU*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2015. Hemen eskura daiteke: http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/files/documents/151125_attitudes_eneg_report_en.pdf

IBAÑEZ, M. eta beste batzuk. *Acoso sexual en el ámbito laboral. Su alcance en la C.A. de Euskadi*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2007.

IBAÑEZ, M. *Violencia doméstica en Euskadi: malos tratos a la mujer: Análisis y definición del proceso de ruptura con una relación de maltrato*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004.

INFOPOLIS. *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko tokiko protokoloen ebaluazioa*. Emakunde, 2012. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/Informe_Protocolos_Locales_eu.pdf

ANDALUZIAKO EMAKUMEAREN INSTITUTUA. *La opinión de la sociedad acerca de la violencia*

doméstica. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2003.

KANARIETAKO BERDINTASUN INSTITUTUA. GENERO INDARKERIAREN AURKAKO SISTEMA INTEGRALAREN KOORDINAZIO-ZERBITZUA. *Guía para la Atención a Mujeres Víctimas de Violencia de Género*. Kanarietako Berdintasun Institutua. Kanarietako Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Berdintasun Kontseilaritza, 2007. Hemen eskura daiteke: <http://www.gobiernodecanarias.org/opencms8/export/sites/igualdad/resources/documentacion/Violencia/GuiaAtencionViolencia11.pdf>

LABRADOR, F.J. eta beste batzuk. *Mujeres víctimas de la violencia doméstica. Programa de actuación*. Madril: Pirámide, 2004.

LESUR, M.; STELMASZEK, B. eta GOLDEN, I. *Country report 2013. Reality check on european services for women and children survivors of violence. A Right for Protection and Support?* Viena: Woman against violence Europe (WAVE), 2014. Hemen eskura daiteke: http://www.wave-network.org/sites/default/files/WAVE%20Country%20Report%202013_1.pdf

LIZANA, R. *A mi también me duele*. Niños y niñas víctimas de la violencia de género en la pareja. Bartzelona: Gedisa argitaletxea, 2012.

LOGAR, R. eta SENGOELGE, M. *Protect II Guidance Report for the improvement of data on gender-based violence against women in the European Union*. Viena: Women against violence Europe (WAVE), 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.wave-network.org/sites/default/files/PROTECT%20II_2013_n.pdf

MARTIN, E. *Las violencias cotidianas cuando las víctimas son mujeres*. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Emakumearen Institutua, 1999.

MASA, M. eta UNCETA, A. *Violencia contra las mujeres en el ámbito doméstico. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Departamentua, 2009. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/2009ko_MakroInkesta.pdf

MERINO, J. eta CRUCETA, G. El acoso sexual en el trabajo en Catalunya. Estudio de casos. *Revista d'estudis de la violencia*, 1. hiruhilekoa, 2009, 7. zk. Hemen eskura daiteke: http://www.navarra.es/nr/rdonlyres/d91fe499-4898-4edd-aa09-213a8af122ea/153600/icev_acoso_sexual.pdf

MIGUEL, V. DE. *Percepción de la violencia de género en la adolescencia y la juventud*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2015 Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/estudio/percepcion.htm>

OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Guía de los derechos de las mujeres víctimas de violencia de género*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Hemen eskura daiteke: <http://www.upm.es/sfs/Rectorado/Gerencia/Igualdad/Documentos/GuiaDerechosMujeresvictimasviolenciadegenero.pdf>

MUGARIK GABE. *Emakume ugari borrokalari: indarrak batuz indarkeria matxisten kontra. Aurrera darraien prozesu batetik ikasten*. Mugarik Gabe, 2015.

MUR, Rosa. *I Encuesta de Violencia Machista en Cataluña. Notas metodológicas y algunos logros y resultados principales*. *Boletín criminológico*, 152. zk., 2014. Hemen eskura daiteke: <http://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4943506.pdf>

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *Poner fin a la violencia contra la mujer. De las palabras a los hechos. Estudio del Secretario General de Naciones Unidas*. Nazio Batuk, 2006. Hemen eskura daiteke: http://www.un.org/womenwatch/daw/public/VAW_Study/VAW-Spanish.pdf

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *The World's Women Report 2015*⁹³. Nazio Batuk, 2015. Hemen eskura daiteke: <http://unstats.un.org/unsd/gender/worldswomen.html>

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA. *Harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartzeko programa espezializatuak eta familia-elkarguneak. Etxean indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak*. Bizkaiko Foru Aldundia, 2008ko ekaina. Hemen eskura daiteke: http://www.ehu.eus/documents/2007376/2102795/Baliabideak_Genero_Indarkeriaren_Behatokia_2012

GENERO-INDARKERIAREN BIZKAIKO BEHATOKIA. *Emakumeen aurkako indarkeria Proposamen terminologikoak. Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 2005. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/PropTermi05_e.pdf

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA. *II Txostena Bizkaiko Lurralde Historiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Gaietako Erakundearen Jokabideari Buruzko Gomendioak eta Hobetzeko Proposamenak*. 2013. Eskuragarri linean: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II_Informe_Recomendaciones.pdf

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *Informe del Grupo de Trabajo de Investigación sobre el llamado Síndrome de Alienación Parental*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2010. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/gruposTrabajo/docs/ALIENACIONPARENTAL_cap2_lib7.pdf

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *Informe del Grupo de Trabajo de Investigación sobre la Infancia Víctima de la Violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2011. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/gruposTrabajo/docs/InfanciaVG_cap2_lib14.pdf

⁹³ Emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa da VI. kapitulua.

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *Procesos y realidades de las mujeres con discapacidad a causa de la violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2009. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/gruposTrabajo/docs/Mujeres_discapacidadVG.pdf

POZO, M. del (zuz.) *¿Podemos erradicar la violencia de género?* Granada: Comares argitaletxea, 2015

RAMÍREZ, J.C. eta beste batzuk. *¿Nuevas generaciones, nuevas creencias? Violencia de género y jóvenes*. *Revista de Estudios de Género. La ventana*, 2009, III. lib., 29. zk., 110.-145. or.

SANTAMARINA, C. *Violencia de género hacia las mujeres con discapacidad un acercamiento desde diversas perspectivas profesionales*. Madril: Lan, Osasun eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Argitalpen-zerbitzua, 2011. Hemen eskura daiteke: http://sid.usal.es/idos/F8/FDO26931/Violencia_genero_mujeres_discapacidad.pdf

SORTZEN AHOLKULARITZA. *Sexu Erasoak. Nola bizitzen diren, nola ulertzen diren, eta nolako arreta ematen zaien*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2011. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/eu_def/adjuntos/pub.agresiones.sexuales.como.viven.eus.pdf

TORRES, M. *La violencia en casa*. México: Paidós, 2001.

TORRES, C. (zuz.). *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud: un riesgo en la sociedad de la información y del conocimiento*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioko argitalpen-zentroa. Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza, 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/profesionalesInvestigacion/educativo/estudios/pdf/Libro_18_Ciberacoso.pdf

TORRES, M.C., *Menores expuestos a la violencia de género: ¿qué hay de nuevo tras las últimas reformas legislativas? Luces y sombras*. *Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia*, 38. buletina, 2015eko iraila. Hemen kontsulta daiteke: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt38/eu_temas.html

MADRILGO COMPLUTENSE UNIBERTSITATEKO PREBENTZIO-PSIKOLOGIAREN UNITATEA. *La juventud universitaria ante la igualdad y la violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2011 Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/profesionalesInvestigacion/educativo/estudios/pdf/Juvent_Universit_Igualdad_VG.pdf

VÁZQUEZ, F. *Prevalencia y factores de riesgo de la violencia contra la mujer en estudiantes universitarias españolas*. *Psicothema* 2010. 22. lib., 2. zk., 196.-201. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.psicothema.com/pdf/3715.pdf>

Araubidea

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

NAZIOARTEKOA

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *Hitzarmena, emakumeen aurkako diskriminazio modu guztiak desagerrarazteari buruzkoa*⁹⁴. New York: Nazio Batuen Erakundea, 1979ko abenduak 18. Hemen eskura daiteke: <http://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/text/sconvention.htm>

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *Beijingo Adierazpena. Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia*. Beijing: Nazio Batuek, 1995. Hemen eskura daiteke: <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%20S.pdf>

EUROPARRA

Europako Kontseilua

EUROPAKO KONTSEILUA. Ministroen Batzordearen CM/Rec(2007)17 Gomendioa estatu kideei, emakumeen eta gizonen berdintasunerako arau eta mekanismoen gainekoa. 2007ko azaroak 21. Hemen eskura daiteke: <https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?id=1215219&Site=CM>

Europar Batasuna

EUROPAR BATASUNA Kontseiluaren Ebazpena, 1982ko uztailaren 12koa, emakumeentzako aukera-berdintasuna sustatzeari buruzkoa. *Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, 1982ko uztailak 21, C 186 zk., 3-4 or. Hemen eskura daiteke: [http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex:31982Y0721\(02\)](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex:31982Y0721(02))

EUROPAR BATASUNA. Batzordearen Komunikazioa: «*Erkidegoko politiketan eta ekintzetan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna txertatzea*». Brusela: 1996ko otsailak 21. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:51996DC0067&from=ES>

EUROPAR BATASUNA. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako Jakinarazpena: *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erkidegoko esparru-estrategiarantz (2001-2005)*. Hemen eskura daiteke: http://europa.eu/legislation_summaries/other/c10932_es.htm

EUROPAR BATASUNA. Kontseiluaren 2001/51/EE Erabakia, 2000ko abenduaren 20koa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko Erkidegoko strategiari buruzko ekintza komunitarioko programa ezartzen duena (2001-2006 aldirako). *Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, 2001eko urtarrilak 19, L 17 zk. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV:c10904>

⁹⁴ Espainiak 1983ko abenduaren 16an berretsia.

EUROPAR BATASUNA. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1554/2005/EE Erabakia, 2005eko irailaren 7koa; horren bidez, aldatuta geratzen dira Kontseiluaren 2001/51/EE Erabakia, emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko Erkidegoko estrategiari buruzko ekintza komunitarioko programa ezartzen duena, eta 848/2004/EE Erabakia, zeinaren bidez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean Europan lan egiten duten erakundeak sustatzeko ekintza komunitarioko programa ezartzen baita. *Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, 2005eko irailak 30, L 255 zk., 9-10 or. Hemen eskura daiteke: http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv:OJ.L_.2005.255.01.0009.01.SPA&toc=OJ:L:2005:255:TOC

EUROPAR BATASUNA. *Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako Jakinarazpena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan-planari (2006-2010) buruzkoa* [COM (2006) 92]. Brusela, 2006ko martxoak 1. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX:52006DC0092>

EUROPAR BATASUNA. Batzordearen Jakinarazpena, 2010eko martxoaren 5koa: «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromiso sendotua. - Emakumearen gutuna: Europako Batzordearen Adierazpena, 2010eko Emakumeen Nazioarteko Egunean, ospatzeko, batetik, Beijingen egindako Emakumeei buruzko Nazio Batuen Mundu Konferentziaren Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren onarpenaren 15. urteurrena, eta, bestetik, emakumeen aurkako diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 30. urteurrena». *Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, 2010eko martxoak 5, C 78 zk. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV%3Aem0033>

EUROPAR BATASUNA. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/41/EB Zuzentaraua, 2010ko uztailaren 7koa, jarduera autonomoan aritzen diren emakumeen eta gizonen artean tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 86/613/EEE Zuzentaraua indargabetzekoa. *Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, 2010eko uztailak 15, L 180 zk. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32010L0041&from=ES>

EUROPAR BATASUNA. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako Jakinarazpena, 2010eko irailaren 21ekoa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako strategiari (2010-2015) buruzkoa [COM(2010) 491]. *Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, 2010eko irailak 21, C 491 zk. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV%3Aem0037>

EUROPAR BATASUNA. Kontseiluak 2011ko martxoaren 7an Genero Berdintasunaren aldeko Europako Itunaren gainean ondorioztatutako konklusioak (2011-2020). *Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, 2011ko maiatzak 25, C 155 zk. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2011:155:0010:0013:ES:PDF>

ESTATUA

ESPAINIA. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22ko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2007ko martxoak 23, 71. zenb., 12611.-12645. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-6115>

OSASUN, GIZARTE-ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. *Aukera berdintasunerako plan estrategikoa 2014-2016*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioko Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutua, 2014. Hemen eskura daiteke: <http://www.inmujer.gob.es/actualidad/PEIO/docs/PEIO2014-2016.pdf>

EUSKADI

EUSKADI. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2005eko martxoak 2, 42. zk., 3217.-3268. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/bopv2/datos/2005/03/0500982a.shtml>

EUSKO JAURLARITZA. EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA. EAEko *emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. plana - IX. legealdirako jarraibideak*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2010. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_marco_juridico/eu_def/adjuntos/v.plan.igualdad.eus.pdf

EUSKADI. 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzeko dena. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2012ko martxoak 16, 65. zenb., 24058.-24062. or. Hemen eskura daiteke: http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2012-3752

EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2014. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_vi_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf

Emakumeen aurkako indarkeria

NAZIOARTEKOA

NBE EMAKUMEAK. *Report of the World Conference of the International Women's Year. Mexico City, 19 June – 2 July 1975*⁹⁵. Hemen eskura daiteke: <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/otherconferences/Mexico/Mexico%20conference%20report%20optimized.pdf>

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa. Giza Eskubideen Mundu Konferentzia onartuak 1993ko ekainaren 25ean*. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa eta Nazio Batuen Informazio Publikoko Departamentua, 2013ko iraila. Hemen eskura daiteke: http://www.ohchr.org/Documents/Events/OHCHR20/VDPA_booklet_Spanish.pdf

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA. *Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordearen 1997/44 Ebazpena, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa*. Geneva: Nazio Batuak, 1997.

NBE EMAKUMEAK. *Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko komiteak emandako gomendio orokorrak (CEDAW)*⁹⁶. Eskuragarri linean: <http://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/recommendations/recomm-sp.htm>

NBE EMAKUMEAK. *Beijingo Adierazpena eta Plataforma, 1995. Beijing+5 adierazpen politikoa eta haren ondoriozko agiriak*. 2014. Hemen eskura daiteke: http://www2.unwomen.org/~media/headquarters/attachments/sections/csw/bpa_s_final_web.pdf?v=1&d=20150120T170413

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *The elimination and prevention of all forms of violence against women and girls. Agreed conclusions*. 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.un.org/womenwatch/daw/csw/csw57/CSW57_agreed_conclusions_advance_undited_version_18_March_2013.pdf

EUROPAN

Europako Kontseilua

KONTSEILU EUROPARRA *Kontseilu Europarrak Estrasburgon 1997ko urriaren 10ean eta 11n egindako goi-bileraren amaierako adierazpena eta ekintza-plana*. Hemen eskura daiteke: <https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?id=856279>

EUROPAKO KONTSEILUA. *Ministroen Batzordeak EB osatzen duten estatuei egindako Rec (2002)5 gomendioa, Emakumeak indarkeriaren aurrean babesteko beharrari buruz. Ministroen Batzordeak emana 2002ko apirilaren 30ean, ministro-ordezkarien 794. bilkuran*. Hemen eskura daiteke: [http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/equality/03themes/violence-against-women/Rec\(2002\)5_Spanish.pdf](http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/equality/03themes/violence-against-women/Rec(2002)5_Spanish.pdf)

⁹⁵ Konferentzian munduko ekintza-plan bat zehaztu zen Emakumearen Nazioarteko Eguneko helburuak lortzeko, eta plan horretan, irizpide multzo zabal bat ezarri zen emakumeek aurrera egin zezaten 1985. urtera bitartean.

⁹⁶ Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko zenbait gomendio ematen ditu.

EUROPAKO KONTSEILUA. *Europako Kontseiluaren hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzekoa eta borrokatzekoa. Istanbulko Hitzarmena.* 2011. Hemen eskuragarri:

<https://rm.coe.int/CoERMPublicCommonSearchServices/DisplayDCTMContent?documentId=090001680462543>

Europar Batasuna

EUROPAR BATASUNA. *Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2009ko azaroaren 26koa, emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteari buruzkoa. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, 2010eko urriak 21, 285 zk., 53.-58. or.* Hemen eskura daiteke: http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv:OJ.L_.2005.255.01.0009.01.SPA&toc=OJ:L:2005:255:TOC

EUROPAR BATASUNA. *Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2011ko apirilaren 5koa, EBk emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko duen esparru politiko berriaren lehentasunei eta ildo orokorreari buruzkoa.* Hemen eskura daiteke: <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2011-0127+0+DOC+XML+V0//ES>

EUROPAKO BATZORDEA. *Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeen Komiteari egindako jakinarazpena. Biktimen Eskubideen Errefortzua EBn.* Brusela, 2011ko maiatzak 18. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52011DC0274&from=EN>

EUROPAR BATASUNA. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/99/EE Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, babes-agindu europarrari buruzkoa. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, 2011ko abenduak 21, L 338 zk.* Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32011L0099&from=EN>

EUROPAR BATASUNA. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25koa, gutxieneko arauak ezartzen dituen delituen biktimen eskubideen, laguntzaren eta babesaren gainean, eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen duena. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, 2012ko azaroak 14, L 315 zk.* Hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/doue/2012/315/L00057-00073.pdf>

EUROPAR BATASUNA. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 606/2013/EB Erregelamendua, 2013ko ekainaren 12koa, arlo zibileko babes-neurrien elkarrekiko aintzatespenari buruzkoa. Europar Batasunaren Egunkari ofiziala, 2013ko ekainak 29, L 181. zk.* Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32013R0606&from=EN>

EUROPAR BATASUNA. *Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2014ko otsailaren 25koa, emakumeei eragindako indarkeriaren aurka borrokatzeko batzordeari zuzendutako gomendioak egiten dituen.* Hemen eskura daiteke: <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2014-0162+0+DOC+XML+V0//ES>

EUROPAKO PARLAMENTUA. *Emakumeei eragindako indarkeriaren aurka borrokatzeko batzordeari zuzendutako gomendioak dakartzan txostena.* 2014. Eskuragarri linean:

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+REPORT+A7-2014-0075+0+DOC+XML+V0//ES> (también en pdf)

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Strategic framework on violence against women 2015-18*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2015. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/mh0215481enn.pdf>

ESTATUA

ESPAINIA. 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko eta sorosteko. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 1995eko abenduaren 12koa, 296. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/boe/dias/1995/12/12/pdfs/A35576-35581.pdf>

ESPAINIA. 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 2003ko abuztuaren 1ekoa, 183. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/boe/dias/2003/08/01/pdfs/A29881-29883.pdf>

ESPAINIA. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 2004ko abenduaren 29koa, 313. zk. Hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/boe/dias/2004/12/29/pdfs/A42166-42197.pdf>

ESPAINIA. Europako Kontseiluak gizakien salerosketaren gainean egindako Hitzarmena (Europako Kontseiluaren 197. Hitzarmena, Varsovian egindakoa 2005eko maiatzaren 16an) Berresteko Tresna. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 2009ko irailak 10, 219. zk., 76453. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/boe/dias/2009/09/10/pdfs/BOE-A-2009-14405.pdf>

ESPAINIA. 1917/2008 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laneratze-programa onartzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 2014ko abenduaren 10ekoa, 297. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/boe/dias/2008/12/10/pdfs/A49367-49373.pdf>

ESPAINIA. Europako Kontseiluak emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria borrokatzearen eta prebenitzearen gainean egindako Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11n Istanbulen egindakoa, berresteko tresna. Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE), 2014ko ekainak 6, 137. zk., 42946. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>

OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. *Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko estrategia nazionala, 2013-2016*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2013. Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/planActuacion/estrategiaNacional/docs/EstrategiaNacionalCastellano.pdf>

EUSKADI

EUSKADI. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2011ko abenduak 28, 245. zk., 6268 or. Hemen eskura daiteke: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/09/0705311a.pdf>

EUSKADI. 12/2008 Legea, 2008ko abenduaren 5koa, gizarte-zerbitzuei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2008ko abenduak 24, 246. zk., 31840. or. Hemen eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf>

BIZKAIKO GENERO-INDARKERIAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko lurralde historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak.* 2009. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/osoko_bilerak/08_BGIB_Gomendioak.pdf

EMAKUNDE. *EAE n etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa*, Vitoria-Gasteiz: Emakunde, Gasteiz, 2009. Hemen eskura daiteke: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/2_acuerdo.interinstitucional.eus.pdf

EUSKADI. 29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio-mekanismoei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2011ko martxoak 24, 58. zk., 1644 or. Hemen eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2011/03/1101644e.shtml>

EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA EMATEKO ZUZENDARITZA. *Jaurkitzearen Jardutako I. Plana, Genero Indarkeriaren kontra, 2011-2013*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, 2011. Eskuragarri hemen: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_marco_juridico/eu_def/adjuntos/plan.actuacion.gobierno.contra.violencia.genero.eus.pdf

EUSKADI. 264/2001 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia sortu eta bere funtzionamendua eta osaera arautzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2011ko abenduak 28, 245. zk., 8165 or. Hemen eskura daiteke: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2011/12/1106268a.pdf>

EUSKADI. 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2012ko urriak 31, 211. zk., 4811. or. Hemen eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/10/1204811e.pdf>

BIZKAIKO GENERO-INDARKERIAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Gaineko Erakundeen Jokabideari buruzko Gomendioak eta hobetzeko proposamenak, II. txostena.* 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/Gomendio_Txostena_II.pdf

EUSKADI. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren Agindua, 2014ko urriaren 29koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktimei diren emakumei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2014ko azaroak 19, 221. zk., 4962. or. Hemen eskura daiteke: <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/orders/201404962?track=1>

BERDINSAREA. *Indarkeria matxista ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak*. EUDEL: 2014. Hemen eskura daiteke: <http://www.eudel.eus/eu/recomendaciones>

Datuak lortzeko iturriak

Lehen mailako iturriak

NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. Nazio Batuen Estatistika Sekzioa. *Milurtekorako Garapen Helburuen adierazleak*⁹⁷. Hemen eskura daiteke: <http://mdgs.un.org/unsd/mdg/Host.aspx?Content=Indicators/OfficialList.htm>

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. Nazio Batuen Estatistika Sekzioa. *Generoko estatistikak*. Hemen eskura daiteke: <http://unstats.un.org/unsd/gender/default.html>

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA⁹⁸. Europarako Batzorde Ekonomikoa. *Indicators of gender equality*. Nazio Batuek: New York eta Geneva, 2015 http://www.unece.org/fileadmin/DAM/stats/publications/2015/ECE_CES_37_WEB.pdf
OSASUNAREN MUNDUKO ERAKUNDEA. *Osasunaren Mundu Erakundeko datu-biltegia*⁹⁹. Hemen eskura daiteke: <http://apps.who.int/gho/data/?theme=home>

EUROPAR BATASUNA

EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women survey*¹⁰⁰. Hemen eskura daiteke: <http://fra.europa.eu/en/news/2015/fra-violence-against-women-survey-dataset-released>

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Gender equality index. Index 2012*. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/gender-statistics/gender-equality-index>

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Database of administrative data sources and statistical products on gender-based violence in the UE*. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/gender-based-violence/administrative-data-sources>

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Violence against women. Indicators*¹⁰¹. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/gender-statistics/women-and-men-in-the-eu-facts-and-figures/area/92#area-indicators>

EUROSTAT. *Gender statistics*. Hemen eskura daiteke: http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Gender_statistics

⁹⁷ Ikus 3. helburua: Genero-berdintasuna eta emakumearen ahalduntzea sustatzea. Adierazleak: 3.2. Soldatapeko enplegua duten emakumeen ehunekoa, nekazaritzako sektoretik kanpo; 3.3. Emakumeek estatu-tako parlamentuetan betetako aukien ehunekoa.

⁹⁸ Hainbat iturritako datuak biltzen ditu Nazio Batuen Erakundea-Emakumeak organizazioak, aldiro emakumeen aurkako indarkeriaren egoerari buruzko laburpen bat egiteko. Hemen eskura daiteke: <http://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/facts-and-figures>

⁹⁹ Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko adierazleak jasotzen ditu. Hemen ikus daiteke: <http://apps.who.int/gho/data/node.main.SEXVIOLENCE?lang=en> Hainbat azterlanen oinarri da; esaterako, honako azterlan honena:

OSASUNAREN MUNDUKO ERAKUNDEA. *Global and regional estimates of violence against women: prevalence and health effects of intimate partner violence and non-partner sexual violence*. Italia: Osasunaren Munduko Erakundea, 2013. Hemen eskura daiteke: http://apps.who.int/iris/bitstream/10665/85239/1/9789241564625_eng.pdf

¹⁰⁰ Hemen daude eskuragarri genero-indarkeriaren gainean ustatutako datu eskuragarriak: <http://fra.europa.eu/en/vaw-survey-results>

¹⁰¹ Beijinggo Plataformak ezarritako 12 arloetan biltzen ditu datuak, eta horietako bata da E. Emakumeen aurkako indarkeria. Hemen ikus daitezke 12 arloak: <http://eige.europa.eu/gender-statistics/women-and-men-in-the-eu-facts-and-figures>

ESTATUA

ESTADÍSTICA INSTITUTO NAZIONALE. *Etxeko eta Generoko Indarkeriaren gaineko Estatistika*¹⁰². Hemen eskura daiteke: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=%2Ft18%2Fp468&file=inebase>

OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. *Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren Estatistika Ataria*. Hemen eskura daiteke: <http://estadisticasviolenciagenero.msssi.gob.es/>

BARNE MINISTERIOA. VioGén: *Genero-indarkeriako egoeretan jarraipen osoa egiteko sistema*¹⁰³. Hemen eskura daiteke: <http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/violencia-contra-la-mujer/sistema-viogen>

JUSTIZIA MINISTERIOA. *Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko erregistro nagusia*¹⁰⁴. Hemen eskura daiteke: <http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Portal/es/areas-tematicas/registros/registro-central-para>

SOZIOLOGIA IKERKETEN ZENTROA. *Genero-indarkeriari buruzko barometroak*¹⁰⁵. Hemen eskura daiteke: <http://www.cis.es/cis/opencms/ES/index.html>

EUSKADI

EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko estatistika-informazioa*. Hemen eskura daiteke: <http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/informazioa/ebaluaketa/>

Bigarren mailako iturriak

EUROPA

EUROBAROMETROA. *Special Eurobarometer 344. Domestic Violence against Women Report. February – March 2010*. Brusela: Europar Batasuna, 2010. Hemen eskura daiteke: http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_344_en.pdf

EUROPAKO PARLAMENTUA. *Flash Eurobarómetro 341. Gender inequalities in the European Union*. 2012. Hemen eskura daiteke: http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2012/femme_mars/rapport_en.pdf

EUROBAROMETROA. *Special Eurobarometer 428. Gender Equality Report. November – December 2014*¹⁰⁶. Europar Batasuna, 2015. Hemen eskura daiteke: http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/files/documents/eurobarometer_report_2015_en.pdf

¹⁰² 2011. urtetik aurrera bildutako datuak dira.

¹⁰³ Hileroko estatistikak ematen ditu. Helbide honetan eskura daitezke: <http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/violencia-contra-la-mujer/estadisticas>

¹⁰⁴ Datuak erazteko aukera ematen du (<http://www.poderjudicial.es/cgpi/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero/Actividad-del-Observatorio/Datos-estadisticos>) eta estatistika-txostenak egiten ditu (<http://www.poderjudicial.es/cgpi/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero/Actividad-del-Observatorio/Datos-estadisticos>)

¹⁰⁵ Konsultatu hurrengo epigrafea emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko barometroen berri izateko.

¹⁰⁶ Emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa da txosten horren 4. kapitulua.

EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women: an EU-wide survey. Main results*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2014. Hemen eskura daiteke: http://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-main-results-apr14_en.pdf

EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS. *Violence against women: an EU-wide survey*¹⁰⁷. 2014. Eskuragarri linean: http://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-technical-report_en.pdf

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Administrative data sources on gender-based violence against women in the EU Current status and potential for the collection of comparable data*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2014. Hemen eskura daiteke: http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/MH0113492ENN_PDF.Web_.pdf

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Gender Equality Index 2015. Measuring gender equality in the European Union 2005-2012: Report*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2015. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/mh0215616enn.pdf>

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. *Study on international activities in the field of data collection on gender-based violence across the EU*. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 2015. Hemen eskura daiteke: <http://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/mh0215616enn.pdf>

ESTATUA

EMAKUMEAREN INSTITUTUA. BERDINTASUN POLITIKEN IDAZKARITZA NAGUSIA. *III Macroencuesta sobre la violencia contra las mujeres. Informe de resultados. 2000ko apirila*, Madril: Emakumearen Institutua. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, 2006. Hemen eskura daiteke: <https://www.usc.es/export/sites/default/gl/servizos/oix/descargas/IIImacroencuesta.2006.IM.pdf>

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *I Informe anual del Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer. Informe ejecutivo. 2007. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2007. Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/informesAnuales/informes/informe2009.htm>

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *II Informe anual del Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer. Informe ejecutivo. 2009. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2009. Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/informesAnuales/informes/informe2009.htm>

¹⁰⁷ Laburpen exekutibo bat irakur daiteke gaztelaniaz: http://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-factsheet_es.pdf

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *III Informe anual del Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer. Informe ejecutivo. 2010. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2010. Hemen eskura daiteke:

<http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/estudio/iiiInforme.htm>

INDARKERIA IKERTZEKO UNIBERTSITATE INSTITUTUA-ICRS. *Informe. Mujeres asesinadas por su pareja. España (2000-2009)*. Madril: Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea, Reina Sofía Zentro Institutua, 2010.

KATALUNIAKO EMAKUMEEN INSTITUTUA; BARTZELONAKO UDALEKO EMAKUMEEN ZINEGOTZIGOA. *Encuesta de violencia machista en Cataluña*. Bartzelona: Herrizaingo, Harreman Institutuzional eta Partaidetza Saila, 2010.

MEIL, G. *Análisis sobre la macroencuesta de violencia de género 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2012 Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2012/pdf/IV_Macroencuesta_2011.pdf

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *IV Informe Anual del Observatorio estatal de violencia sobre la mujer. 2011. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2012. Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/estudio/ivInforme.htm>

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *V Informe Anual del Observatorio estatal de violencia sobre la mujer. 2012. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen Zentroa, 2013. Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/informesAnuales/informes/informe2012.htm>

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *VI Informe Anual del Observatorio estatal de violencia sobre la mujer. 2012. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen Zentroa, 2014. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/informesAnuales/informes/VI_Informe_Anual.htm

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *VII Informe Anual del Observatorio estatal de violencia sobre la mujer. 2013. urtea*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen Zentroa, 2015. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/observatorio/informesAnuales/informes/VII_Informe_Anual.htm

CIS. SOZIOLOGIA IKERKETEN ZENTROA. *Percepción social de la violencia de género. Noviembre 2012*. Hemen eskura daiteke: http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14086

CIS. SOZIOLOGIA IKERKETEN ZENTROA. *Percepción de la Violencia de Género en la adolescencia y juventud. Ekaina 2013*. Hemen eskura daiteke: http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14106

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. ETXKO INDARKERIAREN ETA GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BEHATOKIAREN SEKZIOA. *Informe sobre víctimas mortales de la Violencia de Género y de la Violencia Doméstica en el ámbito de la pareja o ex pareja en 2013*. Hemen eskura daiteke: <http://www.poderjudicial.es/stfls/CGPJ/OBSERVATORIO%20DE%20VIOLENCIA%20DOM%20C3%2089STICA/INFORMES/FICHERO/20151106%20Informe%20v%20C3%20ADctimas%20mortales%20VG%20C3%A1mbito%20pareja-2013.pdf>

MEIL, G. *Percepción social de la violencia de género*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2014 Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/estudio/percepcion2014.htm>

OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. GIZARTE ZERBITZUEN ETA BERDINTASUNERAKO ESTATU IDAZKARITZA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA. *Violencia de género. Boletín estadístico anual*. 2014. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/boletines/boletinAnual/docs/Boletin_Estadistico_Anual_2014.pdf

OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015. Avance de resultados*. 2015. Hemen eskura daiteke: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/AVANCE_MACROENCUESTA_VIOLENCIA_CONTRA_LA_MUJER_2015_05-04-15.pdf

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *VII Informe anual del Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer*. 2013. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Argitalpen-zentroa, 2015 Hemen eskura daiteke: <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/estudio/viiforme.htm>

EUSKADI

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Gizarte Ekintza Saila. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintza Saila, 2009. Hemen eskura daiteke: http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/2009ko_MakroInkesta.pdf

PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: pertzepzioa eta herritarren iritziak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza, 2015.

EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA. *2009ko Urteko Txostena. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2010. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_s_def/adjuntos/informe.2009.mujeres.victimas.violencia.genero.capv.cas.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA. *2010eko Urteko Txostena. Genero-indarkeriaren emakume biktimak EAEn*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2011. Eskuragarri hemen:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_u_def/adjuntos/informe.2010.mujeres.victimas.violencia.genero.capv.eus.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA. *EAEn genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. 2010eko Balantzea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, 2011. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_u_def/adjuntos/balance.2010.violencia.genero.capv.eus.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA. *Genero-indarkeriaren emakume biktimak EAEn. 2011ko emaitzak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, 2012. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_u_def/adjuntos/balance.2011.mujeres.victimas.violencia.genero.capv.eus.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA. *Genero Indarkeria jasaten duten emakumeak EAEn. 2012ko lehen sei hilekoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, 2012. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_u_def/adjuntos/balance.2012.violencia.genero.capv.semestre1.eus.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA. *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna, 2011*. Bilbo: Eusko Jaurlaritza, 2012.

EMAKUNDE. Emakumeen kontrako indarkeria Euskal Autonomia Erkidegoan. Datu estatistikoak 2012. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_u_def/adjuntos/violencia.datos.estadisticos.2012.eus.pdf

EMAKUNDE. Emakumeen kontrako indarkeria Euskal Autonomia Erkidegoan. Datu estatistikoak 2013. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_u_def/adjuntos/violencia.datos.estadisticos.2013.eus.pdf

EMAKUNDE. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoaren azterketa eta interpretazioa. Datu estatistikoak 2014. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_s_def/adjuntos/violencia.datos.estadisticos.2014.cas.pdf

EMAKUNDE. Emakume izateagatik EAEn erailak izan diren emakumeak, 2002-2014. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_s_def/adjuntos/victimas.2002.2014.pdf

EMAKUNDE. Emakumeen kontrako indarkeria EAEn. 25N txostena. 2015. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/e_s_def/adjuntos/informe_25n_2015.pdf

Erreferentziazko instituzioak eta erakundeak emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean

NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. NBE EMAKUMEAK. <http://www.unwomen.org/es>

EUROPAN

EUROPAKO KONTSEILUA. ISTANBUL CONVENTION. Action against violence against women and domestic violence. <http://www.coe.int/en/web/istanbul-convention/home>

EUROPAKO BATZORDEA. JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/gender-violence/index_en.htm

EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY. <http://eige.europa.eu/>

EUROPAKO PARLAMENTUA. EMAKUMEAREN ETA GENERO-BERDINTASUNAREN BATZORDEA. <http://www.eppgroup.eu/es/femm>

EUROPAR BATASUNA. OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGENTZIA. <http://fra.europa.eu/es>

WOMAN AGAINST VIOLENCE EUROPE (WAVE). <http://www.wave-network.org/>

ESTATUA

INDARKERIA AZTERTZEKO REINA SOFÍA ZENTROA. www.centroreinasofia.es
MUJERES FUNDAZIOA. EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. www.observatorioviolencia.org/

EMAKUMEAREN INSTITUTUA. <http://www.inmujer.es>

GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO ERAKUNDE FEMINISTEN ESTATUKO SAREA. www.redfeminista.org

EUSKADI

DELITUAREN BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA. <http://www.justizia.net/biktimari-laguntza>

EMAKUNDE. www.emakunde.euskadi.net

BIZKAIKO GENERO-INDARKERIAREN BEHATOKIA.
http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html